



Lau Haizetara

Gerra Zibilaren ondorengo erbestez

Josu Chueca (koord.)

NEU
ueu

LAU HAIZETARA

GERRA ZIBILAREN ONDORENGO ERBESTEAZ

Josu Chueca
Iñaki Goigana
Xabier Irujo
Emilio Lopez Adan «Beltza»
Patri Urkizu

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2010

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Josu Chueca

ISBN: 978-84-8438-332-1

Lege-gordailua: BI-3361-2010

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo

Azalaren diseinua: Igor Markaida

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

SARRERA	7
1936-1939 ONDORENGO ERBESTEAZ IKUSPEGI OROKORRA, <i>Josu Chueca</i>	9
EUSKAL ERBESTERATUEN MUNDURA HURBILTZE BIOGRAFIKO ZENBAIT, <i>Iñaki Goiozana</i>	31
JOSE ANTONIO AGIRREREN ERBESTEKO JAURLARITZAREN HISTORIA LABURRA (1936-1960), <i>Xabier Irujo</i>	81
EUSKAL ANTZERTIA ERBESTEAN (1937-1959), <i>Patri Urkizu</i>	147
EUSKALDUNEN ETENGABEKO ERBESTEAZ, <i>Emilio Lopez Adan</i>	159

Sarrera

Euskal talaietatik, Gerra Zibilak sorrarazi zuen 1936-1939 ondorengo erbestera hurbiltzea helburu izan genuen, 2009ko udan, Euskal Udako Unibertsitatearen bidez antolatu genuen “Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz” deituriko ikastaroan. Astebetez aritu ginen, Iruñeko Hizkuntz Eskolako geletan, baita Donibane Garaziko zitadellera, hau da, gerra-garaian, euskal umeen aterpe-eskolara eta Gurseko kontzentrazio-zelaira egindako irtenaldian ere, gai hori jorratzeko.

Eta nire uste apalean, denbora motza bazen ere, hainbat begirada sakon eta pizgarri emateko nahikoa izan zen. Hor agerian gelditu zen Espainiako estatutik jendea indarrez kanporatzea ohiko jarduna izan dela. Izan ere, aro garaikidean izan ziren aldaketa politikoak zirela medio, etengabeko erbesteratzeak suertatu ziren. Alde batekoak zein bestekoak, hala nola frantsestuak, karlistak, liberalak, errepublikanoak, ezkertiarak... Baina, ezbairik gabe, deserriratzetik handiena, kopururen aldetik itzelenaren izan zelako eta gizarte-klase oro jo zituelako, 1936-1939 Gerra Zibilaren ondoriozkoa izan zen. Horren inguruko zenbakien dantza dugun arren, ikertzaile guztiek 500.000 erbesteratutik gorako multzoak kalkulatu dituzte erbesteratze itzel hori definitzeko. Bestetik, mugimendu horrek mugetatik kanpo eramane zituen buruzagi politikoez gain, estatuko kultur eragile nagusiak kanporatzeak, askotan, alde kultural hori azpimarratzera eramane ditu ikertzaileak eta historialariak, baina erbesteratze horrek duen jite orokorra eta herrikoia, klaseen artekotatasunaren islaren ezaugarri saihestezina dugu. Izan ere, aipatutako horiekin batera, milaka andre, umek, miliziano ohik, gudarik, langilek... erbestera jo behar izan zuten. Horietako askok, gainera, betiko edo urte askotarako. Jakina denez, gerrarekin batera ezarri zen diktadura frankistaren iraupena zela-eta, erbesteratze horrek oso luze jo zuen, XX. mendeko bigarren aldia zipristinduz eta, era berean, munduko lau haizetara adierazpide kulturalak zein ekimen politikoak zabalduz.

Euskal Herritik begiratuta, ezaugarri komun horiei hainbat bereiztasun gehitu dakizkieke. Lehena: erbesteratze-mugimenduen artean, goiztiarrenetakoa izatea. Izan ere, 1936ko udan bertan hasi ziren ihesaldiak eta deserriratzek, Nafarroa eta Araba, ia-ia bere osotasunean, matxinoen esku gelditu zirelako. Bigarrena: beste erbesteratze batzuk baino antolatuagoa izatea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak hainbat kanpoko ordezkariak 1936az geroztik abiarazteak lagundu zuen, neurri batean,

euskal erbesteratuen ibilbidea, laguntzak jasotzeko tenorean, beste irtenaldi hainbat prestatzeko, etab. Eta amaitzeko baina ez horregatik desberdintasunik txikiena: diktadura frankistan zehar, bereziki, 1960ko hamarkadaz geroztik, belaunaldi berriek bultzaturiko ekimenek hauspotu zituzten erbesteratzeak, beste kate-maila ugari, gaur egun arte luzatu izan direnak, erbestearen tragediak jarraitzea ahalbidetu dutenak. Gaur egungo lotura hori, zoritxarrez, ez da mugatzen mundu osoan zehar dagoen euskal deportatuen eta erbesteratuen kolektibora. Europako mugak, ia-ia harresi gainidezina bilakatu dira kanpoko etorkinentzat eta herrialde pobreentzat. Askotan, Europar Batasunak arautzen dituen legeek antza ikaragarria dute 1939-1945 abagune latz hartan, gauzatu ziren lege baztertzailleekin, Espainia-ko gerratik alde eginez atera ziren galtzaileen kontra jo zutenak, baita ondorengo urteetan, judu, gorri eta «zital» guztien aurka legistatu zituztenak. Egun Europaren izenean zabaltzen ari den arrazismo instituzionala, eskuinak zein sozialdemokrasiak sostengatuakoa, Melillako murruan edo Pas de Calaiseko hesietan, Hendaiako edo Rivesalteseko «Etorkinen Harrera Esparru»etan 1939ko kontzentrazio-zelaiak eta errefuxiatuen aurkako neurri errepresibo antzekoak berpizturik daude.

Egoera anitz horretara hurbildu ginen 2009ko uzatailaren 20 eta 24 bitartean. Talaia eta begirada desberdinen bitartez, ikastaro horretan parte hartu genuen guztiok hortxe esandakoa, eta hainbatek zer edo zer gehiago ere, izkiriatu ostean aukera izan dugu UEUri esker argitara emateko. Alde eta bilakaera politikoez gain, ekimen kultural hainbat eta 1960ko hamarkadaz geroztik, erbestean elkartu ziren belaunaldien arteko harremanez eta kontuez aritu ginen, dozena ikasle jator eta finen aurrean. Hor esandakoa eta zerbait gehiago bilduta dugu ondorengo orriotan, baina den-dena jarritako gaiarekin erabat lotuta. Agian jendea, liburu honekin gosez geldituko da gaiak, horrelako ikastaroek eskaini ditzaketen baino askoz ertz eta esparru gehiago dituelako. Baina euskara hutsez ari den Euskal Udako Unibertsitatearen aldetik urrats bikaina izan da gai honi lekua egitea bere ikastaroen artean, baita, oraingoan, bere argitalpenen artean ere. Gai honekiko grinarik duen irakurleari dagokio liburu honetan dauden lerroetan barrena asmoz eta gogoz ibiltzea. Hala izan dadila.

1. 1936-1939 ondorengo erbesteaz ikuspegi orokorra

Josu Chueca, (EHU-UPV) UEUko Historia Saila

1.1. ERBESTERATZEA NOIZNAHI

Sarri askotan, Espainiako estatuaren historian erbesteratzeak gauzatu izan dira. Hainbat abagune politikotan, gudetan eta borrokaldietan suertatu diren garaituek zein disidenteeek mugaz harantz jo behar izan dute behin baino gehiagotan. Erdi Aroan edo Aro Berrian batasun eta betibatekotasun erlijioso politikoa sustatzea helburu zuten indarrezko kanporatze masiboak ahantzi gabe, gizaldi garaikideak latzenak izan dira garaituak indarrez kanporatzeko joerari dagokionez.

1808-1814 bitartean suertatu zen Independentzia Gerra delakoaren ondorioz, liberalak eta frantsestak atzerriratuak izan ziren legez, Karlistaldiak zirela-eta, Karlos V.a zein VII.a erregeen nahien partaideek patu bera jasan zuten. Seiurteko demokratiko deiturikoa amaitu zenean, 1874az geroztik, korrante eta erakunde ezkertiarretako bazkideen erbesteratze-aroa zabaldu zen. Izan ere, hortik aitzina, errepublikanoek, anarkistek eta geroago, baita sozialistek ere, une desberdinetan, mugaz bestaldera jo behar izan zuten burua salbatzarren. Hala eta guztiz ere, aurrekari horiek guztiak izan baziren ere, atzerriratze-mugimendurik handiena eta, bere iraupenaren aldetik, luzeena, 1936-1939ko Gerra Zibilaren ondoriozkoa dugu.

1.2. 1936AN HASI ZEN ERBESTEALDIA

Oso ohikoa izan da 1939. urtean bertan, hau da, gerraren bukaera militar zehatzean, mugimendu horri hasiera ematea, baina askoz egokiagotzat jotzen dugu 1936ra eramatea haren abiapuntua. Izan ere, Molak, Sanjurjok, Francok eta enparauek urte horretako uztailean jo zuten estatu-kolpea eta jarraian, lehen uneetatik, erbesteratzeak abiatzen hasi ziren. Azaldu diren testigantza ugariren bitartez, ondo dakigu, faxisten matxinada gauzatutakoan, ehunka iheslarik mugaz bestaldera jo zutela babes edo aterpe bila.

Gerra-fronteak egituratzen ari ziren bitartean, etsaien esparruan gelditu zirenak alde egiten saiatu ziren, hala nola eskuindarrak Madriletik zein Kataluniatik, edo, alderantziz, ezkertiarrek militar matxinatuek kontrolpean zituzten Zaragoza, Nafarroa, Galizia bezalako eskualdeetatik. Gerrak finkatu zituen bi aldeetan, nazionalenean zein errepublikanoenean, izan ziren jokabide errepresiboetatik alde

egiteko, ahal izanez gero, erbesteko bidea hartu zuten asko eta asko, 1936ko udan bertan. Dena den, garaile suertatu zirenen aurreratze militarrek hauspotu zituzten lehen erbesteratze masiboak, herriak ia-ia osorik, milizianoen multzoak, haurrak eta helduak, hitz gutxitan esanda, klase guztietako jendea kanporatuz.

Bidasoako frontetik matxinatuek burututako aurrerapausoak zirela medio, Irun izan zen lehen hiria bere osotasunean hustu egin zena, Hendaiaiko nahiz Behobiako zubietatik, Frantzia aldera jotzeko. Gerra hasi zenetik, jende-irteerarik handiena izan zen. Estreinako exodo handia izan zen, gudaren ondorioz suertatuko ziren beste hainbaten aitzindari zuzena: milizianoez gain, emakumeak, haurrak, langileak, intelektual zein eskolagabeak, gizarte-esparru guztietako partaideek mugaz bestaldean laketu behar izan zuten, militar matxinatuek zekartzaten gerra era ankerretatik alde egiteko.

Atzerrirantz joan zen bigarren jende-uholdea, Ipar Fronteko Bizkaiaren aurkako erasoaldiaren eraginez gertatu zen. Jakina denez, 1937ko martxoaren 31z geroztik, frankistek oldarraldi hori garatu zutenean, egundoko indar-erakustaldia egin zuten, artillerian eta hegazkinerian zuten nagusigoa erabiliz. Horren ondorioz, airetik egindako bonbardaketek milaka umeren deserriratzea ekarri zuten. Bizkaiko itsas portuetatik Frantzia aldera zein Belgikara, Britainia Handira eta Sobietar Batasunera jo zuten ontzien bitartez, haurren erbesteratze berezi hori gauzatzeko. 20.000 umek baino gehiagok sortetxea lagata, gerrak iraun zuen bitartean bakea izan zuten erbestean (Legarreta, 1986; Goitia, 1991; Alonso, 1998; Sierra, 2009).

Gehienak gudaren amaierarekin itzuli baziren ere, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunera (SESB) joandako aunitzek diktadura frankista indarrean egon zen bitartean luzatu behar izan zuten deserriratze hori. Umeendako eraturiko koloniak, ikastetxeak zein barnetegiak Frantziako estatuan kokatu zituzten batik bat. Baina, era berean, esanguratsuak izan ziren Britainia Handikoak, Belgikakoak eta SESB urrunekoak. Haurren exodo hori, Ipar Frontea oso-osorik frankisten esku gelditu zeneko aitzindari zuzena suertatu zen. Izan ere, Bizkaiko, Kantabriako eta Asturiaseko portuetatik ere, milaka milizianok alde egin behar izan zuten 1937ko irailean eta urrian, frankistek zekartzaten mota guztietako zigorretatik alde egiteko.

Errefuxiatuen hurrengo joanaldia, urtebete beranduago, errepublikanoek Aragoi Garaia galdutakoan suertatu zen. 1938ko martxotik ekaina bitartean, milaka soldaduk eta Cincako haraneko herritar askok Pirinioez bestaldera jo zuten, Lafor-tunada, Parzan eta Bielsa bezalako herriak hustuz. «Bielsako poltsa» deitu zuten hura, ihes jendetsu horren bitartez desegin zenean, 24.000 erbesteratu gehiago Frantziaratuak ziren, Aragnouetik eta Arreautik hain zuzen ere (Association Memoire Collective en Bearn, 1995; Ripoll, 2005). Horietatik asko, Perpinyan barrena Kataluniara itzuli ziren, hor zegoen armada errepublikanoan berriro ere parte hartzeko. Baina jakina denez, lurralde horretako frontean, Kataluniakoan beraz, Ebroko gudaldia zela medio, Errepublikaren patua behin betiko erabaki izan

zen. Ibai horretako bi aldeetan, 1938ko uztailearen bukaeran, armada errepublikanoak buruturiko erasoaldia frankistek deuseztatu zuten eta Juan Negrin gobernu-buruak egindako proposamena —bake-eskaintza, Nazioarteko Brigadak gudatik aldaratzea— biltzen zuena ez zuten aintzat hartu faxistek, Katalunian barrena aurreratu ahala, Bartzelona eskuratzea gero eta hurbilagoztat jotzen zutelako.

Izan ere Katalunia osoaz jabetzeko azken oldarrari, 1938ko abenduaren 23an ekin zioten. Gabonak izan arren, beren burua «gurutzatu»tzat jotzen zutenek, Lleidatik Tarragona erasotu zuten Juan Yagüe eta Jose Solchagaren aginduetara. Aipatutako hiri hori bereganatu ostean, iparraldera jo zuten, Bartzelona bera eta Girona hiriburuak eurenganatu ez ezik, ekialdeko Pirinioetako mugak ere eskuratzeko. Berehala bete zituzten helburu horiek eta Bartzelonara frankistak hurbiltzea eta 1939ko urtarrilaren 26an bertaratzea, erbesteratze jendetsuenaren akuilu zuzena izan zen.

1.3. BETIKO ATZERA-EGITEA ETA FRANTZIAKO HARRERA

Gertaera horiek zirela medio, jendetza ikaragarriak errepideetara eta trenbideetara jo egin zuen, Gironan barrena, Pirinioetako mugetara iristeko asmoz. Bartzelonan, ordura arte, zeuden hiru gobernuak, Negrinek gidatzen zuena, hau da, Espainiakoak, Lluís Companysen Generalitatekoak eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak, Jose Antonio Agirrek zuzendutakoak, hiriburu hori laga zuten, erbesteratze masibo horren lekuko eta protagonista zuzenak izanik. Figueresko gotorlekuko zalditegian burututako Gorteen azken bilkura, buruzagiek eta ordezkari errepublikanoek egindako azken ekimen instituzionala izan zen. Bilera burutzeko erabilitako tokia, hots, mugatik gertuen zegoen azken kaserna eta ordezkarien parte-hartze apala, hortxe bildutakoan porrot hurbilaren seinaleak ziren. 60 diputatu inguru elkartu ziren, ordurako ibiltari bihurtuta zegoen Parlamentuko azken bileran, bonbardaketen oihartzun pean eta frankistak burutzen ari ziren oldarren ikaraz. Hortik gertu, mugetara hurbiltzen ari zen jendetza gero eta arazo latzagoa bihurtzen ari zen Frantziako gobernuarentzat, honek ez baitzuen gizatalde hori bere lurraldetik igarotzerik nahi (Zugazagoitia¹, 1977; Dreyfus, 1999; Cubero, 2004; Zenbait egile, 2000).

Abagune horretan, Espainiako Kanpo Arazoetako ministroa zen Julio Alvarez del Vayok bere homologo frantziarra zen Georges Bonnet jaunari eskatu zion, 150.000 zibil, hau da, umeak, emakumeak, adineko jendea... Frantzian sartu ahal izatea. Baina, alferrikako eskaera suertatu zen. Ezezkoa jasotzearekin batera, Edouard Daladierrek gidatzen zuen gobernuak mugak itxiarazi zituen eta makina bat tropa, jendarmeria eta guardia errepublikanoa, bidali zituen muga-bideak eta pasabideak zaintzeko. Erbesterantz zihoazen milaka lagun horien aurkako hesia gogortzeko.

1. Zugazagoitia, J. (1940): *Historia de la guerra en España*, Buenos Aires, berrargitaratua Parisen 1968an, eta Bartzelonan 1977an *Guerra y vicisitudes de los españoles* izenburuarekin.

Jarrera horrek bat egiten zuen Frantziako agintariek zuten Espainia frankistarekiko hurbiltasun-politikarekin. Izan ere, orduan Burgosko gobernuarekin izaten ari ziren elkarrizketak: Frantziatik Leon Berardek eta Espainia aldetik Francisco Gomez Jordanak egindakoak, Francoren gobernuaren onespena gauzatzeko. Era berean, bat egiten zuen komunikabide frantziar ugari burutzen ari ziren erbestertzeaz zeuden errepublikano horien kontrako kanpainarekin. Egunkari horien arabera, mugetara hurbiltzen ari zirenak «gaizkileak», «gizateriaren hondarra», «jendaila» eta antzekoak ziren eta 1938az geroztik, indarrean jarri zituzten dekretuak, Frantziatik uxatu behar zituzten «indesirables» edo gizatxar direlakoan artean, peto-peto sartzen ziren. Hori dela-eta, Frantziaratzuz gero, merezi zutena zen atxilotzea edo beste lurralde batzuetara kanporatuak izatea.

Azken batean, milizianoen eta populazioaren segizio jendetsuak larri-larri gauzatu zuen «Retirada» deiturikoa baita «Fraternité, Egalité, Liberté» —Anaitasuna, Berdintasuna, Askatasuna— lelo duen Errepublikara barneratzea ere. Eten-gabeko bonbardaketek zanpatu zituzten, triskantza latzak burutuz, mugatik gertu zeuden Figueres edo Puigcerda bezalako herriak eta ingurukoak. Bestalde, mugetako pasaguneetara iritsitakoan, gobernu frantziarrak agindutako muga itxierak jendetza ikaragarria hortxe bertan metatzea ondorioztatu zuen. Egoera nekeza bezain latza sorraraziz: alde batetik, frankistak orpoz orpo zituzten, eta bestetik hesiak erabat itxita zeudela, jendarmeez, soldaduez eta «spahi» deitutakoek ezinezkoa egiten zuten muga horiek gainditzea.

Hala ere, egoera horrek ez zuen gehiegi iraun. Larrialdiak derrigortuta, Frantziako agintariek amore eman behar izan zuten eta, urtarrilaren 28an, baimendu zuten emakumeak eta haurrak igaro ahal izatea. Era berean, egun batzuk beranduago, otsailaren 5ean, milizianoei ere, zabaldu zieten muga. Hori dela-eta, Le Perthusen, Aresko lepoan, La Vajolen eta Cerbere aldean, metaturiko jendetza, nola edo hala, hasi zen jaisten Prats de Mollora, Mont Saint Luisera, Arles-sur-Techera edo Perpinya aldera.

Muga zeharkatutakoan, jendarmeez milizianoak desarmatu eta goitik behera miatu ostean, gertuen zeuden herrietako kontzentrazio-guneetara, eta batez ere, hurbil zeuden Argelès-sur-Mer, Saint Cyprien eta Le Barcarèsko hondartzetara eraman zituzten. Leku horietan, hasieran, inongo barrakoirik gabe, hondarraren gainean, hasi ziren sortzen estreinako kontzentrazio-esparruak.

Kataluinatik egindako «Retirada» edo atzera-egite horrek Gerra Zibilaren erre-fuxiatu kopururik handiena sorrarazi zuen. Ikertzaileek eta historialariek azaldu dituzten zenbakiak, nahiko aldakorak ditugun arren, guzti-guztiek azpimarratu dute, gerra horren ondorioz izandakorik itzelena izan zela, 500.000 gizaki inguruk alde egin baitzuen. Ildo honetatik, ontzat eman ditzakegu, une desberdinetan, Javier Rubiok eta Juan Bautista Vilarrek eman dituzten zenbakiak, gerra osoan zehar izan ziren irteera masiboak biltzen dituzten honako hauek alegia (Rubio, 1977; Vilar, 2006):

1. Gipuzkoako kanpainan zehar (1936ko abuztu-irailean)	15.000
2. Ipar Frontean (Bizkaia, Kantabria, Asturias) frankistek egindako erasoaldia (1937ko ekain-urrian)	160.000
3. Aragoi Garaiko ebakuazioan (1938ko apiril-ekainean)	24.000
4. Kataluniatik atzera-egitean (1939ko urtarril-otsailean)	470.000
5. 1936-1939 bitartean egindako atxilotuen trukeak	40.000
6. Madrildik-Levantetik egindakoak (1939ko martxo-apirilean)	15.000
Guztira	724.000

Zailagoa dugu jakitea, erbesteratu horietatik zenbaterik eta zeintzuek eutsi zioten euren deserriratzeari, Gerra Zibilaren bukaeraz edo II. Mundu Gerraren amaieraz, 1945az haruntzago. Izan ere, gobernu frantziarrak bultzaturiko aberriratzeko azkar eta masiboen aldeko politikak jarraipen oso zabala izan zuen. 1939ko otsailetik uztaila bitartean bereziki, konboi ugariren bitartez, milaka errefuxiatu Hendaiaratu zituzten, Espainia frankistara bueltatzeko². Gerra amaitu bezain laster, erbesteratuen multzoa 450.000 lagunekoa zen eta, horietatik, 430.000 inguru Frantzia kokaturik zeuden. Behin betiko erbesteratuen kopuruari dagokionez, 1944ko abenduan, egindako kalkuluen arabera, 162.000 izatera iristen zen. Horietatik gehiengoak Frantziako mugen barnean jarraitzen bazuen ere, hainbat errefuxiatu talde mardul, Mexikon, Argentinan, Uruguain, Venezuelan edo SESBen hurrenez hurren bilduak ziren.

Miloi-erdi baten inguruan zenbakitu zituzten mugaz bestaldera orduan joandakoak. Euskaldunei dagokienez, 40.000 eta 60.000 arteko zenbakiak azaldu ohi dira, geroago egindako txostenetan. Kopuru horien munta zehatzari buruzko eztabaida aparte lagata, jakina bezain eztabaidaezina da zer-nolako politika garatu zuen Frantziako gobernuak horien guztien aurka. Izan ere Edouard Daladier gobernuburua eta Albert Sarraut barne-ministroa, ahalik eta errefuxiatu gehien Espainiaratzen saiatu ziren, baina hori gertatzen ez zen bitartean, kontzentrazio-zelaietan sartzen jarraitu zuten.

2. Gure liburuan *Gurs, el campo vasco* (Chueca, 2007) landu genuen zelai honetatik gauzatu zen «itzulera-irteera operazioa». Paueko artxiboetan zein Euskal Nazionalismoaren Agiritegian ugari dira horren gaineko agiriak. 1939ko ekainean egindako estatistika batek argi eta garbi uzten du: Espainiaratuen kopurua handiena (747) den arren, Frantziako beste herri batzuetara (Tolosa, nekazari-landetara, Landetara, La Roseraiko ospitalera...) joandakoak beste hainbeste izan ziren. Horiei gehitu behar zaizkie, Amerika aldera ontziratutakoak. Dena zailtzeko, askotan nahiz eta helmuga bat azaldu beraien fitxetan, beste leku batera joan ziren. Ameriketara iritsitako askok, kontzentrazio-zelaietatik ateratzeko, Frantziako hainbat herritara zihoazela esan zuten. Ikus honetaz, «Campo de concentración vasco de Gurs. Relación nominal y resumen estadístico de los individuos salidos de este campo desde su fundación hasta el 30 de junio de 1939», Abertzaletasunaren Agiritegia (GE-551-1).

Zenbakiak zenbaki, 200.000tik gorak uxatu zuen Espainiaratzearen aukera. Hori dela-eta, horientzat atondu behar izan zituzten agintari frantziarrek kontzentrazio-zelai berriak, Agden, Bramen, Rivesaltesen... 1938az geroztik, indarrean zuten desbideratze errepresiboari eutsiz. Latzena etortzekoa bazen ere, gogortze errepresiboa gero eta nabarmenagoa zen Daladierrek eta Reynaudek gidaturiko gobernuen garaietan, 1938-1940ko tartean, alegia. Alde batetik, dekretu batzuen bitartez, zigortu nahi zuten «indésirable» edo zitalen gizarte multzoa nabarmen zabaldu zuten bide batez juduak, komunistak eta beste herrialdeetatik iritsitako erre-fuxiatuak zanpatzeko asmoz. Bestetik, Espainiatik alde egindakoentzat ugaritu zituzten kontzentrazio-esparruak gero eta latzagoak bilakatu ziren, han egondako askoren testigantzek adierazi duten legez.

1.4. ERBESTERATZE OROKORRA ETA BETIRAKO

Iragankorra ala behin betikoa, erbesteratze hori, orduko Espainiako gizartearen isla zuzena izan zen. Askotan, baliteke gehiegitan, erbesteratuen artean gailentzen ziren buruzagi politikoak zein intelektualak egotea azpimarratu dute. Dena den, erbesteratu gehienak, langileak, nekazariak edo industria-arlokoak genituen. 1931ko konstituzio errepublikanoaren lehen atala ontzat joz, «klase guztietako langileek» osaturiko «Errepublika»k gorpuztu zuen 1939ko indarrezko migrazioa. *L'Illustration*eko berriemaile berezia zen Jean Clair-Guyotek klaseen arteko bat-egite horretaz oso argiro idatzi zuen, Le Perthusetik: «Espainiarrek Frantzia aldean burutu duten exodoak, hartu duen muntarengatik, irudiezina da. Herri oso bat doana da: aberatsak, pobreak, burgesak, merkataria, nekazariak, beharginak, herri administrazioakoak, armadakoak, zama-animaliekin, gurdiekin, autoekin, gerra-tresnekin nahastuta...»³.

Erbesteratze hori hain masibo eta orokorra izateak adierazten zuen, alde batetik, frankisten ankerkeriarekiko izua, baina era berean, alde errepublikanoak ordurako barneratuta zuen behin betiko porrotaren sentimendu itzulezina. Izan ere «Retirada» edo atzera-egitea Kataluniatik abiatzearekin batera, Errepublika hilzorian zegoen. Gainbehera eta zatituta ikuspegi militarretik baita politikotik ere. Egoera tamalgarri horren adibide esanguratsua dugu, Errepublikako buruzagi gorenen erbesteratzea bera. Dakigunez, Manuel Azañak, Juan Negrinek, Lluís Companyssek eta Jose Antonio Agirrek, Figueresen izandako azken saio parlamentarioa burutu ostean, muga aldera jo zuten. Bide berdintsuetatik, La Vajoletik abiatzen diren bidexketatik hain zuzen ere alde egin zuten. Baina, muga zeharkatutakoan, bereizi zituzten hurrengo helmugak, baita euren jokabideak ere. Izan ere, Frantziaratu bezain laster, norabide desberdinak hartu zituzten: Agirrek eta Companyssek, elkarrekin, mugatik urrunduz, jarraitu zuten bitartean, gobernuburua zen Juan Negrin,

3. «La tragédie espagnole. Sur la frontière des Pyrénées», *L'Illustration*, 2007. zk., 1939ko otsailaren 18an.

Manuel Azañarengandik eta Diego Martinez Barriosengandik banandu zen, La Vajolera itzultzeko. Jarrera horiek islatzen zituzten buruzagien artean, gerra-bukaerari buruz, zeuden estrategia eta ikuspegi desberdinak. Azañaren dimisioak argi utzi zuen bere behin betiko porrotaren sentimendua eta ezintasuna. Negrinek, ordez, bere leloari «Eustea irabaztea da» atxikia, oraindik pentsatzen zuen, armada errepublikanoak borrokan jarraituz gero, eta nazioarteko testuingurua lagun, egoerari buelta eman ziezaioketela. Beraz, erbesteko urte luzeetan zehar izan ziren zatiketak eta elkarren arteko tirabirak jadanik agerian zeuden.

Madril oraindik errepublikanoen esku zegoela, Frantziako gobernuak frankistena onartzeak areagotu zuen galeraren sentimendua. Baina, Espainian gerra galtzar zuten arren, Francoren erregimena Europako zurrumbiloan sarturik, laster eroriko zela pentsatzen zuten askok. Komunistak, esate baterako, Negrinekin bat eginik nola edo hala gerra jarraitzearen alde zeuden, lehertzearen antzematen ari zen II. Mundu Gerrak erregimen faxista guztiak, Espainiakoa barne, deseginen zituela-koan. Beste askok, ordea, etorkizun politikoari erabateko ezkortasunez begiratzen zioten. Bazuten argudiorik horretarako: Alemania eta Italia, gero eta lotsagabeago zebiltzan eta ez zituzten beren asmoak ezkututzen. Dagoeneko Austria irentsita zuen Alemaniak, Britainia Handiarekin eta Frantziarekin sinaturiko 1938ko hitzarmenak tartean zirela; germaniarrek gero eta nabarmenago erakusten zuten berrindartze politiko-militarra. Espainiako estatu frankistari zegokionez, 1939ko otsailerako —Gerra Zibila amaitu baino bi hilabete lehenago— frantziarrek eta britainiarrek jada onetsita zuten eta Errepublikari bizkarra emanda, enbaxadoreak bidali zituzten Burgos aldera, Francoren gobernuko hiriburura alegia.

Alde errepublikanoan zeuden ikuspegi eta desadostasunei aurre egin behar izan zieten mugetara hurbildu ziren milaka iheslarik. Tropa frankistak atzetik zetozelarik, Espainiara bueltatzea edo erbesteratuen bidetik jarraitzea izan zuten lehian muga zeharkatu bezain laster. Testuinguru horretan, komunikabide frantziar ugari baita politikari eskuindarrek ere indartu zuten euren kanpaina, Frantziaratzan ari zirenak ahalik eta azkarren berriro Espainiaratuak izan zitezten. Erreportaje eta prentsa-artikuluekin, parlamentuan egindako interpelazioen bitartez, gerra abiatu zenetik errepublikanoen aurka erabili zituzten ohiko irainak —«zitalak» «gorri lanjerosak» «erretiran datozen hiltzaile aldrak» «eraiketaren armada» etab.— berriro ere areagotu ziren. Mugaz bestaldera iristea, beraz, ez zen izan askatasuna eta harrera abegikorra dastatzea.

1.5. MUNDUAN ZEHAR. ERBESTERATUEN PATU DESBERDINAK

Goi-mailako politikariek Frantzian barrena mugitzeko aukera izan zuten bitartean, armada osatzen zuten milaka miliziano ohiei, txarrantxez inguraturiko hondartzetan barneratzea baino ez zitzaizen eskaini. Beste garai batzuetan erabilitako preso-zelaiez gain, berehala martxan jarri zituzten agintari militar frantziarrek beraiek

izendaturiko «harrera-esparruak», gainerako guztiek «kontzentrazio-esparruak» zehatz-mehatz deiturikoak, alegia. Azkar oso, milaka errefuxiatu horiek gordetzeko atondu zituzten gune horiek, Argeles-sur-Merekoa, Saint Cypriengoa eta Le Barcareskoa, jendez gaindituta zeuden. Orduan barneratu ziren jende multzoen kopuruen inguruan zenbaki desberdinak ditugun arren —77.000tik 43.000ra Argelesen; 72.000tik 95.000ra Saint Cyprien; 30.000tik 13.000ra Le Barcaresen—, esparru horietan pairaturiko jende-metaketa lekukoek nahiz ikertzaile guztiek beti azpimarratu dute. Kontzentrazio-zelaiak sortu bezain azkar, Pariseko parlamentuan burutu zituzten eztabaiden ondorioz, emandako zenbakiak, alderdi politiko guztiek ontzat eman zituztenak, honakoak genituen:

- 77.000 gatibu Argeleskoan
- 90.000 Saint Cypriengoa
- 13.000 Le Barcareskoan
- 46.000 Arles-sur-Techen eta Prats de Mollongoan⁴

Kontzentrazio-zelai bilakaturiko hondartzetan gauzatu zen egundoko jendez-gainezkatze horrek behartu zuen beste zelai batzuk irekitzea. Horrela, militar frantziarrek aginduta, Bram, Gurs, Septfonds, Le Vernet d’Ariege, Age, Rivesaltes, Rieucros martxan jarri zituzten, Roussilongo zelaiak, neurri batean, husteko eta barneratuta zeuden masa horiek errazago menderatzeko. Fagalde eta Menard militarren aginduetara, aspaldidanik erabilitako hainbat zelai, Le Vernetekoa adibidez, berrerabiltzeaz gain, beste berri batzuk, hala nola Gursekoa, Agdekoa edo Bramekoa, azkar osoz, hutsetik sorrarazi zituzten. Aipatutako lekuetan, goitik agindutako planoak eta ezaugarriak: txarrantzez inguraturik zeuden barrutietan egurrezko barrakoiak, hainbat behin-behineko azpiegitura —sukalde, eritegiak, mintzatokiren bat, komunak...— errepikatu zituzten, zelai bakoitzean 20.000 inguru errefuxiatu barneratzeko.

Hori dena, irtenbide iragankortzat jotzen zuten Frantziako agintariak, aipaturiko errefuxiatuak Espainiaratu edo beste lurralde batzuetara joaten ez ziren arte. Baina, asmo horietatik urrun gelditu zen errealitate hori. Izan ere, askoz denbora gehiago iraun zuten kontzentrazio-esparru horiek. Gehien-gehienak 1945era arte eta hainbat kasutan, Rivesalteskoan esate baterako, 2007ra arte. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren amaierarekin Gursekoa edo Le Vernetekoa itxi baziren ere, Rivesalteskoa behin eta berriro erabili izan zuten 60ko hamarraldian agintari frantsesek, Aljeriatik etorritako harkiak barneratzeko. 1964ko amaieran ematen zuen historia luze horren behin betiko bukaera zetorrela. Baina 1986z geroztik, Frantzian immigrazioaren aurka indarrean jarritako lege berriak —Pasquarena 1986an, Chèvenementena 1997an eta berriki, 2007an, Sarkozyrena, «centre de rétention» edo atxikitze-guneak— behar izan dituzte. Hori dela-eta, Rivesalteskoa 1986-2007

4. *Journal Officiel*, 1939ko martxoaren 3a.

bitartean, berriro ere Frantziatik kanporatu bitartean «paperik gabekoak» eta antzekoak atxiloturik izateko (Marcos eta Marcos, 2009) erabili dute.

Beraz, errepublikanoentzat eta nazioarteko brigadistentzat eratu zituzten kontzentrazio-zelaiak, laster oso, erabili zituzten III Errepublika frantziarrak eta geroxeago Vichyko agintariak «indesirable» zitaltzat jotzen zituzten guztiak barneratzeko. Beraien artean genituen: juduak, Italia faxistatik edo Alemania nazitik alde egindakoak, 1939az geroztik, legetik kanpo jarritako komunistak, baita hor irauten zuten Espainiako erbesteratuak ere. Horrela hazi eta hezi zen «Kontzentrazio-zelaien Frantzia» deiturikoa, txarrantzez eta jendarmez, irmoki zanpaturik zegoena⁵.

Frantziako egitura politiko-militarraren porrotak eragin zuen faxistizazio-tes-tuinguru horretan Espainiatik alde egindako errefuxiatuen aurkako neurriak larri-gotu ziren. Kontzentrazio-zelaietatik, lan-batailoien bitartez, atera zirenak, ipar mugetara edo Maginot lerrora bidali zituzten. Hori dela-eta, geroago, 1940ko erasoaldiarekin batera, armada alemaniarraren Frantziaritzea suertatu zenean, gehienak preso hartu zituzten. Alsaziatik edo Pikardiatik, nahi eta nahi ez, Mauthausengo bide eta helmuga ezezaguna hartu beharko zuten askok, milaka gatibu europarren patuari jarraituz.

Era berean, gerra-frontetik urrun zeuden errefuxiatuek ere erregimen frantziar zaharraren azken zartako errepresiboak pairatu zituzten. Iparraldetik nazien armada jotzen zuen bitartean, komunisten, juduen zein kanpotik iritsitako errefuxiatu guztien aurkako paranoia zabalduz joan zen. Frantziako eskuin-muturra aspaldidanik ereiten ari zen talde horien aurkako gorrotoa lege bilakatu zen.

Hori dela medio, sarekadak eta atxilotetak ugaldtu ziren errefuxiatuak zeuden eskualde orotan. Ipar Euskal Herrian, esate baterako, bertako diputatua zen Jean Ybarnegaray indar handiz hauspotu zituen erbesteratuen aurkako neurriak. Parlamentuan zein komunikabideetan, frankisten mezulari oldarkorrena bilakatu zen, enbaxadore frankista zen Jose Felix Lequericak, eskatzen zuena, hau da, erbesteratuen atxilotzeak gauza zitezen⁶.

Jakinaren gainean egonen zen diputatu garaztarra, 1940ko maiatzaren erdialdean, inolako lotsarik gabe, komunikabideetan aldarrikatu zuenean, laster oso errefuxiatuak kontzentrazio-zelaietara edo Espainiara deportatuak izanen zirela. Izan ere, egun batzuk beranduago, horrelako neurriak hasi ziren hartzen erbesteratuen aurka. «Ligue Internationale des Amis des Basques» LIAB delakoaren egoitza

5. Izendatze horretaz baliatu da Denis Peschansky osatzeko arazo eta aro horren gaineko ikerketarik mardulena: *La France des Camps*. Bere ikerketez gain, beste egile askoren lanak erabili ditu ikuspegi osatu eta ia orokorra plazaratzeko.

6. Ikus gure «Jean Ybarnegaray. Euskaldun aterpea suntsitu zuen faxista», *Argia*, 2.183, 2009ko maiatzaren 10a.

ixteaz gain, hainbat lantokitatik, «Breguet»etik, esate baterako, kanporatuak izan ziren (Larronde, 1997).

Dena den larriena, 1940ko maiatzaren 25az gerostik suertatu ziren atxiloketa masiboak izan ziren. Horien ondorioz, Oloroen, La Roseraieko ospitalean, Donibane Lohizunen, Baionan, Hendaian, baita Landetako herrietan ere zeuden errefuxiatu asko —800 inguru— Gurseko kontzentrazio-zelaira eraman zituzten Frantziako jendarmeez. Horrela, Ybarnegarayk 1936ko irailaz gerostik, Irungo exodoa izan zenetik, eskatzen zituen errefuxiatuen aurkako neurri errepresibo orokorrak gauzatu ziren frankisten pozerako. Azken horiek, Frantziako gobernuak Francorena onetsi zuenetik, horrelako erabakiak etengabe eskatzen ari zirelako (Jimenez de Aberasturi, 1999).

Baina ekimen errepresibo horren oinarrian bere porrotaren zantzua ere ze-goen. Izan ere, Reynauden gobernuak armada nazia geldiarazteko zuen ezintasunaren ondorioetako bat gorrien aurkako ehiza bultzatzea bazen ere, bere hondamen militarrek erregimenaren geldiaraztea ekarri zuen. Hori dela-eta, alemaniarrek armistizioa Petainen aldekoen sinarazi zieten bitartean, «France libre» delakoaren partaide apurak hexagonotik alde egiten saiatzen ari ziren. Esate baterako, Espainiako errefuxiatuak 1939. urtean zehar, Ameriketara joateko erabilitako beste hainbat barkuren artean, «Massilia» bera, 80 inguru diputatuk zein goi-mailako politikariek hartu zuten Bordelen naziengandik alde egiteko eta Frantziako kolonietatik, nola edo hala, borrokari eusteko asmoz.

Euskaldun ugarik, Iparraldekoek zein Hegoaldekoek, beste itsasportuetatik, Donibane Lohizunetik nabarmenki, «Kelso», «Tsratt», «Ettrick» ontzietan Britainia Handira jo zuten. Ekainaren 20 eta 24 arteko egunetan zen, naziak Euskal Herriratu baina hiru egun lehenago. Izan ere hilabete horretako 27an Baionatik eta Miarritzetik desfilatu ostean, Wehrmachtoko soldaduek bat egiten zuten Hendaia mugan beren aliatu frankistekin. Armistizioak erabakitakoaren ondorioz, Vichy eta Alemaniarren menpe zeuden lurraldeen arteko muga-lerroak Ipar Euskal Herria ere goitik behera zatitzen zuen. Donapaleutik Arnegiraino zihoan murrak Lapurdi osoa eta Nafarroa Behereko puska bat nazien menpe utziz. Eskualde horretako ekialdea eta Xiberoa, aldiz, Vichyren menpe gelditu ziren. Dena den, 1940ko abagunean, egoera oso berdintsuak ziren lerro-muga horren bi aldeetan. Alde batetik, Vichyzaleen kolaborazio-politikak berdintzen zuen nazien menpe zeuden lurretako egoera. Bestetik, makisarden zein erresistentziaren ekimenak oraindik eratu gabe zeuden (Esteben, 2007).

1.6. ATERPE BILA ATLANTIKOZ BESTALDERA

Beraz, gerraren sua nonahi pizten ari zen Europa horretan, egoera gero eta zailagoa zuten Espainiatik alde egindakoez. Hori dela-eta, ezusteko irtenbide bat, Ameriketara joatearena aurrez aurre izan zuten hainbatek. Izan ere, aspaldiko joera

emigratzaileari helduz Atlantikoaren bestaldean, arbaso euskaldun askok egin zuten legez, 1936-1939ko erbesteratuek ere jarri zuten halabeharrezko jomuga. Oraingoan, ez zen indianoen ametsak errepikatze baina ederki zekiten Amerikako hainbat herrialdetan oso errotuta zeuden euskal komunitateak lagun izanen zituztela. Gauzak horrela, aitzineko emigrazio euskal-amerikar ekonomikoari beste mota batekoa gehitu zitzaion: 1936-1939ko Gerra Zibilak eragindako erbesteratze politikoa. Kopuru aldetik txikiagoa zen, baina, erbesteratu horien ezaugarri politikoak zirela medio, eragin handia izan zuen itsasoz bestaldean oso errotuta zegoen euskal diasporan.

Baina helmuga berri horietara iristea ez zen batere erraza. Alde batetik, erbesteratuen kopuruak oso handia izaten jarraitzen zuelako. Izan ere Espainiara berriro jo zutenak kenduta, 200.000 lagunetik gora egon zitezkeen Frantzia 1939-1940ko bidegurutzean. Bestetik, horietako askok ez zuten inongo baliabiderik bidaia-txartelak erosteko, eta espedizioak gutxi izan zirenez, garesti zeuden. Gainera, Frantziatik ateratzeko ezinbestekoa zen itsasoz bestaldeko herrietako baimena edo bisa. Auzi horretan, bakarrik Mexikok jokatu zuen eskuzabaltasunez, eta jende guztiari herrialde hartan sartzeko aukera eman zion, inolako salbuespenik gabe. Erbesteratuei sarrera orokorra eskaintzeaz gain, Lazaro Cardenasen gobernu mexikarraren ordezkariak Frantziako kontzentrazio-zelaietan eta errefuxiatuak aterpetuta zeuden hiri nagusietan ibili ziren, jendeari beharrezkoak zituzten izapideak errazten, orduan prestatzen ari ziren espedizioak gorpuzteko helburuz⁷.

Amerikako gainerako lurraldeek —Dominikar Errepublika, Txile, Uruguai, Venezuela eta Argentina—, beren immigrazio-kolonizazio politikaren arabera jokatu zuten. Batzuetan etorreraren aukera zabaldu zuten, baina beste batzuetan sarbidea itxi zieten Europatik joan zitezkeenei, bereziki Espainiatik alde egindako «gorriei». Jarrera horrek baldintzatu zuen, neurri handi batean, erbesteratuen jarria eta kokapena. Mexiko izan zen espedizio aitzindarien eta handienen helmuga, eta ondorioz, espedizioak amaitu zirenean ere, berau izan zen etorkin berrien aterperik abegikorrena: 25.000tik gora iheslari iritsi ziren Cardenasen agindupean zegoen estatua. Horren aldean, Argentinara 10.000 heldu ziren, eta beste 5.000 Venezuelara.

Bidaia 1939ko udaberrian bertan hasi ziren, Sètetik eta Bordeletik abiatuta, milaka lagun Veracruzaraino eramane zituztenean *Sinaia*, *Ipanema* eta *Mexique*

7. Mexikok erbesteratuen auziaz izan zuen jarrera eta politikaz, zeharka edo zuzenean, testigantza eta ikerlan ugari ditugu. Orditik hona plazaratu diren lanen artean, aipa ditzagun honako hauek: Fresco, M. (1950): *La emigración republicana española: Una victoria de México*, Mexiko. Fagen, P. (1975): *Transterrados y ciudadanos. Los republicanos españoles en México*, Mexiko. Ordoñez, M. M. (1997): *El Comité Técnico de Ayuda a los Republicanos Españoles: Historia y Documentos*, Mexiko. Ruiz Funes, C. (1982): *Palabras del Exilio*, 4 lib., Mexiko. Zenbait egile (1982): *El exilio español en México 1939-1982*, Mexiko. Salazar, A. eta San Sebastián, K. (1994): *Los vascos en México*, Gasteiz.

itsasontzi mitikoetan. Lehen bidaia, *Sinaia* zamaontziak egin zuen, urte horretako maiatzaren 26a eta ekainaren 14a bitartean. Veracruzera iritsitakoan, milaka lagun zeuden zain, Europatik joandako erbesteratuei harrera beroa eskaintzeko⁸. *Sinaia* Veracruzera iritsi zen egun berean, Bordeletik bigarren ontzia itsasoratu zen, Mexikoko portu horretara iristeko asmoz. Lehenengo bi espedizio hauek *Errefuxiatu Espainiarrak Ateratzeko Zerbitzuak*, erdarazko siglekin deituriko SEREK, antolatu zituen eta bidaiariak hexagono frantziarrean zeuden kontzentrazio-zelaietatik ateratako errefuxiatuak ziren gehienbat

SERE erakundeak antolatutako espedizio erraldoi horietatik aparte, beste hainbat ontzik ere eraman zituzten espainiar eta euskaldun aunitz Venezuelara, Dominikar Errepublikara eta Argentinara. *Bretagne Flandre* eta *Cuba* ontzietan, esate baterako, 200dik gora euskaldun La Guairara iritsi ziren, Venezuelako agintariek Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako baimenari esker (San Sebastian, 1992).

Hain zuzen, Venezuelara iritsi zen espedizioen artean txikiena baina bitxiena izanen zena, kasik gaur egungo pateren bidaien antzekoa egin baitzuen ozeanoan barrena: 1939ko irailaren 6an 17 errefuxiatu Venezuelara arribatu ziren bi ontzixotan, Jose Manuel Odriozolak Baionan martxan jarritako ontziolan eginak. *Donibane* eta *Bigarrena* deitutako itsasontzi horiek Aturriko ontziolan eraiki zituzten. Biek egurrezko kroskoa zuten, eta 14 metro luze eta 2,5 metro zabal ziren. Itsasbaterreko arrantzan aritzeko eginak ziren eta ez ozeanoz haraindiko bidaiak egiteko. Hala eta guztiz ere, Frantziatik alde egin nahian, Baionatik Venezuelarainoko zeharkaldia egiteko prestatu zituzten nola edo hala. Frantziako agintarien aldetik ontziak esportatzeko baimena eskuratu bezain laster, zalantzak alde batera utzi eta aurrera egitea erabaki zuten. 1939ko abuztuaren 6a zen eta Baionako Allées Marines kaitik bi ontzixoak urruntzen ikusi zituzten. *Bigarrena* ontzian, Jose Maria Burgaña mutrikuarra zuten kapitain eta *Donibanen*, Pedro Ruiz de Loizaga zihoan ardura berarekin. Hiru egun behar izan zituzten Kantauri itsasoa atzean lagatzeko, arrantzaleen ohiko guneak eta merkataritza-ontziak saihestuz, Europatik urruntzen joan ziren. Bi asteren buruan behin-behineko lehorreratzea egin zuten Dakarren. Burgaña kapitainak zehaztasun osoz izkiriatu zuen legez: 3.242 milia eginak zituzten ordurako, 13 egun eta 10 ordutan, orduko 6,97 miliako abiadurarekin, hain zuzen.

Hortik aurrera, Atlantikoa bere handitasunean. Ordura arteko arrantza ugalduz joan zen eta barkuek, nahiz eta matxura pare bat eduki, eutsi egin zioten beren eginbeharrari. Amerikatik Europatik baino gertuago zeudela, irratien bitartez jakin zuten irailaren lehenean Alemaniako armada Polonian sartzen ari zela, eta horrekin, iragarrita zegoen Mundu Gerra hasi zela.

8. Ikus, itsasontzian egindako *Egunerokoaren* faksimilea: *Sinaia, Diario de la Primera Expedición de Republicanos Españoles a México*. Alcalá, 1999.

Hortik gutxira, Tobagoko itsasertzetik igaro ostean, Amerikako lurretan lehorreratu ziren, Rio Caribeko badian. Venezuelan zeuden, eta Cumanatik barrena, bi egun geroago euskaldunendako portu ezaguna izan den La Guairara iritsi ziren Burgañaren marinela. Euskaldunek denboran atzera egin zutela zirudien, Caracaseko Errege Konpainiaren XVIII. mendeko belaontzien garaietara. Baina ez zetozen merkataritza-lanetan, bizitza berri baten bila baizik. Eta horretarako ez zen nahikoa venezuelarren oniritzia izatea, lanean aritu beharko ziren ahal zen lantokian. Ez zen erraza suertatu. Izan ere, Burgañak eta bere lagunak arrantzatik bizitzeko hainbat ekimen martxan jarri zituzten, baina porrot egin zuten, eta Caracaserara jo behar izan zuten bestelako lanei ekiteko⁹.

Beste espedizio batzuk ere abiatu ziren Frantziatik Ameriketara. Esaterako, euskaldunen bi txalupak itsasoan barrena zebiltzan egunetan, *Winnipeg* barkuak Txileraino eraman zituen 2.000 errefuxiatu, Pablo Neruda poeta ezaguna —eta orduko diplomazialari txiletarra— oztopo guztien gaineratik hori lortzeko tematu zelako (Calle eta Simon, 2005). Baina Bigarren Mundu Gerra zela-eta, premia gero eta handiagoa zegoenez, bidaiak zaildu egin ziren. Frantzian bai Vichyko agintariak, bai Gestapokoak, eta baita polizia frankista ere, saiatu ziren ekimen horiek oztopatzen. Marseilla «eskualde libreko» —hala deitzen zioten Vichyko gobernu kolaboratzailearen pean zegoen lurraldeari— porturik garrantzitsuena eta ateraleku bakarra bilakatu zenean, polizien eginahalak bideratu ziren handik ateratzen ziren espedizioak abortatzera eta politikari ezagunen aurkako atxilotetak burutzera. Ezaguna izan zen euskaldunen artean, Rafael Picabea, diputatu ohiari gertatutakoa: *Alsina* barkura igotzen ari zenean, Argentinara joateko, jaitsarazi eta atxilotu egin zuten¹⁰. Bestalde, barku horrekin jazotakoak ederki islatu zuen zer zailtasun zeuden 1940ko bukaeran askatasunerako bidaiak egiteko. Izan ere, 60 egun Marseillako kaietatik atera ezinik egon ostean, Dakarrera iritsitakoan, britainiarrek berriro geldiarazi zuten, bandera frantziarra zuenez, *Navigation Act* delakoa baimentzen ez ziotelako. Hori dela-eta, atzera jo behar izan zuen, Casablanca aldera, eta inguruko kontzentrazio-zelaietan sarturik igaro behar izan zituzten hainbat hilabete bidaiariet; harik eta beste barku batean, *Quança* delakoan, zeharkaldia bururatu ahal izan zuten arte. Horren ondorioz, 20 egun inguruko bidaiari behar zuena, 441 egunetan egin zuten azken bidaiariet Buenos Airesera heldu zirenean¹¹.

9. Ikus gure erreportajea, «Askatasunaren bila, barkuz eta pateraz», *Argia*, **2.159**, 2008ko azaroaren 16a.

10. Ikus Ander Delgado Cendagortagalarzaren *Rafael Picavea 1876-1946 Euskal Historiaren pertsonaia ahaztua*, Oizartun-Bilbo, 2008.

11. Niceto Alcalá Zamorak berak idatzitako eta berriki berrargitaratua izan den *441 días* dugu iturri zuzenetako bat. Euskaldunen ikuspegitik, Nestor Basterretxeak bere *Crónica errante y una miscelánea* (Irun, 2006) dakarkigu ere bere lekukotasun zuzena. Eleberri moduan, baina bidaiari hori ardatz hartuta, Arantxa Amezagaren *Cronicas del Alsina*, Bilbo, 1982.

Beraien artean zeuden Niceto Alcalá Zamora, Telesforo Monzon, Francisco eta Nestor Basterretxea, Bicente Amezaga, Constantino Salinas... hau da, ia-ia korronte politiko guztietako ordezkariak. Batzuk eskualde horretan betirako gelditu ziren, eta beste batzuk Amerikan barrena barreiatu ziren. Gehienek, hala ere, itsasoaz harago zihoazen ekimen kultural eta politikoei heldu zieten gogo handiz.

Gerra amaitu baino askoz lehenago Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri zituen hainbat kanpo-ordezkaritza. Lehena Parisen, 1936ko azaroan. Horren helburua euskal gobernuaren lan politiko eta propagandistikoa, nazioarte mailan bultzatzea izan zen. Euskal Herria bere osotasunean, frankisten esku gelditu zenean, erbesteratuen aldeko laguntza ematea ere izan zuten egitekoen artean. Horren ildotik, 1938an beste urrats esanguratsu bat eman zuten, Buenos Airesera, bigarren ordezkaritza bidali zutenean. Horrekin, Amerikako lehena martxan zegoen, Ramon Aldasorok, Isaac Lopez Mendizabalek eta Pablo Artxankok osaturikoa, hain zuzen ere. Gerra oraindik amaitu gabe zegoen baina Frantziatik euskaldunak ateratzeko, Amerikan zegoen euskal komunitate handiengan aterpea prestatzea jomuga zuten aipaturiko ordezkari horiek.

Jakina denez, Argentinako hiriburuan, 1877tik bizkor-bizkor «Laurak Bat» deitutako euskal elkarte indarrean zegoen. Bere sorreratik bat egin zuen ideologia foruzalearekin eta XX. mendeaz geroztik, hainbat bazkide euskal nazionalismora hurbilduz joan ziren. Dena den, 1936ko Gerra Zibilak Argentinako gizartearen sorrarazi zuen hausturak isla zuzena izan zuen elkarte hartan. Hori dela-eta, «Laurak Bat»eko kideen arteko desadostasunak ez sakontzearren, nahiago izan zuten, gerrak iraun zuen bitartean, jarrera edo adierazpen publikorik ez egitea. Baina neutraltasun-nahi hori, milaka erbesteratuen etorrerak desorekatu zuen, errepublikanoen eta euskal abertzaleen alde.

Egoera oso berdintsua, baina gerra aurretik azaldutakoa, izan zuten Mexikoko Euskal Etxean. Errepublikako urteetako euskal autonomiaren auzia zela medio, bazkideen artean zeuden iritzi desberdinek talka egin zuten. Horren ondorioz, gutxiengo batek alde egin zuen «Centro Vasco Español» delakoa sortzeko. Haustura hori handitu egin zen Gerra Zibilarekin. Izan ere «Vasco Español»ekoak frankisten alde azaldu ziren bitartean, betiko euskal elkarteak Eusko Jaurlaritzarekin eta Errepublikaren gobernuarekin bat egin zuen. Jakina, gerraosteko erbesteak nabarmen indartu zuen bigarren jarrera hori. Izan ere, Kataluniako samaldaren ostean euskaldunena handiena izan zen Mexikora erbesteratu zirenen artean. Herrialde horretan ere Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri zuen beste ordezkaritza bat: Julio Jauregik gidatutakoa hain zuzen ere.

Dominikar Errrepublikara ere erbesteratu askok jo zuten arren, gehienek alde egin zuten beste eskualdeetara. Zinez Trujillo diktadoreak irlako biztanleria «zuritzeko» zuen asmoari ongi zetozkion Europatik arribatu zitezkeen milaka errefuxiatu horiek. Baina, gehienek, ahal zutenean alde egin zuten Argentinara,

Kubara, Estatu Batuetara edo Venezuelara. Azken herrialde hori, nahiz eta jasotako euskal erbesteratuen multzo txikienetakoa izan, garrantzi handienetakoa dugu. Izan ere, Venezuelatik sostengatu zituztelako euskal erbesteratuen ekimen ugari. Bertakoez gain, Argentinan edo Mexikon egindako aldizkariak esate baterako, baita Eusko Jaurlaritzaren aldeko laguntza ekonomiko itzela ere. Venezuelak ez zuen aldez aurretik euskal migrarien kolektibo esanguratsurik eta Argentinara edo Mexikora joandako espedizioekin konparatuta oso atzean gelditu zen. Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria izan zen Fernando Carranzaren arabera, 300 inguru izan ziren Caracasen, Cumanan eta Valencian gehienbat kokatu ziren errefuxiatuak. Baina, beraiek osatu zuten erbesteratuen multzo horrek bi ezaugarri oso argi izan zituen aipatutako laguntza ekonomikoak gauzatzeko. Alde batetik, bere txikitasunean, homogeneousan politikorik handiena zuen. Hara iritsitako gehienak, abertzaleak ziren: EAJkoak edo ANV-EAEkoak. Eusko Jaurlaritzak berak adostu eta prestatu zituelako Venezuelako «Instituto Tecnico de Inmigracion y Colonizacion» delakoarekin hara joandako espedizioak. Bestetik, Venezuelak orduan izan zuen hazkunde ekonomikoaren testuinguruan, ongi kokatu ziren, eraikuntzaren alorrean batez ere, erbesteratu asko. Beste esparru ekonomikoetan —arrantzan esate baterako— atzerriratuek martxan jarritako ekimenek porrota izan zuten arren, testigantza gehienak bat datoz esateko, Venezuelak izandako hazkunde ekonomiko ikaragarrian, onura dexente eskuratu zutela han laketutako euskaldun askok¹².

1.7. AMERIKA ERBESTERATUEN EUSKARRI

1940az geroztik eta II. Mundu Gerra amaitu bitartean, Amerikatik garatu zituzten errefuxiatuek ekimen politiko eta kultural gehienak. Europatik harantz izandako txandakatze horren lekuko zuzena dugu *Euzko Deya*. Parisen, 1936-1940 bitartean, kaleratu zuten «euskaldunen abotsa», Buenos Airesen, 1938az geroztik eta Mexikon, 1943tik aurrera argitaratu egin zutena. Lehenak, «Amerikan zeuden euskaldunen abotsa» zuen mantxetaren azpiko leloa. Horrekin argi eta garbi jakinarazten zuen, Argentinan argitaratzen bazuten ere, beste herrialde askotako euskaldunen bozeramailea ere zela. Hain zuzen erredakzioa zein zuzendariak —Ramon Maria Aldasoro, Victor Ruiz Añibarro...— Buenos Airesen bazeuden ere, kolaboratzaile ugari parte hartu zuten Uruguaitik, Txiletik edo Estatu Batuetatik. Era berean, Mexikoko mugak aise gainditu zituen bertako *Euzko Deyak*. Julio Jauregi, Francisco Turrillas eta Jesus Garrizen zuzendaritzapean, beste herrialde askotatik iritsitako partaidetza zabala izan zuelako, iraun zuen urte luzeetan.

Aipatutako aldizkari horiek, zeharka edo zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren eskutik sortu zirenez, haren lerro politiko ideologikoa defendatzeko eta zabaltzeko

12. Ikus gure «El asociacionismo vasco en América. Itsasoz bestaldera. Al otro lado del mar», Juan Andrés Blancok argitaratutako liburu kolektiboan: *El asociacionismo en la emigración española a América*. Salamanca, 2008.

kaleratuak izan ziren. Beraz, 1936ko Estatutua eta horren ondorioz eraturako Euskal Gobernuak legitimitate politikoaren oinarriak ziren. Agerkari horietatik kanpo, hainbat erakundek hala nola EAJK, PSOEn orduko zenbait korrontek, alderdi komunistak, beranduago ANVk izan zituzten beraien adierazpideak (*Alkartu, Tierra Vasca...*) eta hortxe islatu zituzten beraien ikuspegiak.

1940ko hamarraldiko lehen urteetan, igaro berria zuten gerrako izugarrikeriek, Espainiatik bertatik iristen ziren kartzelutako egoera larrien berriek, erailketenek... eta Europatik heltzen ari ziren II. Mundu Gerraren oihartzunek oso atzean utzi zituzten alderdi horiek izan zitzaizkiren desberdintasunak. Azken finean, burutu zituzten ekimenak zein aldarrikapenak eta plazaratu zituzten estrategiak antzuak suertatu ziren diktadura frankistaren bizkortzearen aurrean.

Dena den, hamarkada luze batez, «Gerra Hotza» delakoa gauzatu arte, Francoren aldeko jarrerarekin batera «demokraten» traizioa begi bistan laga arte, aldaketa politikoaren ametsak nagusi ziren erbesteratuen artean. Amerikaratu berriek, ordura arte, pentsatu zuten posible zela 1939ko galerari buelta ematea, eta jakina, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, itxaropen hori nabarmen indartu zen. Baina nazioarteko bloke politiko-militarren egituratze berriak laster hoztu zituen aldaketarako beharrezkoak ziren nazioarteko laguntzak eta ekimenak. Horren ondorioz, Ameriketara joandakoak Europara buelta zitezkeen, noski, baina ez Espainia frankistara. 1939an gertatu zen legez, 1950az geroztik, Estatu Batuek, Frantziak eta Britainia Handiak Francoren diktadura lehenetsi baitzuten berriro ere, errefuxiatu horiek guztiek ordezkatzeko zuten eta indarrez hondoratu izan zen demokrazia zokoratuz. Ondorioa bistan zegoen: Franco hil bitartean, diktadurak agintean jarraitu egin zuen, II. Mundu Gerraren garaileen baimen zein laguntzekin.

1.8. ERBESTEAREKIKO EUSKAL HISTORIA ZORDUN

Erregimen mota horrek hainbeste urte irauteak ondorio oso latzak izan zituen, esparru guztietan. Gizarte osoan zegoen askatasun ezak, eremu zientifikoetan ere eragin zuzena izan zuen. Era bateko historia zabaltzeaz gain, ezinezkoa zen hainbat auzi historiko jorratzea oinarritzko berme batzuekin. Giza zientzien talaia-tik begiratuta, historia ildo zientifikotik burutzea ezinezkoa baldin bazen ere, egoera larriagotzen zen aro garaikidea lantzeko tenorean. Erregimenaren funtsa zen 1936-1939ko «Gurutzada saildua» eta horren ondorioz gorpuztu zuten diktadura gai bereziak bezain tabuak ziren estatuko mugen barnean jorratzeko.

Beraz, aro frankistei zuzen-zuzenean zegozkien gaiak nahiz aroak: II. Errepublikak, Gerra Zibila eta agintaldi diktatoriala bera ere, parametro libreetatik helezinak ziren. Askatasun ezak, kontu horiei buruzko historia zientifikoa garatzea atzeratu egin zuen 1980ko hamarkadan sartu arte. Urte luzeetan zehar, kanpoan egindako lanak, hala nola Gabriel Jacksonenak, Emile Temime eta Pierre Brouérenak edo Hugh Thomassenak izan ziren erregimen frankistak sustaturiko historia ofizialaren kontrako aldeak.

Gerra Zibilarekin eta II. Errepublikarekin gertatu zena, errepikatu zen erabat erbesteari historiarekin. Jakina, arazo hau ere erbestetik bertatik landu egin zen hainbat hamarkadatan zehar. Diktadura amaitutakoan, egoera aldatzen hasi zen. Alta, bada, 80ko hamarkadan, azaldu zen ikertzaileen belaunaldia, tokian tokiko ikerketen bitartez, saiatu zen ordura arte izandako atzerapena gainditzen. Berandu samar bazen ere, kontzentrazio-zelaiek, esate baterako, historiografiaren arreta eskuratu zuten Frantzia aldean. Izan ere, gaur egun arras landua dugun «La France des camps» delako gaiak, hainbat historialari erakarri zituen 1980az geroztik. Lan aitzindariak izan genituen, Claude Laharierenak eta Genevieve Dreyfusenak: *Le camp de Gurs un aspect meconnu de l'histoire de Vichy*¹³; *Plages d'exil*; *Les camps sur la plage un exil espagnol...* etab. Jarraian etorriko ziren Denis Peschanskiren lan handia, *La France des camps. L'internement 1938-1946*, eta beranduxeago, tokian tokiko ikerketak, baita II. Mundu Gerran zehar izan zituzten bilakaera zehatzak... gaur egun arte luzatu egin den ikerlerroa gero eta zabalduegoa osatuz¹⁴.

Mugaz honantz, aldiz, zaila dugu antzeko lanik aurkitzea. Javier Rodrigok eta Angel Fernandezek Espainiako kontzentrazio-zelaiei buruz idatzitako ikerlanek ez dute parekorik izan frantziarrekin¹⁵, hau da, Gerra Zibilaren ostean, erbestean sortutako estreinako kontzentrazio-esparruei buruzkoekin. Izan ditugun hurbilketa egokienak, berriro ere, kanpoko ikertzaileek eskaini zizkiguten, frantsesez eta ingelesez, Marie Claude Rafaneuren eta Louis Steinen eskutik¹⁶.

Hala eta guztiz ere, milaka eta milaka lagunek Argelesko, Saint Cypriengo eta Le Barcarésko hondartzetan, txarrantxen eta barrakoiaren artean, bizi izan zuten kontzentrazio-egoera larriak gehiago merezi beharko luke historialarien aldetik. 1939. urtearen ondorengo erbestea luzearekin konparatuta, kontzentrazio-zelaiei dagokien aroa motza izan bazen ere, erbesteratuen gehiengo handi batek pairatu behar izan zuen Frantziako «harrera» berezi hori. Izan ere, ugari izan dira kontzen-

13. Liburu horrek ikerketa-esparru hau era zientifikoz zabaltu zuen arren, tokian tokiko edizioa izan zuelako, kostata erdietsi zuen merezi zuen aitortpena. Argitaratu ostean, hamar urte geroago, horrela zioten Genevieve Dreyfusen eta Emile Temimek (1999) *Les Camps sur la plage, un exil espagnol* delako liburuaren «Orientation Bibliographique» delakoan: «Ezinbestekoa dugu aipatzea Frantziako Zelaiei buruzko lanen multzoan, Gursi buruz Claude Lahariek burututako lan aitzindaria, daten arabera lehendabizikoa, nahiz eta haren argitalpena (Paue, 1985) ia-ia ez ikusia izan. Berari behar zaion omenaldia eskeintzen diogu».

14. Pons, F.: *Barbelés à Argelès et autour d'autres camps*; Grando, R.: *Camps du Mepris. Des chemins de l'exil à ceux de la résistance 1939-1945*; Cohen, M. eta Malo, E. (zuz.): *Les camps du Sud-Ouest de la France 1939-1944. Exclusion, internement et déportation*; Pruja, J.: *Premiers camps de l'Exil espagnol. Prats de Molló, 1939*; Boitel, A.: *Le camp de Rivesaltes 1941-1942, du centre d'hébergement au «Drancy de la zone libre»*.

15. Rodrigo, J.: *Cautivos: Campos de concentración en la España franquista, 1936-1947*.

16. Rafaneau, M. C.: *Odyssée pour la Liberté. Les camps de prisonniers espagnols 1939-1945*, gaztelaniazko itzulpenean: *Los campos de concentración de los refugiados españoles en Francia (1939-1945)*; Stein, L.: *Beyond Death and Exile*, gaztelaniazkoan: *Más allá de la muerte y del exilio*.

trazio-esparruetan egondakoen lekukotasunak baina eskasa oso izan duten oihartzun historikoa. Oso goiz kaleratu zituzten, txarrantxen artean izandako sufrikarioen berriak, Max Aubek, Lluís Montagutek, Lluís Ferran Polek edo Eulalio Ferrerrek¹⁷. Batzuetan, Montagutenean esate baterako, idazlan zabalago batean, kontzentrazio-esparruen testigantzak osatzen zuen atal bat. Beste batzuetan, Max Auben edo Eulalio Ferreren liburuetan, esparruetan izandako bizi-esperientzia lanaren muina eta ardatza dugu.

Estreinako emaitzak, Ameriketara gehienbat kaleraturikoak, testigantza saioak izan ziren, baina 1960az gozotik, horrelakoak baztertu gabe, saio historikoak izan ziren herrialde horretan eta Frantzia argitaratu izan zirenak. Batzuetan, egileek bizi izandakoa, fikziozko diskurtsoaren oinarritzat jo zuten. Beste batzuetan, erbesteratuen esperientzien kontakizuna saio historiko zenbaiten ardatza izan zen. Lehendabizikoen artean ditugu, urte dexente beranduago, idazle eta politikari eman-korra eta ezaguna izanen zen Jorge Semprunen lanak. Frantsesez argitaratuak, 1960ko hamarkadan, ez zuten lortu oihartzun garrantzitsua Espainiako estatuan, 1990eko hamarkada iritsi arte.

Bigarren atalekoen artean, hau da, bizi izandakoaren gainean oinarrituriko saio historikoetan, Vicente Llorensek idatziriko lanak ditugu aipagai. Dominikar Errepublikara eta geroxeago Estatu Batuetara erbesteratutako irakasle horrek oso goiz idatzi zituen bere oroitzapenak, beste erbesteratu askoren ibilbide eta testuinguruarekin berrosaturik.

Antzeko baldintzetan, beranduxeago erbestean laketu ziren hainbat errefuxiatuak beste lan batzuk kaleratu zituzten. Horien lekuko dugu, esate baterako, Antonio Vilanovasek honako izenburu esanguratsuarekin *Los Olvidados. Los exiliados españoles en la Segunda Guerra Mundial* idatzi zuena. Bistan denez, azken urteotan egundoko erabilera izan duen ahanzturaren kontzeptua izenburura eraman zuen azpimarratzeko II. Mundu Gerran ibilitako hainbat borrokalari ezabatuen alorrean zokoraturik zeudela. Historikoa baino gehiago irakurketa politikoa egiten zuen Vilanovak antzeman gabe ahanzturaren eragina Klioren zientzian ere urte askotan indarrean egonen zela.

Izan ere, salbuespenak salbuespen, gai hau Espainiako estatuan landua suertatzeko Franco desagertu zenetik urte dexente igaro beharko izan ziren. Izan ere, 1980ko hamarkadan, II. Errepublikak eta Gerra Zibilak izan zuten lehentasuna ikertzaileen aldetik. 1986ko 50. urtemuga iristear zegoela, tokian tokiko ikerketak burutuz joan ziren. Gertaera militarrez gain, atzeguardian izandako erailketak eta errepresioa azaldu ziren, indar handiz, orduko ikerlanetan. Erbesteari dagokionez,

17. Aub, M.: *Journal de Djelfa (Diariode Djelfa)*; Montagut, Ll.: *J'étais deuxième classe dans l'armée républicaine espagnole 1936-1945*; Ferran Pol, Ll., *Campo de concentración (1939)*; Ferrer, E.: *Entre alambradas. Diario de los campos de concentración*.

Franco hil ostean, erbesteratuen itzulerak ez zuen areagotu auzi historiko horrekiko arreta. Bi salbuespen esanguratsuetara mugatu ziren egindako lanak: Javier Rubiok iturri diplomatikoetan eta Espainiako Artxibo Nagusietan oinarriturik burutu zuen *La Emigración de la Guerra Civil de 1936-1939* eta Jose Luis Abellanez zuzendu eta koordinatu zuen *El exilio español de 1939*¹⁸.

Hori dela-eta, erbestean bertan egindako lanek oraindik zeresan luzea bezain handia izan zuten. Alde horretatik, Parisen, Antonio Sorianok idatziriko *Exodos. Historia Oral del Exilio Republicano en Francia* nabarmentzekoa dugu. Era berean, Mexikon, hainbat egileren artean egindako lan kolektibo eta mardula *El exilio español en México* izenburuarekin, 1982an argitaratu zutena, hain zuzen ere.

1990eko hamarkada arte eta, neurri handi batean, Frantzia aldean burutu zituzten hainbat biltzar zientifikoren eraginez, gai horrek, hainbat tesik eta ikerketak akuilatuta, aurrera egin zuen.

Hori dela-eta, azken bi hamarkadetan, hobera egin du ikerketen esparru horrek. Zenbait unibertsitateen babespean ikerketa-taldeak sortu dira eta esparru historiko hau indartu egin da. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan GEXEL (Grup d'Estudis de l'Exili Literari) deitutakoa, 1993an sortu zen. Madrilen, aldiz, AEMIC (Asociación para el Estudio de los Exilios y Migraciones Ibéricos Contemporáneos) delakoa 1995ean abiarazi zuten. Euskal Herrian, 1492-1992 mendeurrenaren karira, hainbat argitalpenen bitartez, 1936-1939ko euskal erbesteratze amerikarra azaldu zen. Beranduago, Hamaika Bide elkarteak, aldizkakotasunarekin eta jarraipenarekin, ikerlerro politiko-kulturala aurrera eraman du arrakasta zientifiko handiz, batez ere, «Intelligentsia»k izandako ibilbide biografikoaz eta erbestean egindako lan kulturalaz. Jose Angel Ascuncek, Maria Luisa San Miguelek, Jose Ramon Zabalak eta Xabier Apaolazak osatu duten lan-taldeak emaitza ugari eskaini dizkigu azken urteotan eta bidea ireki dute beste hainbat ikertzaile baliotsuk Euskal Herrian gai hauek emaitza zientifikoak izateko¹⁹. Era berean, eta beti talai honetatik begiratuta, oso azpimarratzekoak ditugu Paulo Iztuetak egindako lanak. *Erbesteko Euskal Pentsamendua* esate baterako, non euskal erbesteratuek plazaratutako *Euzko Gogo*a eta *Zabal* aldizkariaren azterketa sakona maisuki burutu zuen. Euskal kulturaren historia sozialaren jorratze sakona izan zen lan hori eta horrek erakusten digu oraindik ikerketa askoren beharra (Iztueta, 2001). Dena den, alderdi kulturalak eta politikoak jaso dituen nagusigoak itzalean utzi ditu beste ikerlerro baliotsu hainbat. Gizarte-talaietatik egindakoak

18. *El Exilio Español de 1939*, 6 lib. Horietako azkena Kataluniari, Euskadiri eta Galiziar eskainia dago. Euskal atala Martin Ugaldek burutu zuen 6. liburukian. Madril, 1976-1978.

19. Ascunce, J. A. eta San Miguel, M.L. (1994): *La cultura del exilio vasco I* eta *La cultura del Exilio vasco II*, Gasteiz. Abellan, J. L.; Aopaolaza, X.; Ascunce, J. A. eta Urquizu, P: *Memoria del Exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*. Aulestia, G. eta Ascunce, J. A. (1992): *Erbesteko euskal literaturaren antologia*, Gasteiz.

alegia, Mexikotik esate baterako, Dolores Pla Brugatek burututako lanak edo azken urteotan Frantzian kontzentrazio-zelaiaren inguruan egiten ari diren beste zenbait²⁰. Laburbilduz, erbestearen emaitza kulturalak edo goi-mailako politikarien eginkizunak oso ikusgarriak ditugun heinean, ur sakonetan bezain ilunetan gelditu dira manifestazio politiko-kultural horien guztien oinarri giza politiko aberats eta handiak. Euskal erbesteratuen historiari dagokionez, kontuan izanda kopuruaren ikuspegitik oso handia izan zela eta,aldi berean, ekimen politikotik zein esparru kulturaletik begiratuta ere emankorrenetako bat (Eusko Jaurlaritzaren jarduna, nazioarteko ordezkariak, tokian tokiko aldizkariak, ekimen euskaltzaleak...) izan zela, argi dago ikertze-esparru zabala dugula aurrera eramateko.

BIBLIOGRAFIA

- Abellan, J. L. (1976-1978): *El exilio español de 1939*, Madril.
- Aguirre, J. A. (1943): *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin*, Buenos Aires.
- Alonso Carballés, J. (1998): *Los niños vascos evacuados a Francia y Belgica. Historia y memoria de un exodo infantil, 1936-1940*, Bilbo.
- Alted, A. (2005): *La voz de los vencidos. el exilio republicano de 1939*, Madril.
- Alted, A. eta Dommergue, L. (1999): *El exilio republicano español en Toulouse, 1939-1999*, Tolosa Okzitania.
- Amezaga, A. (1982): *Crónicas del Alsina. pasajeros de la libertad*, Bilbo.
- Anasagasti, I. (1988): *Homenaje al comité pro inmigración en Argentina (1940)*, Donostia.
- Anasagasti, I. eta San Sebastián, K. (1985): *Los años oscuros. El Gobierno Vasco en el exilio (1937-1941)*, Donostia.
- Andujar, M. (2003): *Saint Cyprien, Plage*, Clermont Ferrand.
- Arana Martija, J. A. (1986): *Eresoinka. Embajada cultural vasca 1937-1939*, Gasteiz.
- Artis Gener, A. (1975): *La diáspora republicana*, Bartzelona.
- Ascunce, J. A. (1992): *Literatura vasca en el exilio*, Donostia.
- Association Memoire Collective en Bearn (1995): *Le Bearn a l'heure de la Guerre d'Espagne*, Paue.
- Aub, M. (1965): *Campo francés*, Paris.
- Aznar, M. eta Bartolí, J. (2008): *Campos de concentracion 1939-194...* [Mexiko, 1944], Madril.
- Broué, P. eta Temime, E. (1977): *La revolución y la guerra de España*, Mexiko.
- Calle, E. eta Simon, A. (2005): *Los barcos del exilio*, Madril.
- Caudet, F. (2005): *El exilio republicano de 1939*, Madril.

20. Pla, D. (2000): *Els exiliats catalans a Mèxic. Un estudi de la immigració republicana*. Bartzelona. Malo, E. (2009): *Le camp de Noé 1941-1947*. Paue. Bachoud, A. eta Sicot, B. (koord.) (2009): *Sables d'exil. Les republicains espagnols dans les camps d'internement au Maghreb*, Perpignan.

- Chueca, J. (2007): *Gurs, el campo vasco*, Tafalla.
- Chueca, J. eta Fernandez, L. (1997): *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*, Lasarte.
- Cruz, J. I. eta Millan, M. J. (2002): *La Numancia errante, exilio republicano de 1939 y patrimonio cultural*, Valentzia.
- Cubero, J. (2004): *Les Républicains espagnols*, Paue.
- Cuesta, J. eta Bermejo, B. (1996): *Emigración y exilio. Españoles en Francia 1936-1946*, Madril.
- Diaz Esculiés, D. (1993): *Entre filferrades*, Bartzelona.
- Dreyfus, G. (1999): *L'exil des républicains espagnols en France. De la guerre civile á la mort de Franco*, Paris.
- Dreyfus, G. eta Temime, E. (1999): *Les camps sur la plage, un exil espagnol*, Paris.
- Esteben, M. (2007): *Regards sur la seconde guerre mondiale en Pays Basque*, Baiona.
- Estornés, J. (1979): *Un gudari navarro en los frentes de Euzkadi*, Asturias, Cataluña, Donostia.
- Ferran de Pol, Ll. (2003): *Campo de concentración. (1939)*, Arenys de Mar.
- Galvez, J. (2006): *Tener trece años en el 36*, Donostia.
- Goigana, I. (2006): *El primer exilio de los vascos*, Bilbo-Bartzelona.
- Goitia, X. (1991): *Eusko umeak atzerrian*, Bilbo.
- Grynberg, A. (1999): *Les camps de la honte*, Paris.
- Guerin, A. (2000): *Chronique de la resistance*, Paris.
- Iztueta, P. (2001): *Erbesteko euskal pentsamendua*, Donostia.
- Jato, M. (2009): *Mujer, creacion y exilio. España, 1939-1975*, Bartzelona.
- Jimenez de Aberasturi, J. C. (1999): *De la derrota a la esperanza. Políticas vascas durante la II Guerra Mundial (1937-1947)*, Oñati.
- Joannateguy, G. (2003): *Alemaniera deportatua*, Donostia.
- Koestler, A. (1946): *La lie de la terre*, Paris.
- Laharie, C. (1993): *Le camp de Gurs 1939-1945. Un aspect meconnu de l'histoire de Vichy*. Paue.
- Laharie, C. (2005): *Gurs, 1939-1945. Un camp d'internement en Bearn*. Miarritze.
- , (2007): *L'art derriere les barbelés*, Miarritze.
- Larronde, J. C. (1997): *Exil et solidarité. La ligue internationale des amis des basques*, Villefranque.
- Legarreta, D. (1986): *Gernika belaunaldia. Espainiar arteko gudako euskal ume errefuxiatuak*, Bilbo.
- Leon, M. T. (1987): *Memoria de la melancolía*. Bartzelona, Madril.
- Llorens, V. (2006): *Estudios y ensayos sobre el exilio republicano de 1939*, Sevilla.
- Marcos, V. eta Marcos, J. (2009): *Les Camps de Rivesaltes. Une Histoire de l'enfermement*, Tolosa Okzitania.
- Martinez, J. (2007): *Exiliadas escritoras, Guerra Civil y memoria*, Bartzelona.

- Matesanz, J.A. (1999): *Las raíces del exilio. México ante la Guerra Civil española 1936-1939*. Mexiko.
- Milza, P. eta Peschanski, D. (1994): *Exils et migration. Italiens et espagnols en France, 1938-1946*, Paris.
- Ordoñez, M. M. (1997): *El Comité de Ayuda a los Republicanos Españoles. Historia y documentos, 1939-1940*, Mexiko.
- Passer, E. (1993): *Gurs ein Internierungslager in Sudfrankreich. Un camp d'internement en France, 1939-1943*, Hanburgo.
- Peschanski, D. (2002): *La France des camps. L'internement 1938-1946*, Paris.
- Pruja J. C. (2003): *Premiers camps de l'exil espagnol. Prats de Molló, 1939*, Saint Cyr sur Loire.
- Rafaneau Boj, M. C. (1995): *Los campos de concentración de los refugiados españoles en Francia (1939-1945)*, Bartzelona.
- Ramirez, J. A. (2003): *Ici Paris. Memorias de una voz de libertad*; Madril.
- Razola, M. C. (1979): *Triangulo azul. Los republicanos españoles en Mauthausen*, Bartzelona.
- Ripoll, M. (2005): *Las rutas del exilio*, Bartzelona.
- Rodrigo, A. (1999): *Mujer y exilio, 1939*, Madril.
- Rodríguez, M. (2001): *Maquis, la guerrilla vasca, 1938-1962*, Tafalla.
- Rubio, J. (1977): *La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939*, Madril.
- Ruiz Funes, C. eta Tuñon, E. (1982): *Palabras del exilio*, Mexiko.
- San Sebastián, K. (1992): *El exilio vasco en Venezuela*, Bilbo.
- Sanz, V. (1995): *El exilio español a Venezuela*, Caracas.
- Schramm, H. eta Vormeier, B. (1979): *Vivre á gurs. Un camp de concentration français*, Paris.
- Sierra, V. (2009): *Palabras huerfanas los niños y la Guerra Civil*, Madril.
- Soriano, A. (1989): *Exodos. Historia oral del exilio republicano en Francia 1939-1945*, Bartzelona.
- Stein, L. (1983): *Más allá de la muerte y del exilio. Los republicanos españoles en Francia. 1933-1955*, Bartzelona.
- Tapia, E. (2004): *El ojo del exilio*, Lleida.
- Urkizu, P. (2007): *Artes escénicas en el exilio*, Donostia.
- Vilanova, A. (1969): *Los exiliados españoles en la Segunda Guerra Mundial*, Paris.
- Vilar, J. B. (2006): *La España del exilio. Las emigraciones políticas españolas en los siglos XIX y XX*, Madril.
- Zenbait egile: *Biblioteca del exilio*.
- : GEXELEk antolaturiko biltzarren aktak.
- : Hamaika Bide elkarteak antolaturiko biltzarren aktak.
- , (2000): *Una esperanza desfeta. L'exil de 1939*, Bartzelona.
- , (2001): *El exilio republicano navarro de 1939*, Iruñea.
- Zugazagoitia, J. (1977): *Guerra y vicisitudes de los españoles*, Bartzelona.

2. Euskal erbesteratuen mundura hurbiltze biografiko zenbait

Iñaki Goiojana

2.1. ATARIKOAK

Gerrak, 36ko gerrak, ondorio latzak utzi zituen Euskal Herrian. Guda-eremuetan hil zirenez gain, jakina denez, errepresioak akabatu edo kaltetu zituenak milaka izan ziren. Gehitu horri guztiari XX. mendeko aurrerapen teknologikoez baliatuta egin ziren kalte materialak, denak ere gogorrak, sakonak eta luzaroan iraun zutenak. Honaino esandako guztian, bera asko izanda ere, hor ez zen gerraren kalamitateen zerrenda bukatu. Hilei, zaurituei, elbarrituei, preso zeudenei eta kalte materialei erbestera atera behar izan zuten milaka eta milaka euskaldunen historiak gehitu zitzaizkien.

Hala eta guzti ere, bere gordinean, goiko paragrafoak ez du aparteko ezer esaten historian zehar izan diren gerra guztiekin alderatuz gero. Denetan izan dira, gehiago edo gutxiago, heriotzak, txikizioak, errepresioa eta atzerrian babesa hartu behar izan duten pertsonak. Esan daiteke hori berori dela gerraren izatea, ez besterik. Baina, nahiz eta hala izan, esan daiteke baita ere, lehenagotik zetozen elementuez osaturiko gerra bat izan 36koa, bere garaikoa ere, ezinbestean, izan zela Gerra Zibil hura. Honekin, besteak beste, esan nahi dugu Espainiako eskuinak piztu zuen gatazka hura industria eta ideologiaren garaiko borroka bat izan zela.

Industria diogunean esan nahi dugu gizakiak garaturiko teknikek ematen zuten indar guztia erabili zela bertan. Baina ez ordura arte bezala, ez bada ere makinismoak ia-ia etengabe handitzeko daukan mailan baizik, horrek ekar zezakeen kalteen biderkatze guztiarekin. Gure gerra ez zen industria garatuaren garaiko lehen borroka izan eta, zoritxarrez, gerretan heriotzak ugaritzeko eta hondamendiak areagotzeko gaitasuna ematen duen industriaren laguntza ez zen orduan amaitu, ez eta harrezkero gutxitu ere. Esan gura duguna da, 1936ko uztailean Afrikan piztu zen gatazka testuinguru industrial batean sartu behar dela, horrek azalduko dizkigu eta hainbat ezaugarri.

Honako borroka industrialen artean, akaso, I. Mundu Gerra, Gerra Handia izena jarri zitzaiona, izan zen makinismoaren aroko lehena, eta duda askorik barik,

mailarik handienera eraman zuena, berriz, II. Mundu Gerra. Bitartean daudenek, gureak ere bai, batetik besterako bidea osatu zuten eta zubibide horretan sarraskiak eta triskantzak txikiagoak izan baziren ere, bitarteko gatazketan mugak txikiagoak izan zirelako baino ez zen izan. Inondik inora ez, jarri ziren bitartekoak maila apalagokoak suertatu zirelako. Alderantziz, medio materialak hobetuz joan ziren 1918tik 1939ra bitarteko gerretan eta teknikak, ildo beretik, etengabe ondu ziren.

Hori horrela dela, ez dira nahikoak, baina, teknikak eta bitartekoak sarraskiak eta txikizioak eragiteko. Tresnak bultzada justifikatzailerik gabe iskilu hutsak dira, ezertarako gauza ez direnak. Non bilatu, bada, armon arnasa? Esan dugun legez, XX. mendea ideologiaren gizaldia izan zen, batez ere I. Mundu Gerratik hasi eta harik eta Gerra Hotza 80ko hamarkadaren bukaeran kitatu arte.

Apur bat urrunduagatik, ondoren datorren hau esan beharra dugu ideologiaren aroan piztu zen 36ko gudaldia denboran eta lekuan behar bezala kokatzeko. XIX. mendeak, ordura arteko aldi guztiek bezala, bere gerrak izan zituen eta hauen artean, zeresanik ez, etxekoek etxekoekin eginak ere bai. Euskal Herritik aldendu barik hor dira karlistaldiak, iraultzak eta gerra kolonialak. Baina horrekin guztiarekin batera garapen industrialera ere ezagutu zuen Euskadik mila eta zortziehunetan. Garai hartan, ordura arte legez, herritarren honenbesteko handi batek, gehienak, nekazaritza edo arrantzatik bizi izaten jarraitu zuen. Baina, hau egia zela, honenbesteko hori urtean baino urtean txikiagoa egiten hasi zen eta, aldi berean, handiagoa industriarena. Ez, gainera, industria txikia edo ia artisautza mailakoa, industria moderno baina. Neurriari helduz, ez bakarrik handia zena, hortik gora eginez erraldoia izatera heltzerainokoa eta, ordura arte ez bezala, nagusi eta langileen artean kofradia edo gremio harremanetatik erabat aldenduz, berdinen arteko harremanak hobesten zituena, ustez behintzat. Nahiz eta berdintasun hau, ezer izatekotan ere, erabat teorikoa besterik izan ez. Industri mota honekin batera merkataritza ere berdin garatu zen. Ondorioz, begien aurrekoa izaten hasi zen mundu berri bat eraikitzen ari zela betiko eta eterno zirudien mundu tradizionala behera zetorren bitartean.

Ez zen bakarrik ekonomia aldatzen ari zena, pentsamendua, hezkuntza, zientzia... zer ez? Dena zegoen urruntzen eta ezberdintzen ordura arteko kanonetatik eta, ondorioz, gizaldietan eta gizaldietan ontzat emandako segurantziak zalantza bihurtu ziren. Giro horretan, besterik gabe, ideia zaharrak berriengatik trukatzeari ekin zion gero eta jende multzo handiago batek. Ordura arte zeruko probidentziak gobernatzen bazuen ere mundua, harrezkero progresoa izango zen jendartearen aldaketa eragingo zuen motorra, aldaketa onerakoa izango zelakoan gainera (Bury, 2009). XIX. mendeko jendearentzat, eliteentzat behintzat, ukaezina zen mundua mundu zenetik garairik onenean bizi zirela. Eta, ideia horretan sakonduz, ez bakarrik hori, aldi hobeen atariko egunetan bizi zirelako uste osoan zeuden XIX. mendeko pentsalari puntakoenak. Medikuntzan ikusitako aurrerapenek, industrian izandako hobekuntzek, komunikazioetarako erraztasunek eta hainbat eta hainbat

antzeko adibidek ez zuten etengabeko aurrerapenaren ikuspegi hori frogatu besterik egiten. Baikortasuna zen nagusi eta bazirudien pesimismoak ez zuela lekurik. Baina, aro oparo horri ere etorri zitzaion azkena.

Ia igarri ere egin gabe hasi zen I. Mundu Gerra. Bigarren edo hirugarren mailako hiri baten (Sarajevon), aparteko garrantzirik izan behar ez zuen ekintza baten ondorioz (Austria-Hungariako enperadoreordearen eta honen emaztearen hilketaren ondorioz) piztu zen sekula ordura arte ikusi ez zen bezalako gatazka. 1914ko ekainaren 28an hil zituen Gavriilo Principek Frantzisko Fernando printzea eta haren emazte Sofia Chotek, eta laster batean, abuztuaren amaierarako jakina zen, apenas aste batzuk lehenago udazkenerako, ustez behintzat, amaituta behar zuen gerrak, luze eta krudel, oso krudel, iraungo zuela. Gerrarekin batera ez zen bakarrik *belle époque* izenez ezagutzen dugun garai alai, optimista eta ia akats gabea amaitu, mundua ulertzeko modu bat ere Flandria, Polonia edota Alpeetako guda eremuetan akabatu zen²¹.

1914tik 1918ra bitartean erein ziren ondorengo urteetan erne eta garatuko ziren landare batzuk. 1917an Errusiako inperioa Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna bihurtu zen, langileen paradisua izango zela aginduz. 1922an Italiako Erresuman Benito Mussolinik, Erromara eginiko Martxarekin, Giovanni Giolittik eraikitako sistema liberala hautsi zuen eta faxismoa ezarri Erromatar Inperioa berrituko zuela promesa eginez. Urte batzuk geroago, 1929an, munduko ekonomia hankaz gora jarriko zuen krisia zabaldu zen New Yorkeko burtsatik munduko azken bazterreraino. Gerra Handian garaile atera ziren erregimen demoliberalek, Frantziak eta Erresuma Batuak, AEBekin batera, beste gatazkarik ez izateko eraikitako nazioarteko harremanen egitura gutzia goitik behera zetorren noranahi begiratuta ere. Mendebaldean honaino esandakoa, eta ekialdean Japoniar Inperioak, europar erregimen kolonialistek Asian zituzten lurralde kolonizatuen babesle papera jokatu zuela aginduz, herrialdeok bere agindupean hartzeko geldiezina zirudien zabalkundeari ekinez ziharduen. Lan horretan Korea bereganatu zuen eta Txinako hainbat eta hainbat lurralde ere bai harik eta, II. Mundu Gerraren karira, hasi Birmanian eta Papuaraino, kontinente hartan ekialdera eta hegoaldera ematen duten ia itsasbazter guztiak eta irla gehienak bereganatu arte.

Europako mendebaldean, Atlantikoaren bazter bietan, gerraostean bizi izan zen hogeiko hamarkada zoriotsuak, sagar eder bat balitz legez, barrua jan eta jan ziharduen harra zeraman aldean. Gerra Handiaren amaieran, gatazkan garaile atera ziren potentzien ahaleginetako bat aspaldiko denboretara itzultzea izan zen. Hori bai, beste gerra handi bat ez gauzatzeko neurriak hartuz, ustez behintzat. Baina alperrik.

21. Tuchman Barbara W. (2007): *La torre del orgullo (1890-1914). Una semblanza del mundo antes de la Primera Guerra Mundial*, Península, Bartzelona; eta egile beraren, *Los cañones de agosto. Treinta y un días de 1914 que cambiaron la faz del mundo*, Península, Bartzelona, 2004.

Begi-bistakoa zen ez zirela nahikoa izan Lehen Mundu Gerra aurretik hartutako Haga akordua nazioarteko gatazkak gizatasunez eta nazioarteko legez konpontzeko. 1918tik aurrera, gerra amaitu eta segidan, garaileek gatazkan parte hartu zuten herrialdeen arteko bakeak negoziatu eta zinatzeari ekin zioten. Hau nahiko ez eta, nazioarteko arbitro-lanak burutzeko AEBetako Woodrow Wilson presidentearen ahaleginez Nazioen Liga sortu zen, baina, laster ikusiko zenez, berezko akatsak zituen inongo eraginkortasunik erakusteko. Ezintasunon erakusle nabarmena zen, besteak beste, AEBak eurak, nahiz eta bertako presidentearen ideia izan Liga sortzea, ez zirela Nazioen Ligako kide izan.

Gudan irabazle izan ziren potentziak ahalegindu arren gerraurreko garaietara itzultzen, XX. mendeko bigarren hamarkadan mundua beste bat zen. Hamarkadaren buruan ordura arte estalpean bezala gorde zen egoera ageri-agerian gelditu zen 1929ko finantza-krisiak, New Yorken krak egin eta honen dardarak, mundu osoari bira eman eta planeta osoko ekonomia dardarka jarri zuenean. XIX. mendeko demoliberalismoa ez zen nahikoa izan gizarteak mahai gainean jarri zituen arazoei erantzunik emateko. Ondorioz, krisi-giro honetan nagusitu ziren indar politikoak muturrekoak izan ziren, bai eskuinean, bai ezkerrean, gorago aipatu ditugun faxismoa (gehi nazismoa) batetik, eta komunismoa, bestetik.

Laburbilduz, XIX. mendean garaitu zitzaion erlijioari liberalismoa —librepentsamendua— eta honek Gerra Handira arte iraun zuen oroz gain; ondoren, liberalismoaren porrotarekin, ideologia muturrekoak hedatu ziren, sozialismoa, batetik, eta faxismoa, bestetik. Honen guztiaren ondorio da —edo honen guztiaren ondorio ere bada— 1936ko uztailaren 17an Afrikako espainiar kuarteletan armada-aren zati batek hasi eta hiru urte luzez, garaipeneraino, luzatu zuen gerra zibila. Hasiera batean 1820tik —espainiar liberalek eman zuten kolpe militarretik— 1932ra arte —Jose Sanjurjo jeneralak buruturiko ahaleginera arte, alegia— Espainiako historian hain ohikoak izan ziren estatu-kolpeetariko bat edo *pronunciamiento* bat besterik izan behar ez zuena gerra bilakatu zen. Baina, gorago esan dugun bezala, industriaren eta ideologiaren aroan gauzatu zen gatazka dugu esku artean darabilgun gudu hau. Hau da, batak ala besteak irabazi, batarentzako edo bestearentzako lekua besterik geldituko ez zen gerraoste bat utziko zuena. Horregatik da 36koa, urteak lehenago Espainian izandako iraultza, gerra eta abar ez legez, horrenbeste heriotza, errepresaliatu eta, berdin, atzerriratu eragindakoa. Berdin, arrazoi beragatik gerra zibil honen antzekoak izan ziren garaiko beste gatazka guztiak. Sobiet Batasunean bezala, Italia faxistan legez, Alemania nazian antzera, Espainia falangista edo nazional katolikoan ez zegoen lekuri erregimenarekin bat ez zetozenentzat. Hori zela-eta, galtzaileentzat heriotza, kartzela edo atzerria. Guk erbestea landuko dugu, orokorrean zein kasu partikularren ikuspegitik, 36tik aurrera burutu zen kataklismo hartara hurbiltze aldera besterik ez bada ere.

2.2. GERRA ETA ERBESTERATZEA

Esanda legez, gatazkak atze luzea zuen, eta gorago aipatu ditugun nazioarteko kontuak tartean dira. Arazo horiek, baina, lekuan lekuko berezitasunak eta gorpuzte ezberdinak izan zituzten, jakina. Espainiako kasuan esan izan da nekazaritza-munduaren eta hiriaren arteko gatazka izan zela, langileen eta nagusien artekoa, erlijioaren eta laizismoaren talkan piztutako sua. Beste estatu batzuetan ez bezala, garatu barik gelditu zen herrialde batean ziren iraganera begira zeuden eta aurrera egin nahi zuten indarren arteko borroka izan zela ere bai. Azkenik, eta asko ez luzatzeko kausak aipatzen, esan da baita ere, periferiaren eta zentroaren arteko ikusiezinek isiotu zutela 36ko okasioa.

Hau guztiau kontuan izanda, esan daiteke 36ko gerra ez zela egun batetik bestera piztu. Otsailean egin ziren hauteskunde orokorretan sumatzen zen zatiketa. Gerra aurrean eta bereziki hauteskunde-garai horretan, Espainian zati bi ziren nagusi, batzuk iraultzaren kontra (eskuina) eta besteak faxismoaren kontra (Fronte Popularra). Hego Euskal Herrian bazen hirugarren indar bat ere, EAJko abertzaleena, zentrokoa eta beste biengandik bereizten ahalegindu zena. Otsaileko hauteskundeetan eskuinak zabaldu zituen lelo garrantzitsuenek iraultza gorriaren mamua zuten gai nagusi. Ezkerrak, berriz, iraultzarako deirik zabaldu ez bazuen ere, eskuinaren interesen kontrako eta langileen aldeko egitaraua aldarrikatu zuen, ahaztu gabe urte bi lehenago, 1934ko urrian, izan zen greba iraultzailean parte hartzearen ondorioz atxilotuentzako amnistia eskaera. Azkenik, jeltzaleek beren katolikotasuna aurrean jarrita, estatutua aldarrikatu zuten eta baita erreforma sozialak ere.

Eskuinak, hauteskundeetako emaitza txarren berri izanda batera, hasi zituen estatu-kolpe bat emateko prestaketak. Hau da, Errepublika eskuinera bideratzeko ahaleginek porrot egin ostean sortu ziren gerra abian jartzeko lanak. Honela, esan behar da gerra *pronunciamiento*aren porrotaren ondorio izan zela, ez aurretik presaturiko kontu bat. Hala eta guzti ere, estatu-kolpea gerra bihurtu zenean, eskuinak ez zion muzin egin gatazkari, are gehiago, ondo baino hobeto profitatu zen horretaz sortuko zen gerraren modernotasuna erakusteko, hau da, etsaiaren garbiketa egiteko eta eskuineko errepublika bat sortu beharrean Estatu Berri totalitario bat indarrean jartzeko.

Hauek, baina, gerra pizteko izan ziren epe laburreko arrazoiak besterik ez ziren izan. Arnasa luzekoak, berriz, mundu tradizionalaren eta modernoaren arteko borroka, aberatsen eta pobreen arteko gero eta handiagoa zen zuloa eta ondoriozko klaseen arteko borroka, zentroaren eta periferien arteko konponezinak eta abar izan zirela, gorago esan legez, aipatu beharko genuke.

Gurean, Hego Euskal Herrian, esan dezakegu Gerra Zibilaren barruan beste bat izan zela edo, bestela esanda, oro har 36ko gerra bereizten duten arrazoiak guztiek, edo gehienek, isla izan zutela lau probintzietan. Araba eta Nafarroa hasiera-hasieratik jagi zirenekin zeuden, Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, kontrara.

Barruko lurralde biak, nekazaritzari eta mundu tradizionalari lotuagoak, eskuinaren erkin lerrotatu ziren, kostako probintziak, berriz, Errepublikaren aldeko bidean zirelarik. Euskal Herri hartan gehienak katolikoak izan arren, batzuk Eliza ofizialaren erkin joan ziren gerrara, besteak, asko hauek ere, Errepublika laikoari fidel izan zitzaizkion heriotzaraino helduz, zer esanik ez kartzelara eta erbestera. Batzuen eta besteen arteko ispiluak nahi adina jarri daitezke, baina laburbildu daiteke esanez gorago jarria: euskaldunen arteko gerra zibil bat ere izan zela 36ko gatazka. Ideologien garaian, hau da, batzuk bestearekin amaitzeko borondatez hasitako gatazken garaian, gizarte berri bat sortzeko ustez buruturiko ahalegin orokorra, totalitarioa.

2.3. ATZERRIRA JOAN AURREKOAK

Euskaldunen erbesteratzea goizetik hasi zen, goiztiarrak izan zirelako gure herrian gerrak sortutako guduak. Uztailaren 17an altxatu ziren militarrek Marokon, bihar-munean penintsulan, artean Iruñean ere bai, eta ordutik hilabetera, abuztuaren 18an, Frantziako gobernuak aginduak ematen hasita zegoen Hegoaldetik Iparraldera zihoazen babes-eskaleei laguntza bideratzeko arauak argituz. Edolan ere, erre-fuxiatu-olderik handiena apur bat beranduago izan zen, Irun eta, mugako hiriaren ondoren, ia Gipuzkoa osoa espainiar eskuinaren menpe jarri zirenean. Iruneko borroka abuztuaren 26tik irailaren 4ra bitartean gauzatu zen. Urriaren lehenengotarako, berriz, Eibar eta Elgeta inguruak izan ezik Gipuzkoa osoko lurak, Francoren menpe ziren, Bizkaian diren Ondarroa eta Berriatuko herriaren zati bat artean zirela.

Probintzian guduak izan ziren bitartean bertatik alde egin zutenak eta lurraldea nazionalen esku gelditu ondoren hauek agindu zituzten kanporaketan ondorioz ihes egin zutenak batuta, idatzi izan da 100.000 gipuzkoarretik gora izan zirela beren lurraldea utzi behar izan zutenak. Haien artean, gutxienak izan ziren Lapurdira edo Frantziako beste portu batzuetara jo zutenak, eta gehienak, berriz, Bizkairantz abiatu zirenak. Iparraldera itsasoz edo Irungo Santiago zubia zeharkaturik heldu zirenak 10-15.000 izan zirela dio Javier Rubiok (1996: 38). Hauetatik, gehienak, berriz, Gipuzkoako borroka baretu zirenean etxera itzuli ziren edo Kataluniara bideratu zituzten Frantziako agintariek. Hala eta guzti ere, batzuk bertan Iparraldean eta Frantziako beste departamendu batzuetan aterpe hartzea lortu zuten.

Gerra hasiera-hasierako iheslarien olde hau laster baretu zen. Hala, 1936ko urrian Gipuzkoa eta Bizkaia banatzen zituen frontera barealdia etorri zen eta harik eta hurrengo martxoaren azkenetara arte horrela jarraitu zuen bando bien arteko lerroak, zirkinik egin gabe. Beraz, denbora horretan ez zen ia erbesteratzerik izen. Atzerriratzeak 1937ko martxoaren 3an Emilio Molak, matxinatuek Ipar Frontean zituzten tropen nagusi zen jeneralak, abian jarri zuen Bizkaiaren kontrako erasoaldiarekin hasi ziren. Hasieran desplazamenduok bonbardaketei ihes egiteko izan baziren ere, Bizkaiko lurretan nazionalek aurrera egin ahala, hauen mendu-errepresiotik urruntzeko arrazoiak laster nagusitu ziren iheslariak aldentzeko hautua egiteko orduan.

Bigarren ihes-olde hau ez zen homogenea izan eta aldi bi bereizi daitezke bertan. Bata martxo eta apirilera mugatua. Egunean baino egunean hurbilago zen gerrari ihes egiteko eta, frontetik urrun egon arren, hegazkinak behin eta berriro zigortzen zituzten guneetako bizi ezinetik aldentzeko Euzkadiko Jaurlaritzak hainbat espedizio antolatu zituen gatazkaren kaltetu nagusi ziren umeak babesteko. Lehenaldi honen barrukoa da martxoaren 13an abiatu zen espedizioa. Bertan 730 errefuxiatuk alde zuten Bordelera Santanderren itsasoratu ondoren. Beste bat, berriz, ondorengo hau, hil bereko 21ean 450 neskato-mutiko, Bilbotik irten eta gero, Donibane Lohizuneko kaian lehorreratu zituenekoa. Apirilaren 6an bide bera egin zuten 250 lagunek. Horietaz gain, 1937ko apirilean izango ziren antzeko beste espedizio batzuk ere Baionara edo Donibanera heldu zirenak Bilbotik edo Bermeotik abiatu ondoren (Arrien eta Goiogana, 2002: 37-39).

Benetako atzerriratzea, benetan handia izan zena esan nahi da, maiatzean hasi zen eta Asturias frankisten esku gelditu aurretxoan amaitu, urriaren azkenetan (Arrien eta Goiogana, 2002: 44). Bonbardaketek jendearengan sortzen zuten egonezina eta beldurra ikaragarriak ziren eta gurasoak Jaurlaritzari umeak atzerriratzeko eskean hasi ziren. Bonbardaketon artean Gernikakoa izan zen behar bada handiena eta beldur gehien sortu zuena baina ez bakarria eta herritarrek bazekiten Bizkaiko gainerako herri eta hiri guztiak mehatxatuta zeudela eta holako aginduak faxistek bete egiten zituztela.

Maiatzaren hasierarako lehen espedizio handia prest zegoen 2.500 ume eta 1.000 emakume *Habana* eta *Goizeko Izarra* itsasontzietan Frantziarantz abiatzeko. Hilaren 5ean abiatu ziren Santurtzitik. Portu beretik, baina maiatzaren 9an, atera ziren hiru itsasontzi frantziar 1.400 ume eta 663 emakume eta atso-agure atzerriratzeko. Maiatzaren 11n heldu zen Pauillacera *Marvia* ontzia 243 zibil zeramatzala. Maiatzaren 16an berriro ere *Habana* eta *Goizeko Izarrak*, oraingoan Bordelera 4.000 errefuxiatu garraiatu zituztelarik. Lau egun beranduago abiatu ziren Santurtzitik *Habana* baporean 3.861 ume eta 230 laguntzaile Ingalaterrarantz. *Habanak* berak ekainaren 2an eta 7an, hurrenez hurren, 500 eta 4.202 ume eta errefuxiatu garraiatu zituen, lehenengo bidaian Bordelera eta, bigarreanean, La Pallicera. Gorlizko osasun-etxean ziren umeak ere ekainean atera zituzten, hilaren 9 eta 14an. Egun bion artean, ekainaren 11n, *Habanak* Pauillacera beste 4.330 ume eramán zituen. Hauetatik 1.475ek Leningraderaino jarraitu zuten, gainerakoak, berriz, Frantzian aterpetu ziren.

Bilbo jausi aurrean, Ibaizabaletik Frantziara atera zen azkenetariko ontzia *Alice Marie* izan zen eta 500 lagun inguru garraiatu zituen. Ondoren, Santander eta Asturias aldetik ihesean hasi aurrean, Frantziara heldu ziren itsasontziak arrantzontziak izan ziren, beraz, jende gutxi garraia zezaketenak (Arrien eta Goiogana, 2002: 44-52).

Esan bezala, Bilbo nazionalen esku gelditu ondoren ihesaldiak ez ziren amaitu. Alderantziz, gorago esan dugun legez itsasoz errefuxiatu-garraioa ez zen gelditu harik eta Asturiasko azken portua nazionalen menpe gelditu arte.

Esan dugu lehenago, lehen iheslariak Lapurdira jo zutela. Aipatu dugu, baita ere, Lapurdiko Baiona eta Donibane Lohizunera ere heldu zirela Gipuzkoa eta Bizkaitik abiaturiko babes-eskaleak. Baina jendez bidaia kopurutsuenek, Jaurlaritzak antolaturiko bidai gehienek, Bordele eta Girondako departamentua izan zuten helmuga edo Frantziaratzeko puntu. Hainbeste errefuxiaturen pasa-leku bihurtzeak eragin zuen bertan ordezkari bat antolatzea, hasieran Baionako bulegoaren luzapen bat, baina laster nortasun propioa izango zuena. Bertako arduradun izan zen denbora luzez Juan de Zubiaga eta berari esker dakigu zenbat errefuxiatu igaro ziren Girondako hiriburutik ihesen oldeak iraun zuen bitartean.

Zubiagak dio Pauillak, Verdon, Saint Nazaire eta Nantesko kaltetara Bilbo, Santander, Rivadesella, Musel eta Avilesen itsasoratutako 116.746 erbesteratu heldu zirela. Bordeleko ordezkariaren estatistikak zehatzak dira eta honako datu hauek ere ematen ditu: Bilbon, 1937ko maiatzaren 7a eta ekainaren 16a bitartean itsasoratatuak, 24.283 izan zirela. Bestalde, urte berean Santanderren baporea hartu zutenak ekainaren 20an hasi eta abuztuaren 24ra bitartean, 31.454 errefuxiatu izan zirela. Azkenik, gorago aipaturiko Asturiasko portuetatik ihes eginak uztailaren 17tik urriaren 25a bitartean, 61.009 lagun izan zirela. Pentsa daitekeenez guztiak ez ziren euskaldunak. Babes-bilatzaileen artean baziren kantabriarrak eta asturiarrak ere, noski, eta talde bakoitzekoak zenbat izan ziren Zubiagak gainerako datuetan ematen zuen zehaztasunik eman ezin bazuen ere, ez zen horregatik bere ustea eman barik gelditu. Horra, Bordeleko ordezkariak estimazio bat eginda esan zuen Asturias eta Santandertik abiatutako errefuxiatuen laurdenak euskalduna behar zuela izan, batez beste 30.000 lagun. Ondorioz, Zubiagak bere txostenean idatzita utzi zuen, Bordeleko ordezkariatzako datuen arabera, Girondan lehorreraturiko euskaldun iheslariak gutxi gorabehera 87.000 pertsona izan zirela²².

Zubiagaren estatistikekin jarraituz, esan ordezkariak estimazioak egin zituela jende-olde hau sailkatzeko eta horrela dio, atzerriratuen generoari dagokionez emakumeak 40.000 inguru izango zirela, hauetatik 30.000 30 urtetik gorakoak. Gizonezkoak, berriz, 24.000 zenbatu zituen Zubiagak, hauetatik 5.000 45 urtetik gorakoak. Gainerako 23.000, gorago kalkulaturiko 87.000 euskal errefuxiatu osatzerainokoak, Zubiagak dio umeak eta nagusiak izan zirela.

Euzkadiko Jaurlaritzak 1939ko martxoan prestaturiko txosten batean, Zubiagak idatzirikoa kontuan harturik eta Bordeleko arroaz gaindi erbesteraturiko euskaldunen kopurua zehazteko asmoz eginak, zioen Santander eta Asturiastik

22. Juan de Zubiaga, *Delegación de Burdeos. Los vascos en Francia. Datos estadísticos*, ez du datarik jartzen, baina 1939koa behar du, Irargi-GE-210-3.

Jaurlaritzaren kontroletik aparte 5.000 euskal herritar gehiagok ihes egingo zutela Frantziara. Baita esaten zen txosten berean, Irun nazionalen esku erori zenean 40.000 lagun inguruk lortu zutela Bidasoaz handira igarotzea. Mugako ibaia zeharkatzea, baina, ez zen nazionalak Irunera heltzean bukatu, eta martxoko txosten honetan esaten zen, baita ere, 1936ko urritik ondorengo maiatzera bitartean beste 2.000 euskaldunek igaro zutela mugako ibaia babesa lortzeko asmoz. Guztira, Euzkadiko Jaurlaritzaren arabera, 150.115 euskal herritarrek hartu zuten babesa erbesteratzen gerra hasi eta 1937ko urria bitartean (Arrien eta Goiogana, 2002: 78).

Esan dugu Jaurlaritzak interes handia jarri zuela umeak gerra-eremutik eta gerra-hotsetatik urruntzen. Esan daiteke (esan izan da) Gobernuaren esku egon izan balitz eta astia eta bitartekoak izan balitu Errepublikaren alde zirauren Euskal Herri zatia umerik gabe geldituko zela harik eta borrokak amaitu arte behintzat. Juan Gracia sailburu sozialistak zuzentzen zuen Asistentzia Sozialeko departamentuak umeak erbesteratzen egin zuen lanaren handia neurtzeko eta Gobernuaren umeak erbesteratzeko asmoa zelakoa zen ikusteko nahikoa da sail horrek 1938an eraturiko txosten bat hona ekartzea. Txosten horretan idatzia gelditu zen Espainiako Errepublikaren alde jarri zen Euskal Herrian gerrak iraun zuen bitartean eta Santander eta Asturiasek leial iraun zuten artean 37.930 ume atzerriratu zituztela euskal agintariek. Haietatik 22.234 Frantziara, 6.200 Kataluniara, 3.956 Erresuma Batura, 3.201 Belgikara, 1.889 Sobiet Batasunera, 245 Suitzara eta, azkenik, 105 Danimarkara (Egaña, 2009: 49).

Kopuruon handia zenbaterainokoa den jakiteko nahikoa da esatea 1935eko populazio-zentsuak Gipuzkoako biztanleria 302.379 lagunetan jarri zuela eta Bizkaikoa, berriz, 485.205ean. Guztira, 787.584 pertsona. Horrek esan nahi du, nahiz eta erbesteratuen artean arabarrak eta nafarrak izan, kontuan harturik gehien-gehienak kostaldeko probintzia bietakoak zirela, lurralde horietan izan zen atzerriratzea bertako biztanleen % 15etik gorakoa izan zela. Bestalde, ez dakigu zenbat ume ziren garai hartan Gipuzkoan eta, batez ere, Bizkaian, baina ikusita kopuru absolutuetan ia 38.000 haur izan zirela erbesteratuak, atzerriraturiko umeak populazioaren honenbestekoan, inongo ezbairik gabe, ikaragarri hasia izan zela esan daiteke.

Goragokoa esanda, aipatu behar da ere 150.000 euskal herritarrok sekula ez zirela aldi berean atzerrian egon. Askok eta askok muga gurutzatu eta egun gutxira berriz ere itzulerako bidea hartu zutelako eta berehala etxeratu. Edozein modutan ere, kopuru handiok ikusita eta hainbat pertsona mantentzeko dirutza handia behar zela jakinda, Frantziako Gobernuak 1937ko irailerako errefuxiatuei herriratzeko agindua zuzendu zien, aukeran emanik Hendaiatik Espainia nazionalera bihurtzea edo, bestera nahi zutenak, Cerberetik Espainia errepublikanora joateko. Agindu horren pean ziren 1936ko uztailearen 18az geroztik Frantziara sartu ziren errefuxiatuak. Agindu hori saihesteko modu bakarra Frantziako Gobernuaren laguntza behar ez zuten errefuxiatuek izan zuten, baina haiei ere, Hexagonoan bizitzeko bitartekoak izan arren, galarazi egin zitzaizkien Behe Pirinioetako departamenduan

babesa hartzea. Ipar Euskal Herria hartzen zuen departamendu horretako prefetak agindu zuen baita ere 18 eta 48 urte bitarteko gizonezko errefuxiatuek Pirinio aldea utzi eta Loira ibaiaz handi alde egin behar zutela nahi bazuten Frantzian babestu, osterantzean departamenduko buruak gizonezkoak Espainiaratzeko agindu zuen, Pirinioen punta batetik edo bestetik, Espainiarantz nondik egin, atzerriratuen esku gelditzen zelarik (Arrien eta Goigana, 2002: 105-106).

Batera edo bestera egin erabakitzea ez zen errefuxiatuentzat erraza izan. Gehienek ez zuten nahi Kataluniara joan, hara joz gero asko eta asko Errepublikako armadan sarraraziko zituztelako eta, ondorioz, gerrara bidali. Bestalde, Hendaia bidea aukeratuta, Hego Euskal Herrian jasoko zuten errepresioaren beldur ziren errefuxiatuak. Horrela, bada, bortxaz betearazi behar izan zituen Frantziako Gobernuak bere *refoulement* aginduak. Edonola ere, lan horretan Espainiako Errepublikako Gobernuaren laguntza izan zuen, hau ez baitzegoen prest ezelango erraztasunik emateko, ez eta atzerriko babesik onartzeko ere legearen arabera borrokan parte hartu behar zuen inori. Dena dela, Ipar Euskal Herria ez zen Hegoaldeko iheslariz hustu, baina bai asko arindu. Aurrerantzean euskal errefuxiatu gehienak Katalunian kokatuko ziren.

Refoulement aginduak eman eta gero, Euzkadiko Jaurlaritzak honela banatu zituen erbesteuraturiko euskal herritarren kopuruak. Zenbakion arabera 100.000 euskaldun inguru ziren Katalunian, hauetatik gutxi gorabehera 63.000 Frantziak emandako aldentze-aginduen eraginez joanak Mediterraneo alde hartara. Berriz, aginduon eraginez Hendaia bidea hartu zutenak 36.000 lagun izan zirela esaten da aztertzen dihardugun 1939ko martxoko txostenean. Azkenik, esan Frantziako bazter guztietan, baina batez ere Ipar Euskal Herrian, babesa hartu zuten euskal iheslarietatik bertan gelditzea izan zutenak 19.000 pertsona inguru izan zirela. Edonola ere, esan behar da *refoulement* aginduen osteko denborak aztertzen dituen txosten hau errefuxiatu kopururik handiena ematen duena dela eta badirela Katalunian babesa hartu zuten euskaldunen kopurua kantitate horretatik erdira mugatzen dutenak ere, hauek ere Euzkadiko Jaurlaritzak eginak (Arrien eta Goigana, 2002: 123-124).

Bizkaia nazionalen esku jausi eta ia berehala, Franco didaktore espainiarrak gerra hasieratik horrenbeste espero zuen erabaki baten berri izan zuen Vatikanoko Estatu Idazkaritzatik, diktadore espainiarrak, ordezkari erdi-ofizial bat izendatzen zuela Pio XI.ak erreboltairen gobernuaren aurrean. Ez zen ofiziala, berez oraindino Vatikanoko ez zituzelako Espainiako Errepublikarekin diplomaziazko harremanak eten, baina izendapena mundu osoak ulertu zuen errekonozimendu diplomatikoaren aurreko urratsa zela. Hala eta guzti ere, izendapena, esan bezala, ofiziala ez zenez Erromako ordezkari zen Ildebrando Antoniuttiren bidaia, nola edo hala jantzi beharra zegoen kardinal horrek Espainiara zeraman misioa. Horrela, zeregin hura, kanpora begirako, Aita Santuaren ordezkaria beraren hitzetan, honetarako izango zela esan zuen: «Euskal lurraldean gerra-presoez arduratu beharko nuen eta

lurralde hura sarraskitzen ziharduen gatazkaren eraginez erbestera bidalitako umeen herriratzeaz ere bai» (Raguer, 2001: 247).

Ez zen erraza izan Antoniuttiren lana, batez ere ez zuelako inongo neutral-tasunik erakutsi bere zereginen Erromako erdi-enbaxadore honek, eta behin baino gehiagotan euskal agintariek infrontamenduak izan zituen umeak herriratze-rakoan. Euskal Gobernuak ez zegoen umeak etxeratzearen kontra, baina horretarako gurasoen baimena eskatzen zuen eta nazionalen bandoak atzerriraturiko umeen kasuarekin propaganda ere egin nahi zuenez, sarri gertatu ziren umeen gurasoek ustez idatziriko eskaera-kartak agintari frankistek prestatutako paper faltsuak izatea. Horrela 1939ra arte ume erbestertuak gutxika-gutxika bakarrik itzuli ziren beraien etxeetara. Ume askoren etxeratzeak luzerako jo bazuen ere, II. Mundu Gerra hasi zenerako gehienak beren familiarekin zeuden (Arrien eta Goigana, 2002: 110-114).

1937ko udatik eta, batez ere, udagoienetik aurrera euskal errefuxiatuen bizileku nagusiak, batetik, Katalunia eta, bestetik, Frantzia izan ziren. Ez ziren leku bakarrak baina bai, esan bezala, nagusiak. Katalunian, gehienbat, pentsioren bat kobratzeko eskubidea zutenak edo soldadu izateko adinean zeuden gazteak izan ziren babesturiko euskaldunak. Lehenengoak, zegozkien kobrantzak egiteko leku bakarra Errepublikaren menpe zeuden lurraldeak zirelako, inondik inora ez erbestean, borrokan ziharduten askoren ustean desertzioaren pareko izenda zitekeen lurraldean. Mutil gazteen kasuan, berriz, Frantziak emandako kanporatze-agindua- ren aurrean nahiago izan zutelako Errepublikaren aldeko lurraldeetara joan eta ez nazionalen menpe zeudenetara. Frantzian, berriz, bertan bizitzeko lain ondasun zutenak gelditu ziren.

Herrialde batean zein bestean, Euzkadiko Jaurlaritzaren menpe zeuden erakundeetan, Kataluniako Generalitatearen eta udal, alderdi politiko, sindikatu, karitatea egiteko edo elkartasunerako sorturiko taldeen babespean izan ziren euskal iheslari gehienak. Batzuk, esan dugun bezala, beraiek zituzten bitartekoekin erbesteratzea aurrera ateratzeko moduan izan ziren, baina baziren beste asko, Lapurdiko portuetan babestu ziren euskal arrantzaleak kasuko, dirurik apenas, arrantzan Frantziako uretan egin ezinda bertako sindikatuetaoak beldur zirelako lekuko arrantzaleei lana kenduko ziela, Errepublikako Gobernuak borrokarako deitzeko adinean sartuta zirelako marinelaotako asko eta, bata edo besteagatik, Jaurlaritzak lagundu ezinda. Antzeko kasuetan zeuden beste hainbat euskal errefuxiatu, bai behintzat 1939ko udazkenara arte. Orduan asko hobetu zen lan-egoera, hainbat lanpostu betetzeko aukera izan baitzuten iheslariak, behar horiek egiten zituzten frantziarrak Alemaniaren kontrako gerrara deitu zituen-eta bertako gobernuak.

Egoera horrela, ia lan-irtenbide bakarra Landetako basoetan pinu-jotzen ari-tzea suertatu zitzairen euskal herritar asko eta askori. Lan astuna, baldintza txar eta gogorak eskaintzen zituena eta irabaziak irauteko ozta-ozta besterik ematen ez

zuen. Egun osoa lanean eta gauak txabola single batzuetan igarotzea besterik ia eskaintzeko ez zuen beharra. Hutsaren hurrengo, baina aukera hoberik ezean, nahi eta nahi ez, hartu beharreko bidea. Basomutil aritzea urte batzuk aurrerago ere tokatuko zitzaien errefuxiatu askori. 1941ean, Frantzia Alemaniaren esku gelditu zenean, eta euskal hegoaldetar asko enplegatzen zituzten enpresa franko itxi beharrean egon zirenean edo lana murriztu zitzaientean, Espainiara itzuli nahi ez edo ezin zutenek beste biderik ez zuten izan ikazkintzan basoetan aritzea baino²³.

2.3. KATALUNIAREN ERORKETA ETA BERRIRO ERBESTERA

Frantziako Gobernuak 1937an emandako *refoulement* aginduen eraginez halako garbiketa bat egin zen hexagonoan, eta kanporatze-dekretuaren ondoren milaka baziren ere bertan babesa harturik bizi ziren errefuxiatuak, egoera *normaldu*-edo egin zen. Hala eta guztiz ere, sasi-normaltasun horrek ez zuen urte eta erditik gora iraun eta ia-ia egun batetik bestera, 1939ko urtarrilaren azkenetan eta otsailaren lehen egunetan, goitik behera etorri zen. Izan ere, Ebroko gudua amaitu ostean, 1938ko Gabonetan, zabaldu izan bazen ere menia bat aldarrikatu behar zutela gerran ziharduten batzuek eta besteek, egia bestelakoa suertatu zen eta tregua barik Katalunia osoa hilabete eta erdian nazionalen esku utziko zuen erasoaldia agindu zuen Francok Gabon-egun bezperan, abenduaren 23an.

Orduan hasi eta otsailaren 9ra arte, nazionalak Ebrotik Pirinioetarainoko Kataluniako lurraldeak ia-ia parada militar baten antzera korritu zituzten. Lurraldeko hainbat hiri, Bartzelona artean, setiorako prestaturik egon arren, inork ez zien Francoren indarrei hauek abiada larregi hartu eta iheslariak nora ezean ez uzteko beste traba baino gehiagorik egin. Atzera-martxa azkar egin zen eta, ikusirik zenbaterainoko jende kopuruak hartu zuen bertan parte, modu ordenatuan egin zela ere esan daiteke.

Euskal agintarientzat atzerriratze hau ez zen 37an izan zenaren modukoa izan. Oraingoan euskal errefuxiatuek gutxiengo bat besterik ez zuten osatzen 500.000 lagunearaino heldu zen iheslarien masa ikaragarrian. Hau ez gutxi eta, atzerriratze honetan Jaurlaritzaren eragiteko ahalmena txikia zen, baina, hala eta guztiz ere, euskal exekutiboak bere kartak ondo erabili zituen.

Errepublikako lurraldean, lehenengo, Bartzelonako ordezkarietatik eta Kataluniako hiriburua jausi zenetik, urtarrilaren 26tik, aurrera Figuerestik eta Pirinioz handi Perpinyà eta Paristik, Jaurlaritza euskal errefuxiatuen ihesa errazten ahalegindu zen. Horretarako bere esku zeuden bitarteko guztiak jarri zituen ahaleginean eta lan hartan hartu zuten parte Jose Antonio Agirre lehendakariarengandik hasi eta gainerako sailburu guztiek. Frankisten erasoarekin batera suertatu zen deitzea

23. «Julian Estevezek eta Ceferino Jemeinek EBBra luzaturiko txostena», 1938ko apirila, Abertzaletasunaren Agiritegia-DP-15-3; Arrien eta Goiogana, 2002: 532.

Errepublikako Gorteek Espainian egingo zuten azken bilera eta, diputatu zirenez gero, bertara zuzendu ziren Agirre eta Manuel Irujo, azken hau ordurako Londresen bizi zena. Euskal agintari biak Parisen elkartu eta handik hegoalderantz abiatu zirenerako ofentsiba indarrean zenez, Bartzelonara heldu ezinda Figueresera zuzendu ziren eta han jarri zuten Agirrek eta laguntzaileek aginte-lekua, bai erbesteratzea bideratzeko, baita atsekabezko une haietan Lluís Companys *president* kataluniarrari laguntzeko ere.

Ez zen lan erraza 1939ko otsailaren lehen egunetan Agirreren exekutiboari mahai gainean jarri zitzaiona. Negu gogorrek egunetan eta egunetan gorriak eta bi pasarazi ostean, heltzen hasi ziren hainbat iheslari Figueres edo mugara, bakoitzak ahal izan zuen moduan bidea agin ostean. Leku hauetan Euskal Gobernuak jarri zituen agenteek ezagutzen bazituzten edo errefuxiatuek nor ziren aditzera ematen bazuten, posible zen Iparraldean edo Frantzian zehar sakabanaturik zeuden babesetxeetariko batera bidaltzea. Osterantzean, muga igarotzerakoan, batez ere gizonen kasuan, euskal errefuxiatuek aurkitzen ez bazuten beren gobernuko kideren bat, arruntena polizia edo armada frantsesak atxilotu eta kontzentrazio-esparruren batera bidaltzea zen hor hasteko erbestealdiaren etapa berri bat.

Dakigunez, Figueresen Agirrek eta laguntzaileek autobusak antolatu zituzten mugara jendea eramateko. Hartu zituzten zereginen artean zeuden baita ere, iheslariak jana eta agiriak ematea. Hain zuzen, janaren gainean Alberto Onaindiak, Paristik, lehendakariaren aginduz Elizako agintarien artean muga bizi zen egoera jakinazten ziharduenak, Mateo Mugica Gasteizko gotzain ohi atzerriratuari, otsailaren 2an, egun bi lehenago Espainia eta Frantziaren arteko marran euskal agintariak bakarrik, 10.000 bazkari eta 3.000 gosari bero banatu zituztela kontatuz²⁴. Valladolideko kalonjearen datuak handiegiak izan daitezke, baina muga zen euskal ordezkartzaren lana erakusten dutelakoan nago.

Iheslariak mugara heldu eta marra igarotzeak ez zuen esan nahi Frantziatik inor kanporaturik izan ez zenik, alderantziz. Edouard Daladier-en Gobernuak ahalegin guztiak egin zituen errefuxiatuek aukeratu zezaten ahalik eta kopururik handienean Espainiarako bidea eta har ez zezaten atzerrian gelditzeko hautua. Kontzentrazio-esparruetan, edo Frantziako lurraldean sartu eta berehala, ohikoak egin ziren otsailaren lehenengo egunetan, norabide batera edo bestera agintzen zuten «France» edo «Franco» hitzak idatzirik erakusten zituzten kartelak. «France» ziotenak atzerria hautatzen zutenek jarraitzeko jarri zituzten, eta «Franco» idazkuna zekartenak, berriz, hegoalderantz zuzenduta zeuden, etxerako bidea hartu nahi zutenentzat bidea iragarritzeko (Galindez, 1951: 209-210).

24. Alberto Onaindiak Mateo Mugicari bidalitako karta, 1939-2-2, Paris, Labayru Ikastegia Onaindia-11-2.

Baten batek pentsa dezake, zergatik mugaraino hainbeste neke-bide egin, behin marra igaro eta batera muga hegoalderantz zeharkatzeko berriro. Arrazoa beldurra zen. Beldurra okupatzaileei, herriak eta hiriak hartzean, beroaldian egin zitzaireten basakeriei. Eta beldurra, militar errepublikanoen kasuan, Errepublikako agintariei atzean gelditzea desertzio modura hartu zitzaizketelako eta, ondorioz, behar bada fusilatu.

Atzerriratze-lanetan buru-belarri aritu zenetako bat, Bartzelonan hasi, Figueresen jarraitu eta, Oleroera joan aurretik, Perpinyà lan egin zuenatariko bat, Leonardo Salazar Lehendakariatzako funtzionarioa izan zen. Beraren txostenei esker jakin dezakegu nolako lanak burutu zituen Euzkadiko Jaurlaritzak 1939ko urtarril-otsailean errefuxiatuak Frantziaritzen, behin muga igaro ondoren euskal babes-etxeetara bidaltzen eta kontzentrazio-esparruetan gordeak izan ziren euskal iheslariak askatzen edo beraien egoera gogorra arintzen.

1939ko otsailaren 13an idatziriko karta batean zioenez, kontzentrazio-esparruetan gordetzen ziren euskaldunen izen-deituraz osaturiko, Salazar-ek berak idatziriko, zerrenda batean ordurako 2.000 lagunetik gora azaltzen ziren, eta beste horrenbeste izen eta gehiago zituela zerrenda osatzeko. Argeles-sur-Mer, Saint Ciprien, Beziers, Le Boulou, Bourg-Madam, Prat de Mollo, Port Vendres eta beste izen batzuk orduan hasi ziren atzerriratzea gai duten paperetan azaltzen eta Salazar-en txostenetan ere bai, jakina. Guztiotan ziren euskal herritarrak eta, Agirre lehendakariak aginduta, denen kargu egin zen Salazar.

1939ko erbesterako ihesaren historia ezagutzeko, ondoren zatika transkribatu-ko dudak karta goiztiar batean, aipatzen dihardugun Salazar Lehendakariatzako funtzionarioak kontzentrazio-esparruak zer ziren azaldu nahi izan ziren eskutitza hartu behar zuten bere lagun batzuei. Honela adierazi zien: «Kontzentrazio-esparruen gainean eman diezazkizuekeedan azalpenek ez lizuekete ideia arinik ere emango hauek benetan zer diren jakiteko. Pentsa ezazue lursail itzelak non 50, 60 eta 80.000 gizonezkoraino biltzen diren lurra behean eta zerua goian babes bakarizat dutela». Bertan kartan aurrerago, bat-bateko gordeleku hauetan nor zegoen adierazteko honako hau idatzi zien Salazar-ek adiskideei: «Esparruotan kategoria guztietako eta klase sozial guztietako pertsonak daude. Ministro ohiak, diputatuak, magistratuak, epaileak, jeneralak, koronelak, orkestra-zuzendariak, etab. Esparruak zaintzen senegaldar famatuak daude eta jaten ematen diete (zerbait lortzen duenari) ogi zati bat eta sardina bat egun osorako»²⁵.

Salazar-ek dio, ordurako, 1.000 lagun inguru esparru itxietatik atera eta Euskal Gobernuaren babes-etxeetara bidalita zituztela, paper berean gaineratuz, kontzentrazio-esparruetatik destino hobe batera bidaltze-lanetan Telesforo Monzon eta Andres Irujok zihardutela.

25. Leonardo Salazarrek Julio Jauregiri eta Miguel Jose Garmendiari igorritako karta, 1939-2-13, Perpinyà, Irargi-GE-137-1.

Amaitzeko, ordura arte, euskal agintari eta erakundeek mugan egindako lanaren emaitza guztiak kontuan hartuta, Lehendakariartzako funtzionario honek, Frantzia eta Espainiaren arteko Kataluniako marra hartatik igarotako euskaldunen kopurua honela laburbiltzen zuen: «Inongo gehiegikeriarik gabe, Kataluniatik alde egitea lortu duten euskal hiritarrak 10.000 inguruan kalkulatu daitezke». Seguru asko ez zebilen oker²⁶.

2.4. FRANTZIAN

1938ko ekainaren 24an Eliodoro de la Torre Ogasun sailburuak Jose Antonio Agirre lehendakariari idatzi zion eskutitz baten ziotson dirutan Jaurlaritzak 17.735.417 libera zituela eta ordura arte legez hilean-hilean 2.000.000 libera inguru gastatuz gero diruak laster agortuko zirela, horrela ez zegoela beste urtebete irauterik. Orduan, hipotesi txar hori saihesteko, de la Torreren aholkua gastuak erdia baino gutxiagora murriztea izan zen (Arrien eta Goiogana, 2002: 494-495). Ogasun sailburuak murrizketok eskatu zituenean oraindino 1939ko urtarril eta otsaileko ihesaldi handia gauzatzeko zegoen eta euskal erbesteratu gehienak ez zeuden Euzkadiko Jaurlaritzaren menpe. Beste erakunde batzuk ziren legez, Katalunian behintzat, errefuxiatuen ardura hartu behar zutenak. Kataluniako Generalitatea eta lurralde hartako udalak, eta egoera hartan Agirreren exekutiboak ospitaleak eta umeentzako babes-etxeak baldin bazituen erakundeok mantendu nahi zituelako zen, ez behartuta zegoelako. Katalunia erori eta gero Jaurlaritzaren ardura handiagoa zen, hasieran behintzat, inor ez zegoelako prestatuta atzerriratu zen olde ikaragarria hartzeko eta Euskal Gobernuak ez zezakeelako bertan behera utzi erbesteratu zen bere herria.

Hala eta guztiz ere, zailtasunak zailtasun, euskal erakundeak ziren egoera berrirako hobetuen prestatuak zeudenak. Batetik, inork baino esperientzia gehiago zutelako eta, bestetik, nahiko izan ez arren, Frantzia azpiegiturarik handiena ere euskaldunena zelako. Errepublikako beste erakundeek inongo babes-etxerik ez zuten lekuan, Jaurlaritzak hainbat etxe zituen Frantzia zehar urte eta erdiko esperientziarekin. Horretara, azpiegitura eta eskarmentuarekin baina kaxan dirurik apenas zuela, Agirreren exekutiboari beste biderik ez zitzaion gelditu Espainiako Errepublikak erbesteratuen eskaintzen zituen baliabideetara hurbiltzea baino.

Hasieran bi izan ziren diru-iturriak. Bata, Comité Nacional de Ayuda a España (CNAE) zeritzona eta, bestea, Servicio de Emigración de Republicanos Españoles (SERE) izenez ezagutu zena.

CNAE 1938ko apirilean sorturiko erakunde errepublikano ofizial bat zen eta ofizial izate horrexegatik desegin beharrean aurkitzen zena. Esan nahi da Frantziako Gobernuak Francoren Estatua errekonozitu zuenean Errepublikaren izenean

26. *Ibidem*.

ziren erakunde guztiak Estatu berriaren esku gelditu zirela eta artean zela CNAE. Hori horrela, eta oraindino SERE sortzeko zenez, aipaturiko «Comiteak» zituen diruak ahalik eta azkarren banatu behar ziren, arriskua handia zen-eta ondasunak nazionalen eskuetan erortzeko. CNAEko batzorde eragilean Errepublikako agintari gorenak zeuden, baina baita beste batzuk ere eta horien artean Julio Jauregi, diputatu jeltzalea eta ordura arte Lehendakartzako idazkari orokorra Bartzelonan. 1939ko martxoan Parisen egin zen batzar batean erabaki zen CNAE desegitea eta kudeatzen zituen diru guztiak errefuxiatuen artean banatzea. Erakunde horretako agintariak erabaki hau hartu eta ia batera Ameriketara migratzea pentsatu zuten eta diruen kudeatzaile ia bakarrik Jauregi gelditu zen. Horrekin Euzkadiko Jaurlaritzak eta EAJk diru-partida batzuk eskuratu ahal izan zituzten hainbat euskal errefuxiatu- laguntzak emateko. Lagunduen artean egon ziren Euzkadiko Jaurlaritzak gudari elbarriak artatzeko sorturiko La Roseraieko ospitalean osatzen zeuden hainbat eta hainbat euskal iheslari. Baina CNAEk egin zezakeen diru-ekarpenak txikia behar zuen, gordetzen zituen onurak ez ziren-eta handiak. Jaurlaritzak, bada, beste diru-iturri bat behar zuen eta hori SERE izango zen.

Agirre lehendakariak eta Lluís Companys Kataluniako presidentek Lliko gaina 1939ko otsailaren 4an igaro zutenean Frantzia babesa hartzeko ez ziren ez bakarrik ez lehenak izan Kataluniako Pirinioetako tontor hura pasatzen. Presidente bien aurretik beste buruzagi errepublikano bik ere bide bera egin zuten, Manuel Azañak, Errepublikako presidentek, eta Juan Negrinek, Errepublikako gobernu-buruak. Azken horrek, Azaña Frantzia utzi ondoren, berriro hartu zuen Espainiaranzko bidea eta hegazkin bat hartu eta Zentro-Hegoa gunera abiatu zen han gerran jarraitzeko. Ez zuen luzaroan iraun. Gerra galduta zegoela pentsaturik, hainbat talde errepublikanok estatu-kolpe bat eman zuten martxoaren 4an Negrin presidentea bere kargutik kendu eta nazionalekin borrokan amaiera negoziatzeko. Negrinek orduan erbesteko bidea hartu zuen.

Errepublikak ondasun garrantzitsuak zituen erbestean gerrako premiak hornitzeko eta dirutza hau guztiau, borrokako gastuak amaitu zirenean, atzerrira atera ziren iheslariak laguntzera bideratu zen. Negrin eta bere aldekoak, bai alderdi sozialistakoak baita beste alderdi eta sindikatuetoakoak ere, izan ziren Errepu-blikako altxor hura kudeatu zutenak, hasieran behintzat. Horretarako sortu zen 1939ko martxoan gorago aipatu dugun SERE zerbitzua.

1939ko neguaren azken aste eta udaberriko hasiera hartan Espainiako Errepublikak azken hatsak ematen zituen bitartean, Frantzia bizi izan zen drama humanoa ordura arte gutxitan emandakoen modukoa izan zen. Milaka eta milaka pertsona kontzentrazio-esparru behin-behinekoetan, asko eta asko soinean zituzten ondasun apurren jabe zirela bakarrik, familia ugari kide batzuek besteen berri ez zutela, lanik gabe, aterperik gabe, eta abar. Horren guztiaren aurrean SERE diruz ondo baina beste bitarteko barik zegoen.

Horrela egoera, Euzkadiko Jaurlaritzak SEREri proposatu zion akordu bat adostea. Negoziazioak ez ziren errazak izan, baina alde bien premiak eta adostasunera heltzeko beharrak gehi Tomas Bilbaok, Eusko Abertzale Ekintzak (EAE-ANV) Errepublikako Gobernuan izan zuen ministroak eta garai hartan SEREko batzordeko kide zenak egin zuen lanari esker, apirilaren hasierarako, euskal agintariek Kontzertu Ekonomikoa izentzat jarri ziotena izenpetuta zuten SERErekin. Horren bidez SEREk hamabostean behin honenbesteko kantitate bat luzatzen zion euskal Ogasunari diruokin Jaurlaritzak zituen giza laguntzako premiak hornitzeko. Sistema horrek 1939ko azarora arte iraun zuen eta guztira 13.674.368 liberara iritsi ziren beraren bitartez Euzkadiko Jaurlaritzak hartu eta gastatu zituen frankoak (Arrien eta Goiogana, 2002: 494-511).

2.5. ERREFUXIATUEN ZIFRAK

Baina, zenbat euskalduni heldu zitzaien dirutza horren zatiren bat? Beste era batera esanda, zenbat euskal errefuxiatu ziren 1939tik aurrera Frantzian?

Ez dira erantzun errazeko itaunak hauek, garai hartan euskal erakundeek egin zituzten estatistikak ez zirelako zehatzak izan eta gaur egun dugun dokumentazioarekin zaila egiten zaigulako orduan egin ez zuten lana osatzea. Bada beste arazo bat eta da bertan momentuan egin ziren zerrenda eta fitxa asko Frantziaren okupazio-garaian Espainiako agente frankistek eskuratu egin zituztela eta Espainiara bidali agiritan ageri ziren errepublikanoen kontrako neurri errepresiboak hartzeko. Horretara, lehen eskuko materialaren faltan gaude. Hala eta guztiz ere, hurbilketa bat egin daiteke, batez ere Euzkadiko Jaurlaritzak kudeatzen zituen babes-etxeetan hartutako jendearen kopurua zehazteko, baita gobernu berak diruz lagun-tzen zituen errefuxiatuen zifrak neurtzeko ere.

Agirrerren exekutiboko hiru sailek zituzten erbesteratuak babesean hartuta. Batetik, Jesus Maria Leizaolak zuzentzen zuen Kultura Sailak. Bost eskola-kolonia zituen sail horrek eta 1939an ume kopururik handiena maiatzean izan zuen Kulturak, 630 umerekin bere kargura. Ondorengo hilabeteetan honakoa izan zen babesturikoen bilakaera numerikoa: ekainean 564, uztailean 557, abuztuan 507, irailean 378, urrian 75, azaroan 33 eta abenduan 26 neskato-mutiko.

Bigarren saila babes-etxeak zituena, Osasun Departamentua izan zen. Kultura Sailak eskolak mantendu zituen bitartean Eliodoro de la Torrek Alfredo Espinosa sailburua preso hartu eta fusilatu eta gero zuzentzen zuen sailak, ospitaleak eta elbarriak eta gaixoak hartzeko etxeak kudeatzen zituen. Horien artean La Rose-raieko ospitalea eta horrekin batera beste lau egoitza. Etxeotan 1939an izandako barrukoaren bilakaera honako hau izan zen: martxoan 880 lagun, apirileko datua La Roseraiekoa da bakarrik eta hilabete hartan 401 pertsona artatu zituzten bertan, maiatzean 690 iheslari egon ziren Osasun Saileko egoitzetan, ekainean 762, uztailean 813, abuztuan 893, irailean 715, urrian 618, azaroan 392 eta, azkenik,

abenduan 265. Esan behar da maiatzeko datua ez dela osoa ez baitakigu zenbat izan ziren Ibarritzko babes-etxean aterpetuak.

Euskal errefuxiatu kopururik handiena Asistentzia Soziala Sailak gobernatzen zituen etxeetan gorde ziren. 1939an sail horrek 10 egoitza izan zituen zabalik Ipar Euskal Herriko eta Frantziako hainbat lekutan. Eraikinotan izan ziren euskaldunen kopuruez informazio gehiago dugu eta hauek dira zifrak: urtarrilean, oraindino 8 zirenean Asistentzia Sozialaren menpeko etxeak, 1.399 ziren beraietan hartutako errefuxiatuak, otsaileko daturik ez dugu, martxoan 3.880 lagun ziren etxeotan, apirileko daturik ere ez dugu, maiatzean, berriz, 2.809 izan ziren, ekainean 2.360, uztailean 2.293, abuztuan 2.210, irailean 1.986, urrian 1.055, azaroan 736, abenduan 562 eta 1940ko urtarril eta martxoan, otsaileko daturik ez dugu, 205 eta 303 hurrenez hurren. Hamar etxe zirela esan dugu baina kopuru hori martxoan eta maiatzean izan zen bakarrik, harrezkero irailera arte 9 izan ziren eta ordutik aurrera ixten eta Frantziako Gobernu bere premiei aurre egiteko Jaurlaritzari kentzen hasi zen. 1940ko martxoan urtebete lehenago hamar zirenak bostera mugatuta zeuden²⁷.

Asistentzia Sozialak bazituen bere karguan hartuta beste egoitza batzuk ere, baina hauetan kudeaketa ezberdina zen. Egoitzetan sailak jarritako zuzendari eta langileak bazeuden ere, beste etxe hauetan, «errepublikak» esaten zieten beraietan bizi zirenek, gobernu barrukoen esku zegoen. Asistentzia Sozial Sailak honenbesteko bat ematen zien errefuxiatuei eta diru horrekin beraiek moldatzen ziren lau errepubliketan izan zitzaizketen gastuei aurre egiten. 1938an bigarren sei hilabete-koan lau etxeotan bizi zirenen kopurua honela aldatu zen hilez hil datuak emanda: 179, 187, 176, 177, 163, 158 eta 151. 1939an, berriz, bilakaera beste hau izan zen: urtarrilean 155 lagun ziren errepubliketan, otsaileko daturik ez dugu, martxoan, apirilean eta maiatzean 160 hilabete bakoitzean, ekainean 144, uztailean 138 eta abuztuan eta irailean 131 eta 119 hurrenez hurren.

Azkenik, bakoitza bere kabuz bizi baina Asistentzia Sozialaren bidez Euskal Gobernuak emandako diru-laguntza jasotzen zuten euskaldunen kopuruak zehaztu nahi genituzke. 1938ko ekainean 1.245 ziren horretara bizi ziren euskaldunak, uztailean 1.380, abuztuan 1.448, irailean 1.467, urrian 1.473, azaroan 1.357 eta abenduan 1.361. 1939an, berriz, urtarrilean 1.399, otsaileko daturik ez dugu, martxoan 1.399, apirilean 1.412, maiatzean 1.314, ekainean 1.249, uztailean 1.109, abuztuan 1.036 eta irailean eta urrian 763 eta 83 hurrenez hurren.

Horietaz gain baziren beste multzo txiki batzuk Euzkadiko Jaurlaritzaren babesean bizi zirenak gorago aipatu ditugun euskal arrantzale batzuk —1939ko

27. SEREren eskura jarri ziren aterpetxeak bi izan ziren, bata, Compans-en kokatua zegoen, eta, bestea, Enghien les Bains-en Euzkadiko Jaurlaritzak zituen etxeetariko bat izan zen. Eskualdatze hauek SEREren eta Jaurlaritzaren artean sinaturiko itun ekonomikoan zuten oinarria. Jose Antonio Agirrek SEREko presidenteari bidalitako gutuna, 1939-6-23, Paris, Irargi-GE-130-1.

martxoan 180 ziren, ekainean 146 eta irailean 23 besterik ez— eta *Elai-Alai* eta *Eresoinka* dantza-talde eta korukoak (bien artean 160 lagun inguru), hain zuzen ere.

SERETik zetozen diruek ere bazuten bere arazo politikoa. 1939ko udaberri eta udan Frantzia ez zen giro zirkulu batzuetan espainiar gorrientzat. Ezta komunismoarentzat ere. Ikusiezin hau areagotu egin zen zabaldu zenean Sobiet Batasunaren eta Alemaniaren arteko adiskidantzako akordua. Ezker moderatuan hasi eta eskuin-muturreraino Alemaniari saldu beharra egotzi zioten komunistei. Komunista frantsesen kontrako kanpaina hau beraien ingurura bakarrik ez, ustez komunistekin batera zebiltzanenganaino ere heldu zen eta talde horretan sartzen ziren Juan Negrin eta politiko sozialista honekin lotzen ziren guztiak. Hori horrela, Jose Antonio Agirrek SERETik irten eta JAREn (Junta de Auxilio a los Republicanos Españoles) sartzea erabaki zuen eta honekin batera Jaurlaritzaren gastuak ahal ziren neurrian murriztu.

JARE erakundea Indalecio Prietok sortu zuen Mexikon, itxura batean errefuxiatuei laguntzeko, baina hori SEREri aurre eginez eta, ondorioz, Juan Negrin alderdikidearen jardun politikoari kalte eraginez. Nahaste horretan Juan Negrinek erdi komunista fama zuen neurrian, Prietoren ospea justu kontrako zen. Horregatik izan ziren Agirreraren ahaleginak JAREn sartzearen aldekoak. Azkenean lortu zuen Jaurlaritzak juntan sartzea baina berandu, 1940ko otsailean, eta ezer gutxi lortu zuen bertatik.

Esan dudan moduan, Agirreraren nahietako bat laguntza sozialetan sartzen ziren diru kopuruak txikitzea zen eta horretarako neurri gogorrak hartu zituen Euskal Gobernuak. Ikusirik diru-iturriek mugak zituztela, babes-etxeak, errepublikak eta ospitaleak poliki-poliki ixteko agindua eman zuen Jaurlaritzak. Agindu horren barruan sartu zen, baita, diru-laguntzak banatzeko arauak aldatzea ere. Ordura arte laguntzaren bat jasotzeko nahikoa bazen ondasunik gabeko euskal errefuxiatua izatea, harrezkero diru-laguntzak hartzeko Hegoaldera itzuliz gero errepresio larria jasotzeko arriskua izatea ezinbesteko baldintza bihurtu zen.

Arduradunei zuzenduriko diru-laguntzak esan zitzaizen subsidio berri hauei eta nori eta zergatik zegozkion ezartzeko sail arteko ponentzia bat eratu zen²⁸. Ponentzia horrek, hasiera batean Gonzalo Nardiz ekintzaile abertzaleak zuzendua eta gero Juan de los Toyos sozialistak, lau multzotan banatu zituen ardura politikoa zuten errefuxiatuak. Mailarik gorenean jarri zituen alderdi eta sindikatuetakoko exekutibetako kideak, diputatuak, gradu altuetako militarrek, epaileak, defentsabatzordeetako kideak, eta abar. Bigarren maila batean zeuden alderdi eta sindikatuetakoko lurralde-batzordeetako kideak, apaizak, zinegotziak, komisario politikoak, probintzietako gestoretako kideak, eta abar.

28. Julio Jauregik Jose Antonio Agirrereri bidalitako gutuna, 1939-4-27, Irargi-GE-130-1.

Maila bat beherago, hirugarrenean, zeuden kazetariak, erbestera banke-txeetako ondasunak ateratzen parte hartu zuten bankuetako zuzendariak, kartze-letako zaindariak, eta abar. Ardura politikoko azkenengo mailan ziren fusilatu edo desagertuen guraso eta alargunak, gobernu, diputazio eta udaletako funtzionarioak eta beste.

Ordainketaren zenbatekoa titularraren kategoriaren eta karga familiarraren arabera zihoan. Eskabide guztiak aztertu ondoren, lehen kategorian 266 titular eta 497 senide zenbatu zituen sail arteko ponentziak. Bigarrenean 623 titular eta 856 senide. Hirugarren taldean, berriz, 1.652 titular eta 1.636 senide. Azkenik, laugarren multzoan titularrak 2.416 izan ziren eta hauekin batera bizi ziren seni-deak, berriz, 2.803. Denetara 4.957 titular eta 5.792 senide, hau da 10.749 iheslari (Arrien eta Goigana, 2002: 451-474).

Kategoria berdinetan baina Jaurlaritzak diru-laguntza eman beharrean, beste erakunde batetik (Gorteak, SERE, edo beste) jasota bizi ziren euskal errefuxiatuak, berriz, 535 titular eta 1.365 senide ziren, denetara 1.900 erbesterratu.

Hau ez da 1939ko udan Frantzia babesa harturik bizi ziren euskal iheslarien kopuru osoa, baina bada kopuru horren minimo bat. Gehiago, minimoa baino txikiagoa dela ere esan dezakegu, hor ez baitira sartzen kontzentrazio-esparruetan ziren euskal errefuxiatuak, ez beren kabuz, beste inoren laguntzarik gabe, bizia aurrera ateratzen zihardutenak ere.

Kontzentrazio-esparruetan egon ziren euskal errefuxiatuen kopuruak zehaztea ere ez da gauza erraza. Hala eta guztiz ere, datu asko ditugu euskal iheslari gehien izan zuen esparruari buruz, Gurs-eko kontzentrazio-esparruari buruz, hain zuzen ere.

Ezaguna da Gurs-eko zelaia euskaldunak hartzeko egin zela, nahiz eta laster batean euskaldunetz gain beste batzuk gorde zituen (nazioarteko brigadistak, hegazkin-pilotuak, espainiarrak, eta abar). Gurs-en eraikitzea Telesforo Monzon eta Fagalde jeneralari sor zaie. Monzonek euskaldunak elkarrekin nahi zituen jarri eta jeneral iparraldetarrak Gurs bideratu zion bergararrari, hasieran Zuberoan egin nahi izan bazen ere. Martxoaren azkenetan abiatu ziren Biarnoko herrixka horretara lehen euskal errefuxiatuak, pozik eta kontent atzean uzten zituztelako Pirinio eta Mediterraneoko zelai hotz eta babesik gabeak. Gurs-ek beste gauza bat izan behar zuela espero zuten denek eta horretarako egin zituen Monzonek, falansterio baten antzera, ia-ia euskal hiri ideal baten planoak Gurs-erako. Baina laster okertu ziren usteak eta Gurs-en ere bizia gogorra, oso gogorra, bilakatu zitzairen bertan gordetzea tokatu zitzaieni. Gurs-etik igaro ziren euskaldunak 6.000 inguru izan ziren. Esanda bezala, ez antzeko esparruetan egotea tokatu zitzairen euskaldun guztiak, baina bai gehienak (Arrien eta Goigana, 2002: 426).

Gurs-en eta gainerako kontzentrazio-esparruetan Frantziak hartu zituen euskal errefuxiatuen kopuruak gorabeherak izan zituen. Esan gabe doa jenderik gehien hasiera-hasieran egon zela itxidura hauetan, hau da otsaileko lehen egunetan, eta, esan dugun bezala, ia-ia lehenengo egunetik hasi zen Frantzia aberriratzek arintzen eta errazten.

Gurs-eko esparrua zabaldu aurretik, euskal eta gainerako barneratu gehien izan zuen kontzentrazio-gunea Argeles-sur-Mer-eko hondartzan inprobisatu zen zelaia izan zen. Mediterraneoko bazter horretan pentsatu zen eraikitzea, Gurs-en egin aurretik, euskaldunentzat gune aparteko bat. Eraikitzen hasi ere hasi ziren, eta leku berezitu horri *Gernika Berri* izena eman zitzaion. Baina ez zuen luzaroan iraun eta laster aldatu ziren Biarnoko zelaira Argelesen eta beste hainbat esparrutan ziren euskal barruratuak. Biarnoko zelaian bateratze hau, baina, laster hasi eta azkar amaitu zen, eta ez euskaldun guztiak bertara eramanez. Ematen du euskaldunak batzeko izan zen laguntza politikoak huts egin zuela edo, beste era batera esanda, kontrako beste indar politiko bat gailendu zitzaion euskaldunen aldekoari behar ez bestekoa eginez lehenengo bultzada. Beraz, euskaldun barruratuak esparru batean batzeko asmoa ez zen bete bere osotasunean, baina bai neurri handi batean.

Gurs-eko zelaia zabaldu eta gero Bram-eko esparruan 700-750 euskal barruko gelditu ziren eta beste leku askotan, beharbada ez horrenbeste baina bai, kontuan hartzeko moduko multzoak, batez ere Ipar Afrikako frantziar kolonietan. Aljeria, eta Tuniseko esparruetan, orotara, 12.000 iheslari errepublikanok hartu zuten babesa, denak Zentro-Hegoa gunetik gerra amaitu aurrean Errepublikako itsas armadako ontziterian ihes egitea lortu zutenak.

Beraz, zuzenean Gurs-en batu zituzten 6.000 euskal iheslarietara buruz hitz egin dezakegu, batez ere esparru horretan izan ziren sartu-irtenei buruz. Kontu hau azaltzeko txosten bi ditugu argigarriak. Lehenengoa, gorago aipatu dugun Leonardo Salazar-ek egindakoa da eta bertan zehazten ditu Lehendakarietzako funtzionarioak kontzentrazio-esparru biarnesean zabaldu eta 1939ko ekainaren 30era bitartean izandako sartu-irteerak. Txosten horretan esaten da ordura arte barrutitik ateratakoak 1.732 izan zirela. Hauetatik 32 esparruko ospitalean zeuden eta 181 Espainiar Langileen Konpainietan, beraz, kanpoan bai, baina ez erabat. Esparrutik total ateratakoak gainerako 1.519ak ziren, hauen artean era askotako kanporatzeak zeudelarik. Esparrutik ateratzeko izan zuten arrazoi nagusia Espainiara itzultzea izan zen. Bide hori 747 lagunek erabili zuten. Ondoren Frantzian lana aurkitu zutenak zeuden (fabrika militarretan 86, Landetako basoetan 9, nekazaritzan 215 eta Ruchard-eko Espainiar Langileen Konpainian 124), *La Roseraie*ko ospitalera eta *Osasuna* izeneko aterpetxera 177 eta 8 elbarrituk izan zuten joatea hurrenez hurren. Beste 4 Frantziako osasun-etxe batzuetara bidali zituzten. Emigratziora joan oraindino gutxi ziren ekainaren amaieran, baina batzuk bai. Migratzaileok honetara banatzen ziren: Ameriketara 16, Frantziako zenbait lekutara 28 eta bat Errusiara. Gainerako kopuruak txikiak dira eta hauen artean garrantzitsuenak EAJK kanpora

ateratako jeltokideek osatua, 38 lagun, eta barrukoen familiek kanporatutakoena, 44 barruko. Denetara 1.519. Esandako txosten berean Salazar-ek dio ekainaren 30ean Gurs-en gelditzen ziren euskaldunen kopurua 3.736koa zela²⁹.

Aipatu nahi dugun bigarren txostena Jose Antonio Agirrek Paulino Gomez Beltrani 1940ko otsailaren 23an egindako eskutitz bat da. Bertan, lehendakariak, aurretik Telesforo Monzonek emandako datu batzuk helarazi zizkion goi-kargu sozialistari: Gurs-en barruratutako euskaldun kopururik handiena etxera itzuliek osatzen zuten, 1.398 barruko. Bigarren kopururik handiena, berriz, lanera zuzenean ateratakoek eratutakoa zen, guztira 1.200 gizonetzko. Baziren beste 396 kaleratutako, ustez behintzat, lanera ateratakoak baita ere. Ameriketara joanak 240 zenbatu zituen Monzonek. Frantziako legioan izena eman zutenak Gurs-etik aldetzeko 125 euskal errepublikano. Babes-etxe eta familietara, berriz, 525 lagunek lortu zuten joatea. Euzkadiko Jaurlaritzak zituen ospitale eta aterpetxetara, 480 gaixo eta elbarritu. 300 barrukoren berririk ez zuen Monzonek. Azkenik esan, Gurs-en aterpea hartu zutenetako bi hil egin zirela eta gainerako 591k barruan jarraitzen zutela. Denetara 5.910 barruko³⁰.

2.6. KOPURUAK

Ez da erraza neurtzea euskal atzerriratzearen pisua erbesteratze errepublikanoaren barruan. Ditugun datuak ez dira denak estimazioak, honenbestekoak, batez beste-koak edo usteak. Artikulu honetan bertan eman ditugu datu zehatzak, batzuk aurretik sekula erakutsi ez direnak, baina hauek eta guztiak ere tentuz hartzekoak dira. Datuen kalitateari jarraituz, espainiar erbesteratzearen gaineko zenbakiak ere antzera aztertzeak direlakoan gaude, bai ofizialak bai bestelakoak ere.

Beharbada, erbesteratuen kopuruak inork baino lehenago eta hobeto aztertu zituena Javier Rubio izan zen. Historialari horren arabera, espainiar erbesteratzearen bilakaera kuantitatiboa 1939ko otsailaren erditik urte bereko abenduaren erdira honako hau izan zen: Frantzia eta Espainiaren arteko marra 475.000 erbesteratut zeharkatu bazuten ere, Frantzian babes harturikoen kopurua abenduaren erdialdera 140.000 atzerriratuz osatua zegoen, gainerako guztiak Espainiara itzulita zeuden ordurako, Ameriketako zenbait errepublikatar migratzea lortu zuten milaka gutxi batzuk kenduta (Rubio, 1978: 19-32).

Babes politikoa Frantzian lortu zuten espainiarrei laguntzeko sortu zen SERE zerbitzuak ere egin zituen atzerriratzearen gaineko estatistikak. Zenbakiok era-

29. «Relación nominal y resumen estadístico de los individuos salidos de este campo desde su fundación hasta el 30 de junio de 1939», Leonardo Salazar, 1939-7-24. Arrien eta Goioana, 2002: 423-424.

30. Jose Antonio Agirrek Paulino Gomez Beltrani bidalitako gutuna, 1940-2-23, Irargi-GE-259-5; Arrien eta Goioana, 2002: 426.

kundean izena eman zutenen gainean oinarrituak dira eta fidagarritasunik badute, baina ez dira bat-batean eta kritikarik barik hartzekoak. Kontuan izan behar dugu SEREn izena ematea borondatezkoa zela, eta eskabidea egiten bazen eskatzaileek premia zutelako egiten zutela, ez bestegatik. Esan nahi duguna hau da: errepublikanoen erbesteratzea ikusiezin politiko handiek baldintzatuta zegoela. Hau da, Negrinen aldekoek nekez onartu zezaketen Prietoren edo Casadoren aldeko errefuxiatu bat. Hau jakinda iheslari askok gezurra esaten zuten SEREko fitxak betetzerakoan. Gezurak ez ziren mugatzen izan gabeko afiliazioak aitortzera, datu okerrak erbesteratuak luza zitzakeen bere kargu zituen senideen kopurura ere, gehiago zirela esanda gehiago kobratzeko³¹. Bestalde, ikusi dugu zelan hainbat eta hainbat erbesteratutik etxera bidea hartu zuten Frantzian denbora bat egin eta gero. Itzultzen ziren errefuxiatuek ez zuten etxerako bidea hartu baino lehen SEREko bulegora deitzen fitxategitik beraien izenak ezabatzeko eskatuz. Honek guztiak, esan bezala, SEREko fitxategiak eman dezakeen informazioaren gainean zalantzak zabaltzen ditu, baina, aldi berean, ezin da ukatu informazio horrek baduela onetik ere zati bat.

SEREko estatistika-bulegoak egindako hiru estatistika ditugu. Batak «fitxategi erreserbatuko» banaketa politiko eta sindikala hartzen du kontuan eta 1939ko maiatzaren 29an du egite-eguna. Estatistika horretan esaten da fitxategi gordean 35.205 familiabururen izeneko beste horrenbeste fitxa daudela. Bigarren estatistika «fitxategi politiko» izena zeramanari dagokio. Estatistika hau 1939ko ekainaren 20an itxi zen. Bertan adierazten da alderdi eta sindikatu bakoitzak 37 lanbide ezberdinetan sailkatuta zegoen zerrenda batean zenbat kidek izena emanda zuten ofizio bakoitzean. Denetara 59.250 fitxa dira, hauek ere familiei dagozkienak.

Hirugarren estatistika orokorra da eta 1939ko ekainaren 26ari dagokio. Bertan zenbatuak 159.127 fitxa dira. SEREko funtzionarioek fitxotako lagin bat hartuta erabaki zuten 100 fitxako 75 lagun gehiagoko batez bestekoa egin behar zela izena emandakoen kopuru osoa neurtzeko. Ondorioz, SEREko Zentsu eta Estatistika Sailak ziurtatu zuen ekainaren amaieran zerbitzuan izena emandakoen kopurua, gutxi gorabehera, 278.500 errefuxiatuk osatzen zutela. Gorago aipatu dugun Javier Rubioren (1978: 19-32) artikuluan esaten da ekainaren lehen hamar egunetan 350.000 atzerriratu espainiar zegoela Frantzian³².

Ez dira hemen amaitzen erbesteratzearen gainean ditugun kopuruak. 1939ko abenduaren 14an Alejandro Mack izeneko batek, Kaliforniako San Frantzisko

31. Hauxe egin zuen Rodolfo Bosch Pearson Gernikako semea zen teniente koronelak. Erbestean bakarrik egon arren, zinpeko agiri bi sinatu zituen, batean, bakarrik bizi zela zioen eta, bestean, berriz, emaztea eta alaba batekin. Rodolfo Bosch Pearsonen eskariak, 1939-4-8, Kanbo. Irargi-GE-130-1.

32. Sección de Censo y Estadística. Distribución de las fichas contenidas en el fichero «Reservado» según agrupaciones políticas y sindicales, Abertzaletasunaren Agiritegia-SERE-203-4. Censo del día 26 de junio de 1939, Abertzaletasunaren Agiritegia-GC-134-6, Cuadro de composición del «Fichero Político» cerrado al 20 de junio de 1939, 1939-6-24; Arrien eta Goigana, 2002: 442-443.

hirian egoitza zuen Acción Demócrata Española laguntza-erakundearen idazkari gisa Julio Jauregiri idatzi zion ondorengo datuak eskatuz: kontzentrazio-esparruetan Frantzian ziren errefuxiatu espainiarren momentuko egoera. Euron kopurua, zehatzuz gizonetzkoak, emakumezkoak eta umeak zenbat ziren. Errefuxiatuen beharrik behinenak zein ziren. Eta Jauregiren iritzia, premiazkoagoa edo praktikoagoa ote zen, Europako egoera ikusita, beraien ekintzak, Acción Demócrata Española-koenak alegia, amerikar errepubliketan babesturiko herrikideei luzatzea edo beste zerbaite egitea. Jauregiren erantzuna, kopuruei zegokienez, honako hau izan zen: kontzentrazio-esparruetan zen jende kopurua 40.000 lagunekoa zela, gutxi gorabehera. Eurotatik 34.000 gizonetzkoak ziratekeen, gainerakoak emakumeak eta umeak. Hauetaz gain, 30.000 errefuxiatu Lan Brigadetan sartuta zeudela ere esan zion Jauregik Mack-i³³.

Azkenik zeharkako datu bat aipatu gura genuke euskal errefuxiatuen kopurua espainiarrenarekin, esanda legez zeharka, alderatzeko balio dezakeena. Gorago esan dugu Euzkadiko Jaurlaritzak zenbat diru gastatu zuen Asistentzia Sozialean SERETik jasota, 13.674.368 libera. Kopuru hau badago alderatzerik SEREK gastatu zuenarekin, jakin badakigu-eta 1939ko apirilaren 19tik abenduaren azkenera arte 96.062.144 libera gastatu zituela. Kantitate horretan sartuta daude Jaurlaritzari emandako 13 milioi eta gehiago. Beraz, erakunde baten eta bestearen arteko alderaketa 82.387.776 eta 13.674.368ren artekoa da. Hau da, dirutan behintzat, euskaldun bateko 6 espainiar ziren.

2.7. LANA ETA AMERIKETARA EMIGRAZIOA

Frantziako atzerriratzea, errefuxiatu gehienek ustean, ez zen egonaldi bat baino gehiago, ez zuen behar behintzat. Hegoaldeko giroa hobetuz gero etxera joan aurrekoa, diktadurak bere horretan jarraitzekotan, berriz, beste norabait joan bezperetako egonaldia. Edozein modutan, nazioarteko egoerak hobera egiteko zantzurik ez zuen erakutsi 1939ko lehen erdian. Alderantziz, gero eta argiagoak ziren Espainiako gerra eta antzekoak piztu zituzten arazoak baretzera barik okertzera zihoazela eta, hori ikusita, Frantzian sartu eta nazioarteko panoramaz jabetu zirenean, hainbat eta hainbat iheslariren lehenengo hautua Ameriketara salto egin eta han bizimodu berri bat eraikitzearen asmoei ekitea izan zen.

Hasieratik modu bi izan ziren Atlantikoa zeharkatzeko. Bata, bakoitzak bere kabuz bidaia eginda, eta, bestea, SEREK eta JAREK antolaturiko osteretan sartuta. Lehenengo kasuan, noski, gutxi batzuk zenbatu behar ditugu, haietariko gehienak dirudunak edo Ameriketara senideak zituztenak eta hauen laguntzaz transatlantikoren baten pasaia lortu zutenak izan ziren. Besteak, SEREren edo JAREren

33. Alejandro Mack-ek Julio Jauregiri bidalitako gutuna, 1939-12-14 eta Julio Jauregik Alejandro Mack-i bidalitako gutuna, 1940-1-23, Irargi-GE-124-1.

laguntzaz joan zirenak, gehiago interesatzen zaizkigu kopuruan ugariago izan zirelako eta hauen berri gehiago dugulako ere bai.

Berez, argi eta garbi, espainiar errefuxiatu errepublikazaleak hartzeko prest agertu zen amerikar lurralde bakarra Mexiko izan zen. Gainerako errepublika batzuk holako politikak hartuko zituztela esan arren, egiatan ez zen holako benetako borondaterik inon izan. Mexikon, esan bezala, bai. Erdialdeko Amerikako nazioak gerran zehar erakutsi zuen espainiar Errepublikarekiko atxikimendu bera erakutsi zuen gerraostean ere, eta ez bakarrik gerraoste goiztiarreko lehen urteetan. Gerra Zibilaren galtzaileenganako elkartasuna, Franco diktadorea hil eta demokrazia berriro ezarri arte mantendu zuen azteka nazioak.

Mexikora joateko baldintzak eta gainerako kontuak argi azaldu zizkion Julio Jauregik, ordurako Agirre lehendakariak Diru eta Bidaia-laguntzetarako eta Taldeko Emigraziorako Behin-behineko Saileko arduradun izendatuak eta EAJren ize-nean SEREko batzordeko kide zenak, Frantzisko Arregi, Euzkadi Buru Batzarreko ordezkariari. Honela ziotson 1939ko apirilaren 4ko eskutitz baten: «Mexikora joatea Batzordeak (SEREkoak) joangarri izendatzen dituenak bakarrik izango dute, hau da, gerran izandako lanengatik hartutako ardurek beraien bizia arrisku larrian jarri barik etxera itzultzerik ez dutenek». Eskutitz berean, aurrerago, honela jarraitzen zuen Jauregik «Gaur arte 150.000 fitxa hartu dira, eta euretatik 22.000 baino ez dira migratzeko onargarritzat jo».

Hiru modu ziren Jauregik azaltzen zuenaren arabera Mexikora joateko. Bata, bidaia kolektiboetan. Horretarako SEREk itsasontziak kontratatuko zituen eta alderdi eta sindikatu bakoitzari honenbesteko kuota bat jarri erakunde bakoitzak bere kidez edo jarraitzailez betetzeko. EAJk ez zituen eskakizun asko egin eta Jauregik ziotson Arregiri kuota betetzeko Jaurlaritzaren aterpetxeetan ziren euskaldunei luzatuko zuela Mexikora joateko aukera.

SEREk jarritako migraziorako bigarren laguntza mota banakako bidaiena zen. Errefuxiatuaren batek nahi izanez gero bere kabuz Ameriketara joan eta SEREk jarritako arauak betetzen bazituen, eskubidea zeukan diru-laguntzak eskuratzeko. Jauregik Arregiri luzaturiko karta idatzi zionean oraindino laguntzaren kopurua ezartzeko zegoen, baina pertsonako 2.500 liberakoa izango zela aurreratu zion. Hirugarren kasua bigarrenaren antzekoa zen. SEREren arauen barruan egon eta dirua izan, baina ez nahikoa, pasaia ordaintzeko. Horrelako kasuetan interesatu bakoitzari emigraziorako zerbitzuak 1.000 edo 1.500 liberako diru-laguntzak emateko prest zegoen³⁴.

Mexikorako zirela ziotson Jauregik Arregiri orduan, 1939ko apirilean, Amerikara joateko bidaiak hasteko zeudelako eta ordura arte Mexiko bakarrik eskaini zelako errefuxiatuak hartzeko. Edonola ere, begi-bistakoa zen Mexikok bakarrik

34. Julio Jauregik Frantzisko Arregiri bidalitako gutuna, 1939-4-20, Paris, Irargi-GE-130-1.

ezingo ziola emigraziorako eskakizun guztiei baiezkoarekin erantzun. Beste destinoren bat aurkitu beharko zen nahi baziren iheslariak Ameriketara eramán.

Hutsune hau betetzera-edo etorri ziren Dominikar Errepublikak emigratzeko agindu zituen erraztasunak. Erraztasunen artean zegoen huskeria ez zen puntu bat, hau da, Karibe-alde hartara joateko kopuru mugaturik eza. Nahi zuenak, berez edo besteren baten bitartez bidaia ordaintzerik bazuen, libre zuen bertara joatea. Laster konturatu ziren, baina, iheslari espainiarrak Rafael Leonidas Trujilloren herrialdea ez zela mauka, erraztasun guztien ostean ez zegoela beraien usteko babesá. Izan ere, Trujillok espainiarrak Haiti eta Dominikar Errepublikaren arteko muga «zuritzeko», arrazaz zuritzeko, nahi zuen migrazio hau. Gauza berdinerako nahi izan zuen bezala Europa ekialdetik ihesean zihoazen juduen emigrazioa. Horretarako eta errepublikanoei atera ziezazkiekeen diru eta ondasunengatik, ez iheslarienganako elkartasuna erakusteko edo antzeko joera filantropikoek eraginda. Izan ere, Trujilloren diktaduraren ezaugarria izango zen erregimenak iraun zuen artean aukeran zituen ondasunak guztiak lapurtzea. Bestalde, errefuxiatuek inongo irtenbiderik ematen ez zien lurralde hartara joateko hautua egin baldin bazuten, Hispaniola irlatik lurralde hobe batera saltoa egitea Frantziatik baino errazagoa izango zelakoan egin zuten. Eta hala izan zen, urte gutxiren buruan Dominikar Errepublikan ia errefuxiatu espainiarrik apenas gelditu baitzen.

Orain arte aipatu ditugun emigraziorako helburuetan euskaldunek hartu zuten parte, baina ez denek. Esandako Ameriketara heltzeko bideak hartu zituztenak neurri handi batean ezkerreko militanteak izan ziren. Jeltzale gutxi joan ziren Mexikora eta Dominikar Errepublikara. EAJko kideek Venezuelara eta Argentinara jo zuten gehienbat, errepublika horietan, batez ere Venezuelán, eskuratu baitzuten aparteko tratua eta gainerako iheslariengandik bereizteko modua. Izan ere, bai Venezuelara eta bai Argentinara joateko euskaldunek, lehenengo kasuan jeltzaleek bakarrik edo gehienbat, eta, bigarrenean, Ipar nahi Hegoaldekoek, erraztasun bereziak lortu baitzituzten.

Emigraziorako destino hauetaz gain, izan zen bi mila migratzaile baino gehiagok profitatu ahal izan zuten beste helburu bat ere, Txilekoa hain zuzen. Esan daiteke baita, helburu horrek ere izan zuela bere apartekotasuna. Hego Konoko herrialdean 1938an hauteskunde presidentzialak egin ziren eta komizio haietan ezkerrek babesten zuen hautagai erradikala bozkatu zuten lehendakaritzarako. Giro horretan, Espainiako gerra amaitu zenean, Pedro Aguirre Cerda presidenteak Pablo Neruda poeta aukeratu zuen Parisen kontsul jarri eta bertatik iheslari errepublikanoen Txilerako emigrazioa antolatu eta errazteko. Migrazio horren barruan, Txile helburu zuela bidaia bat bakarrik egin zen, bigarrena eta ondorengoak egiteko II. Mundu Gerra hasi zen eta bidea moztu zitzairen. Hala eta guztiz ere, bidaia bakar hori oso jendetsua izan zen eta, garai hartan salatu zenez, oso partziala. *Winnipeg* itsasontzian abiatu zirenak 2.053 errefuxiatu izan ziren, 1.199 familiatakoak. Bidaiariok, esan dugun legez, Nerudak antolaturiko bidaia batean joan ziren,

baina SEREk ordaindutako txartelek. Ordura arteko bidaietan parte hartu zuten errefuxiatu gehienak komunistak zirela esan izan zen, baina oraingoan salaketa horiek areagotu besterik ez ziren egin, eta ez bakarrik Emigratorako Zerbitzua erdi komunistatzat jotzen zelako, ezpada Neruda bera eta Parisko kontsulatuan poeta honek hartu zituen kolaboratzaile guztiak kolore politiko gorrikoak zirelako³⁵.

Gelditzen zaigun emigratorako helmuga handi bakarra Argentinakoa da. 30eko hamarkada osoan zehar eta 40koaren lehen urteetan Argentinako giro politikoa oso nahastua zebilen. Garai honi Argentinako historian *Hamarkada Ezduina* esaten zaio. Agintean zen gobernu *Bateratasuna (Concordancia)* izeneko formula, hau da Demokrazia Nazionala, Batasun Hiritar Erradikal Antipertsonalistak eta Alderdi Sozialista Independentek osaturiko koalizioa, bortxaz eta apaindutako hauteskondeez baliaturik mantendu zen agintean 1930ean izan zen Hipolito Yrigoyenen kontrako estatu-kolpetik *Bateratasun* horren kontra militarrek 1943an eman zuten kolpera bitartean. Aldi horretan Argentinan etorkinak sartzeko baimenak murriztuta edo erabat kenduta egon ziren. Hala eta guztiz ere, Buenos Airesko Euskal Ordezkaritzak, bertako hots handiko euskaldunen laguntzaz Roberto Ortiz Lizardi presidente izan zen garaian, euskaldunentzat, Ipar zein Hegoaldekoentzat, Argentinara joateko baimen berezi bi lortu zituen. Euskal emigrazioa arautzen zuten dekretu bi hauei esker hainbat espediente kudeatu ziren beste horrenbeste norbanako edo familia Errepublikara Australera bideratzeko. Ramon Maria Aldasoro euskal ordezkariak zioen 1940ko otsailaren 24ko eskutitz batean 170 espediente tramitatzen ziharduela eta 500 lagun eragiten zirela espedienteok. Apirilaren 14ko beste eskutitz batean, berriz, Aldasorok aipatzen zituen espedienteak 300 ziren eta hauek eragindako pertsonak, berriz, 700.

Kopuruekin jarraituz, 1939ko udaberrian hasi eta irailaren lehenengoan II. Mundu Gerra hasi bitartean egin ziren bidaiak batzuetan joan ziren errefuxiatu kopuruak eman ditzakegu. Mexikora *Sinia* baporeak, maiatzaren 24an abiatu zen bidaietan, gutxi gorabehera 1.600 lagun eraman zituen. Hilabete lehenago *Flandre* itsasontzian 300 errefuxiatu alde zuten Europatik. Azkenik, uztailean eta abuztuan *Ipanema* eta *Mexiqueren* bidaietan, hurrenez hurren, gutxi gorabehera

35. Lista del personal embarcado para Chile a bordo del «Winnipeg», ez du datarik baina 1939ko abuztukoa behar du. Abertzaletasunaren Agiritegia-SERE-6-4.

Fidel Rotaetxek, Bordeleko SEREko ordezkariatzako kidea hau ere, Julio Jauregiri esan zion *Winnipeg*-en 2.044 bidaiari zihoazela, baina hiru urtetik beherako umeak kontuan hartu gabe. Fidel Rotaetxek Julio Jauregiri bidalitako gutuna, 1939-8-4, Bordele, Irargi-GE-130-1.

Neruda eta bere laguntzaileen komunismoaz eta hauen eraginaz honako hau ziotson Juan de Zubiagak, Bordeleko Euskal Gobernuko eta SEREko ordezkarietzako arduradunak, Julio Jauregiri: «Bai Mexikorako eta bai Txilerako ontziratzeetan komunisten organizazioaren eskua ikusi ahal izan da erakutsi duten kontrolagatik» [...] «Txilerako ontziratzeetan Neruda Jn. Gamboa Jn. beste izan da prest komunisten ontziratzeak errazteko. Tatxo Amilibia militante komunistak aholkatuta dabil, aholku zuhurra bezain ezinbestekoa dena». Juan de Zubiagak Julio Jauregiri bidalitako gutuna, 1939-8-12, Bordele, Irargi-GE-130-1.

1.000 eta 2.200 errepublikano aldatu ziren kontinentez³⁶. SEREk antolatutako espedizio hauen aurretik, gerra denboran bertan, izan ziren jende kopuru txikiago-ko bidaiak batzuk, hala nola Moreliako umeena eta Euzkadi Futbol Taldekoena adibidez, baina lagun gutxiagoak eta puntualak besterik ez ziren izan bidaiak hauek.

1939ko hilabete hauetan, Venezuelara joan ziren euskaldunen kopurua ere ezagutzen dugu, gutxi gorabehera behintzat. Hala *Cuba* baporeak ekainaren 25ean abiatuta 65 gizonetako gehi emakume eta hauekin ume batzuk eramane zituen; *Flandren*, uztailean, 161 lagun joan ziren, eta *Bretagnek*, abuztuan, 86 eramane zituen.

II. Mundu Gerraren etorrerarekin ez zen amaitu errefuxiatuen Ameriketarako fluxua, aldiz, geldotu bai eta larritu ere bai. Batez ere 1940ko ekainetik aurrera alemaniarrek Frantziaren zati handi bat zuzenean gobernatzen jarri eta gainerako guztian, zuzenean ez, baina zeharka zer egin agintzen hasi zirenean. Aldi horretan izan ziren bidaiak garrantzitsuenak JAREk ordaindu zituen eta denen artean ezagunena *Alsina* itsasontziak burutu zuena izan zen. Marseillatik 1941eko urtarrilaren 15ean abiatu zen eta hilabete bereko 27an Dakarreko portua jo zuen. Senegaleko hiriburuan Atlantikoa zeharkatzeko behar zituen paperak tramitatzen sei hilabete eman ondoren eta ezer lortu ez, Casablancarantz abiatu behar izan zuen ekainaren 15ean. Biharamunean *Alsinako* ia pasaiari guztiak kontzentrazio-esparru bitara eramane zituzten. Han eduki zituzten agintariek hamabost egunez. Esparruetatik askatu arren, ezin izan zuten itsasoratu azaroaren 4ra arte. Egun horretan JAREk pleitaturiko *Quanza* bapore portugaldarrean abiatu ziren, hil bereko 18an heldu zirelarik Veracruzera. Hor ez zen iheslari guztien gurutze-bidea amaitu eta Argentinara joateko baimenak zituztenak ez ziren heldu Platako errepublikara 1942ko apirilaren 15era arte, bitartean gorriak eta bi ikusten jarraitu zutelarik (Amezaga, 1991: 81-100).

Casablancatik Ameriketara errefuxiatuak garraiatzeko JAREk pleitatu zuen beste itsasontzi bat *Nyassa* izan zen. Kontratatzeko gorabehera guztiak Indalecio Prietok egin zituen New Yorken, han bizi zen Valentin Agirre Busturiko semeak zuen merkataritza-etxearen bitartez. Gestio horietan 804 errefuxiatu Mexikoko Veracruzera eramateko txartelak erosi zituen Lisboako Companhia Nacional de Navegação delakoan, garai hartan, portugaldarra zelako Atlantikoa zeharkatzeko

36. Manuel Irujok Julio Jauregiri Lorenzo Perramón Playák aurretik idatziriko gutun batean emandako datuak errepikatu zizkion. Perramón-ek honako datu hauek eskaini zizkion ministro ohiari *Mexique*-k izandako bidaiari buruz: Itsasoratuko zirela esandako asko, batez ere ideologiaz errepublikanoak eta anarkistak, portuan utzita SEREk antolatutako hirugarren espedizio hau 1939ko uztailearen 13an abiatu zen Bordeletik eta hil bereko 27an heldu Veracruzera. Hiru urtetik gorako 2.168 errefuxiatu garraiatu zituen eta 120 hortik beherakoak. Bidaiari hiru jaiotza izan ziren eta ia heriotza bat, bidaiari batek bere burua itsasora bota bazuen ere, erreskatatzea lortu zuten eta. 2.168 hiru urtetik gorako artean 635, 14 urtetik beherakoak ziren eta gainerako gehienak emakumeak. Errefuxiatu talderik handiena, % 40 inguru, kataluniarrek osatzen zuten. Eskifaia, 238 lagunek osatua zegoen. Irargi-GE-130-1.

gerran ziharduten aldean onespina jaso zezakeen bakarretarikoa. Beste bidaia batzuk ere izan ziren, baina txikiagoak bidaiarien kopuruan³⁷.

1939ko udazkenara arte, hau da, II. Mundu Gerra hasi arte, errefuxiatuentzat Frantzia lana bilatzea baino gauza zailagorik asko ez ziren izango. 1929ko krisi ekonomikoak Frantzia ere ondo astindu zuen eta hexagonoko sindikatuek ez zuten inondik inora onartzen horrenbeste atzeritarren konpetentzia zuzenik. Horrela, errepublikano espainiarrek lortzerik izan zituzten lanak Frantzia inork nahi ez zituenak izan ziren. Gorago aipatu dugun Landetako basoetako lana da horren erakusgarri. Beste antzeko lan-arlo bat nekazaritzako aldi baterako beharrena izan zen. Hala eta guztiz ere, ez zen nahikoa erbesteratu guztien premiak asetzeko.

Egoera hau guztiz aldatu zen 1939ko irailaren lehen Alemaniak Polonia inbaditzeari ekin zionean. Eraso horren kontra jo zuten Erresuma Batuak eta Frantziak eta soldaduskara deitu zituzten horretarako adinean sartuta zeuden mutilak. Neurri horrek hainbat eta hainbat lanpostu hutsik utzi zituen eta, ez hori bakarrik, gerra-egoerak defentsarekin loturiko obra eta lan-arlo asko bizkortu egin zituen. Ondorioz, mobilizazioak ukitu ez zituen ehunka euskal iheslarik lana aurkitu zuten, bai postu kualifikatueta (arma-fabriketan, adibidez) bai peoi gisa defentsarako obretan (esate baterako, aireportuak edo fabrika militarrek egiten).

Lana aurkitzea, gainera, Euzkadiko Jaurlaritzak babes-etxeak husteko aginduarekin eta Espainiako erregimenaren aldetik gaztigu handiegirik espero behar ez zuten iheslariari diru-laguntzak kendu eta etxera itzuli eta Ameriketara ez emigratzeko aholkuarekin batera etorri zen. Horrela Jaurlaritzak zituen iheslariak hartzeko etxeak erraz hustu ziren eta Ameriketara joan zirenak asko izan baziren ere, etxera itzuli zirenak askoz ere gehiago izan ziren. Era berean, Hegoaldera bueltatu ez arren, Frantzia gelditzea erabaki zutenen kopurua ere kontuan hartzeko modukoa izan zen, itsasoz haraindira joan zirenean baino asko haziagoa.

2.8. OKUPAZIOA ETA GERRAOSTEA

Maiatzaren 10ean, gutxien uste zutenean, ikusi besterik ez dago Agirre lehendakariak zelan familia hartuta egun bi lehenago Belgikara joatea erabaki zuen bere seme gaztea Joseba Flandrian bizi ziren aitona-amonei eta gainerako senideei erakustera aspaldian ikusteko zutelako, Alemaniak Herbeheretan zehar Frantzia eraso zuen eta hilabete eta erdiren bueltan (1940-6-22) armistizioa sinatzeko gertu utzi.

37. JAREk Mexikon eta Mexikotik egin zuen lana aztertzeke ezinbestekoa da erakunde horretako aktak aztertzea, <<http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/ace/>>. Nyassak egin zuen bidaiako albiste zuzenak izateko: Ruiz de Azua, A. *Ogoñope* (1942): «Desde Marsella a Méjico. Alrededor del mundo», *Euzko Deya*, Buenos Aires, 132, 5.

Armistizioaren ondorioa Frantzia bitan banatzea izan zen. Bata, Frantziaren iparralde eta mendebaldea, Atlantikora begira dagoen hexagonoaren zatia, Alemaniaren menpe gelditu zena eta naziek zuzenean Paristik gobernatuko zutena —zona okupatua izena hartu zuena—. Bestea, berriz, Mediterraneo alde, Frantziaren ekialdea eta hegoaldea, Vichy-n Philippe Pétain marexalaren agin-dupean eratu zen gobernu kolaboratzaileak gidatuko zuena —zona libre izendatu zutena—³⁸. Aldaketak ez ziren mugatu administraziora bakarrik. Hori baino sakonagoa izan zen aldaketa. Esan daiteke muga berriek dena baldintzatu zutela. Ez zen bakarrik errefuxiatuek emigratzeko zailtasunak zituztela. Ezta lana eskatu egin zela ere. Horri guztiari, asko izanda, gehitu behar zitzaion agintari berriekin, bai alemaniarrekin bai frantses kolaborazionistekin, kontu handia behar zela Francoren adiskideak baitziren, horrek ekar zitzakeen ondorio txar guztiekin.

Armistizioaren ondorengo aldaketak asko zaildu zituzten baldintzak eta errefuxiatu askok eta askok etxera itzultzea erabaki zuten. Errepresioaren beldurrez Frantzia jarritzea hautatu zutenentzat ez ziren bide asko gelditu lana aurkitzeari zegokionez, esan bezala, asko gutxitu zen-eta. Alemaniarrentzat lan egin nahi ez eta konpromiso politiko handia zutenak basogintzara jo beharrean aurkitu ziren, ikazkin. Besteak, alemaniarrek kosta atlantikoan zehar egiten ziharduten babes-horman eta gainerako defentsa-obretan aurkitu zuten beharra, baina bai baso-mutilak bai defentsa-lanetan aritu zirenak, baldintza txarretan. Hala eta guztiz ere, hauek baino egoera okerragoan gelditu zenik ere izan zen, adibidez harrapatu eta Alemaniara hango fabriketara lanera bidali zituztenak. Armistizioaren ondorengo urteak zailak izan ziren Frantzia alemaniarren menpe gelditzea tokatu zitzaizen errefuxiatuentzat. Lanik ez eta pertsekuzio polizialaren beldurra, gainera ordura arteko SERE edo JAREren diru-laguntzak asko gutxitu ziren eta hartzeko maiztasuna ere asko jaitsi zen

Esan dugu Frantzia Alemaniaren menpe jausi zenean, ezinbestean, hainbat errefuxiatuk etxerako bidea hartu behar izan zutela. Baina joera horrek ez zuen luzean iraun eta migrazioen fluxua aldatu egin zen 1944an, aliatuak urte horretako ekainean, Normandian lehorreratu eta, ondorioz, bigarren frontea zabaldua, Frantzia askatzen hasi zirenean. 1942ko Gabonetatik, Estalingradeko batailatik, gudua aliatuen aldera makurtzen bazihoan ere, Normandiako lehorreratzearen arrakastarekin garaipena zeinen aldekoa izango zelako gainerako zalantza guztiak uxatu egin ziren. Harrezkero, euskal errefuxiatu gehienak eskuekin heltzeko modura ikusten hasi ziren Franco eta haren erregimena jausiko zen ueña eta, horrekin batera, etxera itzultzeko eguna. Denbora-kontua zen egun handi hura eta hainbaten ustetan, atzerriratuen eta etxean zeudenen ezinbesteko zeregina bihurtu zen 36ko uztailean hasi eta diktadura eraitsiz itxiko zen zirkulua burutuko zuen momentu hura aurreratzea. Horregatik hainbat eta hainbat lagunek muga hegotik iparrera igaro zuten, Frantzia erresistentziako indarretan naziei gerra egin eta gero falangista nazional-katolikoei borrokatzeko.

Azken esaldiaren lehenengo zatia bete zen, bigarrena ere bai, baina ondorioak ez ziren izan errepublikanoek nahi izan zituztenak. II. Mundu Gerra amaitu eta ia batera beste gerra bat hasi zen munduan, Gerra Hotza izentzat hartu edo eman zitzaiona eta honetan Francoren erregimenak, Mendebaldeko demokrazien ustetan, komunismoaren kontrako ezinbesteko rola zuen jokatzeko.

1949ko otsailean Bordelen egin ziren Ikasketa Sozialei buruzko jardunaldi batzuetan, Julian Mateok aurkeztu zuen komunikazioan, espainiar emigrazioaren historia eginez, Frantziaren liberazioaren ostean izan zen hegotik iparrerako mugimendua ordura arte izan ziren migrazioen artean hirugarrentzat jo zuen. Lehenengo, gerra aurrekoa, ekonomikoa izan zen, bigarrena, gerrak eragindakoa, politikoa, eta hirugarren hau, hasieran politikoa baina denborak aurrera egin ahala ezaugarri ekonomikoak gehitzen ari zitzaiona. Mateoren ustez, 1944tik ordura arte Gironde aldean hirugarren fluxu horretan joandakoak honela banatu zitezkeen: % 15 arrazoi politikoengatik ihes eginek osatzen zuten, % 40 arrazoi ekonomikoek eragindakoen, beste % 10 Frantzian ziren senideek deituak ziren eta gainerako % 30a denetariako jendez osatua zegoen, asko Frantzia Ameriketara joan aurreko eskala egiteko baliatzen zuten lurraldetzat hartzen zutenak zirelarik. Mateok dio bere txostenean, liberazioaren egunetan Bordele inguruetan 5.000 euskal eta espainiar errefuxiatu zirela lanean. Bertan txostenean esaten da baita ere, Baionako Ordezkaritzak esanda, ordezkaritza horrek 9.300 euskal errefuxiatu berri zuela momentu hartan³⁹.

Mateok aipatzen duen Baionako Ordezkaritzaren datu hori Javier Gortazar ordezkaririk egindako txosten batean aurkitu dugu. Txostenean ageri den datu hori eta beste batzuk ziurtatzeko, Gortazarrek ordezkaritzak buruturiko zentsua aipatzen du. Errolda horretako fitxak 5.552 ziren, pertsona bakan edo familiaburuen datuz osatuak. Hauetatik, familiei zegozkien fitxak, berriz, 3.661 ziren eta denetara 9.213 errefuxiatuko jendetzaren berri ematen zuten⁴⁰. 1946ko uztailaren 20an ateratzen Buenos Airesko *Euzko Deyan* ere argitaratu zen garai horretako euskal erbesteratuen estatistika bat. Bertan, zenbaterainoko kopurua emateaz gain, Frantziako departamenduz departamendu zenbat euskal atzerriratu bizi ziren ere esaten da. Erreportaje horren arabera, Euskal Gobernuak 4.490 errefuxiatu berri zeukan eta *Euzko Deya* horretan ageri denaren arabera, esan daiteke gehien-gehienak

38. Egiatan, armistizioan, banaketa administratibo hauetaz gain, izan ziren beste batzuk ere. Lille ingurua Bruselatik gobernatzeko zatitu zen, Alsazia eta Lorena zuzenean Alemaniara pasatu ziren, ipar-ekialdean Alemaniako mugan osoaren parean igarotzea debekaturiko gune bat marraztu zen eta Italiako mugaren parean Grenobleraino luzatzen zen italiarrek okupaturiko lurralde bat ere markatu zen.

39. «Rapport sur l'immigration espagnole en France», Communication de Julian Mateo, ouvrier basque-espagnol, aux Journées d'Etudes Sociales qui ont eu lieu à Bordeaux», *Euzko Deya*, Paris, 1949-3-15, 306. zk., 5-6. or. Txosten beraren kopia makinaz jota eta 1949ko otsailaren 6an izenpetuta Irargi-GE-179-1.

40. Gortazar, Javier de, «Delegación de Bayona», Irargi-GE-179-1.

Frantziako hego-mendebaldean bizi zirela, eta area horren barruan Pirinio Behereetako departamenduan, hau da Ipar Euskal Herrian. Esparru geografiko horretatik aparte, Pariseko Seine departamenduan bakarrik aurkitu zitezkeen ehun errefuxiatutik gorako multzoak. Gainerako departamenduetan dozenaka iheslari batzuk bizi ziren, baina, hori bai, ia hexagonoko eskualde gutzietan⁴¹.

Harik eta ekonomia 1950eko hamarkadan bizkortzen hasi zen arte, Frantziara migratzea zaila izan zen, gaitzagoa muga itxita egon zen artean. Hasieran, II. Mundu Gerraren amaiera bueltan, sintonia politikoak eraginda iheslariak ondo hartzen hasi baziren, laster 1946rako, Frantziako agintariak atzerriratu hauek Merignac-eko (Bordele) emigrazio-zentroan sartzen hasi ziren. Merignac behin-behineko zentroa zen. Ez zen kartzela bat, eta ez zeraman kontzentrazio-esparruaren izena, baina bertako baldintzek ez zuten zer inbidiaturik izan bost urte lehenago zabaldu ziren esparruei. Hain ziren txarrak bizi-baldintzak 1946ko abenduan ezen euskal iheslari batzuk gose greban jarri ziren⁴².

Hau guztiau, esan bezala, ez zen konpondu, Francoren erregimenak beste hiru hamarkadaz iraun zuen-eta. Ikustekoa da Gortazarrek zenbatzen zituen fitxetan zelan ageri diren Gerra Zibilean atzerriratuak eta hirurogeiko hamarkadan ihes egindako etakideen datuak. Beste belaunaldi bat eta beste erbestealdi bat.

2.9. IPANEMAKOAK

Gorago ikusi dugu nola *Ipanema* itsasontzia izan zen SEREk Amerikara errepublikazale espainiarrak eramateko pleitatu zuen ontzietako bat. Ez zen handiena izan, baina bai errefuxiatu kopururik handienetakoa garraiatu zuena. Pentsatzekoa da SERE pleitatzeko-ahalekin ahalik eta ontzirik egokienak lortzen ahalegindu zela, baina Errepublikari gerra-denboran gertatu zitzaion antzera, borrokaldiak amaitu ondoren ere bidaiak egiteko prest agertu ziren armadoreek beren poltsikoei gehiago begiratu zieten errefuxiatuen beharrei baino. Horrela bidaiariak garraiatzeko erabili ziren ontziak ez ziren beti lan horretarako eginak eta bai lasterka, era batera edo bestera, jendetza handiak hartzeko egokituak. Horrek garraioa segurtatzen zuen baina ez, inondik inora, erosotasuna.

Bestalde, esan dugu, baita ere, gerraostean lanean aritu ziren erbesteratuen laguntzarako erakundeek beren artean erakutsi zuten ikusiezina lehenago izan zituzten borroken parekoa eta ondorioa izan zela. Elkarren arteko liskarrak ez ziren Frantziara mugatu, itsasoan bertan ere piztu ziren eta, zeresanik ez, Ameriketara ere bai.

41. «A los diez años de guerra y destierro. Doscientos mil vascos se vieron obligados a abandonar su patria», *Euzko Deya* (Buenos Aires), 1946-7-20, 6-7. or.

42. Mateo, Julián, Informe. Centro de Inmigración de Merignac, Bordele, 1947-4-12, Irargi-GE-179-1.

Horren guztiaren isla da, neurri txikian hori bai, Progreso Vergarak, Fernando Morak, Salvador Jaureguik eta Eugenio de Gorbeak Martinicako Port France-tik Julio Jauregiri 1939ko ekainaren 28an idatzi zioten karta-txostena.

Hamalau egun zeramatzan *Ipanema* baporak Frantziatik abiatu zenetik eta hogeita hamabi beharko zituela uste zuten zeharkaldia guztiz burutzeko. Gorago aipaturiko bidaiariek ordura arte ikusiriko akatsak salatu eta beraien berri emateko Julio Jauregiri idatzi zioten karta. Beren burua euskalduntzat eta ez beste ezertzat agertzen bazuten ere, denak jeltkideak ez baziren ere, EAJtik hurbil zebiltzanak izan zirelakoan nago.

Batzorde antzeko bat osatu zuten lau euskaldunok era bitako kritikak egin zituzten ekainaren 28ko txostenean. Bata, modu politikokoa, eta, bestea, bidaiaren arlo materiala aztertzen zuena. Progresok eta gainerakoek zioten nola enbarkatzeko ordutik aurrera Fronte Popularraren antzeko batzorde bat eratu zela *Ipaneman* bertan zeinean alderdi politiko eta sindikatuek ordezkariak zuten. Hala ere, denek ez zuten bertan egon eta deliberatzerik, EAJk ez zuen-eta parte hartu bertan. Baina euskaldun haiek egiten zuten kritika ez zen jeltzaleen ordezkariaren faltagatik, ezpada ere Fronte Popularraren atlantiar ispilu horrek ez zegozkion ardurak hartzen zituelako, berez tokatzen zitzaion kapitainaren kaltetan. Euskaldunok ez zuten batzorde hura gustuko eta uste zuten, gainera, kapitainak ere ez zuela gogoko, baina segurantzirik ezean, besterik ez.

Edozein modutan ere, Jaureguiri heldu zitzaion kartan kritikarik latzenak *Ipanemak* zituen bizi-baldintzei loturikoak ziren. Lau sinatzaileek zioten eskekoen antzera enbarkaturikoak izan baziren, beharbada itsasontziak ematen zituen baldintzak onartzeko modukoak ziratekeen, baina Atlantikoa zeharkatzen ziharduten iheslariek ez zuten merezi haietara tratatzea. Ez ziren kexatzen logelengatik, uste baitzuten hainbeste lagun ontziratzearen arrazoia «zelaietatik eta Frantziako lurretan milaka eta milaka espainiarrek pairatzen zuten egoera ezin latzagotik askatzea» zelako. Baina bai esaten zuten «ordura arte ardi ganaduak garraiatzeko erabili zen ontzia, egindako erreformak erreforma, nekez gauzatuko zela Bordeletik Mexikora Errepublikaren alde borrokatu eta galdu beste deliturik egin ez zuten milatik gora lagun garraiatzeko».

Lau euskaldun horiek ziotenaren arabera, jatekoaren bidea sarritan ez zen ahotik sabelerakoa, karelen gaintik itsasorakoa baino. Ez bakarrik gaizki prestatua zegoelako, denentzako bat eta bera zelako baino. Gaixo edo umeentzako inongo berezitasunik egin gabea zelako. Hala eta guztiz, diruaren jabe zenak bazuen jaki onak erosterik kontratuko arrantxoaz aparte.

Gizonezkoentzako bizi-baldintzak, txarrak izanda, onartzen bazituzten ere, ume eta emakumeentzako zirenak ez ziren euskaldunok osaturiko batzorde horren begiko. Ez eta gaixoentzat gordetzen ez ziren enfermeriako oheak. Kasu horretan

lau informatzaileen arabera, gela horretan ziren oheak batere gaixotasunik ez zuten pertsonak hartuta zituzten, benetan gaitzen batek jota zirenak ohe arruntetan atsedean hartzera beharturik.

Vergarak, Morak, Jaureguik eta Gordoak zioten ez zekitela zeinen ardura zen *Ipanemako* egoera, eta ondorioz ez zuten inor salatzen, baina bai agerian utzi nahi zuten beraiek ikusia, ondoren migratu behar zutenek pairatu ez zezaten beraien patua.

Lau euskaldunon txostenak erakusten diguna ez da bakarrik zein baldintza okerretan egitea tokatu zitzaizen hainbat iheslariri Ameriketarako bidaia. Salaketa horren azpian badira borroka politikoak, urteak lehenago sortuak, gerrak areago-tuak eta atzerriratzeak baretu ez zituenak⁴³.

2.10. MARTIN UGALDE

Martin Ugalde gerrak harrapatu eta bizi osorako markatuta utzi zuenean hamabost urte betetzeko zituen nerabea besterik ez zen. Aita Pedrok zuen militantzia politikoagatik (Andoaingo zinegotzi jeltzalea bera) 1936ko abuzturako herriaren jabe egin ziren matxinoen errepresioaren beldurrez, Ugalde-Oradre familia osoak, karlistak herriaren punta batetik sartzen ziren bitartean, ihesaren bideari ekin zion. Beharbada laster etxeratzeko esperantzarekin abiatu ziren gurasoak eta anaia biak baina hamaikatxo kilometro eta urte eman gabe ez zen beraien bizitza normalduko, normaldutzat hartu badaiteke egoera hartan etxera itzultzea.

Ondoren laburbilduko duguna ikusita, gainera, esan daiteke Martin Ugalderi tokatu zitzaion bizitza, batetik, berea eta partikularra bada ere, bestetik, askoren pasadizoen bilduma bat ere izan zela. Bai hemen kontatuko dugun 1936tik 1940ra arteko epea, hau da etxetik ihesean alde eta ezinbestean etxera itzultzerainokoa, eta bai ondoren Francoren ostikopean, erbestean eta ostera ere bere herrian egin zuena.

Izan ere Martinek eta bere familiak 1936ko abuztuan bertan egin behar izan zuten ihes matxinoek Nafarroatik hasi zuten erasoari Errepublikaren aldeko indarrak behar besteko erantzuna eman ezinda aurkitu zirenean. Orduan hasi zuten, beste hainbeste gipuzkoarrekin batera, Bizkairako bidea, baina ez lehenago Gipuzkoako Hernani, Donostia eta Zumaiako herrietan egonaldiak egin gabe. Edozein modutan ere, egonaldi laburrak, 1936ko urrirako matxinoek okupatuta baitzuten ia-ia probintzia osoa. Ondoren Ugalderen familia lehenengo Mundakan egon zen eta azkenik Bilbon.

43. Progreso Vergarak, Fernando Morak, Salvador Jaureguik eta Eugenio de Gordoak Julio Jauregiri bidalitako gutuna, 1939-6-28, Fort France, Irargi-GE-127-3.

Ez zen baina Euskal Herrian amaitu ihesa eta, ekainean, Bilbo frankistek hartu zutenean Santander aldera egin zuten lau ugalde-oradretarrek. Gaur egungo Kantabrian sakabanatu ziren laurak, patuak edo galtzaileen zoriak bakoitza punta batera bidaliz. Martinen anaia txikia, 13 urtekoa, Sobiet Batasunera eraman zuten errefuxiatu. Lehenengo Estalingradera eta, ondoren Odesara. Ez zen izan helmuga migratorio hau ohikoena, ezta gutxiagorik ere, abertzaleen artean, baina bai hainbat ezkerreko familiatako milaka neskato-mutikoen destinoa. Hauen antzera Ugalde txikiak urteak egin beharko zituen Errusian etxekoekin berrogeiko hamarkadan Venezuelan elkartu baino lehen.

Anaia Sobiet Batasunera eta aita Kataluniara, baina lehenago Asturiasera eta hemendik Frantziara Espainiako Errepublikako lurra zapaldu aurretik. Antzeko bidaia egitea egokitu zitzaizen Martin eta amari, baina kasu honetan Kataluniara urratsa eman barik. Hain zuzen Martin Ugalde Nievreko Chateau Chinon gelditu zen, «partikular batzuren etxean» aitak EAJko Bartzelonako ordezkari zara egin zuen karta batean esaten zuen bezala⁴⁴. Joan Mari Torrealdai dio partikularrok familia komunista bat osatzen zutela (Torrealdai, 2003). Baina Nievreko egonaldia ez zen nahi beste luzatu eta Pedro Ugaldek EAJko Bartzelonako zuzendaritzara zuzenduriko eskutitzean zera eskatzen zuen: emaztea Bartzelonara joan zenez gero, bakarrik zeukala semea Chateau Chinon eta handik atera beharra zuela departamenduko prefetak 20 eguneko epea eman zielako inguruetan aterpetu ziren errepublikanoei Frantziatik aldetzeko. Prefetaren agindua ez da besterik, gorago, testuan, aipatu ditugun Frantziako estatuak agindu zituen *refoulement*-etako bat baino. Hau da: Hendaiara (Francoren menpeko eremuetara) edo Port Boura (Errepublikaren aldera). Pedro Ugalde aitak eskatzen zuena irtenbide biak saihestea zen eta Martini Jaurlaritzak mantentzen zituen aterpetxeren batean lekua egitea, aurretik aginduta zuena betez.

Torrealdairen liburuan esaten denari jarraituz, Martin Ugaldek aitak egindako eskaria betez Donibane Garaziko eskola-kolonian sartzea lortu zuen eta Nafarroa Behereko kolonia horretan egon zen harik eta 1939an Donibane Lohizuneko ikastetxe eta aterpe zenera aldatu zuten arte euskal agintariek, bertan ikasketak jarrai zitzen.

Artean gerra amaitu zen eta Katalunian ziren gurasoei berriz ere sakabanatzea tokatu zitzaizen. Horrela, ama Andoainera itzuli zen, baina aitak, errepresioaren beldurrez, itsasoz haraindira joatea erabaki zuen, Venezuelara hain zuzen ere, han bizitza berri bat antolatu eta familia batzeko asmoekin.

Asmoak asmo, Martinen ikasketak tarteko zirelako beharbada, Venezuelara migratzeko honen ahaleginak berandura arte ez ziren hasi. Aurkitu dugun korres-

44. Ugalde 'tar Kepak Lonbanari, 1938-5-18, Bartzelona, Abertzaletasunaren Agiritegia-EBB-365-1.

pondentzian, intentzio hauen berri ematen duen lehenengo karta 1940ko otsailaren 5koa da. Ordurako, gorago esan dugun legez, laguntzarako erakunde errepublikazaleek antolaturiko bidaia gehienak eginda zeuden. Are gehiago, 1940ko lehen hilabeteetan SEREK ez zuen espediziorik antolatu, ez bada ere diruz lagundu Atlantikoa zeharkatu nahi zuten iheslariei. Hau izan zen Martinen kasua.

Euzkadiko Jaurilaritza aterpetxeak eta gainerako laguntzarako erakundeak ixten, beraien kabuz bizitzeko diru-laguntzak murrizten eta errefuxiatuak (ustez errepresio-arriskurik izango ez zutenak) Hegoaldera bidaltzen ahalegintzen eta gainerakoak lanean enplegatzen ziharduenean, Martin Ugaldek aitak Venezuelatik egindako kartak hartu zituen bere ondora deituz. Julio Jauregik kudeatzen zuen Jaurilaritzak ezarritako emigraziorako bulegoko paperen artean (Irargi-GE-127-2) 1940ko otsailaren hasieratik maiatzaren lehenengoetara Martin Ugaldek eta Jauregik elkarren artean gurutzaturiko dozena eta erdi kartatik gora aurkitu ditugu andoaindarrak desiratzen zuen Venezuelarako txartela lortzeko. Eskutitzotan esaten den legez, bidaia egiteko ez zen bakarrik dirua beharrezko, errepublika hegoamerikarreko agintariak emandako sarrera-baimena ere ezinbesteko baldintza zen.

Kartok irakurriz, printzipioz, ez zuen ematen inongo eragozpenik izan behar zenik. Baimena aitak Venezuelan lortua zuen eta itsasontziko txartelaren balioa berdintzeko SEREK ezarrita zituen 2.000 liberako laguntza Julio Jauregik lortuko zuela agindu zion eta gainerako 2.375 liberak aitak eskaini zizkion Martini. Falta zuen gauza bakarra alderdiaren bermea zen SEREn 2.000 liberen eskabidea egiteko. Endara etxetik, Euzkadi Buru Batzarrak Baionan zuen egoitzatik, Ugalde gazteari eman zioten erantzuna ez zen poztekoa izan. Arrazoi bi jarri zizkioten bermea ukatzeko, batetik gerra-denboran graduaziorik ez izatea eta, bestetik, eskaria egin zuen momentuan Pedro Ugalde Venezuelan lanean aritzea. EAJk esan nahi zuena ez zen besterik Martinek baino meritu gehiagokorik eta premia larriagoan zegoenik bazela eta gauzak horrela ez zegoela bermerik.

Martinek Jauregirengana jo zuen esanez ea nola izango zuen gerra-denboran berak graduazio militarrik 14 urteko mutil gaztea izanda, eta aitak Venezuelan lanean baziharduen ere, ez zela aspaldi kolokatua eta ez zuela nahikoa dirurik Iparraldera igortzeko Ugalde gazteari txartela ordaintzeko. Jauregiren erantzuna bestelakoa izan zen; berak lortuko zizkiola beharrezko baimen eta dirua guztiak, baina ezkutuan eta ez inori ezer esateko.

Ontziaren itsasoratzeak ez zuen data segururik baina apirilaren 25aren inguruko egunen bat izango zela esan zion Jauregik Ugalderi, prest egoteko eta ez arduratzeko dena bideratuko zela-eta. Apirilaren azkenetan, baina, oraindino itsasoratzeko zegoen ontzia nahiz eta egun batetik besterako kontua izango zela pentsatu Parisen Jauregik, eta Ziburun Martinek. Bien arteko azkeneko karta maiatzaren seikoa da, bertan honela ziotson andoaindarrak Jauregiri: «Ez dakit zeintzuk hitzekin nire esker ona erakutsi nigitik egiten diharduzun guztia» [...] «Handia

izan da nire poza zure karta irakurtzean eta, seguru nago, handiagoa izango dela nire aitarena han ikusten nauenean».

Dudarik ez horrela izango zela, baina Pedro Ugaldek bere semea ikusteko beste zazpi urte itxaron beharko zuen, maiatzaren zortzian, Frantziak eta Alemaniak 1939ko irailetik beraien artean zuten sasigerra hankaz gora jarri eta, Hitler-ek hexagonoa ostikopean hartzeari ekin ziolako, eta lortu gainera.

Inbasioari ekin eta batera Pirinio Atlantikoetako agintariek errefuxiatu errepublikazaleak Gursen barneratzeko dekretatu zuten. Agindu horri jarraituz, Martin Ugaldek Venezuelarako itsasontzia hartu beharrean kontzentrazio-esparru baterako bidea egin behar izan zuen. Gursen hilabete eta erdi egitea tokatu zitzaion eta bertatik Iñaki Azpiazu apaizak atera zuen, hain zuzen ere, Venezuelara joateko txartelaren jabe zelako. Hala eta guztiz ere, txartelak Gurseko hesiak zeharkatzeko balio izan bazion ere, itsasoz haraindira joateko alferrekoa suertatu zen.

Zerua goian eta lurra behean gelditu zen Martin 1940ko ekainean alemaniar tropak Donibane Lohizuneko karriketan ikusi zituenean. Are eta okerrago agintari frantsesek beste *refoulement* baten antzekoa proposatu ziotenean, alegia alemaniarrentzako industria militarra lanera edo, osterantzean, Hegoaldera. Martinek bigarren hau aukeratu zuen eta 1940ko urriaren 17an Andoainera heldu zen.

2.11. CALIXTO AGIRREAMALLOA SOLOZABAL

Calixto Agirreamalloaren kasua ere gerrak eragindako erbesteratzea izan zen, baina bere atzerriratzea ez zen gauzatu 1937an edo 1939an, 1945ean baino. Honako kasuak, aurreko urteetan izan zirenak baino urriagoak izan arren, ez ziren gutxi izan. Hala eta guztiz ere ez dira sarri aipatzen erbesteratzea aztertzen duten lanetan.

Calixtori bizitzea tokatu zitzaiona berak Baionako Euskal Ordezkaritzara idatzi zituen karten bidez ezagutu ahal izan dugu, hain zuzen ere ezezaguna zelako. Esan nahi da, militante arrunt bat besterik ez zenez, agintariengandik zerbait lortu nahi bazuen bere merituen berri eman beharra zuela eta, horretarako, zer hoberik bere bizitza militantearen berri ematea baino?

Hain zuzen ere Calixtok Javier Gortazarri, Baionako ordezkaritari, idatzi zion Frantzian lan egiteko beharrezko paperen eske. 1947ko martxoa zen ordurako eta etxera itzultzeko ametsak apurtzen hasita zeuden eta hexagonoan penintsulatik joandako migratzaile politikoak beren ospea galtzen edo aldatzen hasiak ziren. Gerra Hotza hedatzen hasia zegoen eta goritzeko ez zitzaion askorik falta. Egoera horretan, etxera itzuli ezinda eta Ameriketara joateko gogorik ezean, Frantzian lana bilatzea besterik ez zitzaion Calixto eta bere antzera ziren guztiei. Horrela, bada, paperen faltan eta beharrean Calixtok Baionara idatzi zuen ordura arte egindakoak kontatuz.

Calixto Agirreamalloa Solozabal, Pedro Jose eta Josefa Ignaciaren semea, Xemeingo Olabe baserrikoa zen, 1904ko abenduaren 4an jaioa. Familia ugari batean gazteena eta aita bera jaio aurretik galdu zuena izanda, 16-17 urte bete zituenerako bere herritik urrun lanera joan zen, Basaurira. Hemen egin zen Eusko Langileen Alkartasuneko kide eta EAJko jarraitzaile. Gerran, berak «gure Aberriaren inbasioan» dio, Irrintzi mortero eta mina-jaurtitzailen konpainian ibili zen, harik eta 1937ko ekainaren 29an, «momentu hartako egoera kontuan izanda», Balmasedan zela, bere burua harrapatzen utzi zuen. Ez zuten preso hartu eta oinez abiatu zen Bilborantz.

Bizkaiko hiriburuan, Markinara joateko beldurrez eta bertan ezagutzen zuen baten bitartez, lanean hasteko modua izan zuen. Baina ez zuen Julian Abandoren tailerlean zuen giroa gustuko eta ahal bezain laster Euskalduna Ontzioletan jarri zen beharrean. Euskaldunara joatearen arrazoia erbestera aldentzeko ontzietara hurbiltzea izan zen, baina helburu hau ere ez zuen lortu eta «gosearen eta Valladolidedeko zenturien erasoei» ihes egiteko, amak hala eskatu ondoren, etxera itzultzea erabaki zuen 1942ko urrian.

Markinan, Esperanza mortero-fabrikari hasi zen lanean, baina antolaketa politiko-sindikala alde batera utzi gabe. «Zenbait aberkideren babesean, beraien artean Garai, gure betiko helburu sozial-kristauen aldeko borrokari ekin genion», idatzi zuen Calixtok. Baina Markinako jeltzaleon mugimenduak laster sumatu zituzten hauen etsaiek eta, Calixtoren lehengusua eta «lehen liberal beltza eta orain faltsuen buruzagia» zen arerioetariko Cecilio Bustinduiren eraginez berriz ere ihes egin beharra izan zuen. Oraingoan Pasai San Pedroko Luzuriaga tailerra aukeratu zuelarik babes eta lan-leku. Aldaketa hau 1943ko urtarrilean izan zen.

Pasaian zela, oporrak egokitu zitzaizkionean, egun libreok igarotzera Nafarroako iparraldera joatea otu zitzaion. Goizuetan, Aralarren eta Lakuntzan ibili ostean eta lanera itzultzeko zela, Altsasun preso hartu zuten guardia zibilek Calixtok igarobiderik ez zuela argudiatuz. Atxiloketa egun biz luzatu zen eta askatasuna lortu zuenean Pasaiara itzuli ordez, Zumarragara joatea pentsatu zuen xemeindarrak, han Orbegozonean lanean hasteko. Hemen ezagutuko zuen Federico Lizarralde, komunista eta euskaltzalea, zeinekin, fabrikari eta handik kanpora ere bai, izango zituen eztabaida politikoak.

Ordurako Europan eta munduan libratzen ari zen gerrak hartua zeukan aliatuen aldeko jarrera eta Frantziar ziharduten makiak Espainiara eta Hegoaldera sartzen hasita zebiltzan. Hauen artean gehien nabarmendu zirenak maki komunistak izan ziren, denak Union Nacional Española (UNE) erakundearen batuak. Gerrillari eraso baten ondorioz zabaldu zen errepresioan preso hartu zuten Lizarralde, eta Aguirreamalloak, poliziak bere lagun komunistarekin lotu zezakeelakoaren beldurrez, Zumarraga utzi eta Elizondora joatea deliberatu zuen. 1944ko maiatza zen ordurako eta Baztanen lana aurkitu bazuen ere, uztailean herrian

Santiago jaiak zirela-eta nagusiari, Mauricio Iribarren «garai hartan Elizondoko Falangeko burua»ri, baimen bat eskatu zion muga zeharkatzeko asmoz. Horrela nazioarteko marraren inguruan ibiltzeko baimenarekin, Zugarramurdira hurbildu zen, Sarara joateko eta handik Baionara. Muga uztailearen 30ean igaro zuen eta biharamunean heldu zen Lapurdiko hiriburuan Euzkadiko Jaurlaritzak zuen bulegora.

II. Mundu Gerra Europan amaitu berri zen, Ekialdean, berriz, mundua goitik behera astindu zuen gatazkari egunak besterik ez zitzaizkion falta iraganeko denboretara pasatzeko. Une hartan, erbesteratu errepublikazaleen gogoetan ez zen besterik etxera itzultzeko eguna noiz izango ote zen igartzea baino. Laster izan behar zuen, baina noiz? Ahalik eta lasterren eta egokien izateko EAJK eta Jaurlaritzak 1944tik talde militar bat zuten Aliatuen esanetara jarrita, Gernika Batailoia, ordurako 1945eko apirilean Bordele inguruan alemanekin borrokan jardundakoa. Franco agintetik kentzean hutsune politikoa betetzeko, edo komunistek ez hartzeko, sortua zen Gernika Batailoia eta hara bidali zuten Calixto eta han egon zen, Girona aldean, harik eta lizentziatu zuten arte 1946ko hasieran. Harrezkero, itzultzeko ametsak amets zirela jabetzen ziren neurrian bakoitzak bere bizitza konpondu behar zuela ikusirik Calixto Agirreamalloaren modura erbestera atera zirenei ez zitzaien besterik gelditu lanean hastea baino beraien etxeetatik urrun. Calixto itzuli zen Hegoaldera, baina, beste asko legez, urteetara⁴⁵.

2.12. PEDRO MADARIAGA REKALDE

36ko gerraren zati garrantzitsu bat itsasoan gauzatu zen, baina ez bakarrik militarrek buruturiko gudua. Itsasoan, itsasoetan hobe, Bizkaiko golkoaz gain beste hainbat lekutan ibili ziren-eta euskal marinelak, batailez gain merkataritza-gerra bat libratu zen eta horretan euskaldunen parte-hartzea handia izan zen benetan. Errepublikak eta Euskal Herria lehengaez, armaz edo jakiz hornitzeko bi gobernuak erbestean eratu zituzten itsas konpainietan (adibidez Mid Atlantic Shipping Company-n) euskaldunen parte-hartzea zuzendaritzatik hasi eta azken marinelerainokoa izan zen, alde batera utzi gabe konpainia horrek kudeatu zituen ontziak Bilboko matrikulakoak zirela.

Mid Atlantic eta antzeko konpainien helburua ez zen bakarrik lurralde leiala hornitzea izan. Dirua egitea eta irabaziekin euskal gobernuak laguntzea ere izan zen Agirrerren administrazioak enpresok sortu eta mantentzeko.

45. Calixto Agirreamalloak Javier Gortazarri bidalitako gutunak, 1947-3-10 eta 13, Luz San Sauveur; Calixto Agirreamalloak Javier Gortazarri bidalitako gutuna, 1952-3-7, Tarbes; eta Javier Gortazarrek Calixto Agirreamalloari bidalitako gutuna, 1947-3-8, Baiona, Irargi-GE-169-1.

Calixto Agirreamalloaren eta Ricardo Naldaren arteko gutunak, 1946-4-5etik 1946-6-11ra, San Sauveur, Grioure eta Baiona, Irargi-GE-155-6.

Bestalde, itsasontziotan lan egin zuten gizonen kopurua zehatz ezagutzen ez badugu ere, txikia ez zen izan kontuan hartzen badugu gerra ostean lanik gabe eta etxera itzuli ezinik Ingalaterra eta Galesen gelditu ziren ehunka euskal marinel.

Ehunka Erresuma Batuan, baina ez hor bakarrik. Beste marinel batzuk Sobiet Batasunean gelditu ziren gerra amaitu zenean, gatazka piztuta egon zen artean Mediterraneoan zeharkatzen lan egin zutelako Espainiako Levanteko portuetatik Odesa eta beste Errusia eta Ukrainako kaietara lineak burutuz. Mediterraneoan utzi gabe, Tunisian eta Aljerian babesa hartu zuen euskal marinelik ere izan zen, batez ere gerraren amaierak Alacanten harrapatu zituztenak eta Ipar Afrikako portuetara joateko aukera izan zutenak han babestu zen Errepublikako itsas armadarekin batera. Beste euskaldun batzuek, berriz, zorte hobea izan zuten eta azken portua Atlantikoz beste aldean lortu zuten. Hauen artean izan ziren Errepublikako urreak eta altxorra Mexikora garraiatu zituzten Ordorika kapitaina eta *Vita* yateko eskifaia ia osoa, kasik denak lekeitiarrak.

Ez da harritzekoa herri berekoak suertatzea hauetariko marinel asko, mutil eta gizonok gerra aurretik ere itsas langileak baitziren eta 36ko okasioa hasi zenean beraiek baino gehiago ontziak aldatu baitziren. Adibidez, arrantza-ontziei kanoiak jarritz. Hauetariko gizon baten historia da ondoren datorrena.

Pedro Madariaga Rekalde Bermeoko semea zen, 1903ko urriaren 23an jaioa eta itsas pilotua ogibidez, ideologiaz jeltzalea, etxean gainerako guztien antzera. Gutxienez aita eta anaia bat preso zituen. Victor aita Deustun, gorren eskolan eratu zen espetxean. Anaia Eusebio, berriz, Sevillan zegoen langileen batailoi batean. Aita 1938an hil zitzaion kartzelan eta desgrazia horretaz baliatu zen erregimen berria familiak zituen ondasunez jabetzeko, besteak beste Santurtzin zuten ikatz-biltegi bat.

Madariagak, gerrak Euskal Herrian iraun zuen bitartea, ia denbora osoan, *Arin-Mendi* atoiotzian egin zuen lan. Ekainaren hasieran Euzkadiko Jaurlaritzak *Kayue* kanoaren agindua eman zion eta Bilbotik Baionara bidea egiten hasi zen, pertsonak eta korrespondentzia garraiatuz. Misio berri honetan ez zuen askorik iraun nazionalak Bilbo handik egun gutxira hartu zuten eta. Bizkaia nazionalen eskura zihoala ikusiz ebakuatzea tokatu zitzaion, baina bou armatu frankistek Santanderrera ihes egiteko bidea oztopatzen zieten, Frantziara jotzea erabaki zuen, Baionan lehorra hartuz. Lapurditik Akizera joan zen eta han gelditu harik eta Baionako espainiar kontsulak eta euskal ordezkariak deitu zioten arte, 1937ko azarora arte hain zuzen.

Agintarion ordenak Swanse-ra joatekoak ziren han zegoen *Cocle* ontziaz jabetzeko. Jardun honi ekin zion 1938ko ekainera arte eta lan berdina hartzea egokitu zitzaion ondorengo irailean, orduan *Conde de Zubiria* ontzira joan zelarik. Bietan ere Errepublika eta Euskal Gobernuaren ontzietan ibili zela esan behar.

Azken ontzi horretan Leningradera joateko karga eman zioten baina itsasoratu eta gutxira Grimsbyko portura abiatzeko kontragindua hartu zuen. Inongo nobedaderik gabe sartu zen *Conde Zubiria* portu ingeles horretan baina ez euren lagun *Cantabria*, Transmediterraneako ontzi frankista batek Madariagaren ontzia zegoenetik 20 miliatara ondora bota zuen eta.

Gerra amaitu aurretik bidaia bat besterik ez zuen egin Grimsbytik Himinganera, hemen lehorreratu eta bigarren ofizial gisa Bilboko Pinillos konpainiakoa izan zen *Duero*, orduan *Urbi* izena zeramana, ontzira joan zen. Hor gelditu zen apirilaren 5ean Espainiako agintari berriek eskifaia berri bat ontziaz jabetzera bidali zuten arte.

Pedro Madariaga eta hainbat euskal marinelentzat orduan hasi zen benetako erbestealdia. Lanik ez, dirurik ez eta aterperik hartzeko modurik ere ez. Londresko Euskal Ordezkaritzaren gestioei eta, batez ere, Trade Unions britainiar sindikatuen laguntzei esker hainbat hilabetez nola edo hala aurrera atera zuten bizia, harik eta alemaniarrek mendebaldeko frontean zegoen sasigerra baztertu eta Herbehereetan, Belgikan eta Luxenburgon zehar erasoari ekin eta Rhin ibaitik Pirinioetaraino beraien esku utzi arte kontinentearen zati hau guztia. Orduan izan zen Dunkerkeko ebakuazio handia. Britainiar inperioko milaka eta milaka soldadu Flandriako hondartzetan lehorrez alemanez inguraturik eta itsasoz Erresuna Batura joateko zailtasun ikaragarriekin.

Britainia Handiak gerra guztian zehar biziko zuen unerik gaitzenez, uhartearen ziren esku guztiak gerrako esfortzuari aurre egiteko beharrezko, eta akaso nahiko ez zirenean, aurkitu zuen Madariagak itsasoan lana. 1940ko ekainaren 1ean ontzi greziar batean enbarkatu zen Atlantikoa gurutzatu eta Swansea-ra altzairuzko lingoteak garraiatzeko. Galesko herri horretan ikatzez bodegak bete eta Kanadako Montralera eta handik gariz kargatuz ontzia Liverpoolera.

Ontziola batean konponketak egin eta lasterrera itsasoratu ziren ontzi greziarrekoak, baina konboian nabigatu arren 1941eko apirilaren 2ko gauean itsaspeko alemaniar batek jaurti zien torpedoak jota ontzia hondora joan zen. Onik atera zen bermeotar marinela, baina ez eskifaia guztiak, ontziarekin batera makinetako gizon bi bertan hil ziren-eta. Ez zuten noraezean denbora askorik itsasoan egin, konboiko destroyer batek hartu baitzituen.

Hurrengo itsasoratzea ekainean izan zuen Madariagak, oraingoan Britainia Handitik Portugalera eta hemendik Ingalaterra eta Irlandarako bidaiak egiten zituela. Linea horiek egiten ziharduela 1941eko urriaren 5ean, Finisterretik 95 miliatara Irlandako Clear itsas muturrerantz zihoazela hegazkin alemaniar batek metrailatu zituen, baina erasotzaileak alde egin zuenez aurrera jarraitu zuten. Hau eguerdi aldera gertatu zen eta beste nobedaderik barik ekin zioten beraien bideari. Baina arratsaldeko seietan baten lekuan hiru izan ziren hurbildu ziren hegazkin

alemanak eta hauek, metrailatzeaz gain, oraingoan lehergailuak ere jaurti zizkioten ontziari.

Hortxe, Saint-Nazairetik 360 miliatara, amaitu ziren Pedro Madariagaren nabigazioak. Alemanen aginduz inguruan zen arrantzontzi batera zuzendu ziren salbamenduko txalupa erabiliz eta ontzi horretan Frantzia okupatura. Ordura arte bermeotarrak ezagutu zuen bizia gogorra izan bazen ere, ondorengo urteetan bititza egokituko zitzaiona ez zen gozoago izango, alderantziz gogorragoa.

Urriaren 9an heldu ziren lehorrera eta biharamunean Lorientera eraman zituzten naufrago guztiak han galdeketak egiteko. Aste betez batetik bestera ibili ondoren tren batean sartu zituzten Le Mans eta Paristik zehar Alemaniara bidaltzeko. Azaroaren 18an gerra-atxilotuentzat prestaturiko esparru batean barruratu zituzten, alemaniarrek ez lehenago galdeketa berriak egin barik. Otsailean Bremendik hurbil Westertimken zegoen Marlag und Milag Nord izeneko marinela merkanteentzat eraikitako kontzentrazio-esparru berri batera eraman zuten Madariaga. Han 3.500 gizon zeuden preso, denak marinela. Madariagari 116. zenbakia jarri zioten.

1942ko ekainaren bian Juan Arregi, Ramon Guerrero eta Madariagari, hirurak batera atxilotuak eta ordura arteko neke berdinak bizitakoak, espainiarrak zirela argudiatuz libre zirela eta maletak prestatzeko agindu zieten. Baina libre barik preso eraman zituzten Gestapoko agenteek Bremengo polizia-etxera. Abuztuaren zortzira arte izan ziren polizia politikoaren esku. Bitartean galdeketak, torturak, lapurretak eta hainbat tratu txar bizi behar izan zituzten hirurak ala hirurak. Abuztuko egun horretan poliziak jakinerazpen bat sinarazi zion Madariagari non esaten zen «Errepublikaren alde eta Francoren kontra gerra egitegatik eta Gobernu Ingelesa zerbitzatzeagatik, gerra amaitu bitartean kontzentrazio-esparru batera eraman behar nindutela». Bertan egunean abiatu ziren hirurak Mathausenerantz. Esparruko atea igaro aurretik ikusi zuten barruan zer aurkituko zuten. Bidean tratu txarrak hartzen hasi ziren, baina Madariagak eta lagunek baino gehiago beraiekin zihoazen beste hiru juduk, zeintzuk heldu ziren gauean bertan hil baitziren torturen ondorioz. Esparru berri horretan Bermeoko marinela 12.101 zenbakiarekin identifikatu zuten.

Hiru hilabete eskas egin zituen Madariagak Mathausenen baina han ikusitakoak ez zituen ahaztuko. Zelako bizimodua zegoen han erakusteko idatzita utzi zuen Gestapok Westertimke-ko espetxetik atera zuenean 1942ko ekainaren bian, 82 kilo zituela, bere ohiko pisua, eta Mathausendik atera zutenean urte bereko azaroaren 8an, 58 kilo besterik ez zituela. Zorionekotzat zeukan Mathausengo harrobi madarikatutik Dachauko esparrura eraman zuten eguna, nahiz eta lehenengo esparruan izan zuen istripu txiki baten ondorioz ia bizia galtzeko arriskuan sartu Dachauko erietxean. Hemen txekiar osagile baten atentzioei esker ia erabat osatzea lortu zuen. Atzean utzi zituen Arregi eta Guerrero lagunak, Mathausenen, beraien

berririk gabe. Esparru berrian, istripuan eta ondorengo gaixoaldian galdu zuen atzamarragatik, elbarrien lantaldean sartu zuten eta hor jarraitu zuen harik eta 1945eko apirilaren 26an Estatu Batuetako armadak askatu zituen arte Dachauko presoak. Azken kartzela horretako zenbakia, berriz, 38.952 izan zuen.

«Ez dut neure burua nekatu nahi sufritutako izu eta martirioak kontatuz, besteak beste gosea, baina historian, mundua hasi zenetik, ez dut uste beste pertsona odolzaleagorik izan denik SSak eta Gestapokoak baino, beraien irribarre maltzurrarekin, European erregimen berri bat ezarri nahi zutenak. Beraien kontra esan daitekeen guztia berez direnaren zati txiki bat besterik ez da izango, eta SSetako bat edo Gestapoko bat dagoen lekuan sugedorri bat legez zapalduta akabatu behar da berriz piztu ez dadin».

Hitzokin amaitu zuen Pedro Madariagak bere bizipenak kontatuz Euzkadiko Jaurlaritzarentzat idatzi zuen txostena⁴⁶.

2.13. SANTIAGO MEABE BILBAO

Erbesteko bizimodua latza, edo oso latza, izan zela esan beharrik ez badago ere, atzerrialdia erakusteko idatzi izan diren istorio askotan ikusten dena zera da: gogortasun hori borrokatuz garai zitekeela. Baina izate berri bat eraikitzea lortu zuten guztien artean hamaika izan ziren den-dena galduta amaitu zutenak. Ezer barik bukatu zutenen artean bat eta bi baino gehiago pertsona nagusiak izan ziren. Atzerrira atera baino lehen posizio sozial eroso bat zutenak eta gatazka galdu zenean, urteak lehenago izandako ibilbide politiko edo sindikalagatik, erregimen berriari ihes egin beharrean aurkitu zirenak. Mugaz haraindi, baina, norberaren herrian urteetan zehar eraikitako ibilbidea berregitea, arrazoi bat edo beste medio, ezinezkoa suertatu zitzaizen askori. Horien artean hartu daiteke Santiago —*Xanty*— Meabe.

1936ko uztailean, gerra hasi zenean, 58 urte beteak zituen Gaztedi Sozialista sortu zuen Tomas Meaberen anaiak. Punta-puntako agintaria izan ez bazen ere, ezaguna zen bere urteetako militantzia politikoa. Lehenengo abertzaletasunean —anaiarekin batera Sabino Aranaren hurbilekoa izan zen eta, EAJren sortzailea hil eta gero ere, urteetan alderdiko prentsa zuzendu eta artikuluz hornitu zuena—, eta gero sozialismoan, Tomasen antzera. Abertzaletasunean ez zen bakarrik alderdi jeltzalean ibilitakoa, ELA sindikatuko hasierako kidea ere izan zen eta langileen elkarte horretako astekari ofizial, *Obrero Vasco Euzko Langille*, kazetaren sortzailea ere bai. Errepublikan etorri aurrean, Euzko Abertzale Ekintza sortu zenean, ordurako utzia zuen militantzia jeltzaletik urrunagotu eta bere joera abertzale eta langileenganakoa uztartzen zituen alderdi berrira batu zen. Abertzaletasunean

46. Madariaga, Pedro, «Navegación», datarik ez lekurik ez duen agiria, Irargi-GE-179-1. Bermejo, Benito eta Checa, Sandra, Libro memorial. Españoles deportados a los campos nazis (1940-1945), Subdirección General de Publicaciones, Información y Documentación, Madril, 2006.

egindako ibilbidea erakusteko asmoz liburu bat idatzi nahian zebilen erbestealdiko urteetan *Mis veinticinco años de nacionalismo vasco* izenburua jarri nahi ziona, baina ez dakit amaitu zuen, eta idatzi bazuen argitara eman zuen ala ez.

Kontabilitateko ikasketak egina zen arren, sekula ez zuen horretan lan egin. Nahiago izan zituen kazetaritza eta bere zaletasun literarioak landu, nahiz eta hauek diru-sarrera handirik izango ez ziren, gehienbat prentsa militantean argitaratzen zituelako bere artikuluak. Jardun publikoan, eta gorago esandakoarekin lotuta, mitinlaria ere izan zen hainbat alditan hitza hartu zuelarik batzar errepublikano sozialistetan. Ogibidea, diru-iturrien sarrerarik handiena behintzat, pilota profesionaleko enpresen ordezkarietatik eta beste mota batzuetako jardun industrialetik atera zuen, adibidez kontserba-fabriketako nagusiei luzatzen zien aholkularitza.

Gerra hasi eta ia batera Bizkaiko gobernadore zibilak, Echevarria Novoak, Markinako ordezkari izendatu zuen. Bazegoen horretarako nahiko arrazoirik. Batetik, bere aspaldiko militantzia abertzalea eta orduko kideztza sozialista. Argi zegoen matxinoen kontrakoa eta Errepublikaren aldekoa zela eta, bestetik, *Xantyren* Lea-Artibaiekiko lotura. Bizkaiko ekialde hori zen, beharbada, lurraldeko eremurik nekazariena edo, beste era batera esanda, gutxien industrializatuena izango zen orduan. Baziren han, gainera, matxinoen aldeko jende multzo batzuk, esaterako Ondarroako erreketek edo Markinako monarkikoak. Kontuan izan behar da gainera, Ondarroako karlistak matxinatu egin zirela, nahiz eta laster amaitu errebolta. Egoera horretan Echevarria Novoak bere erako buruzagi askorik ez zeukan aukeran.

Meabe bai. Jatorriz, meabetarrak lekeitiarrak ziren eta Xanty Bilbon jaioa izan arren, Lekeitio eta Ondarroarekin harreman handia zeukan. Gazte-denboran, udaldietan-eta, Lekeitiora joaten zen eta bertan ikasi zuen euskara, Resurreccion Azkuek irakatsita. Bestalde, emaztea ondarrutarra zuen eta ezkonduz gero hara joaten hasi zen atsedean hartzera. Gainera, inguruko kontserba enpresatako ordezkari ere bazen. Beraz, Markina inguruko lurraldean erabat errotutako pertsonaia zen Santiago Meabe.

Bere kargu zegoen eremua, gaur egungo Lea-Artibaiko eskualdeaz gain, Durangaldeko Mallabi eta Garaik ere osatzen zuten. Sektore hau, gerra hasieran fronteetatik urrun bazegoen ere, urrirako bertan egonkortu zen alde bien arteko lerroa, Ondarroa eta Berriatuaren zati bat matxinoen esku eta gainerako guztia Errepublikaren eremuan. Agirrek Jaurilaritza eratu zuenean, 1936ko urriaren 7an, Echevarria Novoak jarri zuen arduran berretsi zuen Meabe eta horretan ekin zion harik eta apirilaren azkenetan Markinako sektorea frankisten esku jausi zen arte. Bien bitartean, uztailetik apirilera, Meaberen lana ordena publikoa zaintzean gauzatu zen. Harrotasunez esaten zuen hilabete haietan guztietan ez zela epaiketaz kanpoko heriotzarik izan, nahiz eta, batetik, sarri eta asko izan matxinoen ekintzak

eta, bestetik, komunistak lotzen lanak izan. Are gehiago, eskuinekoenganako legez kontrako errepresioa burutu barik, jazarpena jaso zezaketen Errepublikaren kontrako elementuei laguntzen nabarmendu zela errimean zen esaten Meabe.

Apirilean Markinaldea frankisten esku gelditu zen eta Bizkaiko lurraldearen gainerako guztia ondorengo hilabete bietan. Meaberi, beste euskaldun askori legez, erbestera joatea tokatu zitzaion, Santanderretik Frantziara eta handik Bartzelonara. Katalunian, Indalecio Prieto Defentsa Nazionalerako ministroaren bitartez, Gironako Angles herrian jarri zen M.P.3 arma-fabrikako administrazio-buru lan egitea tokatu zitzaion Meaberi, eta horretan jarraitu zuen harik eta 1938ko Gabonetan nazionalek hasi zuten erasoaldiak, berriz ere, Frantziara bultzatu zuen arte. 1939ko otsailaren 4an izan zen hori eta horretarako hartu zuen bidea Figuerestik La Jonquerara doana izan zen.

Frantzian, lehenengo asmoa Mexikora migratzea izan zen. Herrialde hartan lehenago ere bizi izandakoa zen 1920tik 1923ra bitartean eta baimenak eta itsasontzi-txartelak ere lortu zituen. Baina bere nahien kontra arrazoi bi atera zitzaizkion bidera. Batetik, erbesteran ilobatzat bere kargura hartu zuen esparru batean barneratuta zituen osaba-izebengandik aldetzerik nahi ez zuen mutil gazte baten gogoa. Eta, bestetik, Calvadosko Bayeux-ko suprefetaren Arromanches-les-Bains-en kokatu zen iheslariak hartzeko gunearen zuzendaritzaz arduratzeko eskakizuna. Beraz, mutilaren nahia eta suprefetaren eskakizuna nahiko izan ziren bost urte beranduago Aliatuen lurreratzetik handienak mundu guztian zehar ezagun egingo zituen Normandiako hondartza haien inguruan zabaldu ziren errepublikano espainolak hartzeko esparruen zuzendaritzaz arduratzeko eta itsasoz haraindira joateko ametsi agur esateko.

Berez, Calvadosko kargua ez zen txarra, baina 1940an alemaniarrak Frantzia hartu zutenean goitik behera etorri zen. Baina ez Meaberi ardura amaitu zitzaio-lako, baldintzak okertu zitzaizkiolako baino. Frantziako agintari berriek 2.000 iheslarien arduran jarraitzeko eskatu zioten, baina lehenagoko egoitza kanpora, alemanek Arromanches-ko eremua Mantxako kanalean kokatuta zegoenez eremu militar arriskutsutzat hartu zutelako baino. Orduan hasi zen Meaberen gurutze-bidea Frantziako iparraldean batetik bestera, harik eta Sees-era heldu zen arte. Hiri txiki horretan, Eibarren bizi izan zen Segundo Garcia errefuxiatua aurkitu zuen eta berarekin bizitzera baimendu zuten. Lanean ere hasi zen nekazaritzan eta chatearen batean zerbitzari ere bai. Baina bietan egin zuen porrot. Errefuxiatuek ez zuten protestatzeko aukerarik eta lanak ez zuten irabaziarekin proportziorik. Beraz *Xanty*k aurkitu zituen enpleguak utzi eta Chevaigneko herrian hartu zuen ostatu, erdi jausita zegoen baserri baten.

Han iraun zuen 1941eko irailetik gerra amaitu arte. Hasieran, alemanak nagusi izan ziren artean, inguruko jendearen mesfidantzapean, eta, geroago, borrokaren zeinuak bestera egin zuenean ez hain oker, baina beti txarto bizi izan zela.

Horregatik idatzi zien lagun eta ezagunei eta batzuk erantzunean etxean hartzeko promesak ere igorri zizkioten. Euren artean Juan Urresti Bilboko zinegotzi ondarrutar jeltokideak, Manu Robles-Arangiz eta Rodolfo Larrañaga elekidetik edo Antonio Amorena Irungo UGTkoak. Baina Meabek Montpellierraren bizi zen Antonio Ferrazen eskaintza onartu zuen, berak erbestean ilobatzen hartu zuen mutil gaztearen osaba zelako eta gazte horren borondatea horixe zelako.

1945eko maiatzaren 16an Meabek erabakita zeukan Chevaigetik Montpellierrera bidaia egitea, baina horretarako ere ez zuen dirurik eta, gorago esan den guztia kontatuz, Euzkadiko Jaurlaritzaren Parisko Ordezkaritzara luzatu zuen eskaria. Ez dakigu Montpellierrera heldu zen ala ez, dakiguna da urte batzuk beranduago Baionan bizi zela eta handik Bilbora itzuli, non hil zen 1961ean⁴⁷.

2.14. SALVADOR AGUADO ANDREUT

Salvador Aguadoren eta bere emazte Caridad Olalkiagaren erbesteko bizipenek arruntetik baino epikotik gehiago duten arren, apenas dira ezagunak. Beraien kasuan, karrera intelektual oparoak izateko baldintza guztien jabe zirela zeuden gerra hasi zenean eta lortu zuten ibilbide profesional distiratsua gatazkak (zibila eta mundukoa) amaitu zirenean, baina horrelako andre-gizonon ideologiak ez zuen-eta garai hartako Hego Euskal Herrian lekurik.

1947ko apirilaren zazpian, poliziak atxilotu ondoren, Merignaceko zentroan barruratuta zegoen lekutik, ahal zuen moduan paper ziztrin bat erabiliz, bizi zuen ataka estutik askatzeko, Salvador Aguadok Julio Huiciri eskutitz bat idatzi zion. Huici Filosofia eta Letretan doktorea, bere bizitza akademikoan, besteak beste, Cartagena eta Bartzelonako institutueta katedraduna izandakoa zen. Iruinseme honen joera politikoek Ezker Errepublikanoko kide izatera eraman zuten eta garai hartan Nafarroako Kontseiluko buruzagietako bat zen. Merignaceko zentroa, berriz, berez baliatzeko bitartekorik ez zuten iheslariak kaletik aldentzeko Frantziako Gobernuak eraturiko esparru bat zen. Urte batzuk lehenago, inongo zalantzarik gabe, kontzentrazio-esparruaren kontzeptupean jarriko zena, baina II. Mundu Gerran alemaniar naziek holako izena zeramaten zelaietan egindakoak egin ondoren beste deitura bat harturik zegoena. Hala eta guztiz ere, Merignacekoa Gurs eta antzeko guneen parekoa edo berdina zen. Hau da, bizi-baldintza gogorrekoa. Aguadok eta Huicik Cartagenako institutuan ezagutu zuten elkar, bertan maisu eta ikasle zirela, eta han lotu zuten bata bestearenganako adiskidetasuna.

Uztarroztarraren laguntza eskaria Huicik garaiko erbesteko Espainiako Errepublikako Gobernuko kide zen Manuel Irujori zuzenean igortzea izan zen. Honen

47. Meabe Bilbao, Santiago, «Exposición que hace el vasco Xanty de Meabe y Bilbao a la Delegación del Gobierno de Euzkadi en París en demanda de ayuda económica», 1945-5-16, Chevaigne, Irargi-GE-180-1.

erantzuna: Lizarrakoaren izateko modua erretratatzeko dutenetakoa. Huicik eman zizkion datuetan oinarrituta, Aguadori kontsultarik egin gabe, Merignacen barneratua bere ministeritzako lege-aholkulari izendatu zuen. Hori nahiko ez eta hilabeteke soldata eman zion Bordelelik Parisera bidaiara eroso egin zezan.

«Bion aberkide eta lagun den On Julio Huicik eman dizkit zure izen eta bizitzako aurrekariari berri, Ministerioan zuretzako lanpostu bat eskatuz», ziotson Irujok Aguadori 1947ko maiatzaren 20an. Horrekin batera esaten zion ere, kartazal berean zihoala izendapen ofizialaren agindua. Baina nor zen hain azkar horrelako postu bat merezi zuen Salvador Aguado hau?

1934an amaitu zituen Filosofia eta Letretako ikasketak eta gerra hasi aurretik Toledoko institutuan latina irakasten ibili zen. Ez du honek aparteko curriculum ematen, baina 1947 inguruan idatzi zuen txosten bat ikusiz gero, beste gauza asko pentsa daitezke. Han Aguadok haxe zioen zela: Filosofia eta Letretako lizentziaturaz gain Filologia Klasikoko ikasketetako ziurtagiria zuena. Kide zena Glotta, Philologus, Latium, Guillaume Bude eta Societé d'Etudes Juifs indoeuropar, greziar eta latindar hizkuntza eta ikerketa elkartean. Espainian, gerra aurrean, Behor Isaac Nahum, Hizkuntza Espainoleko Israeldar Komunitateetako Errabino Handiaren idazkaria izana eta ikasketa juduetan jardundakoa.

Gerran teniente izan zen eta bere metrailadoretako batailoiarekin igaro zuen 1939ko otsailean Kataluniako muga. Ondoren, lagunekin batera, Barcaresko kontzentrazio-esparruan barruratu zuten. Laster lortu zuen Barcareskiko kanporatzea, maiatzerako, Montauban-en nekazaritza-lanak egiteko kontratua lortu zuen-eta. Urrian, berriz, bolborategi baten beharrez hasteko Toulouserara aldatu zen, baina, gerran izandako bala-zauri batek utzi zizkion ondorioek elbarri egiten zutela argudiatuz, ez zuten hartu defentsarako gaiak prestatzen zituzten usin hartan.

Batean eta bestean hasi zen orduan lanean, eraikuntzan zein platerak garbitzen kafetegi batean. Atezuan aurkitze honek Ameriketara joateko SEREn eskakizuna egitera ere eramane zuen, baina aukera hau ez zen gauzatu. Bai ordea bere ikasketekin zerikusia zuten okupazio batzuk. 1940ko otsailean Cathala izeneko Toulouseko Unibertsitateko katedradunaren etxean latin, greko eta espainol irakasten hasi zen. Geroago, hizkuntza semitikoetan espezializatuta zegoen Larroche izeneko apaiz bati espainiar filologiako eskolak eman zizkion. Beste abade bati, Toulouseko seminarioko irakaslea berau, indoeuropar linguistikako irakaspenak izan ziren eman zizkionak. Zerrenda amaitzeko, Aguado legez erbesteratuta zegoen italiar antifaxista eta Erromako katedradun bati zuzenbide erromatarreko liburu batean jarri zituen latinezko esaldiak zuzentzen lagundu zion.

Ogia lortzeko balio izan zioten lanotan ezaguturiko jendea, Frantzia alemaniarren menpe erori zenean beste bide batzuk hartzeko baliatu zituen Aguadok. Hala, Cathala katedradunaren emazteak, ingelesa jaiotzaz eta frantsesa ezkontzaz

zenak, jarri zuen britainiarrek eraikitzen ziharduten espioitza-sare batekin harremanetan eta bertan hasi zen nafarra laguntzen. Mister Garrow zen sare horretako burua. Aldi berean, bere emazteren bitartez ezagutzen zuen Francisco Ponzan Vidalek Londresen zegoen De Gaulleren zerbitzura zegoen beste espioitza-sare batekin kontaktuan jarri zuen Salvador eta bertan ere lanean hasi zen. Hala eta guztiz ere, zerbitzu bat eta bi nahiko ez eta, hirugarren batean ere kidetu zen Uztarrozko hizkuntzalaria, oraingoan erbestean berregin zen Belgikako gobernuak antolatu zuenean.

Aguadoren lana Europa okupatutik jendea ateratzea zen. Belgikatik, Frantziatik edo beste nonbaitetik ihesean zihoazen pertsonak Pirinioak gurutzatzen lagundu eta Espainiara eramanez. Han beste batzuen eskuetan utzi eta Ingalaterraraino heltzen ziren iheslariok. Pertsoenez gain, korreo-lana ere egiten zuten Salvador kide zuten hiru sareek.

Belgikarrek eratu zuten sarean, baina, alemaniarrek beren agente bat sartzea lortu zuten. Ez sarea apurtzeko, ezpada Ardatzeko ekintzaileak Ingalaterrara sumorik gabe bidaltzeko baino. Aliatuak honetaz konturatu zirenean eta abisua luzatu, Gestapok sekulako amorrutz jo zuen sarearen kontra eta jota gelditu zen bera. Polizi naziak errepresioan Aguadoren etxera ere heldu ziren eta hauen asmoak zein izan zitezkeen erakusteko nahikoa da esatea uztarroztarraren etxeko ate aurrera hurbildu zen pertsona bat, espioi nafarra zelakoan, Gestapokoek hil egin zutela. Aguadori ez zitzaion ezer gertatu poliziek miaketa egiten ziharduten denboran etxetik falta zelako, eta itzuli zenean moja bik bidera irten eta lagundu ziotelako. Vicenta Rotaache, Bilbokoa, eta Lucia Moreno, Barakaldokoa, izan ziren moja bi horiek.

Jakin arren Gestapo bere atzetik zebilela, beste bidaia bat egiteko eskatu zioten sareko nagusiek. Azken zerbitzu horren zioa sarekadaren berri Londresera bidaltzea zen. Dokumentazio faltsuz ondo hornituta joan arren azken misioa izan behar zuen hartara, polizia alemaniarrek zain zituen Espainiara pasatzeko baliatzen zuten Ekialdeko Pirinioetako herrixkan eta preso hartu zuten. Aguado alemaniarrek hartu zuten preso, bere emaztea, berriz, Vichyko agenteek.

Suerte txarrean ondo atera ziren senar-emazteak, biak ala biak ihes egitea lortu zuten-eta. Frantses polizia batzuen, apaizen baten eta erresistentziako kideen laguntzaz Salvador eta Caridadek Frantzia mendiz utzi eta Bilbon burutu zuten ihesbidea. Bizkaiko hiriburuan emaztearen neba bizi zen eta horrek ekarri zituen bertara. Han, abertzale batzuen laguntzaz eta paper faltsuak erabiliz 1947ra arte bizi izan ziren. Ogibidea eskola partikularrak emanez lortu zuten.

Baina 1947ko martxoaren bian, Bilbon, ezustean, Cartagenan izan zituen ikaskide batzuek, orduan Falangekoak zirenek, ikusi egin zuten Salvador eta berriz ere ihesari eman behar izan zion. Bilbon denbora bat ezkutuan eman ondoren,

Iruñera heltzea lortu zuen. Hemendik, etxeko batek, Elizondora hurbildu zuen Emakume Abertzale Batzako Anuntzi Muniainen etxera. Azkenik, martxoaren 25ean Bittori Etxeberriak muga gurutzatzen lagundu zion. Emakume bi horiek bere emaztearen ezagunak ziren, Caridad 1932-1933 urteetan Elizondon maistra egon zenetik.

Ikusi dugu zelan Salvador hasi zen Irujorentzat lanean, baina ez dakigu zenbat denbora egin zuen horretan. Edonola ere, askorik ez. Eta beste lan batzuk lortzeari ekin behar izan zion. Beharra eman zioten lekuen artean Guatemalako enbaxada egon zen eta hango enbaxadoreak bultzatuta Erdialdeko Amerikarantz abiatu zen, San Carlosko Unibertsitateko Humanitateen Fakultatean lan egiteko. Guatemalaz gain, beste herrialde batzuetan ere irakatsi zuen eta produkzio intelektual oparo baten egile bihurtu zen.

Caridad Olalkiaga, esanda gelditu den legez, maistra zen eta Nafarroako iparraldean eman zituen eskolak Errepublikaren denboran. Caridad zangozarra zen eta bere senarra baino lau urte zaharragoa, 1910 eta 1914koak zirelarik.

Gerra hasi eta gutxira preso hartu zuten eta Jakako kartzelan sartu Pilar Ponzanekin batera. Pilar hau gorago aipatu dugun Franciscoren neba zen. Biak zeuden heriotza-zigorrekin noiz hilko zain. Baina Pilar eta Caridad aske utzi zituzten, preso-trukaketa bati esker seguru asko. Erbestera atera aurretik ez dugu beste daturik, Gironan, mugan bertan, umeen kolonia baten eskolak ematen egon zela baino eta oraingoan ere bai Pilarrekin batera.

Gainerakoan, Salvador eta Caridad elkarrekin ibili ziren senarrak kontzentrazio-esparrutik ateratzea lortu zuenean eta elkarrekin egin zuten espioitza-karrera ere, batera egin zuten legez polizia ihes egin eta gero, Frantziatik Bilborainoko bidea eta hemendik Frantziarako eta handik Ameriketarako⁴⁸.

BIBLIOGRAFIA

- Amezaga Clark, M. (1991): *Nere aita. El exilio vasco en América*, Editorial Txertoa, Donostia.
- Arrien, G. eta Goiogana, I. (2002): *El primer exilio de los vascos. Catalunya 1936-1939*, Fundació Ramon Trias Fargas/Fundación Sabino Arana, Bartzelona.
- Bury, J. (2009): *La idea de progreso*, Alianza Editorial, Madril.

48. Caridad Olalkiagak Alejandro Vianari bidalitako gutuna, 1940-1-29, Montauban, SERE-4-1 eta Salvador Aguado, Julio Huici, Caridad Olalkiaga eta Manuel Irujoren arteko korrespondentzia, 1947-4-7/1951-2-5, Merignac, Toulouse, Paris, Abertzaletasunaren Agiritegia-Irujo-3-3, Abertzaletasunaren Agiritegia-Irujo-54-1, Abertzaletasunaren Agiritegia-Irujo 61-6 eta Abertzaletasunaren Agiritegia-Irujo 81-12. García-Sanz Marcotegui, Ángel, *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 536-538. or.

- Egaña, I. (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria. 1936-1940*, Editorial Txalaparta eta Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla.
- Galindez, J. de (1952): *Estampas de guerra*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires.
- Raguer, H. (2001): *La pólvora y el incienso. La Iglesia y la Guerra Civil española (1936-1939)*, Península, Bartzelona.
- Rubio, J. (1978): «Las cifras del exilio», *Historia* 16, **30**, 19-32.
- Rubio, J. (1996): «*La población española en Francia de 1936 a 1946: flujos y permanencias*», in *Emigración y exilio. Españoles en Francia, 1936-1946*, Salamanca.
- Torrealdai, J. M. (2003): *Martin Ugalde*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

3. Jose Antonio Agirreren erbesteko Jaurlaritzaren historia laburra (1936-1960)

Xabier Irujo

3.1. 1936KO ERBESTEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

1936ko erbestea ez da lehenengo euskal erbestea. Asko eta odoltsuak pairatu baititu Euskal Herriak. Erbestea «norberarena ez den herrialdea» da berez, etimologikoki «beste herria» edo «gainerako herriak». Bigarren adiera batekin «herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia edo denboraldia» dugu XVIII. mendetik hona hitzaren esanahi. «Erbestetu» aditza dugu ere aurrekoarekin batera 1745. eta 1749. urtetik geure hizkuntzak idatziz erabilitako hitza. Bigarren Guda Karlistaren amaieraren ostean, 1885ean hain zuzen, «erbestera» aditz forma gehitu eta zabaldu zen ere euskararen idatzitako literaturan, hortaz, ahozko tradizioan hizkuntzak aurretik ezagunak zituen formak ditugula onartu behar. Liburu honetan landuko ditugun XX. mendeko gertakizun historikoek «erbeste» erroko «erbestera» aditz-izena izan zuten fruitutzat; izan ere, 1952. urtean du Ibon Sarasola hizkuntzalariak lehen aldiz katalogaturik forma hau⁴⁹. 1820an lehen aldiz idatziz erabilitako forma dugu «erbestetar» (atzerritar). Azkenik, erbesteratuen penak eta egoera tamalgarria adierazteko «erbestetasun» hitza ezagutu zuen geure hizkuntzak 1802an⁵⁰.

Sinonimotzat dituzte «atzerri» eta «erbeste» sinonimoen hiztegi gehienek, bai eta «atzerri» eta «aberri» edo «dierrri» antonimo. «Atzerri» 1596. urtetik katalogatutako euskal hitzak «norberarena ez den herrialdea» adierazten du jatorriz. Hedadura semantikoaz, «atzerria» norberarena ez den herria edo lurralde arrotza bada ere, hots, etimologikoki «atzeko», «osteko» edota «gibealeko» herria, «herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia» dugu ere esanahi. Hirugarren urratsa dugu hau. Kasu honetan ez da lekua edo tokia esanahiaren erroa, toki horretan ematen den denbora edo egonaldia baizik. Era berean, «atzerri» eta «atzeriratu» (1929) edo «atzerritu» (1745) izenarekin eta aditzekin batera, «atzerrialdi» eta

49. Sarasola, Ibon, *Euskal Hiztegia*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia, 1996.

50. Atal hau «Euskal erbestea eta erbesteak» artikuluaen laburpena da. Ikus, Irujo Ametzaga, Xabier, «Euskal erbestea eta erbesteak», *Guregandik. Revista del Centro de Estudios Arturo Campion*, 4, Laprida (Argentina), 2008ko maiatza.

«erbestealdi» edo «erbestaldi» hitzak gehitzen dituzte XX. mendeko euskaldunek atzerrian edo erbestean beharturik ematen den denbora edo egonaldi hura adierazteko. Ez da inondik inora kasualitatea 1949. urtean «atzerrialdi» hitzak euskal izkribuetan argia ikustea, hots, 1937ko eta 1940ko erbestaldi latzen ostean. 1959koa dugu «erbesteratze» aditz-izena eta, 1975. urtearen ondorengo atzerrialdiek, berriz ere geure herria doluz eta minez jantziz, «atzerriratze» hitz berria erakarri dute geure hizkuntzara.

«Exilio» izena eta «exiliatu» aditza erabiliak izan dira maiz aho-hizkuntzan bai eta, gutxiago bada ere, idazkietan 1937ko erbestez geroztik. Jatorriz frantsesetik hartutako mailegu semantikoa dugu hau; izan ere, XX. mendea arte gaztelaniaz «destierro» hitza zen nagusi, nahiz eta latineko «*exsilium*⁵¹» XII. mendetik ezaguna izan. Euskaraz «erbeste» eta «atzerri» izenek aurkezten dituzten bi esanahiak ditu latineko jatorrizko hitzak ere, hots, «lurralde arrotza» eta «bertako lurraldetik kanpo behartutako egonaldia».

Era berean, greziar erroko hitza dugu «diaspora», berez «hedatu», «barreiatu» edo «sakabanatu». Etimologikoki *δια-σπειρω* aditzetik dator, «erein» edo «haziak bota» hain zuzen, grezieraz «σποροζ» «hazi» baitugu. Hedaduraz, «sakabanatze» edo «barreiatze» esanahia hartu zuen *διασπορα* izenak. Aurrekoa bezala, Biblian judu-herriaren mendeetako deserria adierazteko erabilia izan da itzultzaileen eskutik, hortaz, esanahi horrekin iritsi zaigu guri ere. Hala ere, «exodo» bezala, «diaspora» ere soil-soilean 1937ko euskal erbestea adierazteko erabilia izan da.

Alabaina, «erbeste» ez da «diaspora» hitzaren sinonimo, ez eta «migrazio» hitzarena ere ez. Esan bezala, diaspora Euskal Herritik kanpoko Euskal Herria da, hots, zortzigarren herrialdea. Eta ikuspegi honetatik, bai erbestea bai migrazioa diasporaren parte integralak dira. Ildo honetan, migrazioa herritik joatea da, oro har, etxetik alde egitea. Hiztegi entziklopediko batean arakatuz, halako deskripzioa ikus genezake: «*Pertsona edo giza talde bat herri batetik bestera joatea, bereziki arrazoi ekonomiko, sozialak, etab. direla medio*»⁵². *Push & Pull* teoriaren ildoan, alde batetik etxetik alde egiteko arrazoi bat behar du emigranteak eta, bestetik, inora joateko zio bat ere bai; normalean herritik alde egiteko arrazoiak eta atzerrira joatekoak bateragarriak dira. Herria utzi eta Ameriketara edota munduko beste inongo punta batera joateko zioa ekonomikoa edo soziala da nagusiki; eta hauxe dugu ere Ameriketara joatekoa. XIX. mendeko dokumentuek garbi erakusten dute euskaldunek Hego Ameriketako herrialdeetara joateko grina, leku horietan Euskal Herrian faltan zutena aurkitu baitzuten. Argentina bezala, Uruguai edo Txile herrialde zabalak ziren, «*donde la gente es rara y la tierra abunda*». Hara hemen bi pisuzko arrazoi Ameriketara joateko. Bestetik, *Chain phenomenon* dela-eta,

51. «Exsilio» aditzetik datorren izena dugu hau, hots, «kanpora jautsi», «bidetik irten», ala, hedaduraz, «norberaren onetatik atera» edo «goretsi».

52. *Hiztegi entziklopedikoa*, Harluxet, <www.plazagunea.com>.

euskaldunak euskaldunak dauden tokietara abiatu ohi dira noski, alegia, euskaldunak, beste edozein naziotako herritarrek bezalaxe, ezagunak dituzten tokietara joan dira lan eta egoera berri baten bila.

Bestetik, hainbat hiztegiatan agertzen ez den bezala, inoiz ez bada, oso gutxitan doa emigrantea atzerrira bertan finkatzeko asmoz, itzulera baita gehiengo ezin zabalean helburua. Egia da ere, aldiz, nahiz eta bizi oso batez Euskal Herrira itzultzeko asmoa izanik ere, emigrantea gehienetan atzerrian geratzen dela. Arrazoi bikoitza da: alde batetik urtetan atzean utzitako Euskal Herria ez da inoiz gehiago «bere» Euskal Herria eta bueltan talkak eraginik, berriz ere Ameriketara itzultzea erabaki behar du emigranteak, ez hemen ez han behar duen atsedena aurkitzen ez duela. Bestetik, atzerrian osatu du emigranteak bizitza, eta bertan ditu seme-alabak eta bilobak. Eta azken hauek ez dira jatorrizko herrian jaiok, hortaz, ez dute gurasoek Euskal Herrira itzultzeko gogoia eta aingura moduan emigrantea atzerrian mantenduko du gehienetan horrek.

Migrazioaren arrazoiak ekonomikoak edo sozialak barik politikoak direnean erbestea dugu. Alegia, erbestea migrazio mota berezi bat da, arrazoi politikoek eraginik emigrazioa indarkeriaz bortxatua denean. Erbesteratua emigrante mota berezia da eta, nahiz eta batak eta besteak antzeko minak pairatu (lur-mina edo herriminak piztutakoak), berezia eta ezberdina izango da oro har emigrante batek eta erbesteratu batek atzerrian bizitakoa bai eta Amerikari buruz batak eta besteak izango duen irudia.

Erbestearen lehen ezaugarrietako bat zera da, estatu totalitaristek giza esku-bideen kontra ezarritako zigorra dela. Hitler-ek, Mussolinik, Oliveira Salazar-ek edo Stalin-ek bezala, Francok zabal erabilitako zigorra dugu hau. Azken honek demokraziak dauden herrialdeetara erakarriko zituen lehenik erbesteratuak, estatu hauek izango ziren-eta erbesteratuak onartzeko prest agertuko zirenak.

Zuzenbide kriminalaren doktrinaren kontra, erbesteak ez du pertsona zigortzen, familia osoak baizik. Izan ere, ikuspegi juridiko huts batetik, soil-soilean traba politikoaz dago hitz egiterik, hain zuzen, *Tribunal de responsabilidades políticas* delako epaimahaiak bideratutako prozesu sumarisimoen ondorioz erbeste-zigorra jaso zutenen inguru eta bakar-bakarrik giza talde horren inguru hitz egiterakoan erabil dezakegu «erbeste» edota «erbesteratu» hitza. Motz geratzen da, ordea, bai historikoki zein soziologikoki aurreko ikuspegia. Ildo honetan, Ameriketako euskal etxeak eta urtetan Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatu zituzten zenbait gizonezkoak eta emakumezkoak ez zituzten *Tribunal de responsabilidades políticas* delakoak ezarritako heriotza edota beste motatako zigorrak bere gain. Erbesteratutakoak ditugu, ordea, zalantzarik gabe. Hauen artean dira heriotza- edota erbeste-zigorra jaso zuten gizonezkoen ematzek, bai eta, azken hauekin batera, euren seme-alabak eta hainbat kasutan bilobak ere bai. Gertakari bakar eta bakun baten bi aurkitu ditugu zigorra pertsonalki jaso edota zigorraren eraginez edota

zigorren beldur sorterritik alde egitea. Zalantzarik ez, arrazoibide juridikoei arrazoi izpirik kendu gabe bada ere, 1937ko eta 1940ko euskal erbesteko oinarriko eta nahitaezko parte dira eta, hortaz, «erbesteratutzat» hartu behar ditugu, Ameriketako eusko etxeak jantzi zituzten emakumezko, gizonezko, gazte eta haur bakoitza⁵³. Erbesteratu askok ez zuten euren jaioterria, gurasoak, anai-arrebak, edota kideak inoiz berriz ere ikusiko.

XVIII. mendean Gipuzkoako Batzar Nagusien eskutik gauzatu zen antzera, babes instituzionala izan zuten erbesteratuek Jaurlaritzaren ordezkari izan eskutik Ameriketara. *Apatriada* edo dokumentazio eza, XX. mendeko erbesteen ondorio latzenetarikoaren aurrean, garrantzi handikoa izan zen amerikar estatuek euskal erbesteratuei, eta Argentinan, Kuban, Uruguain edota Venezuelan gertatu zen bezala, soil-soilik euskal erbesteratuei, eskainitako sorospena. 1939ko *Ley de Responsabilidades Políticas*-en ondorioz, espainiar naziotasuna galdu zuten erbesteratuek, «*en aquellos casos en que se deba prevenir el peligro dimanante de posibles actuaciones futuras de los inculpados, podrán ir acompañadas de otras, que, en rigor, tienen el carácter de medidas de seguridad y que consistirán en la inhabilitación para el ejercicio de determinados cargos y en el alejamiento de los lugares en que se residía anteriormente, llegándose, en ciertos casos de gravedad suma, a declarar la pérdida de nacionalidad de los que no merecen el honor de seguir siendo españoles*»⁵⁴.

Euskal etxeei esker ez zitzairen zaila suertatu amerikar estatu demokratikoen laguntza eskuratzea eta mantentzea Jaurlaritzako delegazioei. Babes diplomatikoa Europatik ihesik itsasoratzean zein Atlantikoa zeharkatzean; babes instituzionala eta administratiboa amerikar estatu demokratikoen eskutik; gertuko laguntza eta Ameriketara bizitza berriari ekiteko babes praktikoa eta morala eusko etxeetan. Besteak beste, Argentinako, Mexikoko, Uruguaiako eta Venezuelako naziotasuna eskuratu ahal izan zuten, ia tramite administratiborik gabe, euskal atzerrituek; berrogeialdi samingarriak eta umiliagarriak jasan gabe porturatu ziren euskal atzerritatuak Argentinan, Mexikon, Uruguain eta Venezuelan bai eta, neurri batean, Santo Domingon eta Kuban ere. Babes instituzionalaren eragina dugu hau guztia.

Zertzelada txiki honekin amaitu baino lehen, aipatu dugu Ameriketako edota, oro har, atzerriko ikuspegia ezberdina dela emigrante eta erbesteratuengan. Hala da. Euskal literaturak edota atzerrian bizi ziren euskal semeen gutunek erakusten diguten bezala, inork nahi ez zituen lan nekagarriak pairatzeko lur latza besterik ez zen Amerika emigrante batentzat; askok jatorrizko herria uztearen gorrotoa garbi erakutsi zuten, beste batzuek, aldiz, herrira berriz ere itzultzeko ezintasuna norberarengan sortzen zuen mina adierazi zuten ere. Dirua egin ala ez, emigrantearen

53. Irujo Ametzaga, Xabier, «Euskal erbestea eta erbesteak», *Guregandik. Revista del Centro de Estudios Arturo Campión*, 4, Laprida (Argentina), 2008ko maiatza.

54. *Prefacio de la Ley de Responsabilidades Políticas*, BOE, 44. zk., otsailaren 18a, 1939.

minak dira hauek, ez hangoak eta ez hemengoak ez direnen minak alegia. Erbesteratuarentzat, aldiz, Amerika demokraziaren herria da, eta proiektu eta borroka politikoak erbestean bizirik mantenduko du itzulerarekin beti ametsean. Emigrantea ez bezala, erbesteratua nekez da amerikarra, ez baitu amerikar izan nahi eta euskal seme gisa borrokan dihardu atzerritik. Emigranteak ez bezala, erbesteratuak *ezin* du Euskal Herrira itzuli, ondorioz, ez du *kulpa* sentitzen, ez du euskalerriratzearen ezintasuna bizi oso bateko *porrot* gisa sentitzen.

Azkenik, erbesteratu guztiek ez zuten atzerrian borroka politikoan parte hartu. Bestetik, 1936 baino lehen edota 1940 eta gero Ameriketara heldutako hainbat emigrantek gogoz parte hartu zuten erbesteko borroka politikoan. Erbeste *politikoaren* historia txikia da hau, hots, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren ekintzen historia, ondorioz, 1939ko *Ley de responsabilidades Políticas* euren gain zigorra ezarri ala ez, Jaurlaritzarekin 1936 eta 1975 bitarte espainiar diktaduraren kontra borrokatu zuten herritar guztiak ditugu aztergai, hauek osatzen baitzuten euskal erbeste politikoa.

3.2. 1936KO UDA, LEHEN EUSKAL ERBESTEA

Maizegi entzun ohi dugu 1939ko erbesteaz hitz egiten. Euskal erbestea 1936ko uztailaren 18an hasi zen ordea, bai Nafarroan zein Araban ere. 1936ko uztailan bertan pairatu zituzten Nafarroan eta Araban hainbat herritarrek lehenengo heriotza- edota espetxe-zigorrak eta uda horretan bertan ihes egin zuten ahal izan zutenek lehen aldiz erbesterantz, Baztandik pasa eta Iparraldera batzuk, Gipuzkoara eta Bizkaira besteak. Izan ere, 1936ko uztaila eta 1937ko ekaina bitarte luzatuko zen euskal erbestearen lehen aro hau edo, nahi izanez gero, erbestearen atariko makabroa.

Gudak eragina, milaka lagunek ihes egin behar izan zuten herrialde batetik bestera Euskal Herrian barna. William E. Chapman Estatu Batuetako Bilboko kontsulak emandako datuen arabera, Gernikako bonbardaketa baino lehen baziren hirian 80.000 edo 100.000 bat errefuxiatu⁵⁵. Zer esanik ez, nazionalak 1937ko udaberrian martxan jarritako bonbardaketa-kanpainaren ondorioz, azkar helduko ziren Bilbora beste milaka eta milaka errefuxiatu. Hain zuen, Chapman-en hitzetan, 1937ko martxoaren amaieran Bilboko ohiko herritarren kopurua bikoiztu zen. Bestetik, Bilboko blokeoari ekin zion armada espainolak 1937ko apirilean, elikagaien eta medikuntzen urritasuna areagotuz. Ondorioz, Jaurlaritzaren zeregin nagusieneratarikoa bilakatu zen zibil hauei guztiei osasun-zerbitzuak, mantenua eta aterpea eskuratzea.

55. *Notes on Political Affairs in the Consular District of Bilbao*. William E. Chapman-ek Claude G. Bowers enbaxadoreari bidalitako txostena. Donibane Lohizune, martxoaren 30a, 1937. National Archives and Records Administration, College Park, Bilbao Consulate General Records (1936-1946). Box 3, 1937. P. 2.

Egoera horetan 16 urtetik beherako haur asko zeuden eta, herritarren multzo berezi hori jasotzen ari zen arazo larriei erantzun azkarra eta eraginkorra emate-ko nahian, haurren ebakuazio-kanpainari ekin zion Jaurlaritzak 1937ko martxoan bertan. Jesús María Leizaola lehendakariordearen hitzetan, haurrak bonben arriskutik kanpo jartzea izan zen Jaurlaritzak azken hauek atzerrira eramateko hartutako erabakiaren arrazoi nagusia⁵⁶. Apirilaren 29an, hots, Gernikako bonbardaketa eta hiru egun ondoren, gudaren arriskutik urrutiratzearen, hasi zen Eusko Jaurlaritzak 300.000 herritar atzerrira eramateko posibilitateak arakatzan: «*the civilian population would be evacuated "en masse" to the west*»⁵⁷. Azkar heldu ziren akordio batera Jaurlaritzak eta *British National Joint Committee* batzordea Ingalaterrara 2.000 eta 4.000 euskal haur eramateko helburuarekin. Apirilaren amaiera baino lehen frantziar errepublikako atzerri ministroa zen Yvon Delbos-ek William C. Bullit Estatu Batuetako enbaxadoreari esan zion Jaurlaritzaren eskaerari erantzuna emanik, 100.000 bat euskal haur hartzeko prest zirela⁵⁸.

Hauek dira Euskal Herritik atera ziren lehen erbesteko semeak. Mundu garai-kideko lehen haur-ebakuazio masiboa dugu hau, hortaz, bazuen Jaurlaritzak auziari aurre egiteko hainbat erronka. Besteak beste, aipatutako itsas blokeoa. Hala ere, 1937ko maiatza eta urria bitarte 120.000 bat errefuxiatu salbu jartzea lortu zuten agintariak. Bilbotik 26.000 bat zibil itsasoratu ziren; 30.974 Santanderretik eta 62.199 Asturiasetik⁵⁹ eta guztizkoaren % 26 haurrak ziren. Apirila eta ekaina bitarte hamazazpi urtetik beherako 32.000 bat haur ontziratatu zituzten, hots, orduan Jaurlaritzak kontrolatzen zuen herrialdean ziren haur guztien % 20. Chapman-en datuen arabera, 15.000 haur ebakatu ziren Bilbotik maiatzaren 26rako. Ekainaren 14an, 30.000 errefuxiatuak utzi zuten Bilbo itsasontziz⁶⁰. Gehienak ez ziren berriz ere herrira itzuliko, askok ez zituzten inoiz euren gurasoak berriz ere ikusiko.

Errefuxiatu multzo handi horrek erbestean behar zituen zerbitzuak antolatu behar izan zituen Jaurlaritzak ere. Erieki behar bezalako tratamendua eman ahal izateko *La Roseraie*-ko ospitalea, Kanboko *Sanatorio Osasuna* eta Gorkizetik zetozen 350 haurrendako *Sanatorio Berk-Plage* osatu zituen udaberri horretan

56. Jesús María Leizaola, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak eta Kultura eta Justizia ministroak, Arantzazu Ametzagari bidalitako gutuna. Paris, otsailaren 15a, 1979.

57. Steer, George L. (1938): *The Tree of Gernika. A Field Study of Modern War*, XXVIII, Londres.

58. Letter by U.S. Ambassador to the French Republic William C. Bullit to the U.S. State Department. Paris, April 30, 1937. National Archives and Records Administration, College Park, U.S. Ambassador Claude G. Bowers Files (Files 852.48/...), Document 852.48/71.

59. Knox, Katharine; Kushner, Tony, *Refugees in an Age of Genocide. Global, National and Local Perspectives during the Twentieth Century*, Routledge, Londres, 1999. P. 105. Ikusi ere, Legarreta, Dorothy, *The Guernica Generation. Basque Refugee Children in the Spanish Civil War*, Nevada University Press, Reno, 1984. P. 50.

60. *Memorandum for the Ambassador by U.S. Consul in Bilbo William E. Chapman to U.S. Ambassador Claude G. Bowers*. Donibane Lohizune, ekainaren 14a, 1937. National Archives and Records Administration, College Park, Bilbao Consulate General Records (1936-1946). Box 4, 1937. P. 2.

zehar Jaurlaritzak. Alfredo Espinosa osasun-ministroa fusilatu ondoren, Eliodoro de la Torre-ren esku geratu zen atzerriratutako herritarren osasun-zerbitzuen antolaketa eta, abuztuaren 25ean, Bidarteko *La Roseraie* guda-ospitalea martxan zen. 1937 eta 1940 bitarte, 726 gudari eta 823 zibil pasatu ziren *La Roseraie*-tik. 1938 eta 1940 bitarte 300 eri izan zituen batez beste Bidarteko ospitaleak. Guztira, 1937ko abuztua eta 1939ko uztaila bitarte 7.500 kontsulta, 2.400 operazio eta 143 jaiotze (50 1938an, 64 1939an eta 29 1940an), erregistratu ziren *La Roseraien*, haien artean egilearen aitarena. Hiru haur hil ziren bakarrik, hots, erditze guztien % 0,4. Hiru pertsona hil ziren operazio baten ostean eta, guztira, 56 heriotza erregistratu ziren soilik hiru urte horietan.

Ekainaren 19an erori zen Bilbo nazioarteko koalizioaren indarren esku. Kanpaina militarren gorabeherak alde batera utziz, nazionalek Bizkaia guztiz garaituta zutela eta beste irtenbiderik gabe, 1937ko urrian erabaki zuen Gudarosteak italiarrekin bake-akordioa sinatzea. Hala ere, ituna urratuz, gudariak preso eramateko agindu zuen Francok urriaren 27an, azken hauek itsasoratzeko prest Santoñako portuan zirelarik. Santoñako gertakariak Jaurlaritzak eta Errepublikako gobernuarekin krisi bizia piztu zuen, Juan Negrín-en gobernuak saldukeriatzat hartu baitzuen Eusko Gudarostearen errendizioa. Izan ere, Jose Antonio Agirre lehendakaria epaitzea erabaki zuen Errepublikako Justizia Sailak («*Causa incoada para depurar las responsabilidades por la pérdida de los territorios leales del Norte*»). Agindu bezala, defentsarako txostena idatzi zuen Jaurlaritzak *Informe del Presidente Aguirre al gobierno de la república sobre los hechos que determinaron el derrumbamiento del frente norte*. Bertan guda ez zela Santoñan galdu baizik eta, askoz lehenago, 1936ko urritik hasita, nazien hegazkinerari aurre egiteko hegazkinak ez izateagatik galdu zela argitu zuten Jaurlaritzako agintariek.

Errefuxiatuekin batera, Espainiako espetxeetan zeuden presoek eta hildakoen senideen ardura zuen Jaurlaritzak bere gain. Gogorra oso izan zen errepresioa. 1936ko udan 1.757 exekuzio gertatu ziren Nafarroan eta 3.000tik gora 1939ko udaberria arte⁶¹. Araban 157 exekuzioen berri dugu 1936ko uda eta 1937 bitarte, haien artean % 65 epaiketarik gabe⁶². Gipuzkoari dagokionez, Hernaniko hilerrian 200 pertsonen gorpuak agertu dira⁶³. Osotara eta, ikerketak oraindik amaitu gabe, 500 eta 800 heriotza bitarte kalkulatu dituzte egile ezberdinek Gipuzkoan⁶⁴: 1936

61. AE, *Navarra 1936: de la esperanza al terror*, Altafaylla Kultur Taldea, Lizarra, 2001.

62. Ugarte, J. (1988): «Represión como instrumento de acción política del “nuevo Estado”. Alava, 1936-1939», Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarrak, 7, 275-304. De la Granja, J. L. (ed.) (2007): *La Guerra Civil en el País Vasco. Un balance histórico*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 666.

63. Aizpuru, M. (ed.) (2007): *El otoño de 1936 en Gipuzkoa. Los fusilamientos de Hernani*, Alberdania, Irun.

64. Pelletier, J. (1937): *Seis meses en las prisiones de Franco. Crónica de hechos vividos*, Ediciones Españolas, Madril/Valentzia

eta 1945 bitarte 639 pertsonak jaso zuten heriotza-zigorra eta haien artean 485 izan ziren fusilatuta (% 75,9)⁶⁵. Ikerketak oraindik amaitu gabe daudelarik, 900 pertsona inguru fusilatu zituzten nazionalak Bizkaian 1937 eta 1939 bitarte⁶⁶. Hauei guztiei Euskal Herritik kanpo fusilatu zituzten euskal herritarrak gehitu behar, bai eta epaiketarik gabe eta ondorioz erregistratu gabe erail zituztenak ere bai.

Modu batean edo bestean, egoera honetan erabaki behar zuten Jaurlaritzako agintariek zer egin: Bartzelonan borroka jarraitu edota etsi eta erbesteko bidea hartu. Eta lehenengo irtenbidea erabaki zuten. Izan ere, guztien gogoan zegoen Bigarren Mundu Gerra hasiko zela eta Kataluniako frontea *ofizialki* nazioarteko guda bilakatzeko aukera bazegoen. 1936ko guda galdurik hura baitzen Franco uzkaitezko aukera bakarra, alegia, aliatuen eskutik nazioarteko koalizioa osatzen zuten Hitler-en, Mussolini-ren, Oliveira Salazar-en eta Francoren erregimenak batera lehertu. Agirre lehendakariak Joxe Mari Lasarteri idatzi zion ildora:

1. *La fuerza moral mundial está enfrente del totalitarismo.*
2. *Franco no podrá resistir la caída del sistema.*
3. *El triunfo de las democracias traerá nuestro triunfo o preparará por lo menos el camino inmediato a él*⁶⁷.

3.3. BARTZELONA, 1937KO EKAINA-1939KO UDABERRIA

Erbestea Euskal Herritik kanpo joatea dela kontsideratuz, Kataluniakoa lehenengo euskal atzerria dela adierazi dute zenbait egilek. Dena den, Jaurlaritzak 1939an oraindik Baionan ordezkari-tza zuela kontuan izanik, ez da tesi sendoa. Nolabait ere, Bartzelonan ezarri zuen Jaurlaritzak bulego nagusia eta 1936ko gerra amaitu arte borrokatu zuen militariki zein politikoki nazioarteko koalizioaren kontra. Bartzelonan ez ezik, Madrilen eta Valencian ere zituen euskal gobernuak ordezkari-tzak. 1938tik aurrera Julio Jauregi izango zen Bartzelonan Jaurlaritzako ordezkari⁶⁸.

1936ko iraila eta 1937ko maiatza bitarte Manuel Irujo izendatu zuten Francisco Largo Caballero Errepublikako gobernu ministro. «Yo soy el precio del estatuto» esango zuen Irujok, nahigabeen hartu baitzuen Eusko Alderdi Jeltzaleko burukideen presioaren eraginez, kargua. Errepublikako gobernuaren eta Jaurlaritzaren arteko tentsioa bere gordinean zegoela, Juan Negrín errerepublikako presidente berriak justizia-ministroa izendatu zuen Irujo 1937ko maiatzean. 1936 eta 1938 bi-

65. Barruso, P. (2007): «La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil», *Historia Contemporánea*, **35**, 653-681.

66. Barruso, *op. cit.*, 653-681.

67. Jose Antonio Agirrek Joxe Mari Lasarteri bidalitako gutuna. Paris, 1939ko irailaren 11.

68. Erbesteko atal hau ederki landuta dago ondoko liburuan: Arrien, G. eta Goiogana, I. (2002): *El primer exilio de los vascos. Cataluña, 1936-1939*, Fundación Trías Fargas/Fundación Sabino Arana, Bartzelona.

tarte Irujoren ardura nagusia ministro gisa justiziaren funtzionamendua zuzentzea izan zen, alegia, auzitegi popularrak ezereztea, judizio sumarisimoak desagerraraztea, heriotza-zigorren kopurua ahalik eta gehien txikiagotzea eta, azkenik, Gurutze Gorriarekin elkarlanean, atxilotuen trukaketak bermatzea. Era berean, *zona nacionalean* guda-presoei jaso zuten trataera denuntziatu zuen behin eta berriro (kontzentrazio-eremuak, lan bortxatuetakoko eremuak, presoek baldintzak espetxeetan eta guda-ospitaleetan, fusilamenduak...). Bakar-bakarrik Bizkaian, 1937ko abenduan 7.935 preso zeuden nazionalen presondegiatan: 2.136 Larrinagan, 1.211 El Carmelo-n, 532 Escolapios-en, 616 emakumezkoen presondegian, 532 *Upo Mendi* itsasontzian⁶⁹. 1938ko apirilean 724 preso ziren Bizkaian heriotza-zigorrekin euren gain.

Berriz ere kanpaina militarra alde batera utziz (*142 Brigada Vasco-Pirenaica*-ren sorrera Kataluniako frontean) eta gudaren humanizazioaren ildotik, Katalunian eta Frantziako estatuan ziren errefuxiatuen sorospena izan zen Bartzelonan ere Jaurlaritzaren ekimenaren ardatz nagusietarikoak. Frantziako gobernuaren eskeari jarraiki, 1938an osatu zuen Errepublikako gobernuak *Comité Nacional de Ayuda a España* ebakuazio-zerbitzu ofiziala. 1938ko negua eta 1939ko udaberria bitarte milaka errefuxiatu frantziar estatura pasatzeko ardura hartu zuen erakunde horrek. *Comité Nacional de Ayuda a España* edota Errepublikako beste zenbait agentzien bitartez (hala nola *Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles*) inolako laguntza jaso bazuen ere, bere gain eta ardura zuzenean hartu zuen Jaurlaritzak euskal errefuxiatuen sorospenaren kudeaketa.

Ondorioz, Kataluniako frontearen amaiera bistan, eta Frantziako errepublikako agintarien kolaborazio ezarekin topo eginik (izan ere 1939ko otsailean —guda amaitu baino lehen— aintzatsi zuten britainiar eta frantziar gobernuak gobernu espainol berria), 1938ko udazkenean martxan jarri zen 500.000 bat herritar katalanen, espainolen eta euskaldunen exodoa. Milaka lagun heldu ziren Bartzelonara Jaurlaritzaren laguntza eske. Egoera horretan eta nazioarteko koalizioaren tropek Igualada, Bartzelonara sartzeko azken atea, hartzeaz zutenean, «ningún vasco atrás» lelopean, baietsi zituen Jesús María Leizaola Jaurlaritzako justizia-ministroak zenbait neurri:

1. Zeregin edo ardura militar edo politiko zuzena edota, heriotza- edo espetxe-zigorra jasotzeko arriskuan ziren herritarrek izango zuten Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko lehentasuna. Azken hauekin batera, haurrak, emakumezkoak eta eriak ebakuatuko zituen Jaurlaritzak Frantziara lehentasunez.
2. Autobusak, autoak, trenak eta bi itsasontzi (*Danubio* eta *Storm*) alokatu zituen Jaurlaritzak jendetza mobilizazioa gauzatzearren.
3. Anoak guztientzat bermatu zituzten bai eta Iparraldeko Kataluniako hoteletan gelak alokatu.

69. Barruso, *op. cit.*, 669.

4. Frantziako agintariak antolatutako Argelés-sur-Mer edota Gurs bezalako «Campos de acogida» kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten euskaldunei janaria, jantziak eta etxolak ere helarazi zizkien Jaurlaritzak. Hain zuzen, Argelés-sur-Mer hondartzan antolatutako zelaian *Gernika Berri* izeneko euskaldunen etxola-eremua Jaurlaritzaren sorospenez eraiki zen.
5. Bestalde, laguntza espirituala helarazten saiatu zen ere Jaurlaritza. Iñaki Aspiazu izan zen adibidez gudarien kaperaua Gursen.
6. Era berean, kontzentrazio-esparru hauetan ziren euskal semeak lehenbait lehen ateratzen saiatu ziren Jaurlaritzako agintariak.
7. Azkenik, behin kontzentrazio-esparruetatik kanpo, eta *Liga Internacional de Amigos de los Bascos* (LIAB) erakundeko sorospenarekin, atzerrian ziren euskal semeendako lana bilatzen saiatu zen Jaurlaritza.

Miloi bat liberatik gorako operazioa zen hau, hortaz, *Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles* (SERE) Errepublikako gobernuak kontrolatzen zuen erakundearen laguntza ekonomikoa behar zuen Jaurlaritzak eta goiz baino goizago sortu ziren sozialisten eta komunisten arteko gatazkak, bai eta azken bi hauen eta euskal abertzaleen artekoak ere bai. Eta, ezin ahaztu sei bat herrialdetan barreiatuak, 32.000 ebakuatutako haur zituela bere ardurapean era berean Jaurlaritzak. Era berean, guda amaitu bezain azkar dimititu zuen Manuel Azaña presidentea eta, ondorioz, errepublikazale espainolen arteko tirabirak areagotu ziren, nagusiki Juan Negrín (sozialismo ezkertiarra, sasikomunista) eta Indalecio Prietoren artekoak (sozialismo moderatua).

Bilboko garaipenaren ondoren gertatu bezala, Bartzelonako garaipenak bigarren aldiz jarri zituen mahaiaren gainean Jaurlaritzak zituen posibilitate biak: amore eman eta gobernu ezereztu edota, guda Euskal Herrian eta Katalunian galdurik, borrokari Parisko erbestean eutsi. Izan ere, lehenengoa ez zen aukera, ez behintzat errefuxiatuen egoerari erantzuna eman baino lehen, hortaz, Parisera abiatu zen Agirre eta egoera ezin latzagoan, guda galduta, funtsik gabe, Bigarren Mundu Gudaren atarian eta erbeste gorrian egin behar izan zion Jaurlaritzak aurre euskal erbesteko hirugarren aroari.

3.4. PARIS, 1939KO APIRILA-1940KO MAIATZA

1936ko urrian izendatu zuen lehendakariak Picabea Parisko ordezkarietzako ordezkari. Propaganda eta diplomazia izan zen Picabearen ardura nagusia 1936 eta 1939 bitarte: elkarrizketak, artikulak, liburukiak, aldizkariak... 1936ko azaroan hasi zen Parisko *Euzko Deya-La Voz de los Vascos* agerkaria frantsesez agertzen Donostiako *El Pueblo Vasco* agerkariaren zuzendari ohia zen Felipe Urcolaren ardurapean. Bi helburu zituen Jaurlaritzaren propaganda zerbitzuak, alde batetik Euskal Herrian geratutakoaren berri eman, kristautasunaren aitzakiapean giza eskubideak guztiz urratuz gobernu espainola diktadura bat besterik ez zela argituz;

bestetik, euskal semeen sen katolikoa —demokrata-kristaua— azpimarratu, bai eta Errepublikako gobernuarekiko Eusko Jaurlaritzaren independentzia administrati-boa agerrarazi.

Eusko Jaurlaritzaren 1938-39ko jarraibide politikoek 1936ean eta 1937an estatutuaren hegalean susperturiko egitarauan dute oinarri. Epe motzeko erbeste bati aurre egin behar izango zutela ustetan, falangisten garaipenak bertan behera utzitako proiektuen jarraipena zuen lehen erbesteko Jaurlaritzak helburu. 1936ko gerrak iraun zuen bitartean Jaurlaritzak agertutako eraginkortasunak Errepublikako gobernuarekiko eskumen zabalagoak negoziatzeko eta exijitzeko egoeran jarri zuen lehendakaria. Bestalde, Errepublikako gobernuaren barne-auziak eta tirabirak zirela medio, bai eta guda garaiko berezko antolakuntza, egituraketa eta koordinazio falta zela-eta, 1936ko estatutuak eta 1931ko konstituzioak eskaintzen zituzten eskumen zabalagoez jantzi behar izan zuen Euskadiko Gobernu lehendakariak. Izan ere, arlo ekonomikoan, Amerikako eusko etxeetako diru-laguntza hasi zen Jaurlaritza jasotzen 1938tik aurrera, besteak beste Parisko Marçeau kaleko egoitza erosi ahal izateko. Ordutik, finantzaketa eta kudeaketa propioari eutsi behar izango zion Jaurlaritzak erbestea iraun zuen berrogei urte latzetan zehar. Ildo horretan, 1939ko apirilaren 15 eta 18 bitarte Paris ondoko Meudon herrian izandako biltzarrean erbesteko lehen aroari aurre ekiteko estrategia politikoaren inguru lehendakariak hartutako erabakiak ez ziren, bada alderdi abertzale baten programaren nork bere egite soila eta guratsua; ikusiko dugun bezala, behar ekonomikoari, administratiboari eta egoera politikoari buru egin ahal izateko ezinbesteko jarrera izan zen hura eta, era berean, Jaurlaritzaren nortasunarekin eta programa propioarekin bat zetorren jarraibide hau noski. Gerora, denboraren joanak erakutsiko zuen bezala, Jaurlaritza berrogei urtez erbestean mantentzeko bide bakarra zen hura.

Ildo horretan, Errepublikako gobernuaren ezegonkortasunaren aurrean eta Jaurlaritzaren egiazko independentzia zela-eta, 1939ko udaberrian ezarri zituen Jose Antonio Agirrek aurrerantzean Euskal Gobernuaren ekintzaren lau zutabeak izango zirenak: Euskal Herriratzea eta, ondorioz, Euskal Herrian demokrazia ahalik eta arinen berreskuratu ahal izateko politika martxan jartzea, Jaurlaritza osatzen zuten indar politiko guztien kontsentsua bermatzea, euskal gatazka politikoa nazioarteko instituzioetara ekartzea eta, azkenik, giza eskubideen aldeko borrokari eutsiz, nazioarteko politikagintzan bakea berma zezakeen europar nazioz osatutako europar batasun demokratikoaren proiektuaren alde jotzea. Ildo horretan, 1940ko udaberrian Manuel Irujok aditzera eman zuen bezala, atzeritik euskal ildo nazionalari eutsi egingo zion gobernu-programa berri bati ekin behar zion Jaurlaritzak:

1. *El Gobierno de Euzkadi se constituyó en Gernika, al amparo del Estatuto Vasco.*
2. *Su legitimidad de origen, radica en haber sido proclamado el Presidente por elección de los Ayuntamientos Vascos, designado su Consejo por él*

mismo en pleno disfrute de sus facultades y ejercido su gestión por el Gobierno, dentro de la propia jurisdicción y territorio de Euzkadi.

3. *El programa estipulado entre los partidos políticos con nexo de coincidencia y base, tanto para la elección de Presidente, como para la formación y contenido del Gobierno, fue el que juró guardar aquél y al que prometieron su asistencia los Consejeros. Nacionalistas, republicanos, socialistas y comunistas, establecieron su solidaridad en el respeto de la fórmula de actuación política conjunta, significada en aquel Gobierno de coalición. Las únicas bajas voluntarias en el equipo Gubernamental fueron los comunistas.*
4. *Aquel programa ha sido en cuanto a los principios superado. Su desarrollo, interpretación y adaptación, como obra de Gobierno y en cuanto a la tesis vasca afectó en cada momento político, estuvieron confiados siempre al criterio y a los hombres del Partido Nacionalista. La parte de aquel programa que no fue cumplida, se debe a imposición de una realidad que no dependió de su gestión⁷⁰.*

Alabaina, euskal ildo nazionalak Jaurlaritzan zen talde sozialistaren kontrako jarrera izan zuen hasieratik. 1936ko urrian Madrilko *Partido Socialista Obrero Español*-ek (PSOE) susperturiko erakundea zen *Federación Socialista Vasca* (FSV), Bizkaiko eta Gipuzkoako talde sozialisten bilketa alegia. Izan ere, *Partido Socialista de Euzkadi* osatu ez zedin eratu zuen erakunde hau PSOEk. Paulino Gómez Beltrán-en zuzendaritzapean, *Comité Central Socialista de Euzkadi* (CCSE) zen *Federación Socialista Vasca* erakundeko batzorde eragilea.

Nolanahi ere, otsailaren 14an bildu ziren Parisen Eusko Alderdi Jeltzaleko zenbait kide (Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Telesforo Monzon), Eusko Alderdi Ekintzako ministroa (Gonzalo Nardiz), eta Parisen ziren CCSEko kideak (euren artean Miguel Amilibia) eta Jaurlaritzako ministro sozialistak (Santiago Aznar, Juan Gracia eta Juan de los Toyos). Esan bezala, Agirreren euskal ildo nazionalaren kontrako jarrera agertu zuen talde sozialistak nahiz eta, esan behar, banatuta zegoen taldea. Izan ere, euskal ildo nazionalaren aldeko jarrera agertu zuen Santiago Aznar-ek CCSEri aurkeztutako dokumentu batean 1940ko martxoaren 2an. Aste bat geroago, martxoaren 10ean, CCSEko Paulino Gómez Beltrán eta Ángel Giménez Aznar-en jarreraren kontra agertu ziren berriro ere Agirrereri igorritako gutun batean. Azkenik, 1940ko maiatzaren 8an, Jaurlaritzaren programa berriari baietza emanik, euskal ildo nazionala adostu zen. Hiru zutabe nagusi zituen programa berriak:

70. Manuel Irujok Antonio Gamarrari bidalitako gutuna. Londres, 1940ko apirilaren 11.

1. Eusko Jaurlaritzak euskal herritarrek demokratikoki hauteskunderetan adierazitako borondateak emandako autoritatean oinarriturik, Euskal Herriko gobernu legitimoa da.
2. Lehendakaria Jaurlaritzako botere eragileko burua da. Jaurlaritzarekin batera, *Consejo Nacional Vasco* erakunde kontsultiboa osatu zen, alegia, Euskal Herrian demokrazia ezarri arte, bertako herritarren soberania ordezkatzeko zuen botere legegilea. Bertako kide izango ziren Jaurlaritzako ministro guztiak eta gorteetako diputatuak, diputatu ohiak eta Hegoaldeko lau hiriburuetako alkate ohiak. Hauekin batera, kultura-arloko bi ordezkari eta lehendakariak hautatutako beste lau kidek osatuko zuten Kontseilua.
3. Azkenik, atzerrian, Eusko Jaurlaritzak euskal ildo nazionalari ekingo zion, hots, gobernu independente gisa lan egingo zuen Euskal Herrian demokrazia berreskuratu arte. Jaurlaritzak Errepublikako gobernuarekin batera, Franco uzkailei ondoren osatuko zen estatu espainol berriaren konstituzioa hitzartuko zuen ondoko baldintzetan oinarriturik:
 - a. *El reconocimiento de la personalidad nacional vasca y en consecuencia del derecho que le asiste para dictar libremente el régimen que mejor salvaguarde su personalidad.*
 - b. *Unos principios sinceramente democráticos que rijan la entidad política, que se propaga sin perjuicio de las alteraciones democráticas que hayan de sufrir en el futuro.*
 - c. *Unos principios de verdadera justicia social expresados en reglas claras y aplicables a la realidad de la vida social vasca.*
 - d. *Clara y firme adhesión a las potencias democráticas en su lucha contra el totalitarismo*⁷¹.

Izan ere, 1939tik hasita eta 1975 arte, euskal erbeste osoan zehar mantenduko zen egitaraua dugu hau. Bederatzi puntutan oinarritzen da *euskal ildo nazionala*:

- Itzulera. Itzulera izango zen erbesteko Jaurlaritzaren 39 urteko *leiv motiv*-a. Halarik ere, 1940ko maiatzean inork ez zuen pentsatzen erbestea hainbeste luzatuko zenik. Hortaz, itzulera ez zen planteatu 1931ko espainiar konstituzioaren babesean, beste terminoetan baizik; Agirrerren hitzetan *31 berri* bat eskatzen zuen itzulerak, hots, 1931 eta 1936 bitarte gobernu ezberdinetako desgokitasun, hutsune eta oker guztiei erantzuna emango zien legedi eta egoera berria behar zuen izan.
- Interbentzionismoa. *Euskal ildo nazionala* egitasmoak heltzear zen Bigarren Mundu Gerran Jaurlaritzaren parte-hartze aktiboa eskatzen zuen. Ildo horretan, bai politikoki bai militariki ere hartuko zuen parte Jaurlaritzak,

71. Jose Antonio Agirrek Jose Ignacio Lizasori eta Manuel Irujori bidalitako gutuna. Paris, 1939ko azaroaren 22a.

Errepublikako gobernuarekin kontsultatu gabe eta Errepublikako gobernuaren menpe geratu gabe ere. 1939ko irailean Britainia Handiak eta Frantziak Alemaniari guda deklaratu ziotenean LIABen bitartez egin zuen Jaurlaritzak adierazpen publikoa: Eusko Jaurlaritza, euskal herritarren ordezkari gisa, 1936 eta 1937 bitarte borrokatu zen nazioarteko koalizioaren kontra eta borroka jarraitzeko prestasuna agertu zuen; izan ere, iraileko guda-deklarazioa gertatu baino hiru urte lehenago zegoen jada Jaurlaritza nazien eta faxisten kontra borrokan.

- Parte-hartze militarrek gudarostea izatea eskatzen zuen ordea eta, behin 1936ko gerra amaituta, ez zuen Jaurlaritzak frantziar estatuan edota Europako beste edozein puntutan gizon armatutak izateko posibilitaterik. Egoera horretan, ekonomikoki zein politikoki eta administratiboki gudaroste bat atzerrian mantendu ahal izateko modu bakarra ezkutuko zerbitzu bat izatea zen. Abantaila anitz zituen horrek: alde batetik, gudaroste bat baino ekonomikoagoa zen eta, bestetik, haren isilpeko izaerari zegokionez, frantziar estatuan edota Britainia Handian edota Europako zein Ameriketako beste hainbat puntutan agenteak izateko posibilitatea bermatzen zuen; bestetik, aliatuek ez zuten, eta behar zuten tresna zen hau eta, azkenik, Euskal Herrian barna ekiteko modu bakarra zen. Ondorioz, 1937 eta 1939 bitarte osatu zen euskal informazio-zerbitzua eta 1942 eta 1949 bitarte izango zen nagusiki ekinkorra, Bigarren Mundu Gerra osoan zehar Jaurlaritzaren kontrolpean eginkizun aktiboa bermatuz.
- Parte-hartze politikoak nazioarteko politikagintzan inplikatzeko eskatzen zuen. Euskal gatazka politikoa ez zen gehiago espainol eta frantses estatuen barne-auzia izango eta, lehen aldiz, *The Basque conflict is an international issue* entzun zen New York-etik Londresera. Zerbitzu ezkutuekin lotura zuzena eta estua zuen nazioarteko zeregin diplomatiko honek; izan ere, Jaurlaritzako ordezkartzen zereginen artean garrantzi handiko eginkizuna zen europar eta amerikar estatuetako goi-mailako politikagintzan inplikazio zuzena eta berezko agerrera izatea. Ildo politikoaren eremuan, bost izango ziren Jaurlaritzaren printzipio errektoreak:
 - Ardatza osatzen zuten Europako eta Asiako gobernu totalitarioen koalizioaren kontra giza eskubideen eta demokraziaren balioak defendatzea. Ildo honetan, Filipinetatik hasita, Hego eta Ipar Ameriketako herrialde gehienetan eta European ere izan zituen Jaurlaritzak zerbitzu ezkutuko agenteak bai eginkizun militarrek bermatzen bai zeregin politiko edo diplomatikoak.
 - Autodeterminazio-eskubidea eta independentzia. Giza eskubideen artean, Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea defendatu beharra zegoen Mundu Gudaren osteko eszenario politikoan, alegia, euskal nazioak bizi politiko independentea izateko zuen eskubidea.

- Europartasuna eta federalismoa. *European Union of Nations* proiektu politikoaren alde agertu zen Jaurlaritza behin eta berriro. Irujoren hitzetan, frantziar errepublikari eta Britainia Handiari begira, Bigarren Mundu Gerrak bermatua zuen jada Europar Batasuna. Izan ere, hirugarren mundu guda saihesteko bide bakarra zen, bai eta ekonomikoki zein politikoki Europako irtenbide posible bakarra.
- Politika soziala. Gobernu espainoleko propagandari aurre eginez, Jaurlaritzaren alderdi nagusia zen Eusko Alderdi Jeltzalea Jacques Maritain-en ildoko alderdi kristau-demokrata zela azpimarratu zuten zerbitzu ezkutuek bai eta Jaurlaritzako ordezkariak Ameriketara eta Europan zehar. 1936ko gerra ez zela izan guda zibila, ez eta kristauen eta atoen arteko guda aditzera eman zuten Jaurlaritzako propaganda-zerbitzuek 1936tik 1975era. Ikusiko dugun bezala, hau izan zen aliatuek euskal zerbitzu ezkutuen inguru interesa piztu zuen argumentu nagusia.
- Ekintza kulturala. 1939an itzulera gertu aurreikusten zelarik, Euskal Herrian euskara eta euskal kultura berpizteko mota eta tankera guztietako programak martxan jartzea izan zen 1938 eta 1940 bitarte Parisko delegazioan Jaurlaritzako Kultura Sailaren baitan lan egin zuen lan-taldearen zeregina. Atzerriko kultur ekintzako jarraibidearen helburu nagusien artean ditugu euskal kultur etxea edota ministerioa osatzea, euskal gaitan espezializaturiko argitaletxea eratzea edota Europako eta Ameriketako unibertsitateetan euskara eta euskal kultura katedrak sortzea.

Euskal ildo nazionalari bultzada ematearren eta *Comité d'Accueil aux Basques* antzeko herrialdez herrialde Jaurlaritzari sorospena eskaini ziezaiokeen kultura-munduko, eliza katolikoko eta politika-arloko zenbait pertsonaia bilduko zituen erakunde bat osatzea bururatu zitzaion Manuel Intxausti gipuzkoar jatorrizko industrial filipinarrari. 1938ko apirilaren 27an (Gernikako suntsiketaren lehen urtemuga) aurkeztu zion proiektua lehendakariari Intxaustik eta aste bat geroago, maiatzaren 5ean erakunde berriaren berri eman zuen Jaurlaritzak. *Liga Internacional de Amigos de los Bascos* (LIAB) izan zuen izena. Esan bezala, LIAB Jaurlaritzatik hurbil frantziar errepublikan lan egin zuen euskaldunen lagun taldea izan zen; taldekideen artean François Mauriac, Jacques Maritain, Francisque Gay, Georges Bidault, Enmanuel Mounier, Claude Bourdet, Jaques Maudale, Maurice Merleau-Ponty edota Stanislas Foumet ditugu. Beste gauzen artean, frantziar errepublikako gobernuarekiko indar egin zuten zuzenean zein prentsaren bitartez euskal errefuxiatuen egoera hobetzeko, kontzentrazio-esparruetan ziren gudariak askatzeko, frantziar estatuan ziren haur errefuxiatuen kolektiboaren egoera hobetzeko eta, oro har, Jaurlaritzak zituen arazo larrien aurrean sorospena eta funtsak lortzen laguntzeko.

Era berean, Euskal Herria munduan ezagutzera emateko *Eresoinka* abesbatza (1938-1939) eta *Euskadi* futbol-taldea (1937-1939) osatu ziren Jaurlaritzaren

sorospenarekin. Euskal Herriko kultur enbaxadak ziren hauek. Lehendakariaren hitzetan,

Se puede perder una guerra, se puede perder un Gobierno pero al pueblo le queda la palabra, la música, la danza, la cultura, sobre nuestra tierra habíamos terminado la guerra, pero no por eso nuestro espíritu se había muerto para el mundo. Quisimos mostrar en el extranjero cómo vibraba aquella alma vasca que había sido sacrificada en aras del totalitarismo que amenazaba invadir la humanidad y organizamos periódicos, revistas y espectáculos teatrales (...). El coro, que se llamó Eresoinka, cantó en las principales ciudades de Francia, Bélgica, Holanda e Inglaterra, esparciendo nuestro arte al mismo tiempo que iba cambiando la opinión. Propaganda, sí, propaganda por la libertad, porque cantando solamente pueden desparramarse semillas espirituales. Y cantando los vascos anunciaban al mundo que la misma fuerza bruta que había desterrado de Euzkadi aquellas bellísimas canciones, era capaz de sellar los labios de los pueblos que se creían más seguros. Mas el mensaje de nuestros artistas fue oído pero no entendido por muchos de aquellos que iban a ser víctimas de los nuevos invasores (Agirre, 1943).

Gabriel Olaizolaren zuzendaritzapean, 110 kidez osatutako abesbatzak 1937ko abenduaren 18an eman zuen lehen ekitaldia Parisen. Gerora, bi urteko ibilaldia burutu zuen *Eresoikak* beste askoren artean Belgikako, Holandako eta Britainia Handiko Amersfoort, Amsterdam, Antwerpen, Brugge, Brusela, Gent, Haarlem, Hilversum, The Hague, Londres, Paris, Rotterdam edota Utrecht-eko antzestokietan abestuz. Normalean aurreku batek irekitzen zituen saioak eta «Gora Euzkadi askatuta!» aldarriarekin amaitu. 1939ko abenduan desegin zen *Eresoinka*⁷².

1937ko urrian *Selección Nacional Vasca*, Euskadiko selekzioa porturatu zen Le Havre-n Amerikarantz. Selekzioaren eginkizuna bikoitza zen, alde batetik euskal errefuxiatuentzat dirua biltzea eta bestetik Euskal Herria eta bere gatazka politikoa munduan ezagutzera ematea. New York, Habana, Veracruz eta Mexikon egon zen. Mexikon soilik hamar bat partidu jokatu zituen eta denak irabazi. Argentinako *River Plata*, *Boca Juniors* edota *San Lorenzo de Almagro* taldeen kontra jokatu zuen selekzioak halarik ere ezin izan zuen Argentinako ligan jokatu. Txileko Valparaíson jokatu ondoren, Kubarantz abiatu ziren eta bertan 1938an *Centro Gallego de La Habana* taldearen kontra jokatu zuen eta gero Kubako selekzioaren kontra. Bi partidak irabazi zituen. Azkenik, Mexikoko liga profesionalean jokatu zuen 1938-1939 urteko sasoian, eta bigarrena izan zen kalifikazio orokorrean⁷³. Bi urteko bizi arrakastatsu baten ostean 1939ko udaberrian desegin zen azkenik taldea.

72. Arana Martija, J. A. (1986): *Eresoinka*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.

73. Terratchet, E. (1976): *El Euzkadi*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 65-85.

Baina beste edozein zeregin baten gainetik, 1936tik hasita, errefuxiatuen arazoa zen Jaurlaritzaren lehen eginkizuna. Alde batetik preso ziren milaka euskal herritarren egoera zeregin larria zen Jaurlaritzarentzat eta, bestetik, Katalunian edota Europako beste zenbait puntutan ziren errefuxiatuak eta haur-kolonietan ziren hamasei urtetik beherako haurrak.

1936ko udan osatu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak Joxe Mari Lasarteren zuzendaritzapean *Servicio Vasco de Información y Propaganda*. Behin Bilbo galduta eta Jaurlaritzaren Bartzelonan kokatuta, *Servicio Vasco de Información y Propaganda* berrantolatu zen eta Luis Álava Sautu-ren zuzendaritzapean *Servicio Interior* (SI) osatu zen. Biak espetxean zirelarik, Juan Ajuriaguerra eta Lucio Artetxe ziren Euskal Herrian barna SIKo buruak. Helburu nagusia orduan nazioarteko Gurutze Gorriarekin kolaboratzea zen, euskal presoen egoera hobetzeko (elikagaiak eta medizinak helaraziz), heriotza-zigorak eta fusilamenduak geldiarazteko eta, azkenik, trukaketa lortzeko. SIKo agenteen artean emakumezko asko ditugu (hala nola Maritxu Aranzadi, Delia Lauroba, Maria Teresa Verdes, Itziar Mújica edota Bittori Etxeberria), hauek espetxeetan sartzeko eta janaria zein medikuntzak edo arropa espetxeetara helarazteko erraztasun gehiago baitzuten. *El Dueso, Larrinaga, Prisión de Pamplona, Prisión de San Cristobal, Burgos* edota *Penal de Puerto de Santa María* espetxeetako informazioa pasatzen zieten Jaurlaritzako Baionako egoitzan ziren ezkutuko zerbitzuko agenteei eta, era berean, haiek espe-txeetara informazioa eramaten zuten ere bai, «*Lauroba recogía las informaciones, entre ellas las importantes que conseguía María Teresa Verdes, y las pasaba a Itziar Mújica (Donostia), quien las entregaba a Bittori Echeverría (Elizondo), encargada de ponerlas en manos de los que las esperaban en Euzkadi-Norte*»⁷⁴. Emakumezko hauek ehunka preso gorde zituzten heriotza-zigorretik. Hala ere, ehunka euskal preso fusilatu zituzten bai eta beste asko osasun-egoera ezin la-tzagoak jota espetxeetan bertan edota *hospital penitenciario*-etan hil ziren ere bai.

Errefuxiatuei dagokienez, 1939an bi lider sozialisten arteko lehiak azken hauen egoera kaltetu zuen. Negrín-ekin zituen ezinikusiak zirela-eta, 1938ko martxoan Aragoiko frontearen porrotaren ondoren utzi zuen Indalecio Prietok Errepublikako gobernuaren ordu arte Negrín preseitearen gobernuaren kontrolpean zegoen *Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles* (SERE) izan zen errefuxiatuen ebakuazioaren funtsak kontrolatu zituen erakundea. Hala ere, martxoaren 23an heldu zen *Vita* itsasontzia Veracruz-era (Mexiko), Errepublikako gobernuko diruzama batekin eta, gorabehera askoren ondoren, Mexikon zen Prietok diru horien kontrola lortu zuen. Izan ere, 1939ko uztailaren 28an Errepublikako gorteetako diputazio permanenteak Negrín-en gobernuak kontrolatzen ez zituen eta Ameriketara joandako *Vita* itsasontziko funtsak kudeatzeko *Junta Administradora* eratu zen eta bi egun geroago, SERE erakundearen antzekoa zen eta Prietoren kontrolpean

74. Barriola, Iñaki (1978): *19 condenados a muerte*, Ediciones Vascas, Donostia, 15.

zegoen *Junta de Ayuda a los Republicanos Españoles* (JARE) eratu zen. Abuztuaren 1ean Luis Nicolau d'Olwer izendatu zuten JAREko zuzendari eta sei kontseilarien artean dugu Indalecio Prieto. Egoera horretan 1940ko apirillean *Comité Nacional de Ayuda a España* desegin zuten Errepublikako agintariak.

Jaurlaritzak protesta egin zuen behin eta berriro Errepublikako agintariak erakusten zuten erresposabilitate falta nabariagatik. SERErekin gero eta arazo handiagoak zituelarik, 1939ko abenduan bildu behar izan zen Eliodoro de la Torre Jaurlaritzako ekonomia-ministroa Luis Nicolau d'Olwer-ekin euskal errefuxiatuen sorospenerako funtsak lortu ahal izateko. Bizkaiko bankuko zuzendari ohia eta Kataluniako euskal merkataritza-ganberako lehendakari ohia zen José Aretxabaleta izango zen JAREn euskal ordezkaria⁷⁵. Halarik ere, funtsen urritasunak neurri bereziak hartzera behartu zuen Jaurlaritza. Erantzukizun politiko zuzenak eta, ondorioz, heriotza- edota espetxe-zigorra euren gain jasotzeko arriskurik ez zutenek bi aukera zituzten atzerrian egoten jarraitu ahal izateko: frantziar armadan alistatu edota frantziar errepublikatik alde egin. *Reglas para la clasificación de responsables* txostenaren arabera, hiru taldetan banatu ziren errefuxiatuak dirulaguntzari zegokionez, alegia, 25, 15 eta 7,5 libera eguneko jasoko zituztenak eta, familia euren kargura zutenentzat, kantitate jakin bat hilabeteko⁷⁶. 1939ko udan diru-laguntzak epe jakin batera mugatu ziren.

Diru-laguntzak eta sorospena lortzeaz gain, errefuxiatuentzat dokumentazioa lortu behar zuen, bai eta frantziar errepublikako agintariekin euskal errefuxiatuen egoera legala erregulatzeko beharrezko itunak sinatu. Era berean, Santiago Aznar Industria Saileko ministroaren eta Eliodoro de la Torre Ekonomia Saileko ministroaren eskutik errefuxiatuei lanbideak lortzeko zerbitzua ezarri zuen Jaurlaritzak frantziar errepublikan. Frantziako gobernuak 1939ko abuztuan agindutako mobilizazio orokorra zela-eta, Eusko Jaurlaritzarekin akordioa sinatu zuen frantziar armamentu-ministerioak. Itunaren arabera errefuxiatu askok lana lortu zuten estatuak Landetan zituen armamentu-industrietan, hala nola Tarbes-ko lehegailuen fabrikan. 1940ko martxorako 5.216 lagunek lortu zuten lana bide honen bitartez⁷⁷. Guztira 59.000 errefuxiatu zirela kontutan izanik, guztizkoaren % 8,84 suposatzen du horrek; eta, errefuxiatuen artean adin bateko pertsonak eta haurrak zeudela kontutan izanik, zenbaki handia da hau.

Egoera honetan, gertatu zen *Blitzkrieg*, nazien mendebaldeko Europa garaitzeko operazioa. Maiatzaren 10ean hasi ziren operazioak eta, inork pentsa ez zezakeen bezala, ekainaren 14an Paris garaitu zuten Hitler-en tropek; 22an sinatu zen armistizioa. Bingen Ametzaga Justizia eta Kultura Saileko kideak adierazi zuen bezala, Bordelen zirela gainditu zituzten naziek eta haiek Miarritzera trenez iritsi

75. Eliodoro de la Torrek Doroteo Ziaurritzi idatzitako gutuna. Paris, 1939ko abenduaren 15a.

76. Jose Antonio Agirrek Juan Nadali idatzitako gutuna. Paris, 1939ko abuztuaren 14a.

77. *Informe sobre la situación de los trabajadores vascos en Francia*, Paris, 1940ko martxoaren 7a.

baino lehen hiria hartuta zuten azken hauek; izan ere, —azpimarratu zuen idazle getxotarrak—, nazien arazo handiena frantses armadak iheska hartu zuen abiadura izan zen. Hilabete eta erdi eskasean soldadu alemanak Hendaian ziren, Francoren guardia zibilekin zigarroak elkarrekin trukatzuz Bidasoako zubiaren gainean.

Eta, bitartean, Jose Antonio Agirre desagertu zen. 1940ko maiatzaren 8an euskal sozialistekin *euskal ildo nazionala* Jaurlaritzaren programa berria sinatu eta gero atera zen Belgikarantz zenbait gobernukideren iritziaren kontra. Luis Companys Kataluniako presidentea bezala, Gestapok harrapatu eta gobernu espainoleko ordezkarien esku jartzeko arriskuan zegoen Agirre. Companys harrapatuko zuten naziek eta 1940ko irailean estraditatu. Urriaren 14an fusilatu zuten Montjuic-eko gazteluan. Agirrek *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín* liburu ederrean kontatzen duen bezala, nazien eskutik ihes egin ahal izateko Berlinera abiatu zen lehendakaria. Momentu ezin latzagoan bururik gabe utzi zuen Euskadiko Gobernu lehendakariaren desagerpenak.

3.5. LONDRES, 1940KO MAIATZA-1941EKO URRIA

Bigarren Mundu Gerraren hastapenak eta naziek hilabete eskas batean 1940an buruturiko Frantziako garaipenak nabarmenki eraldatu zituzten lehen erbesteko helburu politikoak. 1938an ez bezala, Euskal Herriko autodeterminazio-eskubide historikoa exijituz dugu Londresko Euskadiko kontseilua Britainiar eta Frantziar gobernuarekin harremanetan. Halaber, Errepublikako gobernuaren bitartekotzarik gabe, elkarlana sustatzeko akordioa izenpetu zuen Franklin D. Roosevelt-en gobernu demokratarekin 1941eko azaro eta 1942ko maiatza bitarte lehendakariak. 1943 baino lehen oraindik itzulera gertuko perspektibarekin eta, autodeterminazio-eskubidea ardatz, Euskal Herrian bertan gauzatuko zen burujabetzaren garapena dugu bigarren erbesteko Jaurlaritzaren programa politikoaren oinarritzko puntua. Helburu horrekin, europar eta amerikar gobernu demokratikoekin harreman diplomatikoen sakontzea eta Ardatzeko indarren kontrako ekimen militarra gauzatzea izan zen Jaurlaritzaren kezka nagusia. Izan ere, nahiz eta 1936ko gerran zehar Stanley Baldwin eta Neville Chamberlain lehen ministro kontserbadoreen kabineteez Interbentzio Eza Batzordean agertutako jarrerak 1940tik aurrera Winston Churchill-en gobernuaren espainiar erregimenarekiko espero zitekeena ondotxo erakutsi, Frantziako garaipena eta Ingalaterrako batailaren hasierak gobernu kontserbadorearen atzerri politikako aldaketa bigun zezakeela pentsatzea zuten Jaurlaritzako eta Euskadiko Batzar Nagusiko kideek. Bestalde, oso bestelakoa izan zen 1936ko gerran zehar Clement Attleren oposizioko alderdi laboristak Jaurlaritzarekiko agertutako jokaera eta eskainitako laguntza. Ildo berean, interbentzio zuzenarekiko nolabaiteko itzaropena piztu zuen Estatu Batuetako gobernuarekin 1941eko negutik aurrera Jaurlaritzak izandako harreman instituzionalak. 1942ko azaroaren 7an aliatuak Marokon eta Aljerian lehorreratu ondoren, mobilizazio partziala dekretatu zuen Francoren erregimenak. Hala ere, ez zen aliatuen eta Francoren indarren

arteko espero zitekeen borroka piztu. Zeharo ezereztu zuen azkenik 1944ko ekainaren 6ko Normandiako lehorreratzeak interbentzio zuzenaren hipotesia. Franco alde batera utziz, Italian eta Frantzian zehar abiatuko ziren aliatuak Berlinerantz.

Paris nazien eskutan eta armistizioa behin sinatuta, Andrés Irujo, Miguel José Garmendia eta Julio Jauregi bildu ziren Baionan Jesús María Leizaolarekin, jardunezko lehendakaria. Egoera ezin latzagoa zen; inork ez zekien Agirre bizirik ote zegoen eta nazien erasoaren ondoren, arrisku bizian ziren Jose Antonio Agirre bezala euren gain modu bateko edo besteko zigorra zutenak. Egunak joan eta egunak etorri, egoera ez zen hobetzen eta Leizaolak ezin zuen okupatutako Baionatik Jaurlaritza kudeatu. Hortaz, Londreseko ordezkaria zen Jose Ignacio Lizasok *Euzkadi'ko Batzar Nagusia* sortzea proposatu zuen,

La creación del organismo rector de la vida vasca que continuara la obra del Gobierno presidido por ti y su denominación de «Consejo Nacional de Euzkadi» fue unánimemente aceptada, a propuesta mía. La composición automática del mismo fue sugestión de Manuel. La Presidencia no podía ser asumida por otro que reuniera las condiciones, títulos y prestigio de Irujo. La interinidad del organismo fue iniciativa unánime. Así nació el Consejo Nacional de Euzkadi⁷⁸.

Manuel Irujoren zuzendaritzapean, uztailaren 10ean eman zuen jakitera egitamu politikoa eta egun bat geroago ofizialki osatu zen, armistizioa sinatu eta 19 egun geroago alegia. 10 pertsonек osatzen zuten *Euzkadi'ko Batzar Nagusia*:

Lehendakaria: Manuel Irujo

Lehendakariordea: Ramón María Aldasoro

Batzordekideak: Ixaka Lopez Mendizabal, Santiago Cunchillos, Pablo Archanco, Juan Olazabal, Francisco Belaustegigoitia, Manu Sota eta José Ignacio Lizaso.

Idazkaria: Ángel Gondra

Lau ziren Agirre lehendakaria agertzen ez zen bitartean eratu berriko *Euzkadi'ko Batzar Nagusiaren* eginkizunak:

1. Jaurlaritzak zituen eginkizun administratiboak bereganatu eta sistema martxan jarri.
2. European ziren errefuxiatuen egoerari erantzun azkarra eman.
3. Bigarren Mundu Gerran aktiboki parte hartu, bai politikoki zein militarki ere bai.
4. Euskal Herriko independentzia ziurtatuko zuen akordio politikoa erdietsi.

78. Jose Ignacio Lizasok Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna. Londres, 1942ko urriaren 24a.

Lehenengo puntuari dagokionez, hots, Jaurlaritzako eginkizun administrati-
boan esku hartzea, *Euskal ildo nazionalari* eutsi zion Euskadiko Batzarrak. Izan ere,
eutsi baino hezurmamitu zuen Irujok. Maiatzaren 8an Meudonko bileran adostu-
tako praktikan jarriko zen lehen aldiz Londresen; hitz hauetan jarri zuen Lizasok:

El Consejo no nace con una nueva política. Es continuador de la que el Presidente Aguirre y sus Consejeros marcaron siempre a los que en el exterior gozamos de su confianza para actuar cerca de las democracias colaborando con ellas en beneficio de intereses universales y del específico de la libertad de nuestra patria⁷⁹.

Esan bezala, eginkizunik larriena errefuxiatuen ebakuazioa zen. Naziek Euro-
pako mendebaldea garaitu baino lehen, martxoaren 21ean Paul Reynaud izendatua
izan zen frantziar estatuko lehen ministro eta maiatzaren 10ean Jean Ybarnegaray
estatu-ministro. Orduetik euskal errefuxiatuen egoera erabat okertu zen eta bakar
bakarrik LIABen sorospenarekin eta naziek jada Paris garaitu zutela lortu zuen
Jaurlaritzak 1940ko ekainaren 23an azken euskal gudariak Gurs kontzentrazio-
esparruetatik ateratzea.

Jaurlaritzaren babespean Belgikan, Holandan edota Frantziako estatuan ziren
60.000 inguru euskal errefuxiatuak eta herrialde hauetan ziren ebakuatutako hau-
rren koloniak naziek garaitutako eskualdean ziren 1940ko maiatzeko ofentsibaren
ostean eta euren artean askok heriotza-zigorra zuten bere gain espainiar justiziak
ezarrita. Gainera, José Félix Lequerica zen 1939tik espainiar estatuko ordezkaria
Parisen eta kolaboratzen hasiak ziren frantziar polizia eta Gestapoko zerbitzua
Frantziako estatuan ziren espainiar enbaxadako ordezkariekin. Bestetik, armisti-
zioaren ondorioz Vichyko gobernu kolaborazionista osatu zen Philippe Pétain
mariskalaren lehendakaritzapean eta bertan ziren errefuxiatuak ere atxilotzen hasi
ziren Vichy estatuko poliziak.

1940ko abuztuaren 2an espainiar gobernuaren segurtasun-zuzendari oroko-
rrak Vichyko gobernuarekin erbesteratuei buruzko informazioa elkarri emateko
kontaktuan jarri zen. Ildo horretan, abuztuaren 27an Lequerica-k Serrano Suñer
barne-ministroaren aginduz atzerriko aferetako Vichy gobernuko Robert de la
Baume ministroari espainiar poliziak eratutako 636 errefuxiatuen zerrenda luzatu
zion. Egun berean, Santé espetxean zegoelarik, Lluís Companys entregatu zion
frantziar poliziak Urraca espainiar enbaxadako poliziaburuari. Azaroaren 14an
beste 3.000 izeneko zerrenda Vichyko gobernuari eman ziolarik, politika bera
mantenduko zuen errefuxiatuen azken itsasontziak Marseillea utzi arte Lequerica-k.
Frantziar, espainiar eta nazien polizien eta ezkutuko zerbitzuen arteko kolabora-
zioaren ondorioz harrapatu zituzten aipatutako Lluís Companys-ekin batera, Max
Aub, Federica Montseny, Francisco Cruz (JAREko prentsa-bulegoko arduraduna)
edota Errepublikako industria-ministro ohiak Joan Peiró eta Julián Zugazagoitia.
Azken bi horiek fusilatu zituen espainiar justiziak. Bestalde, interes handia aur-

79. Jose Ignacio Lizasok Ramón Sotari idatzitako gutuna. Londres, 1941eko martxoaren 12a.

keztu zuten espainiar enbaxadako arduradunek Errepublikako edota Jaurlaritzako gobernuko propietateak, enpresa publikoak, interesak edota inolako funtsak bere izenean zituzten errefuxiatuak harrapatzeko ondasun horiek bahitu ahal izateko. Hura izan zen *Comisión Recaudadora de Bienes* erakundearen zeregina.

Izan ere, 1940koa euskal erbeste berri bat da. Iparraldean edota Europako mendebaldean ziren euskal herritarrek ez zuten ihes egiten oraingoan espainiar justiziaren eskutik soilik, Gestapoko eta Vichyko polizien eskuetatik baizik. 1940ko erbestea beraz Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan kokatu beharra dago. Euskal erbeste politiko bat izanik, aurreko erbestealdiekin alderatuz askoz konplexuagoa da oraingo egoera: esan bezala, okupatutako herrialde batean nazien edota kolaborazionisten eskutik ari dira errefuxiatuak ihes egiten oraingoan; lehen aldiz Amerika da euskal errefuxiatuentzat irtenbide bakarra; alabaina, Ameriketara abiatzeko itsasontziak behar zituen Londreseko Euskadiko Batzar Nagusiak lortu, bai eta itsasontzi hauek Atlantikoa zeharkatzeko behar zituzten nazioarteko bahimenak zein Ameriketako portuetan sartzekoak ere bai... Honi guztiari gehitu behar zitzaion ekonomia-egoera ezin latzagoa eta errepublikako gobernuaren haustura.

Eta naziak eskuratuko lurraldean ziren errefuxiatuez gain, Espainiako estatuko espetxeetan edota kontzentrazio-esparruetan eta behartutako lan-batailoietan zirenak behar zituen Jaurlaritzak zaindu. Naziak Iparraldea garaitu ondoren, *Servicio del Interior* (SI) Jaurlaritzako ezkutuko zerbitzuak Lapurdik, Nafarroa Behereak, Zuberoak eta Landek zein Biarnok eskaintzen zuten operazio-basea eta babesa galdu zuen. Espainiar enbaxadako arduraduna zen José Félix Lequerica eta Gestapoko ekintza koordinatuari esker lortu zuten ezkutuko zerbitzu espainiarrek *Red Álava* osatzen zuten euskal agente guztien zerrenda eta beste hainbeste munta handiko datu (1.242 dokumentu lortu zituen poliziak: buletinak, aldizkariak, debekatutako prentsa, presoan eta senideen arteko gutunak, sententziak, fusilatuen inguruko datuak, informazio militarra...). 28 pertsona atxilotu zituzten, guztiak torturatu, eta ostera 21 epaitu, euren artean lau emakumezko: Luis Álava, Agustín Ariztia, Julián Arregi, Iñaki Barriola, Luis Cánovas, Antonio Causo, Bittori Etxeberria, Esteban Etxeberria, José Etxeberria, Félix Ezkurdia, Rafael Gómez Jáuregui, Víctor González, Rafael Goñi, Patxi Lasa, Delia Lauroba, Itziar Mujika, Celestino Olaizaola, Felipe Oñatebia, Inocencio Tolaretxipi, Modesto Urbiola eta Teresa Verdes. 1941eko uztailaren 3an hasi zen epaiketa eta «adhesión a la rebelión y espionaje, con las agravantes de transcendentalidad y peligrosidad» zen kargua. Fiskalak 19 heriotza-zigor eskatu zituen baina azkenean, hiru urte pasatu ondoren Luis Álava fusilatu zuten 1943an⁸⁰. Espainiar poliziarren sumarioak agertzen zuen bezala, 1943an muga gainditzeko 71 bide zituen *Red Álava*⁸¹.

80. Jiménez de Aberasturi, J. C. (1999): *De la derrota a la esperanza. Políticas vascas durante la II Guerra Mundial (1937-1947)*, Instituto Vasco de Administración Pública, Bilbao, 141-173.

81. Barriola, *op. cit.*, 15.

Red Álavaren deuseztapena kolpe latza izaki, ez zituen ordea bertan behera utzi Jaurlaritzaren ezkutuko zerbitzuak. 1940tik hasita Iruñean osatu zuten Celso Lorda Vichy gobernuko Iruñeko kontsulak, Gabriel Biurrun Uruguaiako kontsulak eta *Casa Marceliano* jatetxe ospetsuaren jabea zen Matías Anozek soldadu aliatuak espainiar poliziaren eskutik ihes egin ahal izateko laguntza-sarea. Bigarren Mundu Gerraren ostean britainiar enbaxadak dominak eskaini zizkien egindako lanarengatik eta arriskutik kanpo jarritako hainbat pertsonaren bizia salbatzeagatik. Gabriel Biurrun EAJko Napar Buru Batzarreko ordezkari gisa joan zen Uruguaira eta bertan Jaurlaritzako ordezkaria zen Bingen Ametzagarekin bi urtez lan egin zuen 1943 eta 1945 bitarte.

Bestela, aske ziren baina naziek kontrolatutako aldeetan zeuden errefuxiatuen arazoa nora jo zen orain. «Nora joan? Amerikara». Hura zen 1940ko maiatze-tik aurrera helmuga bakarrenetarikoa. Iparraldea usteko arrazoiekin batera, Ameriketara abiatzeko arrazoi ugari zituzten atzerriratuek; izan ere, kontinente berriko eusko etxeen eskutik eta zenbait amerikar gobernuren laguntza irmoarekin, kontinente berriko atea irekita ikusi zituzten euskal atzerriratuek. Kuban 1928ko otsailaren 20an sinaturiko *Convención de la Habana de Derecho de Asilo* asilo-eskubideko hitzarmena berritzearren, Ameriketako VII. Nazioarteko Biltzarrean asilo politikoko konbentzioa sinatu zuten Hego Ameriketako herrialdeek 1933ko abenduaren 26an. Zazpi urte geroago eta asilo-hitzarmenari jarraiki, atzerriratu errepublikazaleak babesteko eta Amerikarantz salbu bideratzeko hitzarmena sinatu zuen Mexikoko gobernuak Vichyko gobernuarekin 1940ko abuztuaren 21ean. Halaber, Roberto Ortiz Lizardi Argentinako presidenteak 1940ko urtarrilean eta uztailean onetsitako dekretuek errazten eta eragiten zuten Amerikarako migrazioa. Bestetik, 1938ko Zortzigarren Panamerikar Biltzarrean zein 1939an, 1940an eta 1941ean izandako Kontsulta Bileretan aliatuen alde eta ardatza osatzen zuten herrialdeen kontra kokatu ziren Hego Ameriketako estatu gehienak. Alabaina, aurreko arrazoi hauekin guztiekin batera eta, goian esandakoaren ildoan, bi mendeko euskal migrazio-korronteen bidea hartu zuten 1937ko eta 1940ko euskal atzerriratuek. Eusko etxeetan zituzten senitartekoak eta lagunak zain, itsasontziz heltzen ziren euskaldun atzerriratuei Ameriketako portuetan aurrekuz eta eskuzabal harre-ra eginik. 1936ko eta 1939ko guden eraginez erbesteraturik, herrikideen laguntzari eta babesari heldu zioten. Azken hau dugu Amerikara jotzeko arrazoi nagusia.

Comité Nacional de Ayuda a España erakundearen eskutik hasi ziren 1938an eta nagusiki 1939an errefuxiatuak Amerikarantz itsasoratzen. 1939ko abendua arte 1.500 errefuxiatu errepublikazale heldu ziren *Sinaia* itsasontzian Mexikora *Comité Británico de Ayuda a los Refugiados* erakundearen laguntzaz. *Ipaneman* 1.000 heldu ziren *Sociedades Hispanas Confederadas* erakundearen sorospenez. Txilera ailegatu ziren *Winnipeg* itsasontzian 2.100 erbesteratu *Federación de Organizaciones Argentinas Pro Refugiados Españoles* erakundeak lagunduta. Berri zere Mexikora heldu ziren *Mexique* itsasontzian 200 errefuxiatu lehen bidaia

batean eta 2.100 erbesterratu bigarren bidaia batean. SERE erakundeak ere antolatu zituen *La Salle*, *Flandre* edo *De Gras* itsasontzien bidaiak 1.500 bat erbesterraturentzat.

Alabaina, gauzak okertu ziren anitz nazien garaipenaren ondoren. Ameriketako bidea hartu ahal izateko portu bakarra Marseilla zen 1940ko ekainetik aurrera. Eta bidea ez zen segurua, ez erraza ere. 1939an frantziar estatuaren guda-ontziteria munduko laugarrena zela kontuan izanik, nazien 1940ko maiatzeko garaipenak bakarrik utzi zuen Britainia Handia Atlantikoa eta Mediterraneo Italia eta Alemaniarena hurrean kontrolatzeko. Eta Nazien *Wolfsrudel* (*otso aldrak*) urpekontzi taldeak jada ari ziren itsasontziak hondoratzen; izan ere, *Die Glückliche Zeit* (*garai alaiak*) izan zen 1939 eta 1942 bitartekoa Karl Dönitz almirantearen hitzetan, ez baitzuten aliatuek modu eraginkorrik aurkitzen urpekontzi hauek antzeman eta txikitzeko. Guztira 95 itsasontzi hondoratu zituzten naziek Atlantikoan 1939an, 511 1940an, 568 1941ean eta 590 1942an.

Amerikako kostak Ardatzeko itsasontziei ixteko, *Navy certificate* edo *Navycert* hasi ziren aliatuak eskatzen ozeanoa zeharkatu nahi zuten itsasontzi guztiei. Araudi berri horren lehenengo ondorioa Marseillatik ateratzen ari ziren Vichy gobernuko itsasontziei Atlantikoko atea ixtea izan zen noski. Eta, ondorioz, Portugaleko edota estatu neutraletako itsasontzietan sartu behar izan zituzten errefuxiatuak Ameriketara joateko. Horrek guztiak errefuxiatuak Europatik ateratzeko prozesua asko zaildu zion Londreseko Euskadiko Batzarrari, britainiar almiralgotik baimeinak lortu behar baitziren. 1940ko abuztuaren 22an Mexiko eta Vichyko gobernuak akordio bat sinatu zuten. Hitzarmenaren arabera Vichyko gobernuak Errepublikako errefuxiatuei babesa emateko konpromisoa hartu zuen. Bere aldetik, Mexikoko gobernuak errefuxiatuak onartu eta bertaratzeko laguntza eskaini zuen. Hala ere, 1941eko urtarrilaren 21eko dekretuari jarraiki atzera ere egin zuen Mexikoko gobernuak eta errefuxiatu errepublikazaleen sarrera mugatu zuen. Eta, azken horren ilduan, Vichyko gobernuak ere atzera jo zuen, 1941eko martxoaren 20an 18 eta 48 urte bitarteko espainiar errefuxiatuak Vichyko gobernuaren menpe zegoen lurraldetik ateratzeko debekua luzatu zuelarik.

Arazo hauei guztiei erantzuna emateko sortu zen 1938an *Comité de Socorro a los Vascos* eta *Comité de Intereses Generales de Euzkadi* Jaurlaritzaren babesean. Izan ere, hau dugu *Euskal ildo nazionalaren* izatearen arrazoi praktiko askoren artean bat: Errepublikako gobernutik gero eta diru-iturri eskasagoak izanik eta emaitza praktikorik garatu gabe, euskal errefuxiatuen alde ekin behar izan zion Jaurlaritzak bere alde. Ondorioz, azken bi erakunde hauekin batera osatuko zen 1939ko abuztuaren 30ean Buenos Airesko Jaurlaritzaren ordezkartzaren babesean Argentinako *Comité Pro Inmigración Vasca* erakundea. Azken erakunde horri esker lortu zituzten euskal errefuxiatuek Roberto M. Ortiz Argentinako presidentearen immigrazio-dekretuak 1940ko urtarrilaren 20an eta urte bereko abuztuaren

2koa eta 12koa bigarrena, Ramón S. Castillo lehendakariordeak sinatuta⁸². Ortiz presidentearen dekretuen arabera euskaldun errefuxiatu guztiak —limiterik gabe— sartu ahal izango ziren Argentinan (dokumenturik gabe ere) eta immigrante guztientzat derrigorrezkoa zen berrogeialdia jaso gabe; eta hamabost egunetan argentinar naziotasuna eskuratzeko eskubidea izango zuten. Baldintza bakarra: *Comité Pro Inmigración Vasca* erakundeak euskaldunak zirela adieraztea. 1940ko uztailean heldu zen Marseillara Julio Jauregi Jaurlaritzako emigrazio-zerbitzuen zuzendaria, Ortizen dekretuen arabera Argentinako kontsulatuko ordezkariekin eta Vichy gobernukoekin euskal errefuxiatuak itsasoratzeko. 1940ko uztailean *Euzko Deyak* aurkeztutako datuen arabera, baziren Argentinan 1.000 bat euskal errefuxiatu eta 2.000tik gora 1943an.

Eta Argentinako kasua ez zen bakarra. Txileko gobernuak ez zuen dekretu berezi bat euskal errefuxiatuei sarrera errazteko baina euskal erbesteratu guztien eskaintzak baieztatu zituen. Santiago Zarrantzek argitu zuen bezalaxe, «*tanto las instrucciones del presidente Aguirre Cerdá, primero (y los que le siguen en tal mandato), como la de los funcionarios del departamento del ministerio de relaciones exteriores, Carlos Errazuriz y Luis Castellón, responsables del otorgamiento de permisos, contienen instrucciones precisas de aceptar todas las peticiones vascas*». Venezuelan ere, 1938an sortu zen Jaurlaritzarekin elkarlanean euskal errefuxiatuei sarrera errazteko erbesteratuz osatutako presio-talde bat. Taldekideen artean Andrés Eloy Blanco, Rafael Pizzani, Miguel Otero, Jovito Villalba, José Tomás Jiménez Arráiz eta Gonzalo Salas ditugu. Bestalde Alberto Smith Zárraga Venezuelako enbaxadoreak Kuban lan egin zuen Luis Aranguren euskal erbesteratuaren eskutik, Eleazar López Contreras Venezuelako presidentek euskal errefuxiatuak onar zituan. 1938ko maiatzaren 14an Simón Gonzalo Salasek *Inmigración Vasca para Venezuela* txostena aurkeztu zuen eta 1939ko udaberrian, Gonzalo Salas zuzendariordea zelarik, Arturo Uslar Pietri Venezuelako *Instituto Técnico de Inmigración y Colonización* erakundeko zuzendari hautatu zuten. Horrek prozesua erraztu eta bizkortu zuen eta 1939ko udaren hasieran Venezuelako eta Jaurlaritzako ordezkarien arteko negoziaketak burutu ziren euskal errefuxiatuei Venezuelako atea irekiz. Venezuelarako bidea errazteko izendatu zuen Jose Antonio Agirrek Eusebio Irujo Jaurlaritzako Santo Domingon ordezkari eta Jesús Galíndez idazkari. Ehunka euskal errefuxiatu eta haien artean ere hainbat eta hainbat espainol eta katalan sartu ahal izan ziren Venezuelen. Azkenik, 1943tik aurrera, Txilen bezala Uruguain ere lortu zuen Bingen Ametzagak 1943tik aurrera Juan José Carbajal Victorica eta Dardo Regules barne-ministroek euskal errefuxiatu guztien sarrerak onestea.

82. Ostera Perón diktadoreak ezeztatuko ditu biak. Ikusi «Sobre la situación de los extranjeros en Argentina», *Euzko Izpar Banatzea*, **493**, 1949ko apirilaren 8a. «La emigración vasca a la Argentina», *Euzko Izpar Banatzea*, **696**, 4. or., 1950eko otsailaren 6a. «La emigración vasca a la Argentina», *Euzko Izpar Banatzea*, **733**, 4. or., 1950eko martxoaren 28a.

Errefuxiatuen ihesa erbestearen epika dugu. 1939ko abuztua eta iraila bitarte *Donibane* eta *Bigarrena* 14 metroko txalupak Atlantikoa zeharkatzea; *Alsina* itsasontziko taldekideen 1941eko urtarrila eta 1942ko apirila bitarteko 441 eguneko odisea edota 1940ko maiatzaren eta 1941eko urriaren bitarte luzatuko zen Jose Antonio Agirrerren abentura ditugu nazien eskutik Ameriketara heltzeko hainbat eta hainbat errefuxiatuaren bidaiak ikaragarrien artean.

Esan bezala, *Euskal ildo nazionala* hezurmamitu zuen Londresen Euskadiko Batzarrak. Londresen ziren beste estatu-kontseiluek bezala izan zituen harreman politikoak Euskadiko Batzarrak De Gaullen zuzendaritzapean zen *Conséil de Défense de l'Empire Francais* delakoarekin zein *Foreign Office* eta britainiar almiralgoaren ezkutuko zerbitzuekin. Izan ere, zuhurrak ziren britainiar agintariak Espainiako estatuko jarrerarekiko; eta pisuzko arrazoi anitz zuten. 1936ko gerran Francok jasotako laguntzari gehitu behar zitzaion Francisco Gómez Jordana espainiar atzerri ministroak 1939ko martxoaren 17an sinatutako *Pacto Anti Komintern* delako itun antikomunista. 1939ko martxoaren 31an *Tratado de amistad hispano-germano* izenekoa sinatu zuten espainiar eta germaniar agintariek eta Espainiako estatuak utzi zuen Nazioen Elkartea. Ramón Serrano Suñer atzerri-ministro berriaren eraginez, *Consejo de la Hispanidad* sortu zen 1939ko urriaren 13an arrazaren egunean. Hispanitateko Kontseiluaren zeregina Espainiako estatuaren agenteen bitartez Hego Amerikako estatuaren Ardatzaren aldeko jarrera bereganatzea zen. Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan, 1940ko ekainean Espainiako estatua «neutral» izatetik «no beligerante» izatera pasatu zen eta urriaren 20 eta 24 bitarte SSko eta Gestapoko buru zen Heinrich Himmler Francorekin bildu zen Madrilén; hilabete eskas bat geroago, urriaren 23an, Franco eta Hitler bildu ziren Hendaian. 1941eko otsailean Benito Mussolini-rekin bildu zen Franco Bordighera-n eta Philippe Pétain-ekin Montpellier-en geroago. Zalantzarik ez, Espainiako estatua Bigarren Mundu Gerran Ardatzaren alde sartzeko arriskua handia zen.

Okupazioa baino lehen, britainiar ezkutuko zerbitzuen espainiar atalak Toulousen zuen egoitza Laughton Higman-en zuzendaritzapean. Behin Euskadiko Batzarra Londresen eratu zela, hasi ziren 1940ko uztailaren hasieran bertan kontaktuak izaten Churchillen kabinetearekin Robert J. Graham Boothby-ko kondearen eskutik, alegia, Winston Churchill-en idazkari pertsonala eta elikadura-ministerioko idazkari parlamentarioa zena. Hasieratik oso garbia eta zuzena izan zen Euskadiko Batzarraren proposamena: euskal ezkutuko zerbitzuek kolaboratuko zuten britainiar ezkutuko zerbitzuekin Ardatzaren kontran baldin eta Euskal Herriaren independentzia agertzen zuen itun politikoa sinatzen bazen. Zortzi bat puntutan labur daiteke Batzarraren proposamena:

1. Euskal ezkutuko zerbitzuek militarki kolaboratuko dute *British Intelligence*-arekin Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan.

2. Kolaborazioa itun politiko batean oinarritu beharko da, hots, guda ostean euskal errepublika independentea ziurtatuko duen ituna.
3. European, Filipinetan eta Ameriketara diren milaka euskal errefuxiatuek britainiar enbaxaden bitartez jasoko dute sorospena.
4. Britainia Handiak finantzatu ditu operazioak.
5. Euskal agenteek euskal agenteen aginduetara operatuko dute.
6. Euskara izango zen euskal zerbitzu ezkutuko hizkuntza ofiziala.
7. Euskal ezkutuko zerbitzuek European, Ameriketara eta Filipinetan lan egingo dute.
8. Helburua: faxisten, falangisten edota nazien espioi-sareen inguru informazioa jasotzea bai eta Hego Ameriketara *Consejo de la Hispanidad* erakundearen bitartez egindako lan ezkutua neutralizatzea.

Arazorik ez zuten britainiarrek ikusten aurreko hitzarmena sinatzeko. Zalan-tzak zituzten, ordea, bigarren puntuarekin: halako itun batek bultzatzen zezakeen Espainiako estatua Ardatzarekiko. Izan ere, ikuspegi praktikoa eta aseptikoa batetik, Espainiako estatua Ardatzera elkartzekotan Europaren garaipean latzagoa izango zen. Bai militarri bai ekonomikoki askoz merkeagoa zen Francoren neutraltasuna erostea iberiar penintsulan barna kanpaina militar bati ekitea baino. Hortaz, Euskadiko Batzarrarekin kontaktuak mantentzen zituzten bitartean, Madrilgo enbaxadako agenteen bitartez Francorekin bakea negoziatzen saiatu zen *Foreign Office*-a.

Era berean, Irujoren eta Lizasoren jarrera irmoaren aurrean eta Irujo eta Leizaolaren artean kontakturik ez zegoela jakinik, saiatu zen Higman itunaren bigarren artikulua saihesten. Horretarako Irujo eta Lizaso jakin gabe jarri zen Luis Ortuzar-ekin kontaktuan eta RAFeko hegazkin batean Leizaolarekin Parisera biltzera joatea eskaini zion bi gobernuen arteko hitzarmen bat sinatzearen. Ortuzar-ek, noski, baietz esan eta Parisen bildu ziren Leizaolarekin. Azken horrek, lehenagotik gisa, itun politikorik gabe euskal ezkutuko zerbitzuen eta britainiar inteligentzia zerbitzuen arteko kooperazio ituna sinatzea⁸³. Helburu asko gauzatu zituen Higman-ek bilera horretan: Londresen ziren Irujoren eta Lizasoren autoritatea belztu; itun politikoaren ezinbestekotasuna triskatu; idatzitako akordioak gabe, Higman libre geratu zen euskal agenteak britainiar ofizialen menpe jartzeko, ez baitzen akordio estrategikorik hitzartu; Leizaolak eta Ortuzarrek jakin gabe, Higmanek bazekien Joxe Mari Lasartek —okupatutako aldeko euskal ezkutuko zerbitzuetako burua— ez zuela hitzarmen politiko bat izan gabe kooperazioa onetsiko⁸⁴, hortaz, Lasarteren ordez britainiar eta euskal zerbitzuen arteko

83. Jose Ignacio Lizasok Manu Sotari bidalitako gutuna. Londres, 1941eko uztailaren 9a.

84. Izan ere, Jose Antonio Agirrek eta Joxe Mari Lasartek berak puntu hau landu zuten okupazioa gauzatu baino lehen Higmanen Tolosako agenteekin. Jose Ignacio Lizasok Manu Sotari bidalitako gutuna. Londres, 1941eko uztailaren 9a.

bitartekari egiteko Lasarteren ordezeko bat izendatzea eskatu zion Leizaolari eta azken honek Lekaroz izendatu zuen. Bestetik, arrazoi berberengatik, eskatu zion Higman-ek Leizaolari Ortuzar izendatzeko Londresen britainiar zerbitzuekin kontaktua mantentzeko ordezkaria, eta hala egin zuen Leizaolak.

Uztailaren erdialdera jo zuen Ortuzarrek *Euskadi Buru Batzarreko* eta ezkurtuko zerbitzuetako kide batzuekin Irujorekin eta Lizasorekin biltzera. Bileraren baitan Parisen hitzartutakoa lehendakariak berak eta Lasartek agindutakoaren aurkakoa bai eta Euskadiko Kontseiluaren agintearen kontrakoa zela argitu zuten Irujok eta Lizasok eta atzera eman zuen Ortuzarrek. Era berean uztailaren 15ean agerian utzi zuen Euskadiko Batzarrak *British Intelligence*-ari eta *Foreign Office*-ari bidalitako gutun batean Higman-ek aurkeztutako fede txarra eta azpikeria. Boothby-ek berak erantzun zien arrazoia emanez eta berriz ez zela halakorik gertatuko agertuz. Eta uztailaren 30ean bildu ziren Irujo, Lizaso, Boothby eta almiralgoko Carey komandantea itunari azken ukituak emateko. Itunaren testua hau geratu zen:

Most Secret

Formula

1. El gobierno de Su Majestad simpatiza con la causa del pueblo vasco en su lucha por la libertad y la independencia.
2. En el caso de que se rompan las hostilidades entre los gobiernos español y británico, el gobierno de Su Majestad reconocerá inmediatamente al Consejo Nacional de Euzkadi como el gobierno provisional del País Vasco.
3. En el caso de que Gran Bretaña ganase la guerra, el gobierno de Su Majestad hará todo lo que esté en su mano para asegurar la constitución y garantizar la seguridad de un estado vasco.
4. El asunto de la delimitación de las fronteras será tratado posteriormente.

Bi aste geroago, 1940ko abuztuaren 13an, berriz ere bildu ziren Lizaso, Boothby eta sir Alexander G. M. Cadogan, *Foreign Office*-ko idazkaria. Bilera horretan jakinarazi zioten Lizasori itunaren hirugarren artikulua aldatu beharrean zegoela, alegia, «*hará todo lo que esté en su mano para asegurar la constitución y garantizar la seguridad ordez, consideraría con simpatía las aspiraciones vascas*» adierazi beharko zuela itunak. Argi zegoen uztailaren 30 eta abuztuaren 13 bitarte britainiarrek espainiar gobernua Bigarren Mundu Gerran sartzeko arriskua uxatu zutela.

Hala ere, jarraitzen zuten euskal zerbitzuekin hitzarmena sinatu nahian eta, Irujoren eta Lizasoren jarrera zela-eta, berri zere agindu zioten Higman-i Ortuzarren bitartez akordio batera heltzea. Londreseko Dorchester luxuzko hotelean bildu ziren Ortuzar eta Higman eta azken honek dirua eskaini zion. Egun batzuk pasatu ondoren, euskal agenteek Ortuzar alde batera utziz, agente bakoitzeko 2.000 libera hilabeteko soldata eskatu zioten Higman-i. Jakitean, traiziotzat hartu zuten

bai Ortuzarren zein inplikaturako agenteen jarrera Irujok eta Lizasok. Abuztuaren 26an bidali zuen *Euskadi Buru Batzarrak* mandatu bat Londresera Higman eta Ortuzarren arteko hitzarmenak bertan bera utziz, eta edonolako akordio batera iristeko euskal estatu independente bat ziurtatzen zuen itun politikoa sinatzearen ezinbesteko baldintza eta, azkenik, hau guztia onartzen ez zuten guztien bat-bateko irazketa. Agente guztiek onartu zuten Euskadiko Batzarraren agintea eta aurreantzean ez zen haiekin arazo gehiago gauzatu. Bai ordea Ortuzarrekin. Era berean, New Yorken zegoen Manu Sota ordezkariarekin jarri ziren britainiarrak ere kontaktuan eta, Ortuzar bezala, azken hau Ameriketara britainiar inteligentziak zuen sarearekin kolaboratzeko asmoa agertu zien, hala ere, Londreseko jarreraren aurrean eta Ortuzarrek ez bezala, ez zituen bere kabuz New Yorkeko ordezkariak aliatuekin kolaboraziorako kontaktuak bermatu.

Era berean, *Conséil de Défense de l'Empire Français* delakoarekin jarri zen kontaktuan Euskadiko Batzarra. Frantziar inperioko defentsarako kontseilua 1940ko urriaren 27an osatu zen eta bi astera, azaroaren 15ean, jarri zen gutun baten bitartez Euskadiko Batzarra kontaktuan *Pacto Franco-Vasco* kooperazio-ituna proposatuz. Bost hilabeteko negoziaketaren ondoren, 1941eko maiatzaren 17an sinatu zuten René Samuel Cassin *Conséil*-eko idazkariak, Elena de la Souchère-ek eta Maurice Dejean-ek José Ignacio Lizasorekin eta Ángel Gondra-rekin kooperazio-ituna. Hamaika artikulua zituen akordioak. Britainiar gobernuarekin hitzartutakoaren parekoa zen itun berri hau. Laburbilduz, euskal ezkutuko zerbitzuen laguntzaren truk, frantziar agintariak naziek okupaturako alderdietan ziren euskal errefuxiatuei sorospena helarazteko konpromisoa hartzen zuten bai eta frantziar armadan edota frantziar erresistentzian lan egin zuten euskal herritar guztiei frantziar naziotasuna eskaintzeko agindua. Bestetik, nahiz eta armadan edota erresistentzian parte hartu ez, Euskadiko Kontseiluak proposa zitzakeen beste hainbat euskal herritarri eskainiko zion naziotasuna gobernu frantsesak bai eta Espainiako estatutik iheska zetozen zenbait euskal herritarri asiloa eskaini ere bai. Euskadiko Batzarreko eta *Conséil de Défense de l'Empire Français* erakundeko kidez osatutako erreklutamendu-batzorde batek antolatutako zuen euskal herritarren *Forces Françaises Libres* barruan sartzeko prozesua. Eusko Jaurlearitzak euskal herritarrei luzatutako igarobidea edo pasaportea ontzat hartuko zuten frantziar agintariak. Euskal Batzarrak euskal herritar guztien euskal izatea baieztatutako zuen. Azkenik, Jaurlearitzak eratutako konpainia komertzialei lagunduko zien gobernu frantsesak, kolonietako portuak irekiz eta beste tankerako erraztasunak eskainiz.

Interes handikoa da *Pacto Franco-Vasco* kooperazio itunaren *Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental* proiektua. Maiatzaren 17ko itunaren artikulua edo disposizio ekonomiko eta komertzialen harira, gudaosteko Europar europar konfederazioaren proiektu politikoari eustea proposatu zion De Gaulli Irujok eta azken horrek begi onez ikusi zuen proiektua baldin eta Paris Europako hiriburua bilakatzeko posibilitatea bazen... «*para dar cauce adecuado al desarrollo*

*de esta política, fue sugerida la formación de la Confederación Occidental Europea. De Gaulle aceptó la idea resueltamente. El proyecto de hacer de París capital de Europa Occidental le estimuló. Nunca nos movimos de espaldas a Inglaterra y Norteamérica. Ambos gobiernos tuvieron noticia de nuestros pasos. Se la dimos nosotros mismos en notas correlativas»⁸⁵. Londresen ziren erbesteratu errepublikazale espainiarrek utopikotzat hartu eta kritikatu bazuten ere, *Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental* proiektua memorandum baten bidez helarazi zion Euskadiko Kontseiluak *Conséil de Défense de l'Empire Français* delakoari bai eta britainiar eta amerikar gobernuetako ordezkariari ere. Bestetik, negoziatorako proiektu bat izateaz gain, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herria gudaosteko negoziaketa politikoetan kokatzeko modua zen, «*era para nosotros, una táctica, y una finalidad. Más lo primero que lo segundo. Buscábamos salir del Sur del Pirineo para no caer necesariamente en España. Si además de eso, podía alcanzarse una posición política firme, tanto mejor»⁸⁶.**

Britainiarrak bezala, ados agertu zen De Gaulle ere Europar Hegoaldeko Konfederazioaren parte izango zen euskal estatu independente bat osatzearen ideiarene alde, «*se trató de Euzkadi miembro de la Confederación Occidental, liberado del temor de vivir bajo la amenaza del pronunciamiento en Madrid del general de turno; de una gran capital federal en París; de que entre Negrín y Franco no hay diferencia sustancial; etc. Conoce la buena disposición de catalanes, gallegos y vascos, y la posición castellana, como la portuguesa. Hizo muy atinadas apreciaciones acerca de la situación específica de los presuntos miembros de la confederación, apreciando las dificultades del proyecto. Es preciso —dijo— saber concebir para el futuro, sin perjuicio de plegarse a las realidades de la guerra, teniendo en cuenta la necesidad de no crear dificultades a la GB. Se habló de la Unidad Vasca, de Guinea, de un Estado Mayor Occidental Europeo, de la propaganda franco-vasca democrática organizada para América del Sur, etc. Ofreció cablegrafiar a su representante general en México Mr. Soustelle —amigo nuestro y de los nuestros allí— para que te cumplimente, viniendo después a Londres»⁸⁷. Eta ildo horretan *Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental* proiektuaren lehen urrats gisa, europar estatu gabeko nazioen ordezkariak bilduko zituen Londreseko Frantses Institutua osatu zen, «*lo tratamos con el General De Gaulle. Obtenida su conformidad, lo propusimos al Gobierno Británico y al Norteamericano en sendas notas oficiales. Entonces ese proyecto no calentaba en el Foreign Office. Lo llevamos a la calle valiéndonos de la organización intelectual francesa en ésta, que vive del presupuesto británico»⁸⁸. *Unión Cultural de la Europa Occidental* (UCO) erakundearen eraketa 1942ko irailaren 10ean negoziaketa hauen guztien fruitua dugu.**

85. Manuel Irujok Jesús María Leizaolari idatzitako gutuna. Londres, 1944ko azaroaren 29a.

86. Manuel Irujok Jesús María Leizaolari idatzitako gutuna. Londres, 1944ko abenduaren 28a.

87. Manuel Irujok Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna. Londres, 1942ko urtarrilaren 28a.

88. Manuel Irujok Jesús María Leizaolari idatzitako gutuna. Londres, 1944ko azaroaren 29a.

Eta, izan ere, Jose Antonio Agirre agertu ondoren jarraitu zuten De Gaullek eta Irujok bilerak izaten *Pacto Franco-Vasco* kooperazio-ituna zabaltzeko bai eta *Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental* proiektuaren inguruan eztabaidatzeko. Hogei urte hartu bazuen ere, Robert Schuman-ek Europako eraiketarako izandako ideien oinarrian dago Euskadiko Batzarrak De Gaulle-kin bultzaturiko proiektu politiko-ekonomiko hau, «*hace unos días José Ignacio cumplimentó en tu nombre y representación al General De Gaulle. Mantuvo con él una conferencia de hora y cuarto muy afectuosa. Se interesó mucho el General por ti y por los medios puestos en práctica para tu evasión, que celebró con reiteradas manifestaciones de afecto. No consideramos prudente dar una referencia completa de todo lo tratado. Se habló con verdadera franqueza y con gran visión del problema político europeo y del anglosajón. Demostró excepcional conocimiento y aguda percepción de los problemas peninsulares. La idea de la Confederación Occidental le interesó mucho. Manifestó, para que fuera trasladado a ti, que en cuanto las circunstancias se modifiquen, él estaría dispuesto a llegar con lo que representas a fórmulas más amplias y eficaces que las que se recogen en el Pacto de 17 de Mayo y en línea con nuestra orientación, sobre la que formulas las reservas reflejadas en tu carta*»⁸⁹.

1936ko urrian Eusko Jaurlaritza osatu zenetik piztu zen Ameriketara ziren euskaldunen sorospena lortzearen delegazioak eratzearen ideia. Amerikaz gain, Europan bertan, Australian edota Filipinetan ziren euskal herritarrekin izango zuen ere harremana 1936 eta 1937 urteetan. Hala ere, jatorrian ordezkarien zeregin teorikoa harreman komertzialak sendotzea bazen ere, 1938tik aurrera euskal errefuxiatuen etorrera erraztea eta behin atzerrian errefuxiatuen egoera legala kudeatzea izango zen delegazioen zeregin nagusia. Bestalde, nazioarteko koalizioak Bilbo garaitu ondoren Bartzelonako delegazioa bilakatuko zen Jaurlaritzaren egoitza nagusia eta, 1939ko apirilean Bartzelona matxinatuen esku erori ondoren Paris izango zen egoitza nagusia. Hurrenez hurren, Londres (1940-1941), New York (1942-1945) eta berriz ere Paris (1946-1975) izango ziren Jaurlaritzaren egoitza nagusiak. Delegazioak, beraz, jatorrizko izaera aisa gailenduz, erbeste politikoaren habiak izan ziren.

Ikuspegi honetatik delegazioen arteko harremanak sendotu edota arintzen zirelarik, ardatzak osatu ziren denboraren joanarekin. 1937an *Bartzelona-Paris* ardatza izan zen euskal erbeste politikoaren administrazio-gunea; *Londres-Buenos Aires-New York* izango zen nazien okupazioaren garaian Euskadiko Batzarren eginkizun administratiboaren ardatza; 1955etik aurrera *Paris-Caracas* dugu erbesteko euskal gobernuaren ardatz berria. Izan ere, euskal erbeste politikoaren izaerak berak Jaurlaritzak osatutako amerikar eta europar delegazio edo ordezkartza-sare honetan zuen oinarria eta sare hau gabe ezin da ulertu. 1938tik aurrera eta, nagusiki 1940ko maiatzetik aurrera, Amerikako ordezkartzen garrantzia izugarri

89. Manuel Irujok Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna. Londres, 1942ko urtarrilaren 28a.

handitu zen, Amerika baitzen errefuxiatuen atea eta portua. 1949tik aurrera amerikar ordezkariak emaritan datza Jaurlaritzaren izate finantzarioa.

1940ko apirilean *Proyecto de programa para el Gobierno de Euzkadi* Jaurlaritzaren egitama Parisen baietsi zuenean, ordezkariak gerora izango zuten irismen politikoa, ekonomikoa eta administratiboa aurreikusten zuen Jose Antonio Agirrek:

Las circunstancias actuales recomiendan reforzar la significación política del Gobierno, organizando conjuntamente la administración.

Tres clases de funciones o actividades pueden ser señaladas.

- a. Relaciones políticas interiores y exteriores, las Delegaciones en diversos países, la Información y la Propaganda.
- b. La Hacienda de Euzkadi.
- c. La administración general de la emigración vasca, sus instituciones, y las necesidades de toda clase de la población en el exilio⁹⁰.

Euskadiko Batzarra Londresen eratu zenean, Jaurlaritzaren egitama jarri ordezkariak sarean oinarrituko zen 1940ko apirilko *Proyecto de programa para el Gobierno de Euzkadi* praktikoki martxan jarri. Naziek Paris garaitu ondoren Agirrek proposatutako *Paris-Londres* ardatzak aipatu dugun *Londres-Buenos Aires-New York* ardatz administratibo berriari egin zion bidea. Izan ere, irizpide politiko, ekonomiko eta administratiboetan oinarriturik, ordezkariak orokorren (*delegaciones generales*) eta ordezkariak berezien (*delegaciones singulares*) artean sailkatu zituen Jaurlaritzako ordezkariak Irujok. Ildo horretan, ardatza osatzen zuten ordezkariak orokorrak esparru geografiko jakin baten barruan ziren beste ordezkariak bereziekin taldekatuko eta koordinatuko zituen:

Venimos reputando Delegaciones Generales las de Buenos Aires, Caracas, México, New York y Londres.

- A la de Buenos Aires corresponden las de Chile, Uruguay, Paraguay, Bolivia, Perú y Brasil.
- A la de Caracas van afectas las de Ecuador, Colombia y Centroamérica continental.
- A la de New York las de Indias Occidentales, Antillas y Mar Caribe.
- A la de Londres todos los problemas de Europa y el Mediterráneo⁹¹.

Ondorioz, Ramón María Aldasororen zuzendaritzapean Buenos Airesko ordezkariak Euskadiko Batzarraren lehendakariordearen egoitza bilakatu zen eta Londres Batzarraren kontseilu nagusiaren egoitza. Buenos Aireskoa Hego Ame-

90. Jose Antonio Agirrerren *Proyecto de programa para el Gobierno de Euzkadi*. Paris, 1940ko apirilaren 12a.

91. *Programa del Consejo Nacional de Euzkadi*, Londres, 1940ko uztailaren 15a.

riketako ordezkartzen artean hartutako indarra zela eta Argentinako gobernuak onetsitako immigrazio-dekretuen garrantzia zela, amerikar ordezkartzen artean nagusi izango zen: *«para cuanto signifique relaciones internas, organización, funcionamiento, actividades en América, propaganda vasca, funcionamiento de las Delegaciones, etc, es prudente que, tales gestiones se centren en Buenos Aires y sean autorizadas por el Sr. Aldasoro. Los motivos son de todos conocidos. En cambio, todo lo que signifique atención a la guerra, actividades relacionadas con sus incidencias, colaboración con las democracias y sus derivaciones, forzosamente habrá de ser seguida desde Londres, con la plenitud de función que exija en cada caso la función misma, apreciada por los que aquí nos encontramos, que no hemos de comprometer alegremente una causa que es de todos y que al cuidado de todos está confiada»*⁹².

Nolanahi ere, eginkizun administratiboaz eta finantzarioaz gain, bi izango ziren ordezkartzen zeregin nagusiak:

1. Errefuxiatuei Ameriketako hiri eta herri ezberdinetara joateko bidea egin eta bertara iristean eusko etxeekin estu eta zuzen elkarlanean jardutea, azken hauek egoera legala ahalik eta arinen normalizatu ahal izateko eta egoera ekonomikoa bideratzeko lana aurkitzen laguntzea. Ildo honetan aipa dezakegu *Alsina* taldeko azken errefuxiatuak Buenos Airesera heldu zirenean 1942ko apirilaren 15ean, Laurak Bat eusko etxeko abesbatza zutela portuan zain; 200 bat pertsona zain zituztela, Agur Jaunak abestuz eta txistuz aureskua eginik ongi etorria eman zieten heldu berriei Buenos Airesko eusko etxe ezberdinetako zein hiriko eta argentinarr estatuko ordezkariak. Behar izanez gero Buenos Airesko hotel batean gela zuen bakoitzak hartuta hilabete oso baterako eta hamabost egunetan argentinarr naziotasuna eta pasaporte zuten guztiak; gehienek hilabetea pasatu baino lehen aurkitu zuten lana bertako euskaldunen sareari esker. Heldu eta hurrengo egunetan euren omenezko afaria egin zen eusko etxean. Tellagorrik jarriko zuen bezala, Europatik ostikoka, herrian inoiz berriro ikusiko ez zituzten gurasoak, anai-arrebak eta lagunak utziz, heriotza-zigorra gainean eta portuz portu ate lagun baten eske ibili ondoren, harrera hauek «nolabait ere oraindik pertsonak zirela eta nonbait ere norbaitek munduko inongo punta batean beraz arduratzen zela jakinarazten zion errefuxiatuari»⁹³.
2. Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan eta, nagusiki 1940tik aurrera, Londreseko ordezkartzen aktibitate politikoa eta diplomatikoaren irudira, herrialde bakoitzeko gobernuko agintari politikoeekin, alderdi politikoeekin eta kultura-arloko pertsonalitateekin harremanak sendotzea izango zen

92. *Programa del Consejo Nacional de Euzkadi*, Londres, 1940ko uztailaren 15a.

93. Jose Olivares Larrondo *Tellagorrik* Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. 1942ko uztailaren 18a.

Ameriketako ordezkartzen eginkizun garrantzitsuenetariko bat. Eginkizun diplomatiko honen barruan sartuko da gerora ezkutuko zerbitzuen kudeaketa, diplomatikoa baitzen neurri handi batean espioitzaren zeregina. Honengatik guztiarengatik, herrialde bakoitzeko ordezkaria izan zen normalean herrialde horretako ezkutuko zerbitzuen arduraduna eta koordinatzailea.

Hitz batean, Jaurlaritzako ordezkartitzak erbesteko euskal estatuaren enbaxadak ziren, garai hartan enbaxadek zituzten zeregin guztiak bere hartzen zutelarik.

Azkenik, Londreseko Euskadiko Batzarraren zeregina izan zen *Galeuzcaren* eskutik eta Errepublikako gobernuaren aurrean indar egitea Franco uzkailei ondorengo gobernu iberiar herri guztien autodeterminazio-eskubidean oinarritutako konfederazio bat izateko. Irujoren ideiak oso garbi agertu ziren Andrés Irujok Ekin argitaletxean 1945ean argitara emandako *Comunidad Ibérica de Naciones* liburuan. Elkarrizketa moduan, Armando Cortesao portugaldarrak, Manuel Irujo euskal abertzaleak, Carles Pi i Sunyer katalan abertzaleak eta Luis Araquistain espainiar sozialistak diktaduraren ostean sor zitekeen estatu-ereduari buruz dihardute. Irujo eta Pi i Sunyer-en eskutik Cortesao Portugal iberiar konfederazio batean sartzearen alde agertu zen baldin eta konfederazioaren konstituzioak nazio bakoitzaren autodeterminazio-eskubidea bermatzen bazuen. PSOEn ildotik, Araquistainek ez zuen autodeterminazio-eskubidea onartzen, horrelako estatua banatuko zelakoan; Irujoren iritziz autodeterminazioaren eskubidearen eskutik estatua banatuko bazen, halako estatua osatzen duten herritarren soberaniaren kontra osatuta dagoelako da.

Nolabait ere, Galeuzca osatzeko ezinbesteko aurreurratsa dugu *Consell Nacional de Catalunya*-ko eta Galiziako kontseiluaren sorrera. Eta horretan jarri zituen indarrak Irujok 1940ko udazkenetik hasita. Izan ere, Londreseko Kataluniako kontseilua Euskadiko Batzarraren egoitzan ekoitzi eta egituratu zen. Kataluniakoa eratzea lortu zuten, baina Galiziako kontseiluaren osaketak arazo gehiago aurkezten zituen eta, Londresen Euskadiko Batzarra saiatu zen bezalaxe saiaturiko zen gerora Agirre New Yorketik Alfonso R. Castelao-rekin batera: *«he querido en este asunto que la necesidad de Galeuzca fuese una exigencia sentida por los catalanes y gallegos. Cuando estuve en Buenos Aires recomendé en largas entrevistas, con gran encarecimiento a Castelao, la creación del Consejo gallego. Castelao se ha mantenido en contacto siempre con nuestros representantes allí, pero la marcha ha sido lenta. Sin embargo creo que han ganado mucho terreno [...] y estimo que ha llegado el momento de que Galicia tenga un organismo representativo exterior. Si Pi tiene fortuna y coraje para seguir sin titubeos el camino emprendido como yo lo espero, Galeuzca puede ser una construcción política superior en prestigio y fuerza a cualquiera otra peninsular y, aunque la democracia española se presentara en frente compacto, nuestra fuerza sería suficiente para imponer el respeto y en su día el pacto vistas las conveniencias superiores y comunes»*⁹⁴.

94. Jose Antonio Agirrek Jose Ignacio Lizasori bidalitako gutuna. New York, 1944ko martxoaren 3a.

1941eko urtarrilaren 18an sinatu zuten Londresen Euskadiko Batzar Nagusiak eta *Consell Nacional de Catalunya*-k *Declaración conjunta* adierazpen politikoa. 1937tik praktikoki desagertu zenetik, lehenengo aldiz erbestean Galeuzca berriz ere eratzeko gogoia agertzen zuten Kataluniako eta Euskal Herriko agintariek. Lau hilabete geroago, hotz, maiatzaren 9an, Buenos Airesen eratu zen Galeuzca. Sinaturiko itunaren arabera, estrategia komuna eta proposamen politiko bateratuta izanik, ez zuten sinatzaileek Errepublikaren gobernuarekin hitzarmen berezirik gauzatuko: «*Galeuzca establece que ninguna de las tres naciones oprimidas debe aceptar, por separado, un régimen de autonomía concedido por el estado español, pues sólo en un cambio total y racional de la estructura política de España, podrán encontrar nuestros pueblos la garantía de la propia libertad. Si las circunstancias aconsejasen aceptar una autonomía, ésta debe ser igual y simultánea para las naciones integrantes del estado español*»⁹⁵. Lau zutabe nagusitan oinarritzen zen Galeuzca sortu berriko erakundearen egitaraua:

1. Giza eskubideen borrokaren alde, Galeuzca Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan aliatuen alde agertzen zen eta edozein tanketarako totalitarismoaren aurka hartzen zuen jarrera, bai Europan zein Ameriketean. Ildo honetan, Galeuzcak espainiar diktaduraren kontra borrokatzeko asmoa ageri zuen, bai eta nazien edota faxisten ideologiaren harira Ardatzarekin bat egiten edo kolaboratzen zuten indar eta alderdi guztien kontra ere.
2. Galeuzcak bere egin zuen errepublikazaleen kredo politikoa, alegia, inolako monarkia modurik onartu gabe, iberiar estatu berri batek giza eskubideen errespetu integralean oinarri zuen konfederazioa behar zuen izan: «*un régimen democrático representativo con sufragio universal y directo, libertad de conciencia y de cultos, libertad de pensamiento y de prensa, justicia de base popular, garantías a los derechos ciudadanos, al trabajo y a la propiedad legítimamente adquirida, libertad de profesión, de residencia, de contratación, y disposición de bienes conforme a las leyes particulares de cada estado las que, en ningún caso, podrán mermar, disminuir o adulterar el mínimo común establecido en los pactos federales o confederales*»⁹⁶.
3. Azken horren ildoan, iraganean egindako akatsak saihestu beharra zuen iberiar estatu berriak. Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko eskubide historiko, kultural, sozial, ekonomiko eta politikoak behar zituen bermatu, estatua osatzen zuten nazio guztien autodeterminazio-eskubidea bermatuz. Horrek suposatzen zuen estatu berriak Europar Batasun zabal baten barruan iberiar nazioen konfederazioa behar zuela izan: «*a la que se deleguen facultades de orden supranacional, tales como la coordinación de servicios*

95. *Convenio de acuerdo de Galeuzca*, Montevideo, 1941eko maiatzaren 9a.

96. *Convenio de acuerdo de Galeuzca*, Montevideo, 1941eko maiatzaren 9a.

y fuerzas, la legislación de tipo común especialmente la social, la seguridad colectiva, elaboración y aplicación del derecho internacional y la difusión y generalización de los principios democráticos de derecho y justicia»⁹⁷. Izan ere azken hori katalanek eta neurri handiago batean galiziarrek inposatutako baldintza zen, bai Bingen Ametzaga Galeuzca-Uruguaiako lehendakaria bai Manuel Irujo Euskal Herriaren independentziaren alde agertu baitziren publikoki behin baino gehiagotan.

4. Nazioen arteko desadostasunak gudak saihestuz bideratuko zituen eta Nazioen Elkartea ordeztuko zuen beste nazioarteko erakunde baten eraketaren alde agertu zen Galeuzca: *«una política de colaboración y buena voluntad, fomentando las relaciones internacionales de todo orden y propugnando por la creación de organismos super-estatales que, considerando la paz indisoluble, dispongan de la autoridad y los elementos necesarios para preservarla, sancionar al infractor y asegurar la vida libre de las instituciones y de los pueblos»⁹⁸.*

Laburbilduz, Manuel Irujok *Declaración de principios para la democracia peninsular* dokumentuan jarri zuen bezala, hamalau puntutan dago oinarrituta Londreseko Euskadiko Batzar Nagusiaren *Euskal ildo nazionalaren* hariko politika:

1. Afirmación democrática, con sentido universal y solidario, para hombres y pueblos.
2. Adhesión a Inglaterra, Rusia, China y a sus aliados, en la guerra actual.
3. Aceptación de la Declaración Atlántica.
4. Conformidad en la instauración de un orden federal en Europa a base de coexistencia y escalonamiento de soberanías, con fórmulas de acercamiento económico, defensa militar y finalidades de paz justa y duradera.
5. Estudio de la Confederación de Occidente, como fórmula viable para la Federación Europea, y para significar nuestro carácter «Occidental».
6. Franco no representa al país. Recabar para la ciudadanía la facultad de otorgar a esa representación.
7. Denunciar el sistema de opresión al que vive sometida la ciudadanía. En España hay más presos que en ningún otro país de Europa, fuera de R. y A.
8. Protesta contra las ejecuciones de los rehenes por Alemania.
9. Resaltar las actividades franquistas ordenadas para entregar definitivamente el territorio peninsular y colonial a Alemania, como base militar.
10. Poner de manifiesto la maniobra contra Portugal. Los demócratas no tomaremos ventaja de la fuerza que en ellas se envuelva. Aspiramos a una Comunidad de Naciones, en la que, Portugal, de manera libérrima, participe, ocupando el lugar que le corresponde.

97. *Convenio de acuerdo de Galeuzca*, Montevideo, 1941eko maiatzaren 9a.

98. *Convenio de acuerdo de Galeuzca*, Montevideo, 1941eko maiatzaren 9a.

11. Denunciar también la maniobra de gran estilo, que a través de la Junta de la Hispanidad, envuelve la propaganda nazi en América, con aspiraciones imperiales, que nosotros no sentimos y de cuyas añagazas no hemos de aprovecharnos en manera alguna.
12. La Declaración debe quedar abierta, para que a la misma se adhieran cuantos estén conformes en su contenido: Nada de exclusivas ni monopolios.
13. El derecho de autodeterminación de los pueblos peninsulares, de manera concreta de Cataluña y Euzkadi.
14. Hacer constar como emoción fundamental, que las bases democráticas que nos son comunes, nos darán cauce por el que canalizar nuestras diferencias, llegando a un concierto que establezca un régimen de comunidad jurídica asentada sobre el lema de San Luis: «Todas las libertades humanas son solidarias»⁹⁹.

3.6. NEW YORK, 1941EKO URRIA-1945EKO NEGUA

1940ko maiatzaren 8an desagertu ondoren, 1941eko urriaren 9an azaldu zen berriz ere Jose Antonio Agirre Montevideon. Izugarria bezain ustekabekoa izan zen Uruguain lehendakariari egindako harrera: «*A las seis de la mañana hemos tomado el tren para la frontera. Paisaje típico y poco habitado. Llegamos a la frontera. En el último trayecto brasileño, llega mi compatriota, el padre Irizar. Le conocemos por la ikurriña que lleva en su solapa. Me cogen del brazo y me pasan al otro lado sin más preámbulos, ni revisiones, ni sellos. Un verdadero golpe de audacia. No querían tolerar estos buenos uruguayos un minuto de retraso. Encontramos al padre, Aldasoro, etc. Emoción, lloros, entusiasmo. Seguimos la marcha. Antes me he afeitado el bigote, mi compañero inseparable de tantas aventuras. Lo he hecho en el hotel de Río Branco, primer pueblo uruguayo. Todos, cónsules, autoridades fronterizas, eran amabilísimas. En Treinta y Tres, como se llama el pueblo, mucha gente, flores, discursos. En Montevideo mucho compatriota, micrófono, apretones. Llego sudando al hotel. Me espera una comisión de personalidades magnífica. Descanso. A dormir aturdido (Agirre, 1998)*».

Julio Iturbide diputatuaren eskaerari jarraiki, urriaren 10ean Uruguaiako parlamentuak Agirre lehendakariari saio berezi batean ongi etorri ofiziala ematea erabaki zuen. Eta Uruguaiako parlamentuan hitza eman zion errepublikako presidenteak. Bertan Agirrek Amerikan jarraituko zuen programaren ildo nagusiak zertzelatu zituen, alegia, Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan dikaduren aurka borrokari eustea, politika demokrata-kristauaren harian amerikar alderdi demokratikoekin elkarlana sustatzea Ameriketako demokraziaren alde egitearren eta, Euskal Herrian gobernu legitimoaren berreskuraketaren aldeko borrokari ekitea¹⁰⁰. Alfredo Baldomir Uruguaiako presidentearekin bildu zen lehendakaria, bai eta Uruguai-

99. Irujo, Manuel, *Declaración de principios para la democracia peninsular*, Londres, 1941eko azaroaren 24a.

100. *Euzko Deya*, Buenos Aires, 1942ko maiatzaren 10a.

ko alderdi politiko gehienen ordezkariekin eta Montevideoko artzapezpikuarekin, Antonio María Barbieri¹⁰¹. Kultura- eta zientzia-arloko zenbait pertsonak egin zioten harrera eta bai prentsan zein irrastian hamarka saio eskaini zituen lehendakariak Uruguain emandako egun motz horietan. Alberto Guani Uruguako atzerri-ministroa dugu Agirreren harreraren eragile sutsuenen artean. Izan ere, *Conferencia Panamericana*-ren testuinguruan eta erregimen naziaren, falangistaren eta faxistaren aurrean Uruguai aliatuen alde egindako apustuaren ikurra zen Agirreri Montevideon egindako harrera ofiziala. Uruguaitik Buenos Airesera abiatu zen lehendakaria eta han ere Roberto Ortiz Argentinako presidentearekin eta herrialdeko beste pertsonalitate politikoeekin biltzeko beta izan zuen. Azkenik, Santo Domingotik pasatu ondoren, 1941eko azaroaren 6an iritsi zen lehendakaria New Yorkera eta bertan ezarri zen Jaurlaritzaren egoitza nagusi berria.

Erregimen faxistaren nazioarteko isolamendua Jaurlaritzaren nazioarteko ekimen politikoaren xede nagusietarikoa izanik, jardueraren eremuari dagokionez, bost multzo nagusitan taldeka daiteke, 1941 eta 1949 bitarte, Jaurlaritzako ekintza politikoa, alegia, Euskal Herrian barneko erresistentziaren biziagotzea, Amerikako eusko etxeen ekimen politikoaren eta diplomatikoaren koordinazioa, Jaurlaritzako informazio- eta prentsa-zerbitzuaren osaketa (*Euzko Izpar Banatzea*-ren eraketa 1947an), espainiar errepublikako gobernuarekin kolaborazio instituzionala bermatzea eta, azkenik, Nazio Batuen Erakundean eta Europar Komunitateetan nagusiki zentratutako nazioarteko politikaren izapidetzea¹⁰².

1942 arte eta, Bigarren Mundu Gerrako testuinguruan, naziek garaitu gabeko Europarantz bideratu zituen Irujok Euskadiko Kontseiluko indar eta neke diplomatikoak. Izan ere, Bigarren Mundu Gerra hasi aurretik ez zuten Estatu Batuek guda-ostean agertuko zuten Mendebaldeko herrialdeen aitzindaritzara oraindik eskuratu. Alabaina, Churchill-en kabinete kontserbadoreko Anthony Eden atzerri-ministroak De Gaulle-k frantziar kontseiluaren eta Euskadiko Batzar Nagusiaren arteko elkarriketei tartekaturiko oztupoak zirela-eta, Estatu Batuetarantz begira jarri zuten 1941ean Jaurlaritza. Eta, Jose Antonio Agirre Estatu Batuetara iritsi eta hilabete baten buruan egoera politikoa arras aldatuko zen: 1941eko abenduaren 7an japoniarrek Pearl Harbour bonbardatu zuten eta Franklin D. Roosevelt-en gobernuak proposatu zion kongresuari guda deklaratzeko. Roosevelt-en gobernu demokratikoa eta presidentearak berak pertsonalki Francoren erregimenarekiko agertutako jarrerak zein Jaurlaritzarekin harreman politikoak eta elkarlana bermatzeko izandako joerak ikaragarri lagundu zuen noski aspektu honetan.

101. *Euzko Deya*, Buenos Aires, 1941eko urriaren 25a. Astigarraga, A. (1980): «De Álvarez Lastra a José Antonio de Aguirre», *Euzkadi*, **190**, Bilbo, uztailaren 24a, 22-23.

102. Erresistentziarekin izandako harremanaz eta Euskal Herrian barna Eusko Jaurlaritzaren ekimenez ez gara ariko lan honetan, erbestean egindako eta bermatutako ekintzez baizik.

1939ko udaberrian Meudon herriko bileretan onetsitako *Euskal ildo nazionalaren* harian Errepublikako gobernuaren bitartekotzarik gabe, 1941ean bertan eman zituzten Estatu Batuetako eta Euskadiko gobernuak elkarlana sustatzeko lehen urratsak. 1941eko azaroaren 20an bildu zen New Yorken lehendakaria W. S. Stephenson Estatu Batuetako britainiar enbaxadako *British Security Council*-eko buruarekin eta, egun bat geroago, Estatu Batuetako *Office of the Coordinator of Information* (COI) ezkutuko zerbitzuen hainbat agintarirekin elkarlan instituzionala sustatzeko (Agirre, 1998). John H. Godfrey britainiar *Naval Intelligence Division*-eko buruaren eta William Stephenson New Yorkeko *British Security Coordination*-eko buruaren iradokizunei jarraiki, estatubatuar zerbitzu ezberdinen zereginak koordinatzeko Roosevelt presidentek 1941eko uztailaren 11n osatutako erakundea zen COI. 1941eko abenduaren 23an berriz ere bildu zen Agirre britainiar zerbitzuekin. Ildo honetan, 1942ko urtarrilaren 8an *Carnegie Corporation* erakundeko presidentea zen Frank P. Keppel idatzi zion Donovan-i euskal agenteak erabiltzearen ideiarekin. Era berean, Estatu Batuetako estatu-idazkaria zen Cordell Hull eta Carlton Hayes, Estatu Batuetako enbaxadorea Madrilan, kooperazioaren kontra agertu ziren. Nolanahi ere, 1942ko maiatzean azken bilerak izan ondoren eta, ekainean COIren barne-berregituraketaren ostean *Office of Strategic Services* eta *Office of War Information* osatzean, hasi zen Jaurlaritzaren eta estatubatuar zerbitzuen arteko kolaborazioa Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan. Esan behar ere, Jerome Doyle buru, New Yorken egoitza zuten britainiar *Secret Intelligence Service* erakundeko agenteek parte aktiboa hartu zutela akordioak gauzatzeko prozesuan, izan ere, Anton Irala Jaurlaritzako zerbitzu ezkutuetako buru izango zenaren arabera, britainiarrak izan ziren Jaurlaritza eta estatubatuar erakundeak kontaktuan jarri zituztenak. Ez da hau harrigarria kontuan izanik Euskadiko Batzar Nagusiak Londresen bi urtez egindako lanari begira. Izan ere, Sotarekin jarri ziren kontaktuan 1940an eta 1941ean Londresen ziren Irujoren eta Lizasoren iritziaren gaintik itun politikorik gabe kolaborazio-akordioak bermatu ahal izateko.

Hasiera batean *Office of Strategic Services* (OSS) eta, 1947ko irailaren 18az geroztik, *Central Intelligence Agency* (CIA) estatubatuar zerbitzu ezkutuekin Jaurlaritzak bideratutako elkarlanaren abiapuntua ditugu 1942ko maiatzean azkenik hitzartutako elkarrizketa hauek. Akordio berri hau Euskadiko Batzar Nagusiak *Foreign Office*-rekin 1940ko uztailan hitzartuaren parekoa zen, alegia,

1. Euskal ezkutuko zerbitzuek militarki kolaboratuko dute estatubatuar *Office of Strategic Services*-arekin Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan.
2. Europan, Filipinetan eta Ameriketako Estatu Batuetan diren milaka euskal errefuxiatuek jasoko dute aliatuen eskutik sorospena.
3. Estatubatuar zerbitzuek finantzatuko ditu operazioak.
4. Euskal agenteek euskal agenteen aginduetara operatuko dute. Alegia, euskal agenteek garatutako informazioa Eusko Jaurlaritzako bulego nagus-

sira bideratuko dute eta bertan prozesatu ondoren estatubatuar zerbitzuetara bidaliko du euskal informazio-zerbitzuak.

5. Euskal ezkutuko zerbitzuek Europan, Filipinetan eta, nagusiki, Hego Ameriketara lan egingo dute.
6. Helburua: faxisten, falangisten edota nazien espioi-sareen inguru informazioa jasotzea bai eta Hego Ameriketara *Consejo de la Hispanidad* erakundearen bitartez egindako lan ezkutua neutralizatzea.

Bistan da akordioa berdin-berdina zela puntu batean izan ezik, honako honetan kolaborazioa ez zen itun politiko batean oinarrituko, hots, gudaostean euskal errepublika independentea ziurtatuko zuen ituna kolaborazio-hitzarmenetik kanpo geratu zen. Horrek eztabaida sutua piztu zuen Irujo eta Agirre artean. Irujok itun politiko bat eskatzeko aurkeztutako arrazoiak hiru ziren:

1. Jaurlaritzak 1939ko maiatzeko Meudongo bileretan eta Eusko Alderdi Jeltzaleak 1940ko abuztuaren 20an adostutakoaren ildoan, *Euskal ildo nazionalak* Euskal Herriaren independentzia administratiboa eta politikoa behar zuen Jaurlaritzak izan helburutzat.
2. 1940ko Euskadiko Batzar Nagusiaren edota 1942ko Eusko Jaurlaritzaren lehen zeregin politikoak Euskal Herrian demokrazia berreskuratzea eta independentzia bermatzea zen. Jaurlaritzak euskal herritarren segurtasuna eta herriaren eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen babesa behar zuen eskuratu lehenik. Ondorioz, estatubatuar edota britainiar administrazioak itun politiko bat sinatzen ez bazuten, kolaborazioak zentzugabea bezain taxugabea zen Irujoren aburuz.
3. Aurrekoaren ildoan, euren biziak arriskatuko zuten euskal agenteek totalitarismoaren aurkako gudaren testuinguruan demokraziaren eta giza eskubideen defentsan eta Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatuko zutela jakin behar zuten «*de una manera consciente, no podemos prestarnos a entregar a la Gestapo a los mejores de entre los nuestros, sin algún género de garantía, de tipo nacional, que compense al posible sacrificio que determinadas cooperaciones exigen*»¹⁰³.

Alabaina, jarrera honek Jaurlaritzako kide batzuen kontrako iritzia jaso zuen, hala nola Jesús María Leizaolarena, Manu Sotarena edota Luis Ortuzarrena. Izan ere, 1940ko irailaren 9an Ameriketara britainiar zerbitzuekin kolaboratzeko prest zegoela aditzera eman zien Sotak Irujori eta Lizasori: «*el otro día me llamó Valeur, uno de los directores de la Oficina de Información Aliada, para pedirme mi concurso, pues me conocía de antes por los trabajos que realicé a favor de los aliados. Me pidió mi concurso para trabajar por la misma causa. Como puede*

103. Manuel Irujok Jose Antonio Agirrerri bidalitako gutuna, Londres, 1942ko otsailaren 12a.

*suponer se lo ofrecí desinteresadamente»*¹⁰⁴. Eta behin New York-eko ordezkarriz hura izango zen 1942an Agirre lehendakariak hartutako ildoak:

Nuestro deber es en todo momento favorecer con todas nuestras fuerzas a la causa aliada, sin pedir nada, sin demandar nada, porque es nuestra causa. Tiempo llegará en que todos vean lo que hace poco escribía un diplomático inglés «no hay raza en el mundo más afecta y leal a la causa aliada que la raza vasca». Aquí trabajamos mucho en su favor. Yo espero que aún hemos de trabajar mucho más y con enorme eficacia. Poco a poco vendrá lo demás. Pero hemos de trabajar con audacia, porque somos vascos, demócratas y patriotas que trabajamos por la liberación de la Patria Vasca. Esto lo hemos de decir a todos, todos los días. Nuestro problema de libertad es el mismo por el que luchan Inglaterra y América (...). Dadlo todo generosamente, que ya llegará la hora de recoger el fruto. Hacedme caso¹⁰⁵.

Higmanek Londresen 1940an bilatutakoa lortu zuen, bada, bi urte geroago Jerome Doyle-k New Yorken.

Ezkutuko zerbitzuen arteko kolaborazioa garrantzi handikoa zen aliatuentzat arrazoi ugariengatik. Europan ez bezala, Ameriketako eliza katolikoa pisu handiko erakundea zen eta ez britainiarrak ez estatubatuarrek ez ziren katolikoak eta ez zuten eremu katolikoetan nahi bezalako influentzia. Izan ere, nazien propagandaren ardatza zen hura Hego Ameriketako, hots, aliatuak ez bezala, nazien aliatu naturalak ziren italiar zein espainiar katolikoak. Francoren eskutik Hego Ameriketako lan egin zuen *Consejo de la Hispanidad* erakundearen eginkizuna aurreko mezua barreiatzea zen eta euskal zerbitzu ezkutuen propaganda-kanpaina hori ezereztea. Horretarako Hego Amerika guztian zehar sakabanaturik zituzten euskal etxeetako bazkideen artean edota hainbat eta hainbat herrialdetan Jaurlaritzarekin bat edo Jaurlaritzarentzat zuzenean kolaboratzeko prest agertu ziren euskaldunak eta euskaldunak ez ziren zenbait apezpiku, kardinal, apaiz eta erretore. Eta, esan behar hiru urteko kontrakanpainaren ostean 1944rako beste bat zela Amerika osoko eliza katolikoaren jarrera espainiar politikarekiko bai eta nazioarteko politikarekiko ere bai.

Jaurlaritzarentzat zerbitzu ezkutuen akordioa balio paregabekoa zen Franco nazioarteko politikan isolatzeko tresna baitzen eta, ondorioz, Franco Bigarren Mundu Gerraren ostean uzkailetzeko bide bakarra. Bestetik, amerikar eta europar demokrazia-kristauaren sare politikoa sendotzeko beta izan zuen Jaurlaritzak eta azkenik, Euskadiko Gobernuaren egoera-finantzario latzari bultzada emango zion kolaborazio-sistema honek.

104. Manu Sotak Manuel Irujori idatzitako gutuna, New York, 1940ko irailaren 9a. Eta, Manu Sotak Manuel Irujori idatzitako gutuna, New York, 1940ko abuztuaren 31.

105. Jose Antonio Agirrek Jose Ignacio Lizasori eta Manuel Irujori idatzitako gutuna, New York, 1941eko abenduaren 3a.

Ezkutuko lan hau aurrera eramán ahal izateko bazuen Jaurlaritzak beste inongo erakunde batek ez zuen ordezkari-tza, eta ordezkari-tzekin lan egiteko prest ziren ehunka eusko etxeen eta elkarteen sare eranginkorra. Martxan jarri behar zen, ordea, mekanismo konplexu hau eta hura izan zen 1942ko abuztuaren 15ean (akordioak izenpetu eta hiru hilabete eskas geroago) lehendakariak Amerikan barna egin zuen bidaiaren halburu nagusia. 1942ko abuztua eta urria bitarte 11 herrialde ezberdinetan (Mexiko, Panama, Peru, Txile, Uruguai, Argentina, Venezuela, Puerto Rico, Santo Domingo eta Kuba) 23 hitzaldi eta ehun ekitalditik gora gauzatu zituen Jose Antonio Agirrek. Jada 1942ko udaberrian Euskadi Buru Batzarreko burukideei agertu zien Agirrek Hego Ameriketara joateko proiektua,

Nuestra acción en este continente adolece de falta de profundidad por falta de recursos. Yo quiero hacer este verano una gira larga para preparar y coordinar definitivamente todo este enorme caudal de hombres y de simpatías con que contamos en la extensa colonia vasca. Afortunadamente la reacción se produce consoladora, pero no se entiende aun el lenguaje de la contribución porque se cree todavía que es alimentar vagos. Contra este ambiente no existe más que la labor personal. Antes quisieron que me quedara allí. No pude porque tenía que ocupar el puesto que a Dios gracias me otorgaron aquí señalándome excepcionalmente. De lo contrario estaría peor que Uds. En cambio mi viaje ahora creo que será muy fructífero bajo todos los aspectos. Sigue, nuestra gente con la fiebre monumental. En Chile se anuncia la construcción de un nuevo edificio para el que se ha recogido cerca de dos millones de pesos. De la Habana me anuncian que quieren construir un Centro para inaugurarlo cuando yo llegue. Yo no he puesto un reparo a todo ello porque si lo pusiera no harían ni lo uno ni lo otro¹⁰⁶.

Franco uzkaitezko nazioarteko lehiak eskatzen zuen atetik kanpoko lan diplomatikoarekin batera, eusko etxeetan bertan maiz lan handia burutu behar izatea ekarri zuen berekin amerikar erbestek. Ia beti eusko etxeen biltzar nagusietako hauteskundeetan zerrenda bakarra aurkeztu bazen ere, ez ziren gutxitan bi zerrenda proposatu ere. José Antonio Agirrerren bidaiak ikaragarri lagundu zuten xede baten inguru elkartasuna eta elkarkidetza mantentzen. Ildo berean, eusko etxe bakoitzaren lagunen arteko lotura eta eusko etxe ezberdinen arteko koordinazioaz gain, euskal erbesteratu guztien batasuna lortzea izan zen Jaurlaritzaren erronka politikoaren arteko bat. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren borroka politikoaren inguruan eusko etxeen arteko lotura, elkarlana eta elkarkidetza ezin estuagoa lortu zen.

Halaber, eusko etxeetan lan egiteak ekintza kulturalari eustea ekarri zuen berekin. 1942an Argentinan eta gerora Uruguain, Mexikon eta Venezuelan izugarri areagotu zen ekintza kulturala erbestean. 1938ko Parisko egoitzan hartutako erabakien ildoan, sortu ziren Jaurlaritzatik gertu ziren kideez osaturik kultura ekintza taldeak erbestean. Buenos Airesen monsinore Nicolás Esandiren zuzendaritzapean

106. Jose Antonio Agirrek Euskadi Buru Batzarrari idatzitako gutuna, New York, 1942ko apirilaren 7a.

osatutako *Instituto Americano de Estudios Vascos* kultur ekintza talde hauetako lehenetarikoa adibidea dugu, bai eta, noski Sebastián Amorrorturen laguntzaz, Ixaka López Mendizabalek eta Andrés Irujok Buenos Airesen osatutako *Ekin* argitaletxa. 1942 eta 1977 bitarte 100 liburutik gora argitara emango zituen *Ekinek* Amerikar erbestean. 1942ko amaieran Mexikon osatu zen *Comisión de Cultura Vasca* Telesforo Monzonen lehendakaritzapean. 1943an Montevideon eratu zen *Universidad de la República del Uruguay*-n *Departamento de estudios Vascos - Eusko Ikaskuntza Mintegia* Bingen Ametzagaren zuzendaritzapean. 1946an Joxe Migel Barandiaranek eratu zuen *Ikuska. Instituto Vasco de Investigaciones* eta, 1947tik aurrera *Gernika* Institutua *Gernika-Eusko Jakintza* aldizkaria argitaratzen hasi zen Jon Bilbao eta Barandiaranen eskutik. 1948an Gernika Institutua *Sociedad Internacional de Estudios Vascos* bilakatu zen Amerikar erbestetik iritsi berriak ziren Telesforo Monzon, Manuel Intxausti, Joxe Mari Lasarte, Manu Sota eta Jon Bilbao kideak artean zirela.

Oro har, hauek izan ziren ekintza kulturalaren ardatzak erbestean:

1. Euskal kulturaren eta Euskal Herriko historiaren zabalkundea.

- Ildo honetan herrialdez herrialde goian aipatutako euskal kultura taldeak osatzea ezinbestekoa zen bai eta, hauen elkarlana koordinatuz, nazioarteko euskal kultura biltzarrak antolatzea, Iparraldean 1948an eta 1954an antolatutakoak bezala. Iparraldetik antolatu ziren biltzarrak, Ameriketako ordezkariak eta azken hauen eskutik erakunde kulturalak eta eusko etxeek parte hartu zutelarik. Ildo honetan aipagarria da Gernika Institutuak Mexikon, Venezuelan eta Uruguain antolatutako *Eusko Jakin Billerak*. Batzar horiek euskal kulturaren arloan interesa zuten jakitunak biltzen zituen gerora herrialde bakoitzean edota Gernika Institutuaren bitartez Iparraldean eta Hegoaldean bertan ekintzak eta idazkiak burutzeko.
- Hego eta Ipar Ameriketako unibertsitateetan Eusko Ikaskuntza Mintegiak osatzea izan zen erbesteko kultur ekintzaren bigarren erroka bat. Ildo horretan Bingen Ametzagak Montevideon osatutako Eusko Ikaskuntza Mintegia edota Jose Antonio Agirrek Columbia University-n emandako Euskal Herriko Historiako eskolak ditugu aipagarri.

2. Euskal kulturaren arloan dibulgazio-lanak, saiakerak edota lan zientifikoak argitara ematea. Arlo honetan Buenos Airesko *Ekin* argitaletxea dugu nagusi, bai eta Mexikon edota Venezuelan argitara emandako liburuak. Erbesteratuek argitaratutako liburu kopurua kalkulatzeko zaila bada ere, ehunka tituluren berri dugu eta, hortik aurrera, aldizkariak, artikulak aldizkari eta egunkarietan... Askok eta asko idatzi zuten erbesteratuek; izan ere, Eusko Jaurlaritzan bertan edota Jaurlaritzarekin estu kolaboratu zuten askok hiru liburutik gora argitatu zuten eta, zenbait kasutan, bost liburutik gora ere bai. Beste egile askoren artean aipa ditzakegu: Jose Antonio Agirre, Francisco Abrisketa, Bingen Ametzaga, Joxe Migel Barandiaran, Pedro

Basaldua, Jon Bilbao, Jesús Galíndez, Justo Garate, Gabino Garriga, Ildefonso Gurrutxaga, Andima Ibinagabeitia, Irujotarrak (Andrés, Manuel eta Pello Mari), Ceferino Jemein, Pierre Lafitte, Javier Landaburu, Jesús M^a Leizaola, Ixaka López Mendizabal, Telesforo Monzon, Alberto Onaindia, Tellagorri (José Olivares Larrondo) eta Jokin Zaitegi.

– Era berean, irрати-saioak eta programak sustatu ziren, Montevideon 1943an hasitakoa bezala edota Iparraldean eta Caracasen osatuko ziren *Radio Euskadi* irratiak.

3. Hizkuntza-politika. Eusko Jaurlaritzak Marceau kaleko egoitzan finkaturiko ildo nagusietariko bat zen hau. Euskal Herrian debekatua zegoen euskara zabaltzea eta normalkuntza linguistikoa erbestetik lagundu eta bultzatzea. Ildo honetan, Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak euskaraz idatzitako lanak suspertzeaz gain, euskararen inguruko gogoetak bultzatzera doa:

– Euskara-klaseak. Eusko etxeetan, eskoletan edota unibertsitateetan antolatu ziren. 1944an osatu zen euskara-katedra Uruguaiako *Universidad de la República*-n eta 1955 arte eman zituen klaseak Bingen Ametzagak. Ametzaga Venezuelara joan ondoren Jose Mendiolak eman zituen klaseak 1955 eta 1962 bitarte. 1944 eta 1962 bitarte 50 ikasleetatik gora izan zituen klaseak. Jaurlaritzaren ekintzarekin lotura zuzenik gabe René Lafonek antolatu zuen erbesteko bigarren euskara-klasea unibertsitatean, kasu honetan *Université de Bordeaux*-en 1948an eta, 1955ean Japoniako Keio unibertsitatean Laurent Labartek. Londreseko eusko etxean Gotzon Gondrak jarriko zituen euskara-klaseak martxan 1945ean eta, adibide hauei jarraiki eta, oro har, XIX. mendetik hasitako ildoari jarraiki, eusko etxe gehienetan eskaini ziren euskara-klaseak Ameriketara zein Europan. Izan ere, Montevideoko *Laurac Bat* eusko etxean 1883an eskainitako euskara-klaseen berririk badugu. Era berean, eusko etxeetako haurrek euskaraz ikas zezaten eta 1925eko Montevideoko *Instituto de Enseñanza Euskal Erria* ikastolaren ereduari eutsiz osatu zen Caracasko *Ikastola Euzkadi* 1962an. Tradizio honi atxikiz dugu egun *Boiseko Ikastola* Idaho-n.

– Euskal liburu taldeak. *Club del Libro Vasco* eta *Euskaltzaleak* edota *Euskelzaleak* taldeak ziren hauek. 1940ko hamarraldian agertu ziren lehen Euskaltzaleak elkarteak eta, herrialdez herrialdeko ezberdintasunak direla eta ez direla, oro har, euskaraz agertzen ziren liburu guztiak erosteko eta (kidea euskalduna bazen) irakurtzeko konpromisoa hartzen zuten kideek. Honekin batera, kultur ekintzak euskaraz egitea edota euskararen inguru kultur ekintzak antolatzea zen elkarte hauen zeregina. Montevideoko *Euskaltzaleak* taldearen kasuan 1952an eta 1953an euskaraz idatzitako liburu bat Euskara Egunean aurkezteko erronkari eutsiz, *Hamlet* eta *Platero eta Biok* Ametzagak buruturiko itzulpenak aurkeztu zituen.

- Euskararen normalkuntzaren sustapena. Itzulpena izugarri bultzatu zen erbestetik, nagusiki Jokin Zaitegiren zuzendaritzapean Guatemalan 1949 eta 1956 bitarte plazaratutako *Euzko Gogo*a aldizkaria gailenduko zen. 1957tik aurrera eta 1959 arte Miarritzen agertuko zen aldizkaria. Azkueren gipuzkera osotuaren ildoko egilea, Zaitegik euskara batua osatzeko beharrezkoa zen euskara literarioa lantzen lagundu zuen *Euzko Gogo*an. Noski, hemen eta hango ezberdintasunekin, Resurrección M. Azkueren euskara batuaren ildokoak ziren *Euzko Gogo*a aldizkariko kolaboratzaileak, besteak beste, Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Andima Ibinagabeitia, Bingen Ametzaga, Jon Mirande, Juan San Martín edota Nemesio Etxaniz. Esandakoaren salbuespenak dira neurri batean edo bestean Gabriel Aresti eta Federico Krutwig, hauek ere idatzi baitzuten *Euzko Gogo*an. Itzulpenak bi helburu nagusi beteko zituen erbestean: alde batetik, euskararen normalkuntza bultzatu eredu linguistiko konkretu bat landuz, zabalduz eta finkatuz eta, bestetik, Unamunoren teoriaren kontra egin (euskara hiltzear zegoen eta etxean soilik erabilera zuen hizkuntza zela), hizkuntza ezberdinetan idatzitako literatura unibertsaleko klasikoak euskaraz jarritz. Horrexegatik horren indar handia egin zuten literatura unibertsaleko klasikoak euskaraz janzten erbesteko egileek: Eskilo, Ovidio, Dante, Shakespeare, Goethe, Tolstoi...
 - Aurrekoarekin lotuta, euskarak Euskal Herrian pairatzen zuen debekuak zalatzea eta jakinaraztea izango zen noski Jaurlaritzaren eta euskal kultura taldeen eginkizuna. Ildo honetan, 1956ko *Congreso Mundial Vasco*-k atal oso bat dedikatuko zion euskararen egoeararen inguruko gogoetari. Era berean, 1949tik hasita, urtez urte ospatu zen Ameriketako Euskara Eguna Xabierko Frantziskoren egunean (abendua 3a). Manuel Intxaustiren inguruan sortutako Iparraldeko lankide talde baten iniziatiba izan zen hura Iparraldean ikastolak eta euskaraz edota euskararen inguruko ekintzak suspertzeko diruak lortzearren bai eta, noski, euskararen egoera nazioarteko politika mailan salatzeke.
 - «Unido a lo anterior se impulsó de forma decidida la creación de emisoras de radio de temática variada, cultural y política, cuya máxima expresión son las emisoras de Venezuela (Radio Euzkadi) o, con anterioridad a aquella, los programas vascos de radio en Montevideo a partir de 1943».
4. Azkenik, euskararen sustapenarekin batera, euskal musika, dantzak eta mota guztiko ekintza kulturalak eragitea izan zen ere erbeste politikoaren helburua. Erraza zen hau, eusko etxe gehienek izan baitzituzten dantza eta musika taldeak. Ildo honetan Buenos Airesko ordezkariak Montevideon 1943ko urrian antolatutako *Gran Semana Vasca de Montevideo* hamabost eguneko euskal astea dugu eredugarria.

- Eusko etxeetan kultura eta festa batzordeen egituraketa dugu ordezkartzek bultzatutako ekintzen artean: «*ya sabrás que conseguimos ganar la votación en la batalla por el consejo directivo de Euskal Erria. Ahora lo importante es administrar la victoria. Me han nombrado presidente de la comisión de fiestas, arte y cultura y ya he empezado a moverme todo lo que puedo a fin de conseguir un ciclo de conferencias y conciertos así como la formación de grupos de dantzaris y de un coro que nos sirvan esta primavera y verano en nuestras excursiones por el interior donde hay tanto vasco y todo está por hacer*»¹⁰⁷.
- Oro har, ordezkartzek aurretik eusko etxeetan bizirik ziren tradizioak edota efemerideak ospatzeko grina indartu zuten, hala nola aipatutako Xabierko Frantziskoren eguna (abendua 3an), Inazio deunaren eguna (uztailaren 31n), Sanferminak (uztailaren 7an), foruen galeraren eguna 1839an (urriaren 25ean) eta 1876an (uztailaren 21ean), Gernikaren bonbardaketaren eguna (apirilaren 26an)...

Itzela, bada, Jaurlaritzaren erbesteko euskal kultur ekintza.

Arlo politikoan, aipatu bezala 1936tik hasita ziren Jaurlaritzako ezkutuko zerbitzuak lanean Euskal Herriko Hegoaldean zein Iparraldean. Eta euskal zerbitzuen adinekoa izan zen nazien errepresioa: ehunka lagun hartu zituzten lan bortxatuetako esparruetan lan egiteko (Atlantikoko harresia eraikitzeko batailoietan adibidez). Era berean, 1944 arte, 44 gizon lepotik zintzilikatu zituzten naziek «Je suis un terroriste» lelopean. 1943an hasi zen *Unión Nacional Española* (UNE) erakundea Jaurlaritzarekin kolaboratzen boluntarioak biltzen euskaldunetz osatutako erresistentziako batailoi bat osatzeko. Eliodoro de la Torre jarri zuen 1943ko amaiera aldera 1936ko gerran parte hartu zuen eta nazien kontrako erresistentzian aritutako Kepa Ordoki batailoi horren buru izateko. 1944ko abuztuaren 24an Zuberoan matxinada gertatu zen eta herrialdea liberatu zuten, 207 soldadu preso hartuz. Hendaia eta Baiona askatu zituzten ere egun bat beranduago erresistentziako taldeek (datu gehiago falta badira ere, 15.000 bat lagun inguru izatera heldu zirela pentsa daiteke).

Euskadiko Batzar Nagusiak De Gaulle-k Inperioko Kontseiluarekin hitzartutako akordioaren harira, frantziar armadaren barruan euskal batailoi bat osatzearen ideia azaldu eta materializatu zen 1944ko uda eta negua bitarte. Izan ere, 1944ko udazkenean Ordokiren inguruan bildutako boluntario taldeko kideei nazien kontra (eta ez Francoren kontra) abiatuko zirela aditzera eman zien Ordokik, bai eta batailoia uzteko posibilitatea eman ere. Ondorioz, 200 soldaduetatik 7k utzi zuten borroka. Frantziar gobernuak *Unité Militaire Basque* bat osatzeko baimena luzatu ondoren, 1944ko abenduaren 28an osatu zen 180 gizona hornitua *Gernika*

107. Bingen Ametzagak Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna. Montevideo, 1944ko uztailaren 31.

batailoia Bordele inguruan *Bataillon de Volontaires basques-espagnols* izenarekin. Juan Manuel Epalza izendatu zuen Jaurlaritzak batailoiko ordezkari politikoa 1945eko urtarrilaren 10ean eta 1945eko urtarrilaren 29an batailoia osaketaren inguruko adierazpen publikoa eman zuen Leizaolak Paristik bai eta 1945eko martxoaren 2an Jaurlaritzak New Yorketik.

1945eko martxoaren 4a arte Walther Sonntag koronelaren agintepean eta gero *Oberst Prah* koronelaren agintepean 25.500 bat soldadu, 461 kainoi, 528 bunker eta 800.000 bat mina zituzten naziek frantziar estatuko hego-mendebaldean (*Front de Médoc*). Edgard De Larminat jeneralari eman zion Mendebaldeko Indarren buruzagitza (FFO edo *Brigade Carnot*) De Gaulle-k eta, Larminat-ek Jean de Milleret koronelari (*Carnot* izenarekin erresistentzian ezaguna) eman zion Pointe-de-Grave garaitzeko agindua. Ordokiren *Gernika batailoia* Chodzko poloniarren agindupean *Régiment Mixte Marocains et Etrangers* unitatean borrokatu zuen. 3 batailoit zituen errejimentuak: Ordokirenak (*Gernika*) eta Santos-enak (*Libertad*) lehenengo batailoia osatzen zuten; bigarren batailoia *Bataillon Marocain* zen eta *Bataillon Mixte* hirugarrena.

1945eko apirilaren 14an hasi ziren lehen konbateak Pointe-de-Grave-ko itsas muturrean eta 20a arte —7 egunez— luzatu ziren. Hegoaldetik iparraldera Lesparre, Saint Vicien eta Soulac hiriak liberatu zituen *Gernika batailoia*. Guztira *Brigade Carnot*-ek 400 gizon galdu zituen eta 1.000 zauritu izan zituen. Alemanek 680 hildako izan zituzten eta 3.320 preso geratu ziren aliatuen esku, horien artean 80 ofizial. 4 gizon galdu zituen *Gernika batailoia*: Antonio Mugika (Donostia-koa); Félix Iglesias Mina (Atarrabiakoa); Juan José Sasia Jausoro (Alonsotegi) eta Antonio Lizarralde Garamendi (Durangokoa). Hortik aurrera, *Operation Jupiter* Olorongo irlaren liberazioarekin, La Rochele, La Pallice eta Ré irlako liberazioarekin amaitu zen guda. 1945eko apirilaren 22an De Gaulle-k ohoreak eman zizkion batailoitari: «*Commandant, la France n'oubliera jamais les efforts et les sacrifices accomplis para les basques pour la libération de notre sol*». 1945eko abuztuaren 29an desmobilizazio orokorra agindu zuen frantziar aginte berriak. Ernest Pezet *Liga Internacional de Amigos de los Bascos*-eko kideak, Jaurlaritzaren eskaerari jarraiki, desmobilizazioa atzeratzeko eskaera luzatu zion frantziar agintaritzari: «*nous voudrions disposer d'un petit noyau de forces militaires, autour duquel pouvoir créer le Corps chargé de défendre la sécurité publique et garder l'ordre dans notre pays dans l'éventualité d'un changement de l'actuel régime et de la prise du pouvoir par les forces démocratiques*». Era berean, 1945ko irailaren 24an De Gaulle-i idatzi zion Leizaolak baina ez zuten ezer lortu eta desmobilizatu zuten *Gernika batailoia* 1945eko udaren hasieran.

Politikoki, Bigarren Mundu Gerra amaitzeaz eta ondorioz Ardatza osatzen zuten idarrak azpiraturik, gudaosteko Europako diseinu politikoaz eta nazioarteko politika bideratzeko Nazioen Elkartearen ordezkatzeko zuten nazioarteko erakundeaz

hitz egiteko garaia zen. 1941eko abuztuan Platentia Bay-ko bilerak fruitutzat eman zuen Atlantikoko Itunaren ondoren «Espainia Kasuak» nazioarteko debate zarata-tsua sortuko zuela garbi zegoen guztientzat. Alde batetik, alietuekin eta aliatuen aldeko borroka zela eta Estatu Batuetako gobernuaren sorospena espero zezakeen Jauriaritzak eta, bestetik, erbesteko espainiar gobernuarekin batera nazioarteko politikagintzan Francoren kontra egitearren batasuna behar zuten indar errepublikazaleek. Konplexua, beraz, panorama: Euskal Herriaren subiranotasuna defendatu erbestetik Nazio Batuen Erakundea osatuko zuten herrialdeen artean eta espainiar errepublikako gobernuaren aurrean. Aurretik esan bezala, Galeuzca osatzen zuten euskal, katalan eta galiziar erbesteratutako abertzaleen batasuna ezinbesteko baldintza zen gudaosteko politikari ekin ahal izateko.

Errepublikako gobernuarekin instituzionalki jorratu zuen elkarkidetzaz gain, irismen handiagokoa dugu Galeuzca erakundearen sustapena. 1941eko urtarrilaren 18an Euskadiko eta Kataluniako Nazio Kontseiluek bi aldeko Ituna sinatu zuten Londresen. Hau dugu erbestearen Galeuzca berpizteko emandako lehen urratsa. Lau hilabete geroago, 1941eko maiatzaren 9an hain zuzen, Hiruko Ituna sinatu zuten Argentinan Buenos Airesko eusko etxeetako, *Casal Català* elkarteko eta Galiziako egoitzetako ordezkariak. Galeuzca erakundearen espirituari eta helburuei eutsiz, hiru nazioen subiranotasunaren, autodeterminazio-eskubidearen eta Bigarren Mundu Gerran Mendebaldeko aliatuen aldeko jarrera agertu zuten sinatzaileek. Ikaragarri elkartu zituen erbesteko galiziar, kataluniar eta euskal aitzindariak; ez zituen, ordea, atzerriraturiko masak mugiarazi.

Agirrek Euskadiko Batzar Nagusiak ildo honetan ekindako lanari jarraipena eman zion 1944ko martxoaren 2an Castelao-ri bidalitako gutunean argitzen zuen bezalaxe,

Son imprescindibles sentar los principios:

1. [Defensa] del hecho nacional de cada uno de nuestros pueblos, su derecho a la autodeterminación y el derecho a la seguridad y a la continuidad en la paz.
2. Como meta común de alcance peninsular puede señalarse el pacto que conduzca a la federación voluntaria o a la Confederación para producir el equilibrio ibérico abriendo puertas a la futura inclusión de Portugal.
3. Como política de alto alcance la amistad especial de la Confederación ibérica con los pueblos sudamericanos y la inteligencia en altas y pacíficas empresas de paz, cultura, libertad y democracia.
4. Respecto a Europa la integración en su civilización y sus propósitos de federación principalmente occidental que nos unirá al mundo democrático de Occidente, al Imperio británico y a los Estados Unidos.
5. Amistad afectuosa con la URSS.
6. Perfeccionamiento del mutuo entendimiento en la paz y en la libertad. Es necesario consignar además el deseo de paz y tolerancia religiosa en las leyes

unida a una inteligente actuación diplomática ante el Vaticano que no desconozca el fondo cristiano y católico de la civilización tradicional que distingue a nuestros pueblos.

7. Imprescindible nuestra adscripción a un orden social avanzado.

8. Finalmente, la declaración de nuestra beligerancia en la lucha mundial actual al lado de las Naciones Unidas en combate por la libertad de todos los pueblos¹⁰⁸.

1944ko urriaren 24an osatu zen Bingen Ametzagaren lehendakaritzapean *Galeuzca-Uruguay* eta bi hilabete ondoren, 1944ko abenduaren 22an, Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako erbesteko ordezkariak sinatu zuten Mexiko hiriburuko *Hotel Majestic*-en 1941eko itunari eusteko gogoia erakusten zuen adierazpena. Baina, nahiz eta giza eskubideen errespetu eta miresmen arduratsuan oinarriturik egon, Errepublikako gobernuak beti agertu zen mesfidati Galeuzca osatzearekin bai eta autodeterminazio-eskubidearen inguruan debatea irekitzearen kontra. Irujoren iritziz, estatuaren batasuneko printzipioa giza eskubideen gainetik paratzea zen hura, hots, *Movimiento Nacional*ek egin zuenaren oso urruti ez zegoen estrategia politikoa. Irujorekin bat zetorren Castelao,

Los republicanos españoles no quieren estimar la energía, en potencia, de que dispone Galicia. En esto los reaccionarios son más despiertos de instinto, y por eso cualquier acción nuestra los sobresalta. Así, Primo de Rivera aceleró el golpe de Estado —él lo dijo— por las manifestaciones separatistas de la «Triple Alianza» (hoy «Galeuzca»), en Barcelona, y los militares se sublevaron en cuanto Galicia presentó su Estatuto a las Cortes. No es que nosotros hayamos originado esos pronunciamientos; pero hemos contribuido a la loca indignación de los patrioterros. Y siendo «Galeuzca» un elemento de incuestionable utilidad para la República resulta que los republicanos lo combaten sin pasión o lo estiman fríamente¹⁰⁹.

1942ko azaroan frantziar erbestean ziren zenbait indar sozialistek *Unión Nacional Española* osatu zuten eta 1943ko azaroan osatu zen Mexikon *Junta Española de Liberación* (JEL). Bi erakunde hauek antzeko helburua zuten, hots, Bigarren Mundu Gerraren ostean erbesteko Errepublikako gobernuak osatu baino lehen alderdi sozialistaren baitan ziren indar eta talde ezberdinen arteko adostasun batera iristea eta indarrak batzea. Ildo horretan, 1931ko konstituzioaren mugetan barna ziren posibilitate ezberdinak kontsideratzeko irekiak ziren, ez ordea autodeterminazio-eskubidea edota estatu federal edo konfederal baten proposamen abertzalea, alegia, «*un régimen genuinamente democrático, conforme a los principios de la Carta del Atlántico*». 1943ko azaroan zehar Mexikon bildu ziren indarrak Prietoren ildoko PSOE, *Izquierda Republicana*, *Unión Republicana*, *Esquerra Republicana de Catalunya*, *Acció Catalana Republicana* eta Eusko Alderdi

108. Jose Antonio Agirrek Alfonso R. Castelao-ri idatzitako gutuna, New York, 1944ko martxoaren 2a.

109. Alfonso R. Castelao-k Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna, Buenos Aires, 1943ko azaroaren 29a.

Jeltzalea izan ziren. Autodeterminazio-eskubidea edota herri-kontsulta onartu ezean, Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak ziren Julio Jauregik eta Telesforo Monzonek utzi zuten JEL azaroaren 23an. Jauregiren hitzetan,

A la reunión preparatoria acudimos, invitados debidamente, Monzon y yo en representación del PNV y como Prieto propusiera como programa de acción de la Junta, el más absoluto respeto a los principios fundamentales de la Constitución de 1931, Monzon, que estuvo admirable en la forma y en el fondo, manifestó que para el PNV el programa no podía ser otro que:

1. Lucha contra Franco.
2. Oposición a una restauración monárquica antipopular.
3. Que se respete la voluntad del pueblo vasco libremente expresada en virtud del derecho de autodeterminación.

Como no se aceptaron nuestros puntos de vista, se suspendió la reunión sin resultado, volviéndose a reunir los mismos elementos sin nosotros y formando la Junta Española de Liberación aludida.

Tal organismo viene a ser una especie de JARE política ya que los mismos elementos que apoyaban aquella, apoyan a la Junta y los mismos que estaban en contra, lo están igualmente del nuevo organismos. Están en contra los socialistas de Negrín, los de Izquierda Republicana de Fernández Clérigo, la UGT de Rodríguez Vega y los comunistas por no haber sido invitados, pues de lo contrario de hubieran sumado, porque está en una posición muy facilona.

Entre los elementos catalanes ha producido muy mala impresión la actitud del grupo Santaló, Sbert y Andreu de fácil colaboración y se han manifestado públicamente en contra de tal actitud, las Comunidades de América, Estat Catalá, parte de la Esquerra Catalana, parte de Acción Catalana y todos los diputados catalanes a Cortes y al parlamento catalán¹¹⁰.

Azkenik, euskal abertzalerik gabe, azaroaren 25ean osatu zen JEL Diego Martínez Barrio lehendakari eta Indalecio Prieto idazkari. Irujok ere defendatu zuen JELEN kanpo Mexikoko ordezkariak hartutako jarrera, bai eta *Partido Comunista de España*ren inizatibaz osatutako *Junta Suprema de Unión Nacional* (JSUN) erakundetik kanpo mantentzearena. Irujoren, Monzonen edota Jauregiren eta, oro har, Euskadi Buru Batzarreko kide gehien aburuz, errepublikazaleen jarrera Atlantikoko Itunaren espirituaren kontrakoa zen, bereziki itunak autodeterminazio-eskubidearen inguruan adierazitakoaren kontra. Bestetik, 1931tik gauzak arras eraldatu ziren 1944an konstituzio bera mantentzeko eta junta hori indar errepublikazaleen arteko borroken isla besterik ez zen¹¹¹. Izan ere, euskal abertzaleekin kontatu gabe, *Alianza Nacional de Fuerzas Democráticas* (ANFD) osatu zen Toulousen 1944ko irailean eta, hilabete baten buruan JELEN barna sartu zen. Egoera honetan, 1945eko urtarrilean JELEK Errepublikako erbesteko gobernu

110. Julio Jauregik Francisco Arregiri idatzitako gutuna, Mexiko, 1943ko abenduaren 15a.

111. Irujo, M. (1944): «Política de avestruz», *Euzko Deya*, 29, Mexiko, maiatzaren 2a.

osatzearren erbesteko gorteetako biltzar nagusiaren bilera eskatu zuen. Praktikan Errepublikako gobernuaren kontrolerako erbesteko indar eta talde ezberdinen arteko lehia zen hura.

Zalantzarik ez, zaila oso zen Jaurlaritzaren egoera. Alde batetik, Nazio Batuen Erakundeko bilera baino lehen gobernu errepublikazale baten osaketa beharrezkoa zela aurreikusten zuen Agirrek eta, bestetik, Agirrek ordezkutzen zuen gobernu osatzen zuten indarren gehiengoak euskal herriaren autodeterminazio-eskubidea eskatzen zuen eta zentzu horretan, xede eta asmo politiko horrekin jaio zen Galeuzca. Era berean, Agirrek pertsonalki eta Jaurlaritzak, oro har, ez zuen inoiz parte hartu sozialisten eta komunisten arteko liskarretan eta horrek bai batzuegan zein besteengan solaskide egokia bilakatzen zuen lehendakaria¹¹². Ondorioz, erdiko bidea hartu zuen Agirrek: autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenari eutsiz, gai honen inguruko eztabaida Errepublikako gobernu osatu eta gerorako uztera konprometitu zen lehendakaria. Oro har, erbesteko Errepublikako gobernuak ezarritako xede nagusiekin bat zetozen nazioarteko politika mailari dagokionez Jaurlaritzaren helmuga politikoak. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren lau urratsetan gauzatu behar zen Errepublikaren berrezarpena, hots, San Frantziskoko Biltzarraren eskutik Francoren gobernuko gaitzespena, San Frantziskoko Biltzarran parte hartzen zuten estatuen Francoren gobernuarekiko harreman diplomatikoen etena, Errepublikako gortetan osatutako behin-behineko gobernu errepublikazalearen indartzea eta, azkenik, Nazio Batuen Erakundearen gobernu errepublikazale berriaren onspena.

Azkenik, erbesteko Errepublikako gorteetako lehendakaria zen Diego Martínez Barrios-ek gorteak biltzeko deialdia egin zuen 1944ko azaroaren 13an eta 1945eko urtarrilaren 10ean bildu ziren Mexikon. 72 diputatu etorri ziren eta beste 49k bidali zituzten euren atxikipenak; ezegonkortasun-egoeraz baliatuz Prietoren ildoko diputatuek quoruma ez zegoela aldarrikatuz bilera utzi zuten eta ezin izan zen erbesteko gobernu errepublikazalea osatu. Ondorioz, gobernu errepublikazalea osatu gabe heldu zen erbesteko Errepublika San Frantziskoko bilerara eta horrek nazioarteko politika mailan porrota suposatzen zuen batasun falta adierazten baitzuen.

1945eko apirilaren 25 eta ekainaren 26 bitarte bildu ziren San Frantziskon 50 estatuko 282 ordezkari ofizialak eta haiekin batera beste 1.444 izena hartutako ordezkariak. San Frantziskon ordezkaturik zeuden 50 gobernu horien arteko 26k sinatuta zuten 1942ko *Declaration of the United Nations*. Hala ere, lau ziren estatu hartzaileak, alegia, Bigarren Mundu Gerrako irabazleak eta hauen ordezkariak izan ziren biltzarraren babesleak: Edward Stettinius Estatu Batuetako estatu-idazkaria, Anthony Eden Britainia Handiko atzerri-idazkaria, Vyacheslav M. Molotov

112. Jose Antonio Agirrek Telesforo Monzoni idatzitako gutuna, New York, 1944ko urtarrilaren 31.

SESBeko atzerri-ministroa eta Soong Tzu-wen Txinako atzerri-idazkaria. Oro har, 1944ko Dumnarton Oaks-eko eta 1945eko Yalta-ko Biltzarretan adostutakoaren ildoan Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Ituna sinatu zen San Frantziskon. Guda-osteko mundu politikoaren mapa NBeko Seguritate Kontseiluko bost handien esku geratu zen. «Espainia kasua» ez zen agendaren gai larrien artean baina biltzarrean eztabaidatzeko adinakoa zen.

Junta Española de Liberación eta beste indar errepublikazaleen ildoan baina Jaurlaritzaren izatasun propioari helduz, lau puntutan labur daiteke Agirre lehendakariak San Frantziskoko biltzarrera eramandako mezua:

1. 1936ko gerra herriak hautatutako gobernu demokratiko bat aurrean espainiar indar falangisten altxamenduaren ondorioa izan zela eta Hitler-en, Mussolini-ren eta Oliveira Salazar-en gobernu totalitaristen laguntzari esker bakarrik atxiki zutela matxinatuek garaipena.
2. Franco jeneralaren erregimenak Bigarren Mundu Gerran zehar Ardatzeko erregimenekin estu kolaboratu zuela.
3. Franco jeneralaren espainiar gobernuak Hitler-en, Mussolini-ren eta Oliveira Salazar-en gobernu totalitaristak oinarritzen ziren printzipio eta doktrina politiko antidemokratiko berberetan oinarritzen zela.
4. NBeko Itunaren 2.6 artikuluari jarraiki, espainiar erregimenak nazioarteko bakearentzat arrisku bat suposatzen zuela eta, ondorioz, zigor-neurriak hartu behar zituela NBek.

Izan ere, Jaurlaritzako ordezkariak San Frantziskora iritsi bezain laster helarazi zieten, erbesteko Errepublikako beste indarrekin batera, aurreko printzipioetan oinarritutako gutuna biltzarreko mahai nagusia osatzen zuten goian aipatutako lau ordezkariak. Izan ere, 1945ean piztutako eta 1955 arte luzatuko zen Franco NBetik kanpo mantentzeko gudaren testuinguruan Eusko Jaurlaritzak eta Errepublikako gobernuaren arteko harremana estua izan zen. Halaber, ondotxo bideratu ziren gauzak hasiera batean erbesteratuentzat. San Frantziskoko Biltzarrak ez zuen Franco jeneralaren gobernuak aintzat hartu eta zenbait zigor-neurriri ateak ireki zitzaizkien. Alabaina, ez zuen San Frantziskoko Biltzarrak erbesteko Errepublikako gobernuak aintzatetsi ez baitzegoen hautatutako gobernurik aintzatesteko. Ildo berean, San Frantziskoko Biltzarraren ostean, 1945eko abuztuaren 31n hain zuzen onetsi zuen Mexikoko gobernuak José Giral-en erbesteko Errepublikako gobernuak; irailaren 10ean Guatemalakoak; azaroaren 7an Panamakoak eta azaroaren 8an Venezuelakoak. Uruguai eta beste zenbait amerikar gobernu demokratikok errepublika ofizialki onetsi ez bazuten ere, ez zuten Francoren gobernuak aintzatestetsi.

Errepublikako ministroen kontseiluko lehendakaria zen Juan Negrín Mexikora joan zen eta 1945eko abuztuaren 7an eta 8an izandako bileretan Diego Martínez Barrio gorteetako presidentearekin batera gorteen bilkurarako deialdia luzatu zuten 1945eko abuztuan bertan erbesteko Errepublikako gobernuak behin eta betiko

osatzearren. Abuztuko bilera horretan bertan Diego Martínez Barrio Errepublikako presidente izendatzea onartu zen eta gobernuaren ministroen izendapena gorteen bilkura eta gerorako utzi zen. Hala ere, baziren anitz gai aurretik lotuta, besteak beste, Martínez presidentearen izendapenak Negrín lehen ministroaren ordezpena zekarren, José Giral lehen ministro izateko hautagai logikoena bilakatu. Era berean, Eusko Alderdi Jeltzaleko kide bat nahi zuten indar errepublikazaleek gobernuko ministroen artean eta hautagai logikoa Manuel Irujo zen.

Aldiz, Irujok zein EAJko Euskadi Buru Batzarrak autodeterminazio-eskubidearen onespina exijitzen zuen EAJko ministro bat gobernu errepublikazalean izateko ezinbesteko baldintza gisa. Telesforo Monzon Jaurlaritzako Mexikoko ordezkariak Irujorekin bat egin zuen, bai eta, oro har, Mexikoko EAJko batzarrak. Are gehiago, Euskal Herrian barna zein erbesteko EAJko erakundeei eta hainbat laguni gai honen inguruko kontsulta egin nahi zien Euskadi Buru Batzarrak. Bost ziren ministro izateari baietza emateko Irujok paratutako baldintzak:

1. Askatasun erlijiosoa behar zuen Errepublikako gobernuak onetsi.
2. Jada Galiziako herriak demokratikoki onartutako estatutua behar zuen Errepublikako gobernuak onetsi.
3. Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako gobernuekin «régimen especial transitorio» delako estatutua behar zuen Errepublikako gobernuak onetsi.
4. 1932ko estatutu-proiektuaren ildoan, Nafarroa behar zuen integratu Euskal Herriko estatutu berriak.
5. Autodeterminazio-eskubidea behar zuen Errepublikako gobernuak onetsi.

Bere aldetik, Mexikora abuztuaren 25ean iritsi zelarik, autodeterminazio-eskubideari uko egin gabe, debatea gorteen bilera eta gero mahaigaineratzea jarraitzen zuen proposatzen lehendakariak¹¹³. Joseba Rezolaren hitzetan: «*hay mucha gente que se aferra a estas instituciones, creo yo que orientadas contra nosotros. Considero que por los socialistas españoles en Francia y en México; y me parece que no debemos desaprovechar ninguna oportunidad para decir, como es cierto, que la Constitución y el Estatuto están muertos y que no es posible resucitarlos (...). Hay que tener en cuenta que nuestra gente tiene una idea equivocada del Estatuto. Muchos creen que el Estatuto es lo que nosotros disfrutamos durante la guerra, y no dándose cuenta de que entonces vivíamos en una situación de casi independencia, la decepción que se llevarían si se dieran cuenta de que se va a retroceder en esta materia en el grado que propone el Estatuto, nos sería muy perjudicial*»¹¹⁴. Azkenik, Jaurlaritzan agerrera zuen Eusko Abertzale Ekintzak ere ez zuen begi onez ikusten aurreko gobernuaren osaketa.

113. Telesforo Monzonek Doroteo Ziaurritzi bidalitako telegrama, Mexiko, 1945eko abuztuaren 21a.

114. Joseba Rezolak Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna. 1945eko irailaren 15a.

Diego Martínez Barrio presidente hautatu ondoren abuztuaren 27an aditzera eman zen, *Izquierda Republicanako* José Giral lehen ministro, gobernu errepublikazale berriaren zerrenda. Bertan zen Manuel Irujo (komertzio) bai eta *Acció Catalana Republicanako* Lluís Nicolau D'Olivera (zehaztu gabeko ministerioa) eta *Esquerra Republicana de Catalunyako* Miguel Santaló (hezkuntza). Hala ere, Irujoren baldintzei ez zitzaien erantzunik eman eta, ondorioz, ez zuen kargua onartu. EAJko ministro baten izendapenak kritikak sortu zituen EAJren barruan ere bai, ez baitzen kontsulta behar bezala bideratzeko denborarik izan eta, alderdiaren iritzia jaso baino lehen emandako urratsa zen. Leizaolaren hitzetan, «*tenían cierto resquemor porque, habiéndose ellos dirigido en consulta a personalidades del partido y a gente del interior respecto a la constitución del gobierno de México, la noticia de la constitución de éste llegó antes de que ellos hubieran pasado ningún cable a México*»¹¹⁵. Nolabait ere, Irujoren eskakizunei bidea ireki ondoren eman zion gobernuan egoteari baietza ministro nafarrak. 1945eko abuztutik 1947ko otsaila arte izango zen José Giral Errepublikako lehen ministroa eta 1945 eta 1962 bitarte Diego Martínez Barrio presidentea. Azken honekin eta Indalecio Prietorekin izandako desadostasunak zirela medio, 1946ko apirilaren 23an bota zuten Juan Negrín PSOEtik.

1945eko urriaren 20an, Mexikon, Miguel Amilibiak (Gipuzkoako PSOeko diputatu ohia) eta Antonio Huertas-ek (CCSEko idazkari ohia) Santiago Aznar Jaurlaritzako ministro sozialistaren *Euskal ildo nazionalaren* jarraipena kritikatu zuten bai eta PSOeren baitan kokaturiko *Partido Socialista Obrero Vasco* baten osaketa defendatu ere bai. Azkenik Santiago Aznar Jaurlaritzatik kanpo eramango zuen PSOeren krisialdiaren lehen urratsak ziren hauek.

3.7. PARIS, 1946-1956/60. NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO GUDA

Mexikon gobernu errepublikazalea EAJko ministroarekin osatu ostean New Yorkera itzuli zen lehendakaria eta hortik Parisera 1946ko otsailaren 9an, José Giral Errepublikako presidentea baino egun bat geroago. Urte baten buruan, 1947ko otsailan alegia, Rodolfo Llopis Ferrandiz izan zen Errepublikako presidentea eta Irujo, berriz ere, justizia-ministroa. Euskal erbeste politikoaren aro berri bati hasiera emanez, 1975 arte Parisen egongo zen finkatuta Jaurlaritzako egoitza nagusia.

Bigarren Mundu Gerraren aliatuen aldeko Jaurlaritzaren jarrerak eta Ardatzaren suntsipenak ez zuten —espero zitekeenaren kontra— Francoren uzkaileza erakarri. Munduko Gerrak iraun zuen bitartean aliatuek hitzartutako lau funtsezko dokumentuetan zuen uste honek oinarri, hots, 1941eko Atlantikoko Hitzarmena, 1943ko Teheraneko bilkuraren adierazpenak eta 1945eko Ialtako eta Potsdameko bileretako hitzarmenak. Ordurako desagertutako Nazioen Elkarte zaharrari

115. Jesús María Leizaolak Jose Antonio Agirreri idatzitako gutuna, Paris, 1945eko urriaren 20a.

jarraipena emango zion Nazio Batuen Erakunde berria eta itxaropentsua dugu nazioarteko politikagintzako antzoki nagusia. Bertan egingo zuten Errepubli-kako gobernuak eta Jaurlaritzak indar orduko Francoren erregimen sasifaxistako isolamendu diplomatikoa gauzatzearren.

Nazio Batuen Erakundearen baitan Francoren erregimenaren agenteekin libratutako lehiak ezinbestekoa egiten zuen nazioarteko erakundean ordezkariak zituzten herrialdeen gobernuekin harreman instituzionala gauzatzea. 1945eko San Frantziskon Biltzarrean eta aurretik ere aliatuek espainiar gobernuarekiko jarrera irmoa aurkeztu bazuten ere, garbi azaldu zitzairen erbesterratu errepublikazaleei 1946an Londresen bildu zen I. Biltzar Nagusian gogor borrokatu behar zituztela espainiar erregimenaren kontra herrialde ezberdineko gobernuen botoak jadesteko. Jaurlaritzako ordezkariak enbaxada bilakatu zituen ardura dugu hori. Juan Domingo Perón koronelaren 1946 eta 1955 bitarteko Argentinan edo Marcos Pérez Jiménez 1952 eta 1958 bitarteko Venezuelan ez bezala, Jaurlaritzako ordezkariak herrialde demokratikoetako indar politikoen laguntza eskuratzea lortu zuten orokorrean, hala nola Uruguain edo Mexikon. Azken kasu hauetan gobernuaren inplikazio zuzena, laguntza eskuzabala eta elkarkidetza osoa eskuratu ahal izan zuen Euskadiko Gobernuak. Uruguaiako kasuari dagokionez, mende-hasieratik eta 1959 bitarte boterean egon zen *Colorado* zentroko alderdiaren eta *Unión Cívica* alderdi kristau-demokrataren sorospena izan zuen Jaurlaritzako ordezkariak. *Colorado* alderdiaren laikotasunaren aurrean, *Partido Nacional* edo *Partido Blanco* alderdi kontserbadoreko zenbait aitzindariak, ordea, begi onez ikusten zuten espainiar erregimenaren katolizismoa eta, Guda Hotzaren areagotzearekin, «arrisku gorriari» aurre egiteko aliatu gisa ikusi zuten Espainiako estatua.

Nolanahi ere, 1941az gozotik Ameriketako herrialde ezberdinetan antolatutako ordezkariak eskutik ahal bezainbeste agerrera eta indar izaten saiatu zen Jaurlaritza. Jarraibide honi eutsiz 1947an osatu zuen Jaurlaritzak *Euzko Izpar Banatzea - Oficina de Prensa de Euzkadi* (EIB-OPE) prentsa- eta informazio-zerbitzua Joxe Mari Lasarteren zuzendaritzapean. Zeregin ezin garrantzitsua zuen Euskal Prentsa Bulegoak. Prentsa-zerbitzuarekin batera sortutako *Euzko Izpar Banatzea* agerkariaren helburu guztien artean bi ditugu nagusi. Alde batetik, Euskal Herriaren gatazka eta borroka politikoari amerikar herrialdeetako prentsan leku bat egitea. Izan ere, idaztea baino irismen handiagoko zeregina zen hura, Amerikan euskaldunen eskubide politikoen eta historikoen aldeko eta Francoren erregimenaren kontrako iritzia publikoa mugiaraztea zuen xede nagusi. Bestetik, Ameriketako herrialde ezberdinetan korrespondentzialak izendatuz, *Euzko Izpar Banatzea* izango zen ordutik Jaurlaritzaren atzerriko berri-emaile eta aldizkari ofiziala. Bertan izango zuten isla, korrespondentzialen eskutik, Ameriketara zein Europan euskal erbestearekin lotura zuten albisteez. Parisko *Euzko Deya* aldizkariarekin batera, atzerriko euskaldunentzat barne-informazio iturri eta barne-komunikazio bide ezin hurbila eskaini zuen urtetan *Izpar Banatzeak*. Uruguaiako kasuari dagokionez, 1947

eta 1955 bitarte Ametzagak idatzitako 208 artikulua iritsi zaizkigu. Hamabi urteko epean 600 artikulutik gora argitaratu zituen Jaurlaritzako Uruguaiako ordezkariak Montevideoko prentsan, astean behin artikulua bat hain zuzen. Euskal erbestearen kasuaren zilegitasuna eta Francoren erregimeneko gehiegikeriak eta zitalkeria salatu zituzten behin eta berriro *El Plata*, *El País*, *El Bien Público* edo *Lealtad* egunkariak. Itzela benetan eta eskuzabala, aipatutako Uruguaiako *El Plata* eta *El País* edota *El Nacional* Venezuelako egunkariak euskal erbestearen alde urtetan eta urtetan eskainitako laguntza. Artikulu mordo honekin batera, atzetik dagoen lana dugu aztergai interesgarriena. Herrialde bakoitzeko prentsa erakarri eta bere egin behar zuten Jaurlaritzako Ameriketako eta Europako ordezkariak.

Bost ditugu 1946tik 1949ra Jaurlaritzaren Nazio Batuen Erakundeko lehiaren esparruan susperturiko jarraibide politiko orokorrak:

1. Euskal Herrian erresistentzia bizitu, finantzatu eta koordinatu.
2. Amerikako eusko etxeen ekimena bateratu.
3. Aipatutako *EIB-OPE* informazio- eta prentsa-zerbitzuak osatu.
4. Espainiar Errepublikako atzerriko gobernuarekin nazioarteko mailan kolaborazio instituzionala bermatu.
5. Nazio Batuen Erakundean eta Europar Komunitateetan nagusiki zentratu-riko nazioarteko politikan parte-hartze biziari eutsi.

Euskal Herrian barneko erresistentzian baino protagonismo zabalagoa izan zuen noski Nazio Batuen Erakundeko lehiari amerikar erbesteak. 1947 eta 1951ko grebetan diru-emari izugarria eta esfortzu nabarmena egin bazuen ere eta, halaber, Bigarren Mundu Gerraren ostean, 1945ean eta 1946an Iparraldeko kaltetuen alde lan itzela egin bazen ere, Nazio Batuen Erakundeko hamar urteko lehiari eman zuten dena Amerikako eusko etxeen inguruan bildutako Jaurlaritzako ordezkariak.

Aipatutakoaren ildoan, garai ezberdinak bereiz daitezke Francoren erregimenaren kontrako Nazio Batuen Erakundearen baitan gauzatutako nazioarteko eraso diplomatikoan:

1. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondorengo lehen bi urteetan, alegia, 1945 eta 1947 bitarte, gaitzespen gogorra eta isolamendu diplomatikoa jasan behar izan zuen Francoren erregimenak. San Frantziskoko maiatzeko Biltzarren ostean, 1945eko abuztuaren 31n onetsi zuen Mexikoko gobernuak José Giralen Errepublikako gobernuak; irailaren 10ean Guatemelakoak; azaroaren 7an Panamakoak eta azaroaren 8an Venezuelakoak. Uruguaiak eta beste zenbait amerikar gobernu demokratikok errepublika ofizialki onetsi ez bazuten ere, ez zuten Francoren gobernu faxista inoiz aintzatetsi.

2. Trantsizio-urteak dira «Espainia kasuari» dagokionez 1948 eta 1949. Perón agintariaren adibidearen irudira Francoren erregimenari ezarritako zigorraren ezeztapena eskatzen hasi ziren hirugarren blokea osatzen zuten Nazio Batuen Erakundeko zenbait herrialde. Bestetik, ez dugu ahaztu behar inposatutako isolamendu diplomatikoa ez zela derrigorrezkoa, nazioarteko erakundeko Biltzar Nagusiak baietsitako gomendio soila baizik.
3. Azkenik, Guda Hotzaren itzalean erregimenaren onespena lortu zuen Espainiako estatuak 1950 eta 1955 bitarte. 1946ko abenduaren 12an Nazio Batuen Erakundeko Lehen Biltzar Nagusiak onetsitako neurriak eta errefusa politikoa baliogabetu zituen 1955eko Nazio Batuen Erakundeko X. Biltzarrak.

Baziren 1950ean hainbat eta hainbat diktadura nazioarteko NBEren baitan, Francorena beste bat besterik ez zen. Eta NBEko kontrol politikoa lortzearren Mendebaldeko blokeari (bai eta Ekialdekoari ere) ez zitzaion axola Nazio Batuen Erakundeko gutunaren espiritua eta letra arras urratzen zuen jokaera «praktikoa» zela-eta, diktadura hauen laguntzarekin *realpolitik*s jostatzea. Ondorio zuzena, espainiar erregimenaren hamar urteko autarkia-garaiaren amaiera eta, hortaz, Francoren diktaduraren egonkortze ekonomikoa eta sendotze politikoa, alegia, euskal erbestearen 1950 eta 1975 bitarteko luzamendua. 1950ean lehen aldiz jakin zuten Jaurlaritzako kideek atzerrialdiaren iraupen latzaren egiazkotasunari aurre egin beharko ziotela, alegia, Franco hil arte Franco izango zela boterean. Zaharrenek Euskal Herria berriz ere ikusteko ametsak baztertu behar izan zituzten; 1960tik aurrera borrokaren testigua hartzeko beharra aurreikusi zuen gizaldi berriak. Barne-indar politiko eta ekonomiko soiletan oinarriturik, erresistentziaren eskutik Euskal Herrian bertan berretu zituen Jaurlaritzak baliabideak, indarrak eta nekeak. Nazioarteko politikagintzak, barne-lan kulturalaren itzalean indarra galdu zuen, nahiz eta, noski, prentsa- eta diplomazia-lanak bai Ameriketara bai Europara ere mantendu eta bultzatu.

Guda Hotzaren testuinguruan 1947an *National Security Act* delakoari jarraiki *Central Intelligence Agency* (CIA) martxan jarri zenetik Eusko Jaurlaritzarekin zuen harreman instituzionalaren haustura izan zen erakunde amerikarraren helburu nagusia euskal politikarekiko. Koreako Guda ikusmiran eta, hortaz, Guda Hotza pil-pilean zegoelarik, ez zuen estatubatuar gobernuak Ameriketako alderdi eta talde sasifaxisten inguruan informazio gehiago behar, ordea eskuinetik ezkerrera abiatu zituen interesak: eta Eusko Jaurlaritzak ez zuen interes bera. Bestalde, Guda Hotzaren larriagotzeak 1941ean Estatu Batuetako zerbitzu ezkutuetan suspertutako zentralizazio-prozesua bizkortu zuen. Irismen zabalagoak utzi zituen erakundeko zuzendariaren esku 1949ko ekainaren 20an Harry S. Truman presidentearen kabineteak onetsitako *Central Intelligence Agency Act* dekretuak. Autonomia administratibo honekin lotuta, askatasun estrategiko ezin zabalagoa eskaini zion CIAko zuzendaritzari ezkutuko diruaren kudeaketak. Ez zuen, ordea, erabat ezeztu

Jaurlaritzak estatubatuar zerbitzu ezkutuekin zuen kolaborazioa eta, 1960tik aurrera harremanak jarraitu zituen izaten berriro, nahiz eta 1941 eta 1949 bitarte izandakoen irismenekoak ez izan.

Erbeste politikoari dagokionez, ondorio ezin latzagoa erakarri zuen Jaurlari-tzaren atzerri politikagintzan Guda Hotzak. Estatu Batuetako kongresuan zuen gehiengoari eutsiz, Harry S. Truman presidente demokrataren gobernuak zerbitzu ezkutuen eskutik Jaurlari-tzarekin zuen elkarkidetzaren errota usteltzen joan zen 1947az geroztik alderdi errepublikazalea. Horrekin batera, base militarren eraikitzearen eta komunisten aurrean beste aliatu sendo bat Europar finkatzearen Francoren gobernuarekin harremanak estutzearekin hasi ziren Joseph MacCarthy bezalako zenbait senatari errepublikazale. 1955eko Nazio Batuen Erakundeko X. Biltzar Nagusiak 1946ko abenduaren 12ko I. Biltzarreko Francoren Espainiari ezarritako zigor-neurriak baliogabetu ondoren, mendebaldeko Europako defentsa estrategikoaren egitasmoak Espainiako estatua barne hartzea lortu nahi zuen Estatu Batuetako ordezkarien ganberako alderdi errepublikazaleak. 1951ko urtarrilean mahaigaineratu zuen Mac Carthyk amerikar armadako indarrak Europara bidaltzeko beharra lehen aldiz. 1950ean Koreako gatazka lehertu ondoren Stanton Griffis estatubatuar enbaxadorea Madrilera bidaltzera behartu zuten Truman errepublikazaleek. Izan ere, Estatu Batuetako kongresuak eta senatuak Francorekiko harremanak estutzeko onetsitako zenbait neurri mantendu zituen administratiboki baratuta Trumanek, besteak beste, behin Dwight D. Eisenhower 1953an presidente hautatuta izan ondoren Francorekin sinatutako hitzarmen ekonomikoa eta militarra. NATOko europar kideek eragotzi zuten Eisenhower jeneralaren gobernuko iritziaren kontra Francoren erregimeneko sarrera Ipar Atlantikoko Itunean. Barnepolitikari dagokionez MacCarthy senadorearen eskutik sorgin-ehizari ireki zizkion atak Eisenhower presidente errepublikazalearen gobernuak. «Eisenhower doktrinari» eutsiz, Francorena bezalako zenbait eskuindar eta ultrakontserbatzaile erregimenekin gauzatu zituen akordio militarren eta komertzialak John Foster Dulles estatu-idazkariak. Laburbilduz, hurrengo urratsetan bukatu zuen lankidetzarekin Estatu Batuetako alderdi errepublikanoak:

- 1947 *Drumbeat report* pasatu zion estatubatuar armadak Truman presidenteari. Txosten honek Franco ez zela inoiz gehiago etsaia baizik eta aliatu potentziala aditzera ematen zuen eta lehen aldiz Espainiako estatuan base militarren jartzearen ideia mahai gaineratzen zuen. Trumanek «*I won't fight Tyranny with Tyranny*» erantzun eta bertan behera geratu zen proiektua.
- Hala ere, 1948ko abendu aldera CIAren eta Jaurlari-tzaren arteko lehen liskarrak hasi ziren sumatzen. Herrialde ezberdinetako lehen oharra jaso zituen Lehendakari-tzak. 1949ko martxo aldera harremanak etenean geratu ziren zenbait puntutan.

- *Sorginen Ehizaren (Wich-Hunt)* estrategia politikoaren hastapenaren tesuinguruan eta, Estatu Batuetako kongresuan alderdi errepublikanoak irabazi zuen gehiengoari eutsiz, Francoren kontra hartutako 1946ko zigor-neurrien balio gabetzearen alde agertu ziren alderdi errepublikanoko zenbait ordezkari (senatuan zein ordezkarien ganberan) euren artean, Pat Mac Carran, Styles Bridges edo Joseph Mac Carthy.
- 1953an kongresuaren gehiengoaren kontra Truman kabinete demokratikoa eman ez zuen urratsa eman zuen Dwight D. Eisenhower presidentearen gobernu errepublikar berriak, hots, espainiar erregimenarekin 1953ko iraileko akordio ekonomikoak sinatu. Nahiz eta 1949tik negoziaketak hasita egon, atzeratu zituen, behin eta berriro, Trumanen gobernu demokratikoa.
- 1954an Jaurlaritzarekin kontaktuak biziagotzeko ahalegina egin zuen estatubatuar administrazioak. Ez zuen luze iraun ordea, 1954an bertan atzera eman zuten berriz ere estatubatuar zerbitzu ezkutukoek. Halaber, 1949an gertatutakoa gogoan, zuhur eta mesfidati ibili ziren ere amerikar ordezkarietako euskal agente taldeak. Azkenik, 1955ean Franco onartu zuen Nazio Batuen Erakundeko X. Biltzar Nagusiak Estatu Batuen eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren aldeko botoekin.

Horrek, noski, azkendu zituen Jaurlaritzako zerbitzu ezkutuekin estatubatuar zerbitzuek zortzi bat urtez izandako harremana. Halaber, 1955az geroztik agortu arte idortzen joan zen Jaurlaritzaren eta espainiar gobernu errepublikazalearen arteko kolaborazio instituzionala. Hortik aurrera, izan ere, 1949ko krisialdi politikoaren eta ekonomikoaren ondoren, autarkiari eutsi behar izan zion Jaurlaritzak. Politiko-ki, Franco uzkaileko Nazio Batuen Erakundeko guda galtzea dugu Estatu Batuetako gobernu errepublikanoaren itzulinguruaren lehen ondorioa. Bestetik, ezin ahanzi Jaurlaritzak 1941ean ezarritako ildo politiko nagusiei dagokienez, azken honek baino eragin zuzenagoa eta zorrotzagoa izan zuen alderdia, hots, estatubatuar gobernuaren erabakiak Jaurlaritzarengan erakarritako itotze ekonomikoa. Uruguairi dagokionez, 1948ko irailetik hasita urte eta erdiz luzatu ziren Jaurlaritzako eta CIAko ordezkarien arteko liskarrak. 1950eko apirilean amaitutzat eman zuten amerikarrek elkarlana. Inoiz aterako ez zen krisialdi ekonomiko larrian murgildu zuen erabaki horrek zenbait amerikar ordezkari eta, horrekin batera, ordezkariak martxan zituen zenbait ekimen. Adibidez, urte oso batez etenean utzi zuen Montevideoko ordezkariaren lana gertakariak, 1951ko maiatza eta 1952ko ekaina bitarte alegia. 1955ean Bingen Ametzaga ordezkaria Venezuelara joan arte iraun zuen, zenbait gauza bidean utziz, Uruguaiako euskal erbeste politikoaren aro bat.

1941 eta 1949 bitarte eutsitako strategiari norabide berri bat eman behar izateak eztabaida sortu zuen amerikanisten eta europeisten artean Jaurlaritzaren baitan. Eztabaida estrategikoa izan zen hau, ez ideologikoa. *Euzko Deya* Paris

egunkariko zenbait iruzkingilek ikuspegi falta edota gehiegizko baikortasuna leporatu zioten Anton Iralari edo Jesús Galíndezi. Era berean, estatubatuar ezkutuko zerbitzuekin itun politikoa ez sinatzearen ondorioztat hartu zuten beste batzuek. 1955ean Jesús Galíndezek Bingen Ametzagari luzaturiko gutunetan eta *Euzko Deyan* idatzitako artikuluetan estatubatuar gobernuaren jokabidea zurriz saiatu bazen ere, ezin zitzairen leporatu Jaurlaritzako ordezkariari 1946an Francoren bizi-raupena ez aurreikustea; bestetik, zuzen zen Galíndez Francorekiko estatubatuar eta britainiarren jarrera ez zela hamar urtetan aldatu esatean; izan ere, beti agertu ziren herrialde biak isolamendu diplomatikoaren eta boikot ekonomikoaren kontra. Halarik ere, 1950ean Francori ezarritako zigor-neurriak Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusiak ezeztatu eta gero, 1953an Vatikanok Konkordatu eta Estatu Batuek hitzarmen ekonomikoak erregimenarekin sinatu ondoren eta, azkenik, 1955ean Estatu Batuek Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunarekin espainiar estatuaren sarrera itundu ostean, Jaurlaritzako zenbait kidek agertutako baikortasuna gogor gaitzetsi zuten europeistek. Ikusi dugun bezala, garden azaltzen zuten Lasartek edota Irujok Ametzagari zuzendutako gutunetan Europarantz Jaurlaritzak egin beharreko itzulera estrategikoa. Europar estatuak jarri zioten betoa Franco NATOn sartzeko estatubatuar proposamenari eta europar estatuak ukatu zioten Francoren erregimenari 1957ko Erromako bilkuretan osatutako Europar Elkarte Ekonomikoan eta 1958an sortutako Europar Parlamentuan eserlekua eta abotsa. Ildo berean, 1951n Europako atak irekitzen zizkion Jaurlaritzari Europako Mugimenduaren Kontseiluak.

Ez zuen Jaurlaritzak 1938an eta, Bigarren Mundu Gerraren ostean 1946an Marçeau kaleko egoitzan finkaturiko jomuga nagusia gauzatu, hots, Franco jeneralaren erregimen sasifaxista uzkaile arte erbestetik ahultzea. Ordez, 1941etik hasita Euskal Herrian erresistentzia urtez urte biziagotuz sare politiko egonkor eta egituratu bat osatzea lortu zuen Jaurlaritzak; izan ere, 1975 arte handitzen eta zabaltzen joan zena. Bestetik, 1941etik aurrera nazioarteko politikagintzan Euskal Herriko eskubide historikoak eta politikoak Ameriketara eta Europan mahai gaineratzea eta zabaltzea lortu zuen ere. Azkenik, Amerikako eusko etxeak Euskal Herriko borroka politikoaren inguruan batu eta euskal etxeak eta euskal erakundeak lotzen zituen nazioarteko erakundea suspertu, osatu eta bultzatzea lortu zuen ere Euskadiko erbesteko gobernuak. Hiru xede politiko nagusi hauekin batera, 1978an Espainiako estatuko konstituzio berria eztabaidatzean, berrogei urtez eutsitako eta defendatutako programa egituratua, egonkorra eta aurrerakoia aurkeztea ahalbidetu zuen Jaurlaritzaren jarraibide politikoak. Jesús Leizaola Lehendakariak Garaikoe-txeari Gernikan testigua eman arte, giza eskubideei eta euskal herritarren autode-terminazio-eskubide politikoari eta identitate historiko eta kultural bereziari eutsiz, berrogei urtez bizkor, batu eta sendo, nazioarteko politika mailan aktibo iraun zuen erakunde errepublikazale zilegi bakarra dugu Jaurlaritzak.

Estatubatuar zerbitzu ezkutuekin 1949an bertan behera geratutako kolaborazio-akordioak 1949ko krisialdi ekonomikoa eta 1949ko erbestea eragin zuen; erbeste amerikarra dugu 1949koa nagusiki. 1936ko uztaileko estatu-kolpeak eragin zuen lehen euskal erbestea Arabatik eta Nafarroatik Gipuzkoara eta Bizkaira; 1937ko ekainaren 19an Bilbo faxisten esku geratzean Kataluniako eta Iparraldeko erbesteari ekin zioten milaka euskal herritarrek. 1939ko irailean Bigarren Mundu Gerra piztu aurretik eta naziek 1940ko ekainean Paris garaitu baino lehenago izan zuen hasiera 1939 eta 1949 bitarteko hamar urteko euskal erbeste politikoak. Esan bezala, nazien eskuetatik iheska, 1939ko otsailean hartu zuten lehen itsasontziek Ameriketako bidea eta 1942an heldu ziren Amerikara *Alsina* eta *Nyassa* berrogei bat urteko atzerrirantz erbesteratu multzo handiak zeramatzaten azken itsasontziak. 1949an Jaurlaritzako zerbitzu ezkutuetan lan egiten zuten kideak geratu ziren, egun batetik bestera, lanik gabe, eta Jaurlaritza diru-iturri garrantzitsuenik gabe. Egoera honetan, inongo funtsik gabe, zenbait lagun —Lasarte, Ametzaga edota Galíndez bezala— Ameriketako edota Europako herrialde batetik bestera lan bila joatera behartu zituen edota herrialde bate barruan lanbide berri baten bila ekitera.

Era berean, sorburu, kutsu eta ondorio politikoak zituen euskal erbeste politikoarekin batera, 1946 eta 1965 bitarteko atzerriratzea ekonomikoa dugu. Eusko etxeetatik at zenbait euskal herritarrek pairatu zuten migrazio ekonomiko apolitikoa dugu hau, 1947tik hasita eta hogeitaz bat urtez Ameriketako kostetara iritsi zena. Itsasontzietatik iheska, erregimenaren miseria politikotik eta ekonomikotik alde egin nahian Ameriketara bizi berri baten ametsari eutsi zioten zenbait gaztek. Bestalde, amerikar estatuen babes politikoak eta sorospen ekonomikoa erakarri zituen zenbait euskal etorkin. Aipagarria, esaterako, 1949ko abenduaren 20an Uruguaira heldu zen *Tacoma* itsasontziaren kasua. Rafael Zabaleta abeltzainaren eta Alberto Zubiria barne-ministroaren eskuz aurretik sinatutako lan kontratuarekin *Asociación Nacional de Productores de Leche* erakunderako lan egiteko heldu ziren 62 euskal seme aipatutako itsasontzian Montevideora. Bi urte pasatu ondoren kontratu finkoarekin eta uruguaitar naziotasunarekin bertan geratzeko aukera eskaini zitzaion. Ez zuten zorte bera beste askok; izan ere, hilabetez hilabete, ehunaka gaztek egiten zuten ihes zamaontzi frankistetatik Ameriketako kostetan.

Zalantzarik ez, isla handia izango zuen 1950etik aurrera Eusko Jaurlaritzak diseinatutiko plangintzan 1949ko krisialdiak. Ordura arte nazioarteko politikagintzan Nazio Batuen Erakundeko lehia izan bazen ere Jaurlaritzaren lehen ardura, ez zen inoiz gehiago garrantzizko ekimen-eremua izango. Goian esandakoaren ildoan, Errepublikako gobernuarekin eta azken honekin Jaurlaritzak zituen harreman instituzionalekin amaitu zuen, bidenabar, nazioarteko politikagintzaren porrotak. Halaber, erabateko birmoldatze ekonomikoari ekin behar izan zion Jaurlaritzak larri. Bi izan ziren ildo honetan ondoriorik latzenak. Alde batetik, birmoldatze administratiboaren arazoa mahaigaineratu zuen langilieriaren murrizketa izugarria suposatu zuen. Bere gutxiengora iritsiko zen 1952an Agirrerren gobernuko

langileria eta, ondorioz, Ameriketara edota Europako beste herrialdeetara jo behar izan zuten Jaurlaritzako zenbait kidek. Esaterako, krisialdi ekonomikoaren efektuz bata zein bestea Venezuelara lan bila joan zirelarik, Caracasen topatuko ziren 1955ean berriz ere Joxe Mari Lasarte eta Bingen Ametzaga. Bestetik, baina aurrekoarekin lotuta, Jaurlaritzako birmoldatze finantzarioari ekin behar izan zion Agirreren gobernuak. Izan ere, lur-jotze gorrian utzi zuen Jaurlaritza 1950eko itoaldiak. 1937tik Jaurlaritzak jasandako kanpo-dependentziaren eragin zuzena, Jaurlaritza barnetik finantzatzeko eta kudeatzeko berezko sistema aproposarekin eman arte finantza-iturri autonomo berriak aztertu behar izan zituzten adituek. Manuel Irujok Ametzagari 1950eko urrian adierazitakoaren harian, estatubatuarren edota Errepublikako laguntzak alde batera eta bestera utziz, euskal kapitalak mantendu beharko zuen aurrerantzean euskotarren gobernuak. Diru-iturri fidagarria, gerora begira iraunkortasun eta egonkortasun finantzario handia eskainiko zion aurrekontu-orekaren behar estuan zegoen Jaurlaritza. Aztertuko dugun bezala, 1950eko ekainean, estatubatuar zerbitzu ezkutukoekin izandako haustura eta bi hilabetetara kaleratu zuen Ameriketako ordezkariari zuzendutako isilpeko zirkular baten bitartez jesapeneko ideia Jaurlaritzak: elkarte bat bezala, ordezkariak eta eusko etxeen laguntzaz, zenbait lagunek diru-emariak emango zituzten eta hamar urtez diru horrek emandako interes edota irabazkiekin mantenduko zen Jaurlaritza erbestean. Urtero-urtero egingo ziren, bada, diru-bilketak Ameriketako puntu ezberdinetan, Caracasen nagusiki. Eta hau izan zen Jaurlaritza atzerrian mantentzeko mekanismo finantzarioa 1979 arte.

Itzalean utzi zituen Eusko Jaurlaritzaren zenbait asmo estrategiko 1949an Guda Hotzak. Berriz ere 1941 baino lehen bezalaxe Europarantz begira eta Euskal Herrian erresistentziaren ekimenak biziagotuz, indar hartu zuen erbesteko ekintza kulturalak. Izan ere, helmuga, amets eta xede ezberdineko hirugarren aro bati ekin behar izan zion 1949az geroztik euskal erbeste politikoak. 1955 eta 1960 bitarteko trantsizio-urteak eta gero, Parisko helburu orokorrak mantenduz, kudeaketa administratiboaren, harreman instituzionalaren eta nazioarteko politikagintza ezberdinaren eskutik ekin behar izan zion hirurogeiko hamarkadari aurre Jaurlaritzak. Hemezortzi urteren ostean amerikar erbesteko lehen aroa xahutu zuen krisialdiak.

Egoera honetan gauzatu zen Agirre lehendakariaren gobernuko azken ekitaldietako bat, alegia, Parisen 1956ko irailaren 23 eta 29 bitarte bildu zen *Congreso Mundial Vasco* biltzarra. Izan ere, erbesteak 20 urte egiten zituenean, 1950-55 krisiaren aurrean ekintza politikoaren eta kulturalaren ildo berriak eta norabide berriak aurkitzea izan zen biltzarraren zeregina eta helburu nabarmenena. Ildo honetan, 1947ko eta 1951ko greba nagusien harira, Eusko Jaurlaritzaren borroka politikoa 1940an bezala berriz ere Europara erakartzea izan zen helburuetariko bat, bai eta Euskal Herrian bertan erresistentzia politikoa eta ekintza kulturala suspertzearena.

Maiz adierazten ez den bezala, garaiz egin zen 1956ko Parisko biltzarra, arras eraldatzen hasiko baitzen 1958an eta hirurogeiko hamarkadan zehar Mendebaldeko herrialdeetako gizartea eta euskal gizartea ere bai noski; izan ere, Juan XXIII.ak antolatutako II. Vatikanoko kontzilioak (1962-65) eman zion eliza katolikoari bultzada eta giro berria, John F. Kennedy presidenteak (1961-63) susperturiko misilen krisialdiaren osteko Estatu Batuetako eta Sobiet Batasuneko politikagintzako aldaketak eragin zuzena izango zuen Guda Hotzaren berotzean, Mendebaldeko gizartean gauzaturiko garapen sozialak eta ekonomikoak Euskal Herrian barna eragin zituen ere aldaketak... eta, gauza hauekin guztiekin batera, euskal erbesteko gizaldiaren erreleboa gauzatuko zen 1960an Jose Antonio Agirre lehendakariaren heriotzaren ondoren: helburu politiko berriak, Euskal Kulturaren Alde (EKA) elkartearen eta beste hainbeste talde kulturalen eskutik ekintza kulturalaren bultzada, *Eusko Gaztedi Indarra Caracas* taldearen osaketa eta, oro har, Venezuelako hiriburuko eusko etxean hirurogeiko hamarkadan zehar eta diktadorea hil arte bultzatutako ekintzak, lehenengo Aberri Egunak, ETAREN sorrera... euskal erbesteko garai berri baten hastapenaren isla ziren,

En cualquier caso, la ecuación política comenzó a hacer aguas cuando, todavía en plena contienda mundial, el gobierno británico firmó los primeros acuerdos de colaboración financiera con el régimen del general Franco. Y aún antes, durante el pusilánime arbitrio internacional del Comité de No-Intervención, antes y después de los bombardeos de Gernika y Durango. La lucha contra el totalitarismo no supuso a la larga, posición alimentada desde una óptica de política utilitarista e incluso mercantil del conflicto, la lucha en pro de la democracia en Europa. Desde una perspectiva fundada en criterios ideológicos resultaba ciertamente difícil prever que los acuerdos entre la Francia Libre de De Gaulle y el Consejo Nacional de Euzkadi fueran a ser censurados y posteriormente prescritos por el gobierno británico o que, a la postre, el régimen español iba a ser admitido por la Rusia soviética en el seno de las Naciones Unidas a cambio del ingreso de un puñado de estados satélite¹¹⁶.

Jose Ignazio Lizasok Jaurlaritzako Londreseko ordezkariak jarri zuen bezala, aliatuek —nagusiki Estatu Batuek eta Britainia Handiak— 1955ean espainiar erregimenarekiko hartutako jarrerak jota hil zen gazteegi eta atsekabetsu 1960ko martxoaren 22an, 56 urterekin, Jose Antonio Agirre lehendakaria, bizi oso bat Euskal Herriaren proiektu politikoaren eta kulturalaren alde eman ondoren.

116. Goigana, Iñaki; Irujo, Xabier; Legarreta, Josu, *Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo*, Sabino Arana, Bilbo, 2007.

BIBLIOGRAFIA. ITURRI HISTORIKOAK

- Agirre Lekube, J. A. (1935): *Entre la libertad y la revolución, 1930-1935. La verdad de un lustro en el País Vasco*, Talleres Gráficos Emeterio Verdes Achirica, Bilbo.
- , (Azpilikueta, Dr.) (1939): *The Basque Problem as seen by Cardinal Gomá and President Aguirre*, New York.
- , (1943): *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1944a): *Cinco conferencias pronunciadas en un viaje por América*, EkIN, Buenos Aires.
- , (1944b): *Guernica. Recuerdo de un crimen franquista*, Euzkadi'ko Ordezkaritza Colombia' n, Bogotá.
- , (1975): *Mensajes del Lendakari. 1936-1940*, Gudari, Caracas.
- , (1976): *Mensajes del Lendakari. 1940-1945*, Gudari, Caracas.
- , (1978a): *Informe del Presidente Aguirre sobre los hechos que determinaron el derrumbamiento del frente del Norte (1937)*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- , (1978b): *Veinte años de política del Gobierno vasco (1936-1956)*, Leopoldo Zugaza, Editorial Vizcaina, Durango-Bilbo.
- , (1981): *Obras Completas*, 2 ale, Sendoa, Donostia.
- , (1998): *Diario de Aguirre*, Txalaparta, Tafalla.
- Aldasoro, R. M^a (1945a): «El Gobierno Vasco y la República española», *Galeuzca*, **2**, 71-75.
- , (1945b): «El Gobierno Vasco y la República española», *Galeuzca*, **3**, 118-124.
- , (1945c): «El Gobierno Vasco y la República española», *Galeuzca*, **4**, 162-167.
- Ametzaga Aresti, B. (1944): «Un árbol y un nombre son nuevo testimonio de Gernika», *Euzko Deya*, Buenos Aires, irailaren 20a.
- Ansaldó, J. A. (1951): *¿Para qué...? De Alfonso XIII a Juan XXIII*, EKIN, Buenos Aires.
- Aralar, J. de (Gabino Garriga Villa) (1937): *La rebelión militar española y el pueblo vasco*, Sebastián Amorrortu, Buenos Aires.
- , (1944a): *Los Adversarios de la Libertad Vasca, 1794-1829*, EKIN, Biblioteca De Cultura Vasca saila, 15. zk., Buenos Aires.
- , (1944b): *Los Adversarios de la Libertad Vasca, 1794-1829*, EKIN, Biblioteca De Cultura Vasca saila, 15. zk., Buenos Aires.
- Basaldua, P. (1937): *El dolor de Euzkadi*, Comisariat de Propaganda de la Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- , (1946): *En España sale el sol*, Orden Cristiano, Buenos Aires.
- , (1947): *Situación religiosa en España. Dolorosas realidades*, Casa del Niño, Santiago de Chile.

- , (1952): *El Estatuto Vasco y la República Española*, Euzko-Deya, Buenos Aires.
- , (1953): *El Libertador vasco Sabina de Arana y Goiri*, EKIN, Buenos Aires.
- Biurun Garmendia, G. (1945): *Rosas de Nínive*, EKIN, Buenos Aires.
- Corteseo, A.; Araquistain, L.; Irujo Olo, M. eta Pi i Sunyer, C. (1945): *La Comunidad Ibérica de Naciones*, EKIN, Buenos Aires.
- Duhalde, P. (Policarpo de Larrañaga) (1937): *Le nationalisme basque et la guerre civile en Espagne*, Paris.
- Eguizalde, I. de (1938): *Un homme, un clergé, un peuple. Euzkadi*, Peyre, Paris.
- Eizagirre, J. (1945): *Le probleme basque dans le panorama politique de l'Etat Espagnol. Rapport présenté a l'Union Universelle pour le Droit et la Paix*, Société d'Édition et d'Imprimerie du Sud-Ouest, Baiona.
- Estornés Lasa, B. (1931): *Sabin euskalduna*, Eusko Argitaldaria, Zarautz.
- Galíndez, J. de (1938): «Gudaris en Aragón», *Euzkadi*, 1937ko azarotik 1938ko urtarrilera, Bartzelona.
- , (1940-1941): «Euzkadi ante el mundo», *Euzko Deya*, Buenos Aires.
- , (1985): *Artículos Políticos (1943-1956)*, Ediciones Alderdi Argitaldaria.
- Guaresti, J. J. (1945): *País Vasco y Estado Español: La solución Argentina*, EKIN, Buenos Aires.
- Gudari (Elías Gallastegi Uriarte) (1933): *Por la libertad vasca. En plena lucha*, Talleres Gráficos Emeterio Verdes Achirica, Bilbo.
- Irujo Olo, A. (1970-1973): «Inventario Bibliográfico Vasco (1892-1950)», *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, Buenos Aires.
- , (Andrés de Lizarra) (1944): *Los vascos y la República española*, EKIN, Buenos Aires.
- Irujo Olo, M. (1931a): *La misión del nacionalismo*, López-Mendizabal, Tolosa.
- , (1931b): *Navarra ante el Estatuto Vasco*, Imprenta Fray Diego de Estella, Lizarra.
- , (1931c): *Navarra libre, dentro de Euzkadi libre*, Iruñea.
- , (1945a): *Inglaterra y los vascos*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1945b): *Instituciones jurídicas vascas*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1953): *Arana Goiri ante los tribunales*, Editorial Vasca, Mexiko.
- , (1978a): *La guerra civil en Euzkadi antes del Estatuto*, Ed. Gar, Madril.
- , (1978b): *Un vasco en el ministerio de justicia. Memorias 1*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1978c): *Un vasco en el ministerio de justicia. Memorias 2. La cuestión religiosa. Primera parte*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1979): *Un vasco en el ministerio de justicia. Memorias 3. La cuestión religiosa. Segunda parte*, EKIN, Buenos Aires.
- , (1981): *Escritos en Alderdi*, Euzko Alderdi Jeltzalea, 2 ale.

- , (1982-1984): *Desde el Partido Nacionalista Vasco*, 7 ale, EKIN-Idatz Ekintza, Bilbo.
- Irujo Urrea, D. (1913): *Inocencia de un patriota*, Irrintzi, Txile.
- , (1932): «Historia del derecho vasco», in R. Rugama, *¡Un hombre! Historia del derecho vasco, escrita por él mismo (Daniel Irujo Urrea) y explicada a sus discípulos*, Bilbo.
- Jauregui, J. (1945): *Sobre la declaración del Gobierno Vasco en Nueva York. Acusaciones sin fundamento*, Eusko Deya, Mexiko.
- Landaburu, X. (????): *La question basque et la guerre civile en Espagne*, Bureau Universel de Presse, Brusela.
- , (1951): «11, Avenue Marceau», *Euzkadi*, **216**.
- , (1956): *La causa del pueblo vasco*, Paris.
- , (1980): *Escritos en Alderdi, 1949-1962*, Euzko Alderdi Jeltzalea.
- , (1982): *Crónicas de política internacional*, 1. alea, Idatz Ekintza SA, Bilbo.
- , (1983): *Obras Completas*, Idatz Ekintza, Bilbo.
- Leizaola, J. M. de (1937): *Contribución de los vascos a la formación y a la ciencia del derecho*, Minerva, Bilbo.
- , (1981): *Obras Completas*, 4 ale, Sendoa, Donostia.
- , (1937): *Les Amis de l'Espagne Nouvelle, Le drame du Pays Basque*, SGIE, Paris.
- , : *Les Basques et la construction européenne*, Euzko Alderdi Jeltzalea, 49 or., datarik gabe.
- Mendizabal, A. (1937): *Aux origines d'une tragédie*, Jacques Maritainen hitzaurrea, Desclée de Brouwer, Paris.
- Monzon, T. (1986): *Hitzak eta Idazkiak*, 6 ale, Koldo Izagirre biltzatzailea, Jaizkibel, Donostia.
- Música, M. (1946): *Imperativos de mi conciencia*, Liga de Amigos de los Vascos, Buenos Aires.
- Música, Monseñor M. (1945): *Imperativos de mi conciencia. Carta abierta al Presbítero D. José Miguel de Barandiaran*, Kanbo.
- Onaindia, A. (1980): *Obras Completas*, 4 ale, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Pelay Orozco, M. (Olarso) (1943): *Preludio sangriento*, Calomino, La Plata (Argentina).
- Ramírez Olano, P.: *Los vascos no son españoles*, Gudari, Caracas, datarik gabe.
- Saint-Pierre, J. (1951): *Le destin du peuple basque*, Gure Erria.
- Sota, M. (Oldargi) (1944): *La democracia vasca*, Delegación de Euzkadi, Santiago.
- Tellagorri (José Olivares Larrondo) (1957): *Comentarios a la doctrina de Acción Nacionalista Vasca*, Buenos Aires, Ediciones Tierra Vasca.
- Un navarro de la Ribera (Andrés Irujo Olló) (1957): *El Asesino de los Fueros*, EKIN, *Aberri Ta Azkatasuna* bilduma, 3. zk., Buenos Aires.
- Urarte, A. de (1936): *En la patria vasca, justicia y libertad*, Bilbo.

4. Euskal antzertia erbestean (1937-1959)

Patri Urkizu, UNED

ATARIKOA

Lehen-lehenik nire eskerrik beroenak adierazi nahi nizkioke Josu Chuecari Uda Ikastaro honetan parte hartzeko gonbitea luzatu didalako.

Bigarrenik esan behar dut, aspaldidanik Euskal Teatroa aztertzen ari naizen arren, oraindik Euskal Teatroaren Historia sakon, zehatz, irudiz eta detailez behar bezala jantzia eta hornitua egiteko dagoela, eta ikerketa anitzen ezean, nire lanak hurbiltze-saioak besterik ez direla izan.

Hirugarren, espero dudala Uda Ikastaro honetan parte hartuko duten azertzaileen lanen ondorioz hobeto ezagutuko dugula gure historiaren aro ilun, zail eta latz hura, alegia, erbestekoa.

Nire lanari, halabeharrez bi data ipini dizkiot. Bat, 1937, hots, Eusko Jaurlaritzak, Bilbo erori ondoren erbesteko bidea hartu zueneko. Eta bi, 1959, Guatemalan 1950ean jaio zen *Euzko Gogoa* aldizkariaren azken urtea delako.

Hogeita bi urte luze hauetan antzerti mundua nola bilakatu zen erbestean aztertuko dut, eta hiru partetan banatuko:

1. Euskal teatroa Gerra Zibilean (1936-39).
2. Antzerkigileak, antzerkiak eta antzezkizunak.
3. Antzerki-itzultzaileak.

4.1. EUSKAL TEATROA GERRA ZIBILEAN (1936-37)

Gerra Zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kultura eta antzertiarentzat kolpe latza izan ziren. «Aitzol» eta «Lauaxeta» mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezko eta gailenen fusilamendua eta nazionalista sutsu eta nabarmendu gehienen erbesteratze eta kartzelaratzeari, euskara erabiltzeko debekua, horrek guztiak haustura larria ekarri zuen.

Alabaina, 1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat, zenduko zen *Eguna* lehenengo euskal egunkariaren gerra-kronikak jarraituz gero, faxistek

okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpene berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan Pearse-ren *Iru Gudari*, gaztelaniaz, eta Soroaren *Ezer ez ta festa*, euskaraz jokatu ziren.

Hona nola kontatu zion giro hori Leizaolak Robert Marrast ikertzaile katalanari:

En aquest país, les activitats del teatre professional van centrarse principalment en espectacles lírics, òperes i ballets patrocinats pel Consell de Cultura del govern base (Testimonio de Leizaola, 1963). A Bilbao, el mes de novembre de 1936: funciona el grup teatral de la *Federación Universitaria Escolar de Euzkadi (UFEH) Bide Berria*, sota la direcció de Luís Mújica i Antonio Ramirez. Va donar quatre o cinc representacions a benefici dels combatents i de llurs al Coliseu Albia, i després al front i als hospitals militars. El programa comprenia muntatges escènics de poemes del *Romancero Gitano* de García Lorca, poemes sobre la defensa de Madrid i congons revolucionàries. A vegades, els actors improvisaven sobre un tema donat, com en el cas de *Combate* de Luis Mújica, destinat a protestar contra els bombardeigs dirigits contra la població civil. El mes de setembre de 1936, una companyia patrocinada per la Junta de Espectáculos del Auxilio Social de Vizcaya va presentar al Coliseum Albia de Bilbao una obra de qualitat: *Los cuatro caminos* amb Guillermo Soto; al Teatre Arriaga. La companyia de Diaz Axtigas-Collado va donar una sèrie de representacions de *Dueña y Señora* de Navarro y Torrado¹¹⁷.

Zaletasun hori ez zen gerra edo kartzela bezain egoera larrietan iraungi. Izan ere, Estanislao Urruzola «Uxola»k adierazten duen moduan¹¹⁸, antzertia eta aldizkaritxo klandestino bat batasun eta erresistentziarako baliabide ia bakarrak ziren.

Hona zer zioen, besteak beste, Barkaiztegi Zumaian sinaturiko «Sota jaunaren “Iru Gudari”, Zumaya’n» artikuluan herriko semea zen Etxabek gipuzkeraz prestatu obraz eta Iñauteri igandean antzeztuko zenaz: «Sota’tar Imanol’ek sortutako antzerkirik mamintsu, sakon eta aberkoiena euskeraz adeltatu bear digute. Antzerti ori, ez dago esan bearrik IRU GUDARI da»¹¹⁹.

Eta *Iru gudari Mutriku’n* izendatu eta Andonik sinaturiko bertsoetako ahapaldi batek honela:

117. Robert Marrast, *El teatre durant la guerra civil espanyola. Assaig d’historia i documents*. Barcelona, Institut del Teatre, 1978, 204.

118. Estanislao Urruzola, *Askatasun garratza*. Antzerti 56, Donostia 1983.

119. EL DÍA, Donostia, 1934-02-07.

«Iru Gudari» antzerki-izena
 Nori etzayo burutzen...?
 Abertzalerik bai ote dago
 Etzaionik biotz-mintzen...?
 Euzko semeak Aberri aldez
 Dira mendira irtetzen
 Auetan iru gazte, kementsu
 Dituzte arrapau eta iltzen.
 Antzezleri trebeak eta
 antzezkizun aberkoia
 auxen genuen aspalditikan
 gure gogo eta naia¹²⁰.

Iru Gudari **Pádraic Pearse** (Dublin, 1879-1916) antzerkigilearen lana zen, Manu Sotak eta Lauaxetak moldatua¹²¹. Idazle irlandarra *An Claidheamh Soluis*, liga gaelikoaren egunkariaren editorea zen, Irlandako Independentzia Komandante gisa sinatu zuten zazpietarik bat. Halaber honen *Buruzagijak*, Sotak itzuli gaztelaniara eta Jose Altunak euskaratu zuen.

Hona antzerki honen bukaerako agerraldiak zer dioen:

MACDARA

The fifteen were too many. Old men, you did not do your work well enough. You should have kept all back but one. One man can free a people as one Man redeemed the world. I will take no pike, I will go into the battle with bare hands. I will stand up before the Gall as Christ hung naked before men on the tree!¹²²

MANAIM

*Hogei mutil zoro larregi ziran... Gixon bakar batek azkatu daikez euzkotar gustijok, gixon bakar batez gixadi gustija gaizkatu eban lez. Neu juango naz euron atzetik, izkilu-barik, esku-itsi... eta azpiratzailien aurrian jagiko naz... Josu-Kristo gurutzian lez, gixonen aurrian biloxi. Jarraitu niri gustijok erijotzaren bila... gure ikurriñaren gurutzakatik... jarrattu nagixube erijotzaren bila Euzkadi bixi izan datten...*¹²³

120. EL DÍA, Donostia, 1936-05-29.

121. EUZKADI, 1933-I-27/II-15.

122. <http://www.ucc.ie/celt/published/E950004-001/index.html>

123. Manu Sota & Jose Altuna, *Caudillos. Esbozo dramático en un acto. Padraic Pearse-ren The Singer-en egokipena. Buruzagijak*, Bilbao. Verdes 1935, 25.

Obra politikoa ez ezik profetikoa ere izan zen antzerki hau zeren Pearse fusilatu egin baitzuten 1916an. Sota eta Lauaxeta izan ziren bereziki saiatu zirenak batez ere teatro irlandarra eredu gisa hartuta (Pearse, Yeats¹²⁴, Maeterlinck¹²⁵,...) egokipenak egiten, kostunbrismotik euskal teatroa ateratzen eta antzerki politiko sinbolista bat lantzen eta irudikatzen. Yeats-ek, Ezra Pound-en bitartez, Japoniako Nô teatroaren elementuak bereganatu zituen, eguneroko gertaerak giro poetiko batean txertatuz eta mito bilakatuz. Hala nola *Kathleen...*, zein 1904ko abenduaren 27an Dublingo *Ireland's National Theatre*-n estreinaldian eman zen.

Gauza jakina den bezala, Maeterlinck-ek oso ospe handia izan zuen, 1911n Nobel saria jaso eta Federico García Lorca-rengan ere eragina izan zuen. Halaber Yeats-i ere Nobel saria eman zioten 1923an.

Gerra hasi eta gero *Kurtzuluk*, alegia Augustin Zubikarai¹²⁶ Bermeoko gudarostetik «Bermeoko antzerki jai ondoren» izendatutako beste artikulu batean honakoa diosku:

«Tiki-Taka» taldiak ere «Salbayue» (*Xabiroia*) berrigiliagaz ujuju eta ajararik neikoa eragin eutsen ikusliari. Araso onetako makala duok gure Albitzu «xelebria» [...]»La vieja que pasó llorando» Bermeoko *Tiki-Taka* taldiak antzestu eben. Antzestu be polito. Antzes lan oneri amaya emoteko *Itxas-Alde* gudari sailaren *Matxitxako* ixendua taldeko gudari trebiek mendigoxalien ingija ikurrin ta gusti bapo egin dabe¹²⁷.

Bilbo eroritakoan erbestera bidea hartzen dute askok eta Eusko Jaurlaritzak Bartzelonara iragaten da. Hemen jarraitzen du euskal folklore eta arte-adierazpenekin, hala nola *Pedro Mari* (1793ko istorio bat aurkezten duen drama historikoa) Liceu-n Barcelonan maiatzaren 29tik ekainaren 6ra eman zena *Setmana pro Euzkadi* delakoan, herri-gudaroste erregular baten aldeko komiteak bultzatuta. Obra hau Arturo Campión-en leyenda batean oinarritua, Alfredo de Etxabek gaztelaniara moldatu zuen, eta euskarazko bi bertsio izan zituen. Bata Zinkunegirena eta bestea Jon Etxaiderena¹²⁸. Halaber, Alellako festibalean euskal talde batek parte hartuko du¹²⁹.

124. Manu Sota & Jose Altuna, *Negarrez igaro zan atsua. Udabarriko azelia W.B. Yeats olerkari erindarraren «Kathleen-Ni-Howlihan»tzaska, La vieja que pasó llorando*. Bilbao, Verdes, 1933.

125. Maurice Maeterlinck (1862-1948), poeta, filosofo eta antzerkigile belgiarra. Surrealismo eta Absurdoko teatroaren aitzindari: *Les aveugles* (1890), *L'oiseau bleu* (1908)...Lauaxetak *Balbia* itzuli zuen (EUZKADI, 1932-XII-15/23)

126. Patri Urkizu, «Augustin Zubikarai (1914-2004) & Euskal Teatroa», *Euskera*, LI, 2006, 871-878.

127. EGUNA, 1937-I-26.

128. Jon Etxaide, «Pedro Mari», *Egan*, 1982, 1-6, 191-233.

129. L'OEUVRE, 27-I-1939.

URTEA	EGILEA-OBRA	ERREPRESENTAZIOAK / TALDEAK
1937	X, <i>Nekane (Haur T.)</i>	Ea, 6-I-
	A. Amundarain, <i>Uste diñat</i>	Ea, 6-I
	Yeats - Sota-Altuna, <i>Negarrez igaro zan atsua</i>	Sopelana, 10-I-
	Pepe Artola, <i>Xabiroia</i>	Tiki-taka, Bermeo, 20-I
	Yeats - Sota-Altuna, <i>Negarrez igaro zan atsua</i>	Bermeo, 20-I-
	Yeats - Sota-Altuna, <i>Negarrez igaro zan atsua</i>	Bermeo, 4-II
	S. Arana, <i>Libe (gazt.)</i>	Bilbao, Albia, 4-II
	M. Soroa /T. Alzaga, <i>Ezer ez ta festa</i>	1-II BilbokoEuzko Gaztedija
	Pearse - Sota-Lauaxeta, <i>Iru gudari (gazt.)</i>	11-II «
	<i>Amaya</i>	Bilbo, 26-27-III
	Yeats - Sota-Altuna, <i>Negarrez igaro zan atsua</i>	Lemoiz, 28-III
	Elai-Alai	Ea, 28-III
	A. Campi3n-A. Etxabe, <i>Pedro Mari</i> ¹³⁰	Barcelona, Liceu 29-V/ 6-VI
Eresoinka	Paris, Pleyel, 18-XII	
1938	Estanislao Urruzola «Uxola»	Larrinagako kartzela (¿?)
	Elai-Alai	Paris, Wagram aretoa 19-II
	Elai-Alai	Hazebrouck, Turcoing, Lille
	Eresoinka	Théâtre de Paris, 18-IV
	Eresoinka	Londres, Aldwych Th., 18-VI
	Eresoinka	Bayonne, 13-14-IX
1939	Eresoinka	Radio Toulouse, 22-I
	Elai-Alai	Dunquerque

EAJren eta Euskal Jaurlaritzaren ahalegina handia izan zen erbesteko lehen urteetan propagandarako hain baliagarri gerta zitezkeen antzerkiak erabiltzen. Horrela, Baionako delegazioan zegoen Javier de Gortazar-ek Izagirrereren eskaeraz obra zenbait bidaltzen dizkio, «*obras teatrales de carácter vasco que hemos preparado para la propaganda en América y en Cataluña*»¹³¹.

Obrak honakoxeak dira: Nicolás de Viar (*¿Me caso?, Manu-Soro, Maite, Alma vasca, Tercero sin principal*); Manuel de la Sota (*La vieja que pasó llorando, Libe*); Nicolás Cortés (*Cada oveja con su pareja*); Alfredo de Etxabe (*Pedro Mari*); Policarpo de Larrañaga (*Emakumea*).

130. Alfredo Etxabe, *Pedro Mari*. Melodrama en cuatro actos. El tercero dividido en dos cuadros, basado en la leyenda del mismo título de Don Arturo Campi3n. Estrenado en el Teatro de los Campos Elíseos de Bilbao el 19 de marzo de 1922. Bilbao 1932.

131. Javier de Gortazar-en gutuna EBBko Presidenteari, Baiona, 31 de diciembre de 1938. Abertzaleatasunaren agiritegia. Archivo del Nacionalismo Vasco. Artea, EBB-184-1.

Hauek gaztelaniaz ziren gehienak, eta horrela Luis de Arregik 1940ko otsailaren 17an Antonio de Iralari bidali gutunarekin batera euskarazko honakoak igortzen dizkio: *Poxpolin gorria; Txokolo, txerri-tratalari; Andregaia nai ta...; Xanko ta Paxko; Patxiko ta Martintxo, Neskamearen Marmarak; Irri-Itzaldia, Berezi; eta Urteurrena.*

Bederatzi antzerkitxo, hauetarik batzu Antonio Labaienek zuzendu *Antzeritin* jadanik argitaratuak, eta honela juzkatzen dituenak Arregik:

Son, como podrás ver, cosas sencillas o infantiles, que las teníamos copiadas por la sección de Euzkeralde. Sigue esta sección leyendo nuevas obras, cuyas copias te iremos mandando a medida que se vayan produciendo, para que desde ahí las envíeis a Norte-América¹³².

4.2. ANTZERKIGILEAK, ANTZERKIAK ETA ANTZEZKIZUNAK

Hona zer dioten Interneten eskegita dagoen José Ángel Ascunce-ren artikuluko batek¹³³

Eduardo Ugarte y Pagé, Víctor Ruiz Añibarro, Cecilia García de Guilarte, Cástor Narvarte y Jesús Ibañez [...]

Estos pocos nombres explican la penuria y la escasa atención que los escritores de exilio vasco prestaron al teatro como género literario. Dato sorprendente si se compara con la prosa en sus diversas variantes, que van desde las memorias hasta el ensayo, pasando por la narrativa. Por otra parte, llama igualmente la atención el comprobar **la inexistencia de textos teatrales escritos en euskera.**

Horrelakoxe gauzak irakurtzen ohituta gaude eta espero dut gure adiskideak IX. Biltzar honen ondoren eta Gorka Aulestia, Xabier Mendiguren, Nerea Navarro, Idoia Gereñu, Larraitz Ariznabarreta eta neronen hitzaldien ondoren bere iritzia aldatuxea izanen duela, eta itzultzaileen bati laguntza eskatuko diola antzeko gauzak berriro idatzi aurretik.

Herritarrak dituen arkotxatarrei buruz mintzatuko zaigu Aulestia dakien dotoreziaz, baina neuk bederen gain-gainetik, aipatuak sakonago mintzatuko direlakoan, beste hauetaz hitz egin nahi nuke aurkezpen labur bat eginez.

132. Luis de Arregi a D. Antonio de Irala (Paris), 17 de febrero de 1940. Abertzaletasunaren agiritegia. Archivo del Nacionalismo Vasco. Artea, GE-7-5.

133. José Ángel Ascunce, El teatro en el exilio vasco: fenómeno dramático y género literario. <<http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras>>.

4.2.1. AROZENA Andoni (Lasarte 1907-1989)

EAJkoa zen *Egunan* idazten zuen A-Bi deituraz eta erbestea ere ezagutu zuen, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin ageri delarik zenbait fotografiatan. Burutu zituen ANTZERKIAK hauexek dira:

1. *Txilibitu* (Bakarriketa). *Euskal esnalea*, 1930.
2. *Urteurrena* (Bakarriketa). *Antzerti* 23-24, 1933
3. *Andregaia nai ta...* Tolosa, 1933
4. *Mox, Miss, Xapi*. *Antzerti* 37, 1935
5. *Balujan*. *Antzerti* 37, 1935
6. *Xanko ta Paxko*. Elkarriketa. *Antzerti* 49, 1936.
7. *Zorigaitz malkoak* (?)

Hauetarik Akotzeko gazteek arrakasta handiz antzeztu zuten Donibane Lohizunen 1943ko urtarrilaren 22an, *Eskualdunaren* arabera, *Mox, Miss, Xapi*. Eta Euskal Antzertia deitu artikulua ere idatzi zuen Caracasen¹³⁴ gerraurreko mugimenduaz xeheki hitz eginez.

4.2.2. ARZELUS Ander «Luzear» (Donostia 1898-Baiona 1949)

Idazle donostiar hau, irrati-gizon, hizlari eta euskal kazetarien aitzindari izan zen¹³⁵. Labaienen urte berekoa dugu, eta jada 1934an *Antzertin Neskamearen marmarrak* antzerkia argitaratu zuen. Baina baditu beste zenbait antzerki idatzirik ere eta argitaratu gabe, *Exkonberri...ameslari*¹³⁶, *Kirten-en gauzak*¹³⁷, *Diru gosea* (*dg.*), eta *Gibelaundi*¹³⁸. Baita ere Charles Dickens-en *Christmas books*-etik moldaturiko eresidun antzerkia, *Kilkir abestia* izenekoa¹³⁹. Ez dakigu noiz idatzi zituen batzuk, edo errepublika garaian edo erbestean, hor hil baitzen. Koldo Mitxelenaren euskara-irakaslea izan zen kartzelan, eta ateratakoan Francoren kontrako erresistentzian aritzeagatik erbestera beharrean aurkitu zen.

4.2.3. ETXAIDE, Jon (Donostia 1920-1998)

1949ko norgehiagokan *Amaiur* (*Euzko Gogoa*, 1951) saria irabazi zuen drama historiko ezaguna, zeinen gertaerari buruz Lauaxetak ere poema bat idatzi zuen, Anton Valverdeker ederki kantatzen duena. Tamalez, ez dut ezagutzen

134. EUZKADI, Caracas, 1944, julio, 69-76.

135. Xabier Arzelus, 2003, Ander Arzelus (1898-1949). Bidegileak. Eusko Jaurlaritza.

136. Koldo Mitxelena Liburutegia. KM 091 Mss 113.

137. Koldo Mitxelena Liburutegia. KM 091 Mss 106.

138. Koldo Mitxelena Liburutegia. KM 091 ANT doc-5.

139. Abertzaletasunaren agiritegia. Artea, DP-1073-3.

antzekizunik. Jakina denez XVI. mendean Nafarroak bere independentzia galtzen duen garaiko istorioa taularatzen du.

Halaber *Pedro Mari*¹⁴⁰, Campi3n-en leienda euskarara moldatu zuen, Etxabek gaztelaniazko bertsioan ezarritako andaluzkeria kenduz eta zertxobait laburtuz.

Bere obrarik antzeztuena, Iturrinoren bertso-paper ospetsuan oinarritu *Markesaren alaba* izan zen¹⁴¹.

4.2.4. LABAIEN, Antonio (Tolosa 1898-1994)

Tolosar hau Pierre Larzabalekin batera XX. mendeko antzerti-gizonik garrantzikoena dugu, berak sortu baitzuen lehen errebista teatroaz II. Errepublikara garaian, *Antzerti* deitu zuena eta Idoia Gereñuk berrargitaratu diguna faksimile edizio eder batean¹⁴².

Erbestean honako antzerkiak burutu eta plazaratu zituen:

<i>Gachucha</i> ¹⁴³	<i>Gure Herria</i> , 1937
<i>Muga</i> ¹⁴⁴	<i>Euzko Jakintza</i> , 1952-54
<i>Lurrikara</i> ¹⁴⁵	<i>Euzko Gogoa</i> , 1955
<i>Jostuna</i> ¹⁴⁶	<i>Euzko Gogoa</i> , 1957.

Lehena itzulpena da, bigarrena, *Muga*, antzerkiaren aitzin-solasean, hona Sarako auzapezaren emaztea izan zenari eskainitako dedikaroria:

Mme DUTOURNIER ´i

Egun batez mugatik igesi nentorrela ezagutu nuen SERORAENEA ´ko Etchekandre bihotz zabalari, gaur esker on eta adiskidetasunez opa diot ene baitako «puska» chume hau.

Ez ahal dute mugazainek atzemanen.

Lurrikaran Gipuzkoako Gerra Zibileko gertaera bat kontatzen digu, hain zuzen, eta *Jostunan* enkarguz egindakoa da, emakumezkoentzat soilik, hauen psikologia ongi agertuz, hala nola hiri handi eta ttikien arteko kontraesanak.

140. EGAN, 1982, 1-6, 191-233.

141. EGAN, 1958, 1-2, 119-138; 3-6, 265-299.

142. Patri Urkizu, 1991, «Antonio Maria Labaien eta Euskal Antzertia», *Hegats 4*, Donostia, 91-99.

143. «Gachucha, «Bécassine» de Leone Calvez et Henri Caouissin, adapté à la scène basque», *GH*, Bayonne, 1938, 106-113.

144. *Muga*. 1951, irri-antzerkia, ekitaldi bitan. *Euzko Jakintza*, V, 1952, 293-308; VI, 1954, 194-206, Baiona.

145. *Lurrikara*, Lau ekitalditan. *Euzko Gogoa*, 1955, VI, 115-138.

146. «*Jostuna*. Bi ekitalditan antzerkia neskatxa bakarrentzat», *Euzko Gogoa*, 1956, II (Iraila-Urrila) 20-40; VII, (Azila-Gabonila) 20-27; (Ilbeltza-otsaila), 12-28.

Hona Piarres Lafitteren epaia *Herria* astekarian:

Antonio Maria Labayen da teatro-gaietan Eskual-herriko gizonik adituena. Ez du bakarrik izkiriatu hainitz obra, molde guzietakoak, baina beti danik ari izana da teatrolarien berotzen eta akulatzen. Bertzalde, ez nahiz bere xokoan mutxitu, urrongo airea ere hartu du arrotz herrietako teatroaren berri bilatuz...

4.2.5. *MONZON Telesforo (Bergara 1904-Baiona 1981)*

Pertsonaia ezaguna politikagintzan eta kultur munduan, Euskal Jaurlaritzako kontseilaria izan baitzen, Gerra Zibilean lehenik eta gero erbestean. Ipar Euskal Herrian eraman zen kultur politikan aitzindari eta Pierre Larzabalen adiskide eta kolaboratzaile handia. Bere obren artean honakoak ditugu:

<i>Zurgin zaharra</i>	EG 1956
<i>Menditarrak</i>	EG 1958
<i>Gure behia hila da!</i>	GH 1960
<i>Beorraren ostikoa</i>	<i>Herria</i> 1962
<i>Eneko Bizai eta Maria Lorka</i>	<i>Baiona</i> 1966
<i>Hazparneko anderea</i>	GH 1966

Hona ene antzerkitekako *Eneko Bizkai*... ikusgarrian zein den dedikatoria:

Euzkadi-ren Askatasuna lortzeagatik
Mendian erori ziren
Espetxetako hiluna eta zigorra ezagutu duten
Borrokan dabilzaten
Herrimiñez etxetik urrun dagozen
Eta Gernika-ren su-emaileeri beren
Arima saldua ez dieten
Abertzale zahar eta gazte guzieri
Bihotzaren erditik.
Monzon-Olaso'neko Telespor-ek.

4.2.6. *Antonio RUIZ DE AZUA «Ogoñope» (Elantxobe 1904-México 1974)*

Kazetari eta idazle abertzale bizkaitar hau *Egunan* idazten du eta 1937-38an Bartzelonan *Euzkadin*. Irratian kolaboratuko du, eta Mexicoko *Euzko Deya* zuzenduko. *Ekin* aldizkarian, 1949an *Euzkera egunerako*, alegia irailaren 3rako, *Euzkadi'ko erri baten*¹⁴⁷ deitu bi ataleko antzerkitxo idatzi zuen.

147. EKIN. México 1950.

4.2.7. UGALDE Martin (*Andoain 1921-Hondarribia 2004*)

Gazte zelarik erbesteratu zen andoaindar hau. Caracasen, kazetari-lanetan aritu zen, eta jada bere lanak 1956an plazaratzen hasi¹⁴⁸. Lehenik gaztelaniaz, eta gero euskaraz. Bere obra ugarien artean ez da falta ere antzerkirik hala nola *Ama gaxo dago* (Caracas, 1964), eta *Gurpegin aspaldi gertatua* (Caracas, 1965, argitaragabea).

Modu sinbolikoan ama euskara da, ate baten atzean eta familian bizi direnek oso modu ezberdinez tratatzen dute.

4.2.8. ZUBIKARAI Augustin (*Ondarroa 1914-Galdakao 2004*)

1949an, Eusko Ikaskuntzak Miarritzen antolatutako Lore Jokoetan saritu egile eta antzezlanak honakoak izan ziren: Pierre Larzabal (*Urchilotar horiek*), Jean Lousteau (*Amaren heriotzea*), Jon Etxaide (*Amaiur*), Augustin Zubikarai (*Itxasora*¹⁴⁹), Jeanne Minaberri eta A. Charriton (*Izariko zapeta*) eta Mayi Elissagaray (*Maitetchoren ezkontza*).

Esan bezala Miarritzen egin zen norlehenkan 1949an, bakarrizketen lehen saria Augustin Zubikaraik irabazi zuen *Itsasora* lanarekin. Baina ez dugu ezagutzen bakarrizketa hori, baizik eta urte batzuk geroxeago titulu berarekin *Itxasora* (*Arrantzale bizitzako irudia*) deitu antzerkia¹⁵⁰.

Hemen, ohi bezala hain ongi ezagutzen zuen arrantzaleen bizitza agertzen digu, *itxas-ertzeko erri txiki baten* pasadizoak. Angulari taldearekin hasi eta Boga Boga kantarekin bukatzen dena.

4.3. ANTZERKI-ITZULTZAILEAK

Berrogeiko eta berrogeitahamarreko hamarkadak ez ziren olgetarako garai aproposak, eta antzerkiaren zuzia **Jokin Zaitegik** Mexikoko erbestean hartuko zuen, Prometeo berri baten antzera, 1946an Sofoklesen antzezlanen itzulpena argitaratuz.

Halaber, Guatemalan euskal kulturaren historiak eman duen aldizkaririk interesgarrietako bat sortu zuen, *Euzko Gogo*a (1951-59), non Bedita Larrakoe-txeak, Bingen Amezagak, Andima Ibiñagabeitiak, eta Zaitegi berak beren itzulpen eta antzezlanak argitaratu zituzten.

148. Martín Ugalde: *Imágenes de la Semana Santa en Venezuela* (1956); *Un real de sueño sobre un andamio* (Ipuina, 1957); *La semilla vieja* (Ipuina, 1958); *Iltzalleak* (Ipuinak, 1961); *Cuando los peces mueren de sed* (Erreportajeak, 1963), *Ama gaxo dago* (1964)...

149. Titulu bereko antzerkia da EGAN-en (1960, 3-6, 256-272) agertua baina ez da bakarrizketa.

150. Zubikarai'tar Augustin, *Itxasora* (*Arrantzale bizitzako irudia*). Egan, 3/6, Donostia 1960, 138-154.

AMEZAGA, Bingen (Algorta 1901-Caracas 1969). Poeta anitz euskaratu zituen baina itzuli zituen antzerkien artean daude: *Hamlet* (Ekin 1952), Koldo Mitxelenaren goraipamenak merezi izan zituenak, eta *Prometeo Burdinetan* (EG, 1959).

LARRAKOETXEA, Bedita (Zeanuri 1894-Oñati 1990). William Shakespearearen obra osoa itzuli zuen¹⁵¹, baina *Euzko Gogoan* soilik *Macbeth* (1957), *Lear Errege*, (1958) eta *Ekatxa* (1959).

IBINAGABEITIA, Andima (Elantxobe 1907-Caracas 1967). Beste obra anitzen artean honako antzerkiak itzuli zituen: Jacinto Benaventeren *Abere indarra* (La fuerza bruta, 1908) EG 1951; *Gaitzetsia* (La malquerida, 1913) EG 1954-55, non gizonen menderatutako munduan emakumearen bizi gogorra azaltzen den, eta Julio Dautas¹⁵², *Kardinalen zauta* (A ceia dos kardiaes) galdua, *antzerkitxo otsandikoa*, baina garaiko apaizentzat *gogorxkoa*, itzultzaileen arabera.

ZAITEGI, Jokin (Arrasate 1906-1979). Grekerazko edo berak zioen bezala eladerazko klasikoak itzultzen jarraitu zuen desterruan eta *Sopokel'en Antzerkiak* (Mexico 1946) argitaratu, zeinetaz haxe zioen Piarres Lafittek irkaitzez:

Zer pentsa Sopokeleren trajeriez? Errazago direla grekeraz euskeraz baino. [...] Eskual-unibertsitate edo Ikastegi goien bat eraik baladi egun batez jalgi berria daukuten itzulpena arras baliosa litake, goreneko mailean litazken ikaslentzat. Anartean badut beldurra irakurle gutti izanen duen, zeren holako lan abtek ez baitu oraikotasunik¹⁵³.

Eta Miarrizteko desterruan zelarik, *Sopokel'en Antzerkiak II*.¹⁵⁴

Lau antzerki itzultzaile iaio hauek aipatu ondoren ezin ahantz genezake ere XX. mendeko hasieran Euskal Teatroa hainbat lagundu eta landu zuen donostiar bat: **Abelino BARRIOLA** (Donostia 1876-Pabe 1944), zeinek desterruan zelarik ere ez zion idazteari uko egin, eta Charlotte Bernard-en *Une histoire de parapluies* itzuli zuen eta moldatu *Euditakoak*¹⁵⁵ bezala. Argitaragabe dago.

Zer giro zegoen, ordea, Euskal Herrian, Francoren diktadurapean obra hauek eskatzen zuten esfortzua hartzeko eta beraiez probetxuz baliatzeko? Giro benetan eskasa, Uzturreren hitzok adierazten diguten bezala.

151. Bedita Larrakoetxea, 1974, *William Shakespeare osoa*. 5 T. Kardaberaztarrak, Gasteiz, 1974.

152. Julio Dantas (Lagos 1876-Lisboa 1962), *A ceia dos cardiaes*. (1902), arrakasta handikoa eta parodia zenbait izan zuena.

153. Pierre Lafitte, 1990, *Euskal Literaturaz*. Patri Urkizuren edizioa. Erein, Donostia, 28.

154. Jokin Zaitegi (itz.), 1958, *Sopokel'en Antzerkiak II. Eladeratik euskeraratuak*. Intxauspe etxeke lanak. Baiona.

155. Abelino Barriola, *Dramak*. Xabier Mendigurenen edizioa. Euskal editoreen elkarte, Ibaial, 1987.

Ortxe dabilzkigu bi edo iru gizon burruka gorrian «Euzko Gogoa»k iraun dezan. Nor jabetzen da? Iñor gutxi. Gañerantzekoan arpidedunak diran baño ugariago izango lirake, laguntzaren emana dan baño biziago izango litzake¹⁵⁶.

Mugan liburuen kontrolak eta zentsurarenak katakunbetako garai latz hauetan ez zuten, noski, laguntzen testuen zabalkundean. Bestalde, nire aita ere beste abertzale eta errepublikazale anitz bezala erbestea lazki sufritu beharrean aurkitu zen, eta oso bertsozale eta idazte zale izan arren, aitortu behar dut, jubilatuta zenean hasi zela bere bizitzako pasadizoak bertsoetan ipintzen eta beste zenbait ixtorio idazten, zeren eta nola idatzi erbestean bizirauten nahiko lan zutenean?

ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKO ZENBAIT

Abertzaletasunaren agiritegia. Archivo del Nacionalismo, Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa, Artea, Bizkaia.

Arana Martija J. A. (1977): *Elai-Alai*, Gernika kultur elkarte.

—————, (1986): *Eresoinka, embajada cultural vasca 1937-1939*. Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.

Eguna astekaria, Bilbao, 1937.

Eskualduna astekaria, Baiona, 1887-1944.

Ibiñagabeitia, A. (2000): *Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, Patri Urkizuren edizioa, Susa, Zarautz.

Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.

Marrast, R. (1978): *El teatro durant la guerra civil espanyola. Assaig d'història i documents*, Institut del Teatre, Bartzelona.

Urkizu, P. (1984): *Euskal Antzertia*, Antzerti zerbitzua, Donostia.

—————, (1991): «Antonio Maria Labaien eta Euskal Antzertia», *Hegats*, 4, Donostia, 91-99.

—————, (1995): *Exiliatuok ez gara inongoak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

—————, (2000): «La cultura del exilio vasco en eusquera», in J. L. Abellán *et al.*, *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*, Biblioteca Nueva, Madril, 99-145.

—————, (2006): «Augustin Zubikarai (1914-2004) & Euskal teatroa», *Eusker*, LI, 871-878.

—————, (2009): *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*, UNED, Madril.

156. Jesus Insausti «Uzturre», *Sei hamarkadatan euskal kazetari*. Sabino Arana kultur elkargoa. Bilbo 1993, 219.

5. «Euskaldunen etengabeko erbesteaz». Izkribu labur bat Iruñean erran nuenaz eta beste luzeago bat 1978tik hona aipatzeke dudanz

Emilio Lopez Adan

5.1. SARRERA MODUAN

Josu Chuecak eskatu zidan «gerra ostekoen eta ondorengo belaunaldikoen arteko loturak eta esperientziez» UEUn mintzatzea.

Ustez eta eskola edo fakultateko programetan ikasle gazteek ez dutela hortaz gauza handirik ikusi, argazkiz osaturiko aurkezpen bat egin nuen, mintzatua. Europan eta bereziki Ipar Euskal Herrian izan harremanak aurkeztu nituen, arazo ideologiko eta estrategikoak aipatuz, pertsonen inguruan zentratuak.

Esparrua mugatu nuen, eta testigantza gehienak abertzaleen alorrean bildu nituen. Oso labur aipatu nuen Ameriketako erbestea, ez baitut ezagutu. Berriz, Iparraldeko euskaldunei leku berezia eman nien, erbesteratuekin izan zituzten eraginengatik. Giro horri hurbil ziren anarkista, sozialista eta komunisteri ere erreferentziak egin nizkien.

Garaiak mugatzeko, 1956ko Euskal Batzar Orokorraren eta 1979ko Kanpoko Euskal Jaurlaritzaren desagertzearen artean ibili nintzen. Nire ustez, Euskal Batzar Orokorraren inguruan ageri ziren aroa markatu zituzten haustura nabariak, erran nahi baita euskaldungoaren kontzeptua, haustura estrategikoak eta borroka armatuaren arazoa.

1979an gelditu nintzen han baitzen erbesteko gobernuaren desagerpen ofiziala, baina berdin geldi gintezke 1977an, han hasten baitira trantsizio-prozesuaren urrats nagusiak, amnistia, Konstituzioa, Estatutuaren onartzea...

Bata bestearen atzean, Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Jon Mirande, Federico Krutwig, Telesforo Monzon, Teodoro Hernandorena, Jose Antonio Etxebarrieta, Jose Antonio Agirre, Juan Ajuriaguerra, Piarres Lafitte, Txillardegi, Julen Madariaga, Jesus Maria Leizaola, Andoni Urrestarazu, Gonzalo Nardiz, Martin Ugalde, Mark Legasse, Jose Mari Eskubi, Francisco Zalacain, Juan Iglesias, Jose Antonio Agiriano, Felix Likiniano, Manuel Chiapuso, Juan Jose

Etxabe, Txomin Iturbe, Jose Maria Beñaran, Piarres Larzabal, Manex Erdozaintzi-Etxart eta Gorka Agirre pantailaratu nituen.

5.2. UEU-N ERRANAK

Zaitegi, Ibiñagabeitia, aurretikoak bezala kontsidera daitezke. Biok jeltzaleak ziren, euskararen defentsara guztiz emanak, eta oinarri horrek eragin zien erradikalitasun berritzaile berezia.

Jokin Zaitegi lotua da *Euzko Gogo*a aldizkariarekin, Guatemalan eta Mirarritzen argitaratua (1950-1959), euskaraz. Han idatzi zuten Orixek, Altubek, Ibiñagabeitiak, Mirandek, Krutwigek, Arestik, besteak beste.

Andima Ibiñagabeitiaren ardura pean zegoen *Irrintzi* aldizkariaren euskal atala, Caracasen. Jeltzale izanik ere (1947an erbesteratua), Ameriketara izan zuten lotura gerla aurreko Jagi-Jagikoekin, eta haien independentziarako erradikalismoarekin.

Aurretiko horietan aurkitzen ziren geroko hausturak:

a. Euskara, nazio-oinarria.

1950ean, *Euzko Gogo*an, Andima Ibiñagabeitiak: «Amaikatu ari dira esaka, naiz euskera il, askatasunaren yabe egiten garenean berriz ere biztu al izango dugula gramatika eta iztegi bat lagun. GEZURRA eta milla bider gezurra. Ez da oraindik jayo, ez eta jayoko ere, mirari ori egin dezaken gizakumerik...»

Horra aranismoaren kritika zuzena, nahiz eta «gezur» horren aitaren izena (Sabino Arana) ez aipatu. Ez ziren urrun gerra aurreko oinarriak (*Genio y lengua*, Ibar), eta garaian garaiko jeltzale euskaltzaleen oniritziak (Sebero Altube).

Horrekin, kritika erbesteko Jaurilaritzaren politika linguistikoari, dokumentu, batzar eta hedabideetan espainol literarioa baitzen hizkuntza nagusia: sentsibiltate hori agertzen da askorengan (Ibiñagabeitia, Mirande, Gonzalo Nardiz). Kurtsoan mintzatu zen Patri Urkizuk argitaratu du Ibiñagabeitiaren 54. gutuna, 1951-XII-13koa, Jose Antonio Agirreri, non argi ikusten baita abertzale izenekoan artean sentitu zituen berarenganako eta euskararekiko mespretxua, ardura eskasa eta axo-lagabekeria: «Oriek orrela, ene lendakari maitea, ez al zera arrituko Ordezkaritza berrian nere itzalik geiago ikusiko ezpazenu, ez-ezaguna naiz toki ortan eta ez-ezagunek ez daukagu zertan sartu».

b. Euskara, bizi eta kultura modernorako batu eta egokitzeko beharra:

«Gipuzkera osotua» bilbatua zen, Lizardi, Orixe, Zaitegi, Urrestarazu, Salvatore Mitxelena, Monzon, Nemesio Etxaniz, baita ere Miranderena lehen garaie-tan, Andima Ibiñagabeitiarekin Parisen euskara «ikasi» zuenean.

«Laphurtarr klasiko» proposatu zuen Krutwigek, eta 1952rako eragina zuen Villasanterengan. Gero heldu zen oraingo «batua», politikarekin oso nahastuta, modernoan eta garbizaleen arteko gerla nabaria izan baitzen afera batuaren alde trenkatu arte, 1960tik aurrera, Luis Mitxelenaren benedikazioarekin.

c. Biolentziaren beharra herri zapalduen askatzeko, garaian garaiko modeloen arabera:

Israel (Ibiñagabeitia, «Irrintzi»), herri zeltikoak (Mirande)..., Irlanda (Jagi-Jagi)

«Noiz edo noiz gure artean ere IRGUN edo EOKAren bat sortu bearko dugu. Tiroka kendu bearko dizkiegu inperialista auei gure eskubideak. Ez dago beste biderik» (A.I., 1958)

d. «Euskaldun fededun»aren kritika

Hasieran, Elizaren barnean, hierarkiaren aurka; frogatzat, biografien oroitzea aski da, Zaitegi eta Ibiñagabeitiaren kasuan. Gehiago dena, euskal elizaren erantzukizuna irakaskuntzan salatzen zuten, «lekaime eta lekaideen» eskoletan erdara nagusia zela gogoratuz...

Gero etorri dira Elizaren aurkako kritika zuzenak. Horrek eman zigun bi pertsonaia gogoratzeko parada: **Krutwig** eta **Mirande**.

1952an Krutwigek, Bilbon, Villasante euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna eman zion, eta Eliza kritikatu zuen euskaldungoaren aurka aritu zelako; «ausardia» horrek eman zion hasiera bere erbesteari.

1953an Mirandek paganismoaren alde idatzi zuen: «Ai beren aintzinako paganizmuaren begiratzan herabe izan ziran euskaldunak, behintzat protestant bihurtu izan ba lira Euskalherria salbatuko zen ez baitik gabe...»

Krutwig eta Mirande elkarrekin ibili ziren Parisen.

Euskal nazionalismoaren historian Krutwigek izan duen eragin handia aldera daiteke Miranderen marjinazioarekin. Gurean paganismoaren aipua ez zen gauza arras berria (Baroja), baina Miranderengan bazen nazismoaren kutsua: biolentzia menderatzailea goiko herrien jabetza eta eskubidea omen da, eta hori behar liteke euskaldunen jarrera. Beraz, Mirandek, nazionalsozialista bezala, esklabo irendutzat jotzen zituen kristau-demokratak (jelkideak) eta sozialistak oro (barnean, marxismoaren eragina laster erakutsiko zuen ETA), eta biak mespretxatzen zituen.

Horregatik, arrunt funtsik gabekoa da idazle antinazionalista batzuen jarrera: Mirande ikur bezala erabiltzen dute euskal nazionalismoaren «nazismoa» frogatzeko, kontuan hartu gabe Mirande jokoz kanpo emana zela alderdi abertzale guztiei begira.

1956ko Euskal Batzar Orokorrean ezarri zuen esperantza handia erbesteko Jaurlaritzak, bai abertzaletasunari nazioarteko ospea emateko, bai eta belaunaldi gazteak biltzeko ere.

Nire ustez, jeltzaleen aldetik kontinuitate kultural eta politikoa izan zen nagusia. Ponentzia politikoan, adibidez, parte hartu zuten Jaurlaritzan (edo inguruan) ziren EAJk, Alderdi Sozialistak, EAEk, IRk eta CNTk, gradu desberdinetan, eta lerro ofizialetik ez ziren batere mugitu: euskal probintziek dituzten eskubide historikoen defentsa / Estatutua (gainditzeko) / Nafarroa (integratzeko) / Baionako Ituna, denen biltzeko (1945) / Errepublikanismoa... Telesforo de Monzon izan zen diskordantzia bakarra: bide berrien bila, aliantza egikorren nahiaz, dimisioa eman zuen Jaurlaritzan; erregetzaren alde zelako, erran zion bortizki Irujok.

«Berrien» aldetik, han ziren EKINekoak eta independenteak. Krutwigek zerbait idatzi zuen, eta ez dut uste han mintzatu zenik; edukia, arrunt lotua aurretikoen argudioekin : «Para lograr el hecho nacional vasco es necesaria la violencia. India, Israel, Suez, Túnez, Marruecos, Argelia, Chipre ... nos hablan con elocuencia. Es necesaria la creación de un grupo de violencia, a la manera del EOKA o del STERN... Mientras los vascos constituyan un pueblo de “mansos” el mundo no los tomará en consideración.»

Oro har, EAJk nahi izan zituen euskaldun guztiak (eta bereziki belaunaldi berriak) lotu, eta ez zuen lortu.

Telesforo de Monzon aipaturik, komeni da haren garrantzia gogoratzea. Politikatik aparte, Monzonek eragin handia izan zuen Ipar Euskal Herriko bizi kulturalan, hain zuzen antzerki-idazle eta antzerki-taldean eragile bezala. **Piarres Larzabal** eta **Daniel Landart** haren segidan kokatzen dira. Monzonen kasua ez zen bakarra: bertsolaritzan, adibidez, **Teodoro Hernandez**ak berpiztu zuen garra, Mattin eta Xalbadorren garaietan.

Politikan, Monzon jeltzaleen artean norbait izatetik Herri Batasuneko parlamentari izatera pasatu zen. Bere ametsa zuen atzoko eta gaurko gudariak biltzea, eta polo independentista azkar batean finkatua demokrata eta sozialistekin autode-terminaziorako bidean elkarrekin joatea (Maltzagaraino...). ETAn aurkitu zuen bidelaguna, eta nekez jakin daiteke zeinek liluratu zuen gehiago bestea: Monzonek ETA edo ETAk (eta bereziki Argalak) Monzon.

Belaunaldi berria, guretzat, Euzkadi Ta Askatasuna zen, haren hiru urrats sortzaileekin: 1952, EKIN, 1956, Euzko Gaztedi, 1959 ETA. Aurretiko gisa **Jose Antonio Etxebarrieta** aipatzea merezi du; EGIN ibilia, Jagi-Jagiko tradizioa aurkitu zuen Elias Gallastegiren segidan, eta 1961etik aurrera talde armatu independentistaren beharra iragarri zuen. Parisen ibilia zen, jeltzaleekin eztabaidan, eta ETAn oinarriak finkatu zituen Bosgarren Biltzar Nagusian bere txosten politikoa determinantea izan zen.

ETAren agerpena bere ingurunean jartzeko apunte batzuk: gerla osteko indar-harremanen aldaketa orokorrek, eta bereziki Gerla Hotzak Francori eman zion estatus berriak (alegia, nazien kolaboratzailea izatetik komunismoaren aurkako adiskide izatera pasatzea), euskal politikan izan zituzten ondorio latzak. 1947tik antikomunismoa bilakatu zen gai nagusia, eta 1948an komunistak Euskal Gobernutik kanporatuak izan ziren, indar errepublikanoen batasuna hautsiz. Diotenez, sozialistek inposatu omen zuten eta Jose Antonio Agirrerentzat nahikoa gogorra izan zen.

Ameriketako Estatu Batuen eragina oso handia zen EAJren gainean. Alderdiaren zerbitzuetan jende anitz bazegoen amerikanoek trebatu, ordaindu edo erabili. Eta, hala eta guztiz ere, AEBek eta Mendebaldeko potentziek ez zuten arazo handirik izan jeltokideen eta frankisten artean hautatzeko, lehengoan kaltetan. Frantziak jeltokideak igorri zituen Avenue Marceau-ko egoitzatik kanpo 1951an, eta laster gero Ipar Euskal Herriko irratia hetsi zien. Errefuxiatuekiko «tolerantzia»k iraun bazuen ere, sostengu politikoa bukatu zitzairen, eta gauzak hain ziren nabariak non 1958an jeltokideek ere salatu baitzuten yankien saldukeria.

Kontura gaitezen iparramerikarrek Francorekin ituna 1953an sinatu zutela, eta jeltokideak zazpi urtez egon zirela irentsi eta irentsi, deus erran gabe, Mendebaldeko laguntzaz finkatu EAJren estrategiak porrot garbia egin zuela aitortu arte. Inmobilismoa justifikatzeko «laster eroriko» leloa xurxulatzen zuten, baina egoera berriari erantzun berriak emateko gaitasuna galdua zuten, erbesteko errepublikanoek bezala.

1960an hil zen J.A. Agirre, eta Leizaola lehendakari izendatu. 1960an ere iratzartu zen EGI eta aktibismoan murgildu, barnean ageri indar berriei erantzun gisa... Garai berrietan ginen, eta beste norbaitek hartuko zuen erresistentziaren zuzia: ETAk.

Haren sorreran, nik dakusat geldikeriaren aurkako jarrera moral eta estrategiko bat. Frankismoaren erorketa «naturalaren» zain egotea ez zitzaion aski heldutasun moral ailegatu berria zen belaunaldiari. Nahitara erabili dut «heldutasun moral» eta ez «heldutasun politikoa». Ekin mugimenduan elkartu ziren lehenek ezin jasan izan zuten frankismoaren eraso iraunkor eta gupidagabekoa, ezin eraman herriaren hiltamua, ezin irentsi gehiengoaren beldurra eta epelkeria, ezin egon erbestean zirenen pasibotasunaren azpian. Horietan, jarrera moral dakusat. Egite moral horrek markatuko zuen lehenengo ETAren historia, definizio politikoak, sakonak eta landuak, laster helduko badira ere.

1962-1963: Gerlari ohien trena erdi-deskarrilatu eta, ETAren gainean erori zen errepresioa. Oro har, ehun bat pertsona inguru atxilotu zuten eta nahikotxo joan zen Iparraldera. Azken horien artean, Txillardegia, Madariaga eta Eneko Iri-garai.

Iparraldean kontaktuak izan zituzten Enbatako lehen militanteekin: Pierre Elizague, Piarres Larzabal, Jean-Louis Davant, Ximun Haran, Michel Labéguerie, Mixel Burucoa, Jakes Abeberry. Horren ondorioz, elkarrekin ageri ziren Haran eta Madariaga 1963ko Itsasuko Aberri Eguna kari; han plazaratu zuen Enbatak bere *Agiria*, apirilaren 15ean.

Interesatzen zaiguna: ulertzea nola mugaz bestaldeko abertzale berriek hautatu zuten ETA. Egia esan, EAJ arrunt zentratua zen politika antifrankista hutsean eta ez zuen begi onez ikusten Iparraldean nazionalismo bizi eta erasokor baten agerpena, beldurrez Frantzian zeukan tolerantzia politiko-administratiboa kolokan ezarriko zuela. Soka hau luzea da, dagoeneko Mark Legassek 1946an sortu eztabaidaren gaia baitzen. Azpimarratzekoa da nola iraun zuen. Michel Labéguerie aurkeztu zen diputatugai, Iparraldeko EAJren lagun zentristen laguntzarekin; behin hautatua, Enbatarekin hautsi eta bere nazionalismo aitortua isildu zuen.

Anitzek diote **Jose Antonio Agirre** gauza izan zitekeela berriei entzuteko eta berriei leku duina emateko Jauraritzak kudea zezakeen erresistentzia berriaren barnean. Agirre, oro har, maitatua eta errespetatua zen. Alta, Alderdi Jeltzaleen barnean bazen aberriaren zentzu patrimonial bat: alderdiak, eta bakarrik alderdiak, kudeatu behar zuen abertzaletasuna. Eta hautetsi publikoen ondoan izan dira lerro luzean alderdiaren barneko buruzagiak, diziplina eta batasunari lotuak: **Juan de Ajuriagerra** dugu lehena, eta haren ondoan **Solaun, Rezola, Retolaza**. Jose Antonio Agirrekin mintzatu ziren EKINekoak; Ajuriagerra eta ondokoekin, ez, «pareta bat bezala» omen ziren, desegoki iruditzen zitzaizkien gazteen jarrerari guztiz hetsiak.

Poliki poliki, ezulertuak eta etsaigoak metatu ziren. Baita arras politikoak ez ziren gaietan ere, hala nola euskara batuaren kasuan. Berriek nahi zuten «ikastola euskalduna, herritarra eta askatzailea», zaharrek komunismoaren eragina ikusten zuten H madarikatuaren atzean, eta batzuetan gauzak urrun joaten ziren.

Horrela, jeltkide izanik eta ETako jende askorekin lagun **Martin Ugaldek**, honako testigantza utzi du: «*Zeruko Argiarekin* kolaboratzen nuen Venezuelatik, eta honantza etorri eta eztabaida harekin topo egin nuenean, kazetari bezala hura argitzeko “h”aren kontrako lau eta aldeko beste lau hautatu nituen elkarrizketa bana egiteko, orrialde osokoak. Mitxelena, Satrustegi, Kintana, Manuel Lekuona, Damaso Intza, Lino Akesolo... Egin banuen egin nuen. Nemesio Etxanizek ikusten ninduen bakoitzean esaten zidan: “Ai, Martin, harrapatu zaituzte!”. Eusko Alderdi Jeltzalean jendeak hala pentsatzen zuen, hizki hori ETaren maltzurkeria zelakoan. Baina begira gauzak nola diren, Nemesiok berak zuzentzen zizkidan hasieran artikulua, h-ak beren lekuetan ongi ipintzeko, “baina ez esan inori, e?” esaten zidan. Garai gogorra izan zen. Telefonotik deitzen zizun batek: “Hor bizi al da h-ekin idazten duen hori?” eta zuk “zu nor zara?” eta berak “ez dizu inporta, komunista bat zara zu!”. Gutunak ere jasotzen nituen “Uhgahlhdheh” idatzita...

Hainbeste urte kanpoan pasatuta herrira itzuli eta halako giroarekin topo egitea, alderdi barruan bertan... pentsa zer gogo ematen zizun lan egiteko».

Euskarak garrantzi handia izan du erbestera joan zen lehen ETako militante batengan, **Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi**. 1961ean kanporatua, parte handia hartu zuen Baionako «Euskal Idazkaritzan» eta, horren bidez, euskara batuaren lehen urratsetan. Harekin ibilitako Iparraldeko izen asko gogora genitzake: Txarriton, Davant...

Beste ETako militante erbesteratu bat da garai haietako, **Julen Madariaga**. Eragina izan zuen insurrekzioaren aldeko jarrera onartu zuen ETaren Hirugarren Biltzar Nagusian. Garaian garaiko optimismo historikoa eta modeloen eragina arakatu daitezke argiratu zuen liburuxkan, *La insurrección en Euzkadi*, gerla iraultzaileari buruz, militanteentzako formazio-lana.

Bien izenak elkarrekin ematerakoan, jakinik gero zer bideak izan dituzten, gauza bat ilustratu nahi izan dugu: 1970 arte jelkideekin eztabaidatu behar bazen, jarrera berriak askatzeko eta beren gain ipintzeko, 1970etik aurrera ETak ez du gehiago EAJrekin eztabaidatuko. Bien arteko haustura definitiboa zen, eta ETan barne polemikek hartu zuten lehentasuna. Abertzaletasunaren edukia balio unibertsalen bidez ulertu behar zela eta, iraultza komunistaren eta nazionalismo askatzailearen arteko loturak eta kontradikzioak ageri ziren eztabaidagai, eta hori ez zegokion aranismoari edo kristau-demokraziari. ETaren barneko hausturen aipatzea ez zen seminarioaren gaia, baina berritasun horren ikur gisa oso gizon garrantzitsua ekarri nuen, **Jose Mari Eskubi Larraz**.

Jelkideen eta etarren ezulertuen kudeatzeko ezintasuna marrazteko **Jesus Maria de Leizaola**, Agirre hil eta geroko lehendakaria, eredu hoberena da. Gogoratu behar ETak Carrero Blanco hil zuenean lehendakariak izan zuen erreakzioa, ukazioa, guztiz gaindituak ziren oinarrietan finkatua: ez dute euskaldunek egin, hilketa hori ez baita euskaldun zintzoen lana (euskaldun fededun irudia gainditua zelarik!) eta euskaldunak badira, ni izanik lehendakaria, jakin beharko nukeelako (ekintza operatiboetan ETA lehendakaritzatik guztiz independentea zenean!).

Jelkideengandik aparte, ETak kontaktu zaharrak atxiki zituen eta berriak sortu. «Zaharren» artean nola ez gogoratu **Mark Legasse** eta **Felix Likiniano**, bi anarkista, bi gizon aparta eta maitagarriak, bakoitza bere historiarekin. Eta nola ez «Anai-arte» bildu zirenak. Ipar Euskal Herrian, Donibane Lohizunen 1969an, euskal errefuxiatu politikoei laguntza eskaintzeko sortu zen elkarte hori. Hego Euskal Herriko egoera politikoak beharturik ihes egiten zutenak hartzen zituen etxea izan zen hasieran; Telesforo Monzon lehendakaria zen eta **Piarres Larzabal** idazkaria. Gero parte aktiboa hartu zuen gertakari garrantzitsu batzuetan, hala nola Fronte Nazionala osatzeko elkarrizketetan, Burgosko auzian eta Beihl kontsularen

bahiketan. Piarres Larzabalek garai hartako gertakizunak, egunez egun kontatuak, egunkari moduan *Anai artean* liburuan utzi zizkigun: parapolizialek iheslarien artean eragindako hilketak, Beihl kontsularen bahiketa, etab.

Azpimarratzeko, ETArek belaunaldi berriek izan zuten herrikoitasun euskalduna: Iparraldean luzez eta integratuta bizi ziren kasuak aipatu behar dira, hala nola **Juan Jose Etxabe, Txomin Iturbe eta Eustakio Mendizabal**. Bazen beraz, enpatia natural eta politikoa horien eta sentimendu handiko pertsonen artean, eta horrek ematen du parada **Manex Erdozaintzi-Etxart** aipatzeko eta bertso batzuen gogoratzeko: «Hire adin gordinean...», Joxe Arregi torturak hildako militanteari eskainiak.

EAJrekin, halere, ez ziren harreman guztiak hautsi. Jende anitzek atxiki zuen euskaldunen arteko haurridetasun eta errespetuaren sentimendua. Gogoratu nituen **Andoni Urrestarazu, Teodoro Hernandezena, Andolin Alberdi...** Edo, bukatzeko, **Gorka Agirre**, nahiz eta bere lagun heriotzak guztiz minduta izan (ETAk Joseba Goikoetxea eta Genaro Garcia de Andoain hil baitzituen) beti kontaktu gisa jarraitu zuena.

Azken aurreko argazkia 1977ko «Alderdi Egun»ekoa zen, eta Lapurdi Buru Batzarra erakusten zuen: besteen artean, Eukeni Goienetxe zegoen, ohorezko lekuan. Han burutazio mingots bat egin nuen, ez baita onargarri, niretzat behintzat, nazirekin kolaboratzaile bat urtez urte eta bizi guztian ohoratzea, nahiz eta abertzaletasunari eta bere alderdiari fidela izan.

5.3. ETA BUKATZEKO, HISTORIA ZAHAR BATEN GOGORATZEA...

Ohar mingotsa zen Goienetxerena, eta, ikasleak utzita, gaia berriz aipatzeko parada eman zidaten kurtsoko bi lankidek, Iñaki Goiogana eta Xabien Irujok.

Josu Legarretarakin eta Sabino Arana fundazioan, liburu mardul bat argitaratu berri dute, *Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial, a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo*.

Nik altxatu arazoa biziki ongi ezagutzen dute, eta justizia osoarekin zera azpimarratzen dute beren liburuan: garai hartako Jaurilaritzaren eta, oro har, jeltzaleen politika, sartu egin behar dela kristau-demokraziaren eta Mendebaleko aliatuen aldeko hautuen barnean. Hots, nazismoaren aurkako politikan. Ados nago, eta ados nintzen 1977an polemika anitz (eta mingarriak) sortu zituen *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960* nire liburua argitaratua izan zenean.

Arazoa, (eta horretan, uste dut, nire bi solaskideak ados ziren) hauxe da: zerbait izan zela naziei hurbiltzeko, eta euskal nazionalismoaren etsaiek «zerbait» hori delirio arte baliatu dutela, akusazio historiko maltzurak eta deskalifikazio

etiko eta politikoak sakatzeko. Zinez gertatu zenaren berria guk, nazionalistek, klar eta argi emango bagenu, ez liguke kalterik eginen, alderantziz baino.

Liburu berria ikusita, hauxe aurkitu nuen 486. orrialdean, Manuel Irujok Londresetik 1942ko otsailaren 20an Jose Antonio Agirrerri idatzia:

La misma carta alude a las actividades de Xabier y Agustín, las cuales, según nuestra noticias, siguen también de acuerdo con los anteriores Goienetxe y Juan Manuel. Mi criterio es absolutamente opuesto a la continuación de ese expediente. Quiero expresártelo sin ambages ni rodeos.

Aditu guziek dakite «expediente» hori naziei hurbiltzeko kontaktuak zirela (eta aditu ez direnentzat gero emanen ditut xehetasunekin garbi ageriko dela uste dut). Aipatu lau pertsonak dira Xabier de Landaburu, Agustín Alberro, Eukeni Goienetxe, eta Juan Manuel Epalza.

1977ko liburuan hauxe nioen (13.-16. or.): «En general, la mayoría de los nacionalistas permanecieron en una clara actitud de repulsa al nazismo. (...) Frente a esta actitud mayoritaria, hubo una minoría tentada por el nazismo, (...) A nivel de esta tendencia, que nunca cristalizó en una colaboración precisa, un hombre clave fue E. Goyenche, vasco continental (...). En (la representación del PNV en París) hubo dos personas, Alberro y Landaburu, a quienes se contactó dentro de esta política de relación con los alemanes (...). Sobre ellos y especialmente sobre Alberro, se ejercía la influencia de Domingo Epalza, (...) que vivía entonces en Euskadi Norte».

Hori esateko, testigantzak bilduak nituen, eta jakile garrantzitsu Mark Legasse nuen. Ez ginen hain desbideratua, orain argitaratzen den garrantzizko korrespondentziak frogatzen duenez. Lau izenetatik hiru, bai, eta, laugarrenean, aitaren ordezkari politikoki oso hurbil zen semea. Halere, nire gainean eta, bereziki, Mark Legasseren gainean, oso kritika gogorra erori zen 1977an. Niretzat, historialari formaziorik ez zuen baten azalezko lana zela, oinarri gabekoa, Eusko Alderdi Jeltzalea zikintzeko egina: bego. Baina Markentzat oso irain gogorak izan ziren eta, bereziki, oso presio afektibo egikorrek zaurituta ziren ahaideen aldetik. Markek bazekien egia errana zuela, baina asko sufritu zuen eta publikoki eskatu zidan inoiz nire liburuaren beste edizio bat egiten bazen Epalzaren izena kentzeko.

Horrela egin dut 2008an Txalapartak atera duen birredizioan. Baina Marki zor nion izen onaren aldarrikatzea, eta, gero adieraziko ditudan arrazoiez orain arte isildu banaiz, Manuel de Irujoren gutunak eman dit historia hori kontatzeko kemena.

Tematzen naiz; uste dut gauza ona dela egia esatea, behintzat euskal abertzaletasunaren etsaien delirioak desmontatzeko, geroztik ageri dokumentuetan erakutsia gelditu baita Euskadi nazi eraikitzeko ametsik edota garrantzizko kolaboraziorik ez zela izan.

Baina garrantzitsu ere iruditzen zait EAJn ziren osakin eskuindiar, antikomunista eta erreakzionarioak bistan uztea, horiek esplikatzeko baitute zergatik onartu zuten harremanetan hasia eta, batez ere, zergatik estali zituzten gero, protagonista ohoraturik.

Eta, batez ere, Mark Legasse adiskidearen izen ona berriz ere aldarrikatu nahi dut, eta, horrekin batera, gerlatik hona abertzaletasunaren barnean etengabeki izan diren jarrera antifasizistak eta iraultzaileak ohoratzea.

Ongi ulertzen da familien jarrera. Hain zuzen, gerlako episodio ilun horiek espionaje-kontu ezkutuen artean itoak ziren, eta, seguru asko, familiek bazekiten «zerbaitetan» ibiliak zirela etxekoak, EAJren manuz eta baimenaz, eta arrazoi guztiak zituzten zerbait hori ohoragarri eta zintzoa zela sinesteko. Legenda familiarrak bilbatzen dira, eta ulergarriak dira. Ahaideei bakea eman behar zaie. Alta, jeltzaileen artean anitzek bazekiten, eta ez zuten deus erran, are gehiago, ahaleginak egin zituzten egia ezkutatzeko.

1977ko liburua argitaratu nuenean, EAJn diren osakin eskuindar, antikomunista eta erreakzionarioak bistan uztea nuen xedetariko bat, baina ez bakarria ez eta nagusia ere. EAJk erresistentzian eginak aipatzen nituen, bai hemen Iparraldean, bai eta Hegoaldean ere. Alta, hor baziren bi gertakari ilun: naziekin izandako harremanak eta CIArekiko kolaborazioa. Biak aipatu nituen, eta banekien egurra bilduko nuela jeltzideen aldetik. Gaur egunean CIArena onartua dago, eta «moderno» batzuek ematen diote eduki positiboa, gaur antikomunista hutsa eta amerikanozalea izatea balio «positiboak» baitira. Liburuaren denboran, ez zen batere horrela eta aipamenak ez ziren jeltzideen gustukoak izan. Naziena beste gauza bat da: orain ere gauza itsusia da, eta mintzen du.

Hitzaurrean esaten nuen erbeste-urteetako EAJk eman bertsio ofizial-garbiaren ondoan bazela beste bat, kritikoa; baina bigarrena finkatzeko dokumentu idatzia ez zirela ezagunak, edo oso gutxi, eta nik bildu elementu gehienak ahozko testigantzak zirela; beraz, argi aitortzen nuen zuloak eta hutsak izan zirela, nahiz eta niri egia iruditzen zitzaizkidan gauzak aipatu.

Ontsa konprenitzeko nola heldu nintzen kontaktu horien posibilitatea egiazat jotzeko, bi iturri aipatu ditut. Lehena, nazionalismoaren historiaren ikertzea; bigarrena, bildutako testigantzak. Historia aldetik, gauza jakina zen jeltzide batzuk arrunt eskuindarrak zirela. Horregatik sortu zuten Comución Nacionalista eta, gero, Primo de Riveraren diktaduraren azpian erdi-ipurdiko tolerantzian bizi ziren; horregatik ere joan ziren Nafarroako eskuin-muturrekin batera 1931ko hauteskundeetara, eta Coalición Vasco-Navarraren baretik politika erreakzionarioa eta vaticanista egin zuten; arrazoi berberengatik izan zituzten batzuek Errepublikaren bortxaz bota nahi zuten militarrekin elkarriketak. Zatituak ziren 1936ko militarren errebelioaren aurrean, errebeldeek kristautasuna eta ordena defendatu nahi omen

zituztelako errepublikanoen gorrikerien aurka. Azken finean, frankisten basakeriak bota zituen errepublikanoen alorrera: Nafarroan eta Araban frankisten alde ageri ziren jeltkideak lehen egunetan, eta Bizkaian dudatan; gero, gerla osoan zehar, Errepublika traditzeko eta bake separatua erdiesteko jukutrietan ibili ziren jeltkide batzuk, eta ez txikienak. Historia horren konstante iraunkorra da aranismoaren arrazismo berezia, ez maketoak gas-ganberetara igorri nahi zituena, horrelakorik ez baita gure artean izan, baina bai arrazaren baitan euskaldunen bertute kontserbadore eta giristinoak ematen zituena. Eskuindar horien ondoan, jeltkideen artean demokrata eta errepublikano finak baziren ere, eta horiek kudeatu zuten Eusko Jaurlaritza errepublikanoa. Gero, frankisten basakeria zela-eta, abertzale eskuindarrek besteek bezala sufritu zituzten kartzela eta erbesteratzea.

Historia hori ezagututa, ez zitzaidan batere bitxia jeltkide batzuek pentsa zezaten ordenazko erregimen batek, tradizionala eta arraza europarren bertuteetan finkatua, on egin ziezaiokeela euskal nazionalismoari. Alemaniako erregimen nazia nola ikusten zuten konprenitzeko, aski dugu ikustea nola aurkezten zen Frantzia, hain zuzen Vichy eta Petainen bidez: balio tradizionalen gordailu antikomunista bezala. Naziak juduen aurkako genozidioarekin identifikatzea geroko gauza da, eta ez zen batere 1940ko Frantzia (eta Ipar Euskal Herrian) saltzen zen iduria. Beraz, jeltkide batzuek naziekiko sinpatia zutela errateaz, ontsa konprenitu behar da garaian garaiko ikusmoldeez ari garela eta ez gero ageri denaz.

Ipar Euskal Herrian iduri positibo hura arrunt hedatua zen euskaldunen artean. Prentsa euskaldunak Mariskalaren bertuteak etengabeki aipatzen zituen eta gehiago dena, lehenengo Iparraldeko militante jeltkide ezagun batzuk eskuin muturreko alorretatik zetozen, hain zuzen ordenazko balio erlijioso, erregionalista eta erreakzionarioaren bidez EAJraino helduak. Euskaltzale eta abertzale zirela ez dut batere dudatan ezartzen, baina jatorri hori zuten, eta horrek ere eragin zuzena izan zuen Hegoaldetik etorritakoengan.

Testigantzak bildu nituen gero, antzinako euskaldun ezkertiarren, EAJ utzia zuten militanteen eta erbesteratuen lehen belaunaldia ezagutu zuten ETAKoen artean. Entzun nituenak eta pairatu nituen isiltasunak (esangarriak ziren horiek ere) ongi lotzen ziren ikusmolde orokorrek: jeltkide batzuk ibiliak zirela alemanekin. Eukeni Goienetxe zen aipatuena, haren prozesua eta kondena gauza publikoak baitziren. Hegoaldetik etorrikoen artean, Landaburu (hain zuzen Araban Mugimenduaren alde agertu zen jeltkideen burua), Alberro eta Epalza. Landaburu eta Alberrori buruz, testigantza batzuk jaso nituen, besteak beste Oihanbururena, Alberroren suhia izan dena; Txomin Epalzaz, Marken gutuna ikusia nuen. Eta Mark ikustera joan nintzen.

Gizona entzuna eta ezagutzen nituen gauzekin erkatuz, ez zitzaidan batere burutik pasatu gezurretan ibil zitekeenik.

Ondorioaz, zera atera nuen: sinpatiazko ideologia baten gainean, EAJko batzuek jokatu zutela alemanen karta, haiek irabaztekoan Euzkadik zerbait atera zezan. Ez zen beraz espionajerako joko, baizik eta ideologia eskuindarrekin koherente zen jokamoldea. Ez nekien noraino EAJk kontrolatutako maniobra zen, egoera kaotikoa baitzen okupazioko lehen urteotan eta ziur aski talde desberdinak aski autonomoak baitziren. Baina bistan zena: EAJk gero protagonista guztiak zuritu zituen, eta horrek badu nonbaiteko larritasuna, gerla ostean jakina baitzen naziak zer ziren: niretzat, tolerantzia hori zen EAJren barneko jarrera erreakzionarioen ispilua.

Protagonista guztiak haste-hastetik abertzaleak zirela banekien; beren ustez Euzkadiren alde ari zirela ere bai. Baina hau ez da nahikoa: aberriaren alde egiten den guztia ez da haizu eta hori azpimarratu nahi nuen.

Egia erran, alderdiaren erantzukizuna agerrarazi behar nuen ere, ez nintzen ongi jabetu agerpenak zer ondorio ekarriko zuen lagun eta familiakoengan. Ez nuen batere erraten, ez eta erran nahi ere, jeltxide horiek nazien krimenen konplizeak edo laguntzaileak izan zirela, kolaborazio kriminala ekintzetan gauzatzen baita, eta ez baita soilik ideologia edo hurbiltze hipotetikoen kontua. Baina sinesgarri izateko, nahitaez jeltxideek alemanekin (naziekin) izan zituzten harremanen aipatzeak jende izenak ematera behartzen ninduen; eman, eman nituen, eta beren sendikoei sortu zien ezinegon guztiz ulergarriaren oldarrak harrapatu ninduen. Ez da gauza makala entzutea aita, aitatxia edo osaba naziekin harremanetan egon zela, eta 1977an edo gaur egunean historia horrek duen edukia ez da garaian garaikoa: Ipar Euskal Herrian, Frantzia bezala, Vichyren denboretan alemanen aldekoa izatea gauza arrunta eta ordenazkoa bazen ere, orain eta 1977an nazien aldeko izatea munduko itsuskeria handienetarikotzat jotzen da eskuarki.

Beraz, nire liburuak sortu zituen arrangurak familiarrengan eta, egiaz, sendiko horietariko batzuk euskaltzale eta abertzale finak dira. Gero ezagutu ditut eta usu aurkitu ere. Jende horien ezinegonerako ez nintzen prest; ez eta Mark ere.

Mark eta biok Epalzaren bi iloben bisita izan genuen; baita Txertoa argitaletxera ere joan ziren. «Hemen hanka-sartzea zegok», erran ziguten. Tribunaletara jotzeko ere prest ziren. Eta gero Piarres Lafittek kudeatu liburuxka bat atera zen, EAJk zeukan inprentan egina: *Abertzale bat, Txomin Epalza, naziren aurka*.

Liburuxkak oso inpresioa txarra egin zidan. Oro har, ohorezko tribunal baten itxura hartzen zuen, eta egileak lagunei emandako informazio orientatuaren gainean, adiskidetasunarengatik justifikazio obligatua ematen zien aukera bakarra. Ez nuen batere maite izan Goienetxeri emandako tribuna, niretzat bere jarrerak ez baitzuen duda izpirik batere; ez eta ere Goinetxek deus lotsagarria ez zuela egin baieztatzen zuen beste testigantza. Beste batzuetan erraten zen nik neuk ez nuela aipatzen jeltxideen erresistentzia edota nik neuk Txomin Epalza hitleriara zela

nioela eta hori guzti hori faltsua zen: nire liburuan jeltkideen erresistentzia-egitateak aipatuak ziren eta «germanofilo» hitza erabiltzen nuen, ez batere hitleriarra; informazio orientatua ukan zutenek ez bazuten liburua irakurri ere, hori pasatzen utzi zuen kudeatzaileak ez zuen garbi jokatu. Gainera, irain gogorak ziren, batez ere Marken aurka. Gero, Paul Dutournierri Lafittek moztu zion post-scriptum bat eman zidaten, bide ezkutuetatik; Dutournierrek garbi azaltzen zuen balitekeela alemanen aldeko jarrerak egia izatea, baina hori gauza aski normala zela garai haietako Ipar Euskal Herrian eta horrelako huskeriak nahastea ez zuela merezi. Dutournierrek, beraz, jeltkide batzuek alemanen bertuteak preziatzea arrunt posibletzat jotzen zuen, Iparraldeko giroa ezagututa eta aipatu familien adiskidetzat bere burua jota. Zati hori ezkutatu zuen kudeatzaileak (Lafittek) ez zuen garbi jokatu, eta, oro har, egia zekien EAJk ere ez.

Horiek hola, 1978an *Eginen* egin nuen puntua, eta urte luzez afera han gelditu. Markek eskatu zidan beste ediziorik egiten bazen Domingo Epalzarena ez aipatzeko: onartu besterik ez nuen. Testu horretan Markek garbi aipatzen du izen txikia, Domingo; beste batzuetan diputatua izan zela dio. Ez zituen beraz aita eta semea nahasten.

Gerotik ez naiz batere sartu afera horietaz izandako polemika eta aharretan. Gainera, Goienetxe izan zen geroko polemiken zentroa eta «ukatzaileen» lotsagabekeria hain zen nabaria non historia berriz idazteko prozedura zabarrenak gogoratzen baitzituen. Hain zuzen, Landaburu, Alberro, Juan Manuel Epalzak, misio erdi-sekretua zuten, eta bere izenak aipatzen dituzten dokumentuak gero ageri dira; baina Goienetxe publikoan agertzen zen alemanen ondoan, eta baditugu garaiko dokumentu publikoak, bai auzien aktak, baita Iparraldeko erresistentziaz eta kolaborazioaz idatzitako lan monografikoak. Txomin Epalزاز, berriz, oinarrizko dokumenturik ez da, nik dakidanez.

Gaur erran nahi nuke Marken sinesgarritasunaz ez dudala inoiz dudarik izan. Haren testigantza jasoa nuen dokumentatuak ziren beste gaiez ere, eta ez zuen gezurrik sakatzeko ohiturarik. Gainera, behin eta berriz errepikatu ditu gauza bertsuak: 1987an *Larrun* aldizkarian, gero, Amaia Ereñagaren liburuan. Gauzak espresatzeko gehiegikeriak, bai beharbada, horrelakorik bazituen, batez ere gaztaroan eta koleran. Zergatik Markek Domingo Epalza hain bortizki aipatzen zuen ulertzeko, Agirrerri idatzitako gutun osoa irakurri behar da. Agirrek, omen, Iparraldeko euskaldunei gomendatu zien Marken separatismoa ez laguntzeko, eta, hain zuzen, Epalza zaharra hautatu zuen mezuaren zabaltzeko. Horrek sumindu zuen Mark.

Gehiago dena, gauza jakina da abertzaleak beren artean libreki mintzatzen zirela, bai eta okupazio pean ere, eta inork ez zuen pentsatzen zirkulu horretatik atera zitekeela salaketa bat: lagunaren artean ziren. Marken anaiak Goienetxeren aitzinean aipatu zuen muga pasatzeko eta Legioan sartzeko gutizia, eta Goienetxek

ez zuen salatu. Nabaria, harekin ados ez ziren asko joan ziren Goienetxeren alde testigantza ematera, haren bizitza salbatzeko. Hots, abertzaleen arteko eztabaidak ziren, gordinak, baina denek onartu abertzaletasunaren estalki pean haurrideak zirela. Epalza zaharra gogor mintzatzen omen zen aliatuen alde ziren gazte irrealisten aurka; gauza bera dio Oihanburuk Alberro bere aitagarrebari buruz, eta leku bertsuetan entzuna, familia edo lagunarteko bazkari eta bilkuretan.

Bazen gero, eta ez denengan, Euzkadi libre baten sortzeko asmoa, baita alemanek irabazten bazuten ere: jeltzale batzuek ez zuten beti galtzaile atera nahi. Horrek esplikatzeko dituzten oso gutxiren garra (nazismoaren lagun ideologikoak), batzuen espektatiba (alderdi barruan kontaktuen politikari bidea eman ziotenak), eta askoren tolerantzia (eta azken horiek nahikotxo zirela iruditzen zait). Ordokik Goienetxeren alde egindako artikulua arrunt inkoherente batean dio Goienetxek ofizial aleman bat konbentzitu zuela Euzkadi libre bat sortzeko. Hain zuzen, Markek pentsatzen zuen inoiz horrelako ameskeria gauzatuko bazen, ez zela eginen komandante eta estudiante (Goienetxe) baten artean, baizik eta jeneral eta diputatu baten artean. Hor ikusten zuen Epalza zaharraren rol posiblea, baina horrelakorik ez zen izan eta Markek ez zuen horretaz deus publikoki salatu.

Gerlaren azken partean, jeltzaleek oro har, eta misio erdi-sekretuan ibili Alberro, Epalza eta Landaburu bereziki, erresistentziari lotu ziren. Gerlaren bukaera nolakoa izango zen argitzen ari zen, jeltzaleek demokratek nahikoa errana zuten aliatuak (eta ingelesak bereziki) jakinaren gainean zirela, eta ez zutela naziei horrelako hurbiltze oportunistarik gehiago jasanen; engoitik jeltzaleen jarrera publikoa eite batekoa izan zen: aliatuekin. Euskal Brigada sortu eta, publikoa da Epalzatarrak Euskal Gobernuaren batailoien zuzendari politikoen artean zirela, beti erresistentzian ibilitako Eliodoro de La Torrerekin. Aliatuek onartu zuten Alberro, Epalza eta Landaburu beren aldeko sareetan zebilela justifikatzea, eta horrek moztu zuen erresponzabilitateen bilatzea. Honek ez dio deus kentzen Marken testigantzari; berriz errepikatuko dut okupazioaren lehen urteetan abertzaleen artean ziren tirabirak kokatu behar direla Frantzia okupatuaren alorrean, eta Frantzian 1943tik eta bereziki 1944tik aitzina Vichyzale eta alemanzale gehienak ere aldatu ziren, aliatuen alde eman eta lehen urteetan izanak ahaztu zituzten: mugimendu zabal eta orokor horretan sartu ziren guztiak. EAJk ere gerlako azken urteetan sortu zuen Brigada, ez lehenago, eta Ipar Euskal Herriko lehen maki armatuetan ez zuen parterik izan... nahiz eta hasieran muga pasatzeko eta espionaje-sareetan ibili, nahiz eta Irujo Londresen goiz-goizetik eta Agirre Ameriketara heldu eta aliatuen alde garbiki egon. Historiak Mitterrand justifikatu du eta Papon lehertu; jeltzaleen artean ere, suerte gehiago edo gutxiago izan zuten protagonistek.

Goienetxek, ideologiaz lasai eta EAJren itzalean (hark errana baitu egin zuen guztia alderdiaren ezagutzaz egina zuela) ez zuen hain segur ongi ulertu sobera urrun joana zela, deus gertatuko ez zitzaizkion harrapatu zuten arte. EAJk

eskaini zion abokatua; kondenatu zuten eta gero, lege orokor baten barnean, amnistiatu, gerlako zauriak ixteko prozedura orokor baten barnean. Geroztik, Frantzian legez kanpokoak da amnistiatuak izan ziren gertakarien aipatzea, eta hori erabilia izan da gertakarien «ukatze»ko, amnistia hori zerbait partikular eta zuritzaile izan balitz bezala; baina amnistia hori ez zen zuritze pertsonal bat, baizik eta bake sozialerako neurri orokorra.

Geroko gertakarien artean, bi aipatu nahi ditut, lotuta. Hasteko, Lafitteren *Memoriak*. Kritika anitz egin diote liburu horren sinesgarritasunari, baina hor Lafittek akusatzen zuen Goienetxe, Gestapoko idazkaria zela-eta. Lafittek bazuen alde harro eta zorrotza, gaiztoa erranen nuke: hain ziur, Gestapoko idazkariarena gehiegikeria da, baina alemanekin kolaboratu zuela garbiago ezin erran. Alta, Lafittek gure aurkako bere liburuxka hartan erabili zuen Goienetxeren testigantza eta, horrela, Goienetxeren sinesgarritasuna babestu: beste arrazoi bat gehiago pentsatzeko liburuxka justifikaziorako lan orientatua zela, ez eta egia agerraraztekoa.

Memoria horiek zirela eta, Luzien Etxezaharretak egin zuen *Egunkarian* artikulua bat. Ez dut erranen formula egokienak hautatu zituela. Niretzat errangarriena izan zen Goienetxeren lagunek egin zuten indar gaitza, *Egunkariaren* zuzendaritzaren aitzinean eta Luzienen aurka zuzen-zuzena, errepresaliak eta tribunalak aipatuz (amnistiaren ondorio juridikoetan finkatuta), afera estaltzeko. Egian, EAJk arrunt zuritua zuen Goienetxe, ohoreak eman zizkion, fideltasunaren zorrak kitatu, eta nire iduriko horrek frogatzen digu jeltzaleek ez zutela oraino aski distantzia hartu beren historiaren puntu ilun horietaz *meaculparen* bat egiteko. Egia estaltzeko borondate iraunkorra izan dute.

Bakarrik haustura eta eszizio mingotsen denboretan agertzen dira puntu ilunak, artzainen bilkuretan gasnak bezala. Horrela, Arzallusek behin batean publikatu zuen *Deian* artikulua bat, Ajuriagerraren autoritatean babestuz, erranez naziekin harremanetan jeltzale batzuk ibiliak zirela eta Bilboko kaletatik arrastaka eramatea mereziko zutela. Hain zuzen, artikulua hori ageri zen Jose Manuel Epalza EARekin joan zenean. Zer pentsa eman zigun... Horrek egiten dio oihartzuna garaiko dokumentuen artean ageri den gutun bati, non Landaburu arabarrak erraten baitzuen: «... gure entsegua gaizki ateratzen bada eta jendeak badaiki, ez dut beste erremediorik izanen Amazonietako oihanetan ezkutatzea baizik». Ez, lehendakariorde egin zuten.

Ematen du jeltzaleen espirituan gertakari horiek ez zutela berez garrantzi moral edo politikorik, eta, finean, erabil edo ahantz zitezkeela lagunak saritzatzeko edo etsaiak funditzeko, nola gerta.

Hona hemen nire ikusmoldea, nire kronika. Laburtzeko, uste dut, eta uste azpimarratzen dut, aipatu bost pertsona horiek abertzale amorratuak zirela: horrez gain, Epalza familia euskaltzale bizi-bizia ere; gero, EAJren barnean zegoen

tendentzia eskuindarraren beste batzuekin, erbesteko eta derrotako baldintzetan, okupazioaren lehen urteotan, iruditu zitzairen nahitaez irabaziko zuten alemanekin akomeatze posible bat bilatu behar zela, beti galtzaile ez ateratzeko. Goienetxeren kasuan adiskidego ideologikoa guztiz sinesgarria da.

Alta ez zituzten erresistentzian ibilitakoen salatu, eta gero, EAJk bere batasuna eta itzala errekuperatu zituenean, alderdiaren jokamolde aliatuzale ontzat eman zuten; EAJk ohoratu zituen gero, bizi zirelarik eta hil direnean.

Pertsona konkretuen aipatzea beharrekoa zen EAJren jokamoldeak agerrarazteko; familian sortu durduzaz, sentitzen dut. Markek Agirreri igorritako gutuna bukatzen zuen erranez afera publikoa zenez kopiak eginen eta banatuko zituela. Horretan finkatu nintzen ni dokumentu hori publikotzat jotzeko, *Vasconian* argitaratua ikusi nuenean.

Oraingo izkribu hau testuinguru berrian ageri da. «Sabino Arana fundazioak» atera liburu batek eman dit parada, eta egileekin mintzatzeak ausardia, afera berriz aipatzeko. Gerla osteko nazionalisten jarrera, oro har, kristau-demokraziaren barnean ezarri behar dela onartzen dut, eta naziekin izandako harremana huts larri bat izan zen, nazionalismo jelkidearen berezitasunek esplikatuta, ez izanik inondik ere Euzkadi nazi baten sortzeko konspirazio lodi eta antolatu bat, Agirrek berak Alemanian hasia eta delirio arrazisten ondorioa, gaizki dabiltzan idazle batzuek sinetsarazi nahi duten bezala.

Horiek bai dira delirioak, eta haiei aurre egiteko, ematen du jelkideek ere ikasi dutela garaiz erraten ez diren egiek kalte handia egiten dutela gero.

Ikertzaile unibertsitarioen eta jelkideen lan dokumentatu eta serioen beha, nire parte bego honela.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon

Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta

Pruden Garzia eta Iban Zaldia
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan

Karmele Artetxe (arg.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-016-5

Ikerketa berriak Euskal Herriko historian

Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe (arg.)
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-027-0

Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984

Mikel Aizpuru Murua
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-041-6

*Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafikoaren iruzkin-
ereduak*

Amanda Ruiz eta Jaione Agirre
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-080-7

Debarroko oasi liberala

Gotzon Iparragirre Burgoa
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-171-6

1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria

Mikel Errazkin eta Juantxo Agirre (argk.)

2009an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-237-9

Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* **24**, 29-47.

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz
Agirre, Jaione, *Uztaro* **41**, 15-26.

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jeltkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **39**, 53-61.

Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **67**, 33-56.

Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera
Alberdi Lonbide, Xabier, *Uztaro* **52**, 9-32.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* **0**, 21-35.

Albert Goienetxe (1847-1900) politikari euskaltzale ia ezezagunaren barri laburra
Altonaga, Kepa, *Uztaro* **66**, 43-73.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat.
(1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **13**, 69-86.

Euskal hezkuntza ikastolak sortu baino lehen: Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmoen eta errealitatearen artean (XVIII-XX)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **69**, 5-22.

Esklabo iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez Pérez-Sostoa, Denis, *Uztaro* **36**, 25-39.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak
(XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* **28**, 37-58.

Makiak Euskal Herrian
Apaolaza, Urko, *Uztaro* **37**, 105-118.

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana, Jose Antonio, *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **29**, 28-38.

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **38**, 19-32.

Bengoetxeako Ambrosio. 1552-1625
Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, Xipri, *Uztaro 2*, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, Joseba, *Uztaro 15*, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro 1*, 53-75.

Psikologiako artikuluen azterketa *Uztaro* aldizkari oinarri harturik
Artetxe, Karmele, *Uztaro 56*, 31-50.

«Kristau-elizak, kristau-herriarenak»: ikerketa zail baten oinarriak
Esparza Zabalegi, Jose Mari
Azkoaga Lasheras, Iñazio, Larrambeber Zabala, Migel, *Uztaro 71*, 31-42.

Txabolismoa. XII. mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak
Castrillo, Ianire, *Uztaro 60*, 37-64.

Frantziako kexu-koadernoen azterketa bat
Chueca, Josu, *Uztaro 2*, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, Josu, *Uztaro 6*, 77-87.

Norena da herriaren ondarea?
Esparza Zabalegi, Jose Mari, *Uztaro 71*, 17-29.

Faxismoa frantzian: 1918-1930
Gartzia, Pruden, *Uztaro 5*, 31-45.

Manex Goihenetxeren oroitzapenetan
Gartzia, Pruden, *Uztaro 72*, 59-77.

Meatzaritza nekazari-herri batean. 1844-1982
Gorrotxategi, Aitziber, *Uztaro 45*, 3-27.

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-
elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro 7*, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro 14*, 3-20.

Bigarren Aintzina
Hernández, Amelia, *Uztaro 15*, 37-53.

Erljio eta politika Hego Europna Ikerketarako sei (adi)bide
Itzaina, Xabier, *Uztaro 49*, 23-42.

Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hurgo
Grtius-en teoriara
Jimeno, Roldan, *Uztaro 51*, 25-43.

Nafarroako erlijio-erainiken jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat
Jimeno, Roldan, *Uztaro 71*, 71-85.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro 25*, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **30**, 61-84.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana, Jurgi; Alfaro, Iñaki, *Uztaro* **40**, 37-62.

'Izurac Bat' Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak Artikulu osoa
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **55**, 31-46.

Ba al zekien Sabiono Aranak euskaraz mintzatzen?
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **63**, 21-29.

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai oparoa eta eztabaidagarria
Kortadi Olano, Kepa, *Uztaro* **71**, 109-121.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* **33**, 21-41.

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios,
1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* **10**, 33-59.

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua
Lopez Abasolo, Patxi, *Uztaro* **46**, 11-39.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* **23**, 45-63.

Bigarren globalizazioa: amaieraren hasiera?
Manjon Lozoya, Roberto, *Uztaro* **74**, 21-41.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera
eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* **1**, 77-103.

1610. urtea. Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurri buruz
Paul Arzak, Juaninas, *Uztaro* **43**, 17-51.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* **8**, 35-52.

Ideologia eta gatazka Montevideoko euskal etxeen eraketetan
Sanz Goikoetxea, Eneko, *Uztaro* **69**, 25-49.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* **4**, 25-31.

Euskal Herrian gizartea eta eliza

Uriarte, Luzio, *Uztaro* **71**, 87-107.

Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–

Zabalo, Julen, *Uztaro* **26**, 27-46.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai

Zabala, Mikel, *Uztaro* **39**, 39-52.

Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia
aurrez aurre

Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **47**, 41-54.

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko hurbilketa

Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **53**, 9-29.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat

Zaldua, Iban, *Uztaro* **6**, 59-75.